

Contribution
for fund

1970

EUSKAL IDAZLEEN LORATEGIA



Mendiz hunaindiko idazleen lorategia doakizu ale hontan irakurle. Idazle horiek ongi ezagutuak izan ditezentzat baldin bada, zerbaiterako izango dela pentsatzen dugu. Ez dago zer esan beharrik ere, doazkizun idazleek, ez zute-la erabilli hemen azaltzen den idazteko grafia. Hontan aspaldidanik onartua dagoena erabilli da; gaur komeni zaigu errez-bide batetik joatea; gainera, gure literatura sailan, gramatika lanak egin nahi dituenak, iturburuetara joan besterik ez du. Norberaren euskalkian idatzi dutenen obrak ezagutzea, ezinbesteko urratsa da. Bide horitatik abia gaitzenezat, argitara ematen dugu gaur, Bizkaiko Karmelo Etxenagusia apez jaunak antolatu duen lorategi eder hau.

Euskal Biblioteka Labayru



1010736
LITERATURA / N. 10

KARMELO ETXENAGUSIA

EUSKAL
IDAZLEEN
LORATEGIA

itz lauz

DONOSTIA

1969

AURKIBIDEA

Irakurleari berbatxu bi	9
1) EUSKALERRIKO IPUIAK	13
Azkeneko mairûk (14) — Azeriaren egiak (15) — Katu beltza (16) — Lukiaren zoritxarra (16) — Ezkontza baten austeia (17) — Muskia-ko jentila (20) — Peru ta Marixe (21).	
2) EUSKALERRIKO ERREFRAU EDO ATSOTTITSAK (XVI-gn. gizaldikoak)	23
3) KRISTAU-DOTRIÑA LIBURU ZAARRAK	27
Beriain (AN) (28) — Kapanaga (B) (30) — Ochoa de Arin (G) (31).	
4) Pedro de AXULAR (L) (1556-1644)	32
Irakurtzaileari (33) — Alferkeria (35) — Hase- rrea (37) — Zenbat kalte egiten duen haragiaren bekatuak (37).	
5) Rafael de MIKOLETA (B) (1611-P)	40
Platika lelengoa (41).	
6) Manuel de LARRAMENDI (G) (1690-1766)	43
Gipuzkoako andiki ta jauntxoan aurka (45) — Euskaldun askok, euskalzaletasun gutxi (46) — MAYANS-en aurka, euskeraren alde (47) — San Agustini-en doanditza (49).	
7) Agustín de CARDABERAZ (G-B) (1703-1770)	51
Beste izkunderen aldean euskara (52) — Euskera- ren izkerak edo dialektoak (53) — Andre donos- tiarraren Erretorika (54) — Andre Elorriarraren Erretorika (55).	
8) Sebastián de MENDIBURU (AN) (1708-1782)	57
Zer gauza den debozioa (58) — Gizonaren griña txarrak (59).	
9) Juan Antonio UBILLOS (G) (1707-1789)	62
Azken juitzioa (63).	

BEAR DIRAN BAIMENAKIN

D. L. 109/69

IZARRA IRARKOLA - PEÑA Y GOÑI, 13 - DONOSTIA

10)	Bartolomé OLAETXEA (B) (1775)	65	23)	Gregorio de ARRUE (G) (1811-1890)	136
	Examina konzienziakoa (65) — Grazia (67).			Nor bere konzienzia begiratzea (136) — Presonde- gian Genoveva ama egiten da (138).	
11)	José Ignacio GERRIKO (G) (1740-1824)	69	24)	José Antonio de URIARTE (B-G) (1812-1869)	142
	Jaungoikoa zer dan (69).			Genesis, cap. III (143) — Ejenplua (145).	
12)	Juan Bautista AGUIRRE (C) (1724-1823)	73	25)	Bitoriano IRAOLA (G) (1841-1919)	148
	Aztiak eta sorginak (74) — Sifiskeriak (75) — Gizonak zer egin bear duan (76) — Adarbakoitzar- en ipuia (76) — Edanaren ondoren gaisto edo kalteak (78)			Gau erdiyan (149).	
13)	Joaquín LIZARRAGA (AN) (1745-1835)	81	26)	José Manuel ETXEITA (B) (1842-1915)	152
	Azken juizioa (82) — Parabola bat (83).			Gitanoak etxe aurrean (153).	
14)	Juan Antonio MOGEL (B-G) (1745-1804)	84	27)	Pedro Miguel URRUZUNO (C) (1844-1923)	158
	Baserritarrak, euskera onaren maisuak (86) — Ola- gizonak (86) — Andrakume euskaldunak (88) — Euskalerrian moda barriak (89) — Azeria ta txar- ria (90) — Euskerazko liburuak, zertarako? (91) — Euskera mordoilloa (92) — Cardaberaz eta Men- dibururen izkerak (93) — Zein ohea: Bizkaiko euskera ala gipuzena? (93).			Praillea ta Don Burno (159).	
15)	Pedro Antonio ANIBARRO (B) (1748-1830)	95	28)	Antero APAOLAZA (G) (1845-1908)	161
	Gorputz illaren ganean gogartea (96) — Kurutze santua (97) — Geroko Gero: Irakurleari (98) — Alperkeria (100).			Patziko Txerren (162).	
16)	Pedro J.P. ASTARLOA (1751-1821)	103	29)	Alfonso Maria ZABALA (G) (1847-1919)	167
	Senar-emazte asko zelan konfesetan direan (104) — Emaztearen pekatuak (105).			Ori ez dek irrintzia (168).	
17)	Juan Ignacio de IZTUETA (G) (1767-1845)	107	30)	BEOBIDE-ko Aita Fr. Krispin (G) (1848-1885)	170
	Zezen-joko arrigarri bat Amezketako plazan (109).			Predikatzen die txoriei (171) — Laztandutzen du legen-artsu bat (172).	
18)	Bartolomé SANTA TERESA (B) (1768-1835)	112	31)	Marcelino SOROA (G) (1848-1902)	174
	Aita Prai Bartolome ta euskerea (113) — Sermoia gurasoen eta umeen onerako (114) — Euskalerr- ko piesta ta dantzak (117).			Laugarren Jolasa (175) — Seigarren Jolasa (176) — Zazpigarren Jolasa (177).	
19)	Agustín P. ITURRIAGA (C) (1778-1851)	120	32)	Domingo AGUIRRE (B-G) (1864-1920)	179
	Abere-motik onenak nekazarietzat (121).			Iñazio Mari-rentzat andregaia aukeratzea (180) — Arrain-saltzailleak (185) — Kitolis (187) — Ma- lentsoren azken-agurra baserriari (190).	
20)	Bizenta A. MOGEL (G) (1782-1854)	123	33)	Resurrección María de AZKUE (B-G) (1864-1951) ...	192
	Zaldia ta astoa (124).			Euskaldunai euskeraz (194) — Txirrist nor dan — Txirrist Ondarroan (195) — Azkue euskalzale ta garbizale (199).	
21)	Juan José MOGEL (B) (1781-1849)	127	34)	Karmelo ETXEGARAI (G) (1865-1925)	201
	Tontakeria ta arrisku batzuen ganean (127) — Ent- terrutako jan-edan ugariak eta ordikeria (128) — Baserrietako ekandu batzuen arriskua (130).			Bertsolariak Euskalerrian (202).	
22)	Francisco Ign. de LARDIZABAL (G) (1806-1855) ...	131	35)	BUSTINTZA'tar Ebaista "KIRIKINO" (B) (1866-1929)	204
	Jerusalen-go gosetea (131) — Jose bere anaie- kin (133).			"Abarrak" zer diran eta zertarako (206) — Deun izateko bidean (206) — Atxuriko "millagra" (209) — Ziñaldari arteza (210).	
			36)	Enrique ZUBIRI "MANEZAUNDI" (BN) (1867-1943)	213
				"Kokotz" arraintzaria (213).	
			37)	Kandido BASABE (B) (1867-1929)	217
				Meza Santua (218) — Eriotza (219).	
			38)	OLABIDE'tar Erraimun (G) (1869-1942)	221
				Baitaren azterpena ta obetzeko asmoa (222) — Yob'en azterpen areagoa (223) — Yob'en aña- nak (224).	

39)	Pablo Fermín IRICARAY "LARREKO" (AN) (1869-1949)	226
	Nafarroako euskal esaerak (227) — Sendalari baten argiak (228).	
40)	EGUZKITZA'tar Jon B. (B) (1875-1939)	231
	Itxaropena (232) — Gizartekeria, baltsakeria ta abar (233).	
41)	ARRIANDIAGA'tar Imanol (B) (1876-1947)	236
	Aita Gurea (237) — Samaritar onaren parabola (237).	
42)	Gregorio MUXIKA (G) (1882-1931)	239
	Ortzak erakutsi (240).	
43)	Paulo ZAMARRIPA (B) (1877-1950)	243
	Iketzako abade zarra (244).	
44)	IRAZUSTA'tar Jon Andoni (G) (1884-1952)	247
	Bixenta Ameriketarik etxera (248) — Amezketako kotxe edo zalgurdia (249).	
45)	Nikolas ORMAETXEA "ORIXE" (G-AN) (1888-1959)	251
	Txori galdua (253) — Aramayotik ere igesi (258).	
46)	Bernardo María GARRO "OTXOLUA" (B) (1891-1960)	262
	Bakalduna ta emakumak (263).	
47)	Gabriel JAUREGUI (B) (1895-1945)	267
	Pisia euskaldunen artean (268) — Oiartzuna, Erantzuna (268).	
48)	José María AGUIRRE "LIZARDI" (G) (1896-1933) ...	270
	Donapaleu'ra yoan-etorria (272).	
49)	Iñazio Maria MANZISIDOR (G) (1907-1961)	278
	Jaunarengana (278).	
50)	IBIÑAGABEITIA'tar Andima (G) (1907-1967)	282
	Zaldia (283) — Itzulketa-lanak (283).	
51)	Salbatore MITXELENA (G) (1919-1965)	285
	Euskalerritik Ameriketara (287) — Euskerari iltzen itxi? Arrazoiz jokatu ontan (287) — Nola agertu zan Arantzazuko Ama Birjiña (289).	
	IZTEGITXOA	292
	AUTORE BAKOTXA NUN?	298

OARRA.—Aurkibide onetan, idazle bakotzak sigla bat daroa, zein euskalki edo dialektokoa dan agertzeko. Ona emen sigla oneek zelan direan: AN = Alto Navarro; B = Bizkaieraz; G = Gipuzkeraz; L = Lapurdiko euskeraz; BN = Baxe Nafarrokoa; B-G = Bizkaieraz eta Gipuzkeraz...

IRAKURLEARI BERBATXU BI

Euskalzale asko ta asko illeta-joten be zaleak izan dira ta gaur be ba dira... Ez dot nik emen ukatuko, orretarako errazoerik ez dagoanik. Ez orixe! Baiña, zorionez, azken urteotan ezta giro txarra sortu gure izkuntza zaar onen inguruan: ikastolak, aldizkariak, irratia, seminarioak, abeslariak, antzerkiak, Alfabetizatze Kanpaiñak... itxaropenaren argi gozoa biztu deuskue gure biotzetan, eta, bide batez, au be bai: gure kulturearen premiñarik larrienak agiri-agirian jarri, euron artean, batasuna ta liburu egokiak...

Batasuna ta liburuak! Ba dago bion artean zerikusirik: alde batetik, bear-bearrezkoa dogu literatura-batasuna, gure liburuak zabalduko badira; bestetik, liburuetan dogu orain arteko batasunik aundiena: geroko batasuna, ez ete dogu leengo idazleetan? Edo, beñipein, batasunerako biderik egokiena ez ete dogu auxe: geure dialektua ondo ikasi, ta besteena be, gitxienez, ondo ulertu? Antolojia onek, nire ustez, bide orretan zerbait lagunduko deusulakoan nago...

Leendik be ba dozuz onen antzeko Antolojia batzuk: P. Lafitte'ren «Eskualdunen Loretegia», Lehen Zathia (1645-1800); L. Villasante'ren biok: «Idazleen Pusketa autatuak» eta «Eusker» liburuari ezarri eutsan Antologia ederra; S. Onaindia'ren «Milla Euskal Olerki Eder»

(idazle onen «Jolasketa» bera be, Antolojia antzekoa da...), eta *Aingeru Irigarai* jaunaren «Esbozo crítico con textos de Literatura Euscará profana»... Nire barri onek ez deutse aurreko orrei ezer kentzen, eta eurokaz batera izango al da laguntasun barri bat gure euskal biotzak asetuteko!

Bilduma bat dozu liburu au: batetik, neure lantxu bi batu ditudalako emen (urteokaz neure ikasleentzat polikopiaz egindako Antolojia bi, «Euskal Idazleen Lora-tegia» izenarekin: bata, bizkaierazko prosistena; bestea, gipuzkerazkoena); bestetik, gure prosistarik onenen zatiekin osotutakoa dalako. Danetarikoak dozuz idazleok: zaarrak eta oraintsuagokoak, jokera batekoak eta beste-koak, edo-ta bien bitartekoak... Egia esan, ba dago, bai, nun aukeratu! Ta or gabiz; gero, gu zer ori zabaltzen: euskeraz ez dala ezer idatzi! Bear bada, ezin geintek ez asko arrotu inguruko errien aurrean; baiña egundo iñungo eskoletan irakatsi ez deuskuen izkuntza zaar onek orrenbeste idazle sortzea, ez ete da arrigarria? Ni neu baiezekoan nago... Neure gogoz, pozik be pozik sartuko nituzan emen — merezidu be ba dabe ta — beste euskal prosista asko; baiña liburuak bere neurria bear, eta guztientzat lekurik ez!

Utsune asko dituz bilduma onek: bertsoak, olerkiak eta teatro-lanak alde batera itxi ditut, eta, olan, gure idazle aundi askoren barririk ez dozu emen aurkituko: bertsoentzat, or dozu Aita Antonio Zavala'ren «Auspoa Liburutegia», eta olerkientzat A. Onaindia'ren «Milla Euskal Olerki Eder»... Beste utsunea ez da txikiagoa: Bidasoaz andiko idazlerik ez dot emen sartu, «Axular» aundia izan ezik (au be, naparra zalako...) Zergaitik ori? Antolojia au ikasle barrientzat da, batez be, ez ikasientzat; eta, au olan dala, geure inguru onetako dialektuak baiño ez ditut sartu. Baiña niretzat utsunerik penaga-

rriena beste au dozu: gaur bizi diran idazleak emen sartu eziña, eurok sartu ezkeru liburu au astunegia ta luzeegia zala-ta... Urrengo baten beteko al ditut oraingo utsu-neok!

Zelango asmoz nabillen? Ara: gure gazteak, burua landu nai badabe, erbesteetako literatura ez eze, geuregeurea dogun euskerazkoa be sakon ezagutu bear leu-kee; ta ezagutu bere, ez gero edozelan, ur-urretik baiño: au da, idazlerik onenen lanak irakurri ta aztertuaz... Baiña, zer jazoten da geienetan, zoritxarrez? Edo liburu ego-kirik ez (asko ta asko, agortuta dagoz, eta beste asko, laguntasun barik beintzat, illun eta latz egiten jakuz irakurtzeko); edo, salgai egon arren, ikasle askok dirurik ez erosteko, ta, sarritan, asti aundirik be ez oso-osorik irakurtzeko. Orretarakoxe egin dot Antolojia au: gauzak errezago jarriaz (or dozuz *Iztegitxoak*: bata, idazle bakotxaren ondoren; bestea, luzeagoa, liburu onen azkenean), gure euskal elertiaren zati aundi bat obeto ezagutu daizun. *Sarreratuak* erakutsiko deusue, labur bada be, idazle bakotxa nor ta nungoa zan, eta zer egin dauan euskal-arloan: orko zertzeladarik geienak, liburuo-tatik jaso ditut: L. Mitxelena'ren eta L. Villasante'ren «Historia de la Literatura Vasca» liburuetatik; N. de Cortázar'en «Cien Autores Vascos»-etik... eta, gaur egu-neko idazle askorenak, Juan San Martín'ek eskeiñitako fitxetatik.

Ortografia gaurkotu egin dot eta batu, fonetismuak alde batera itxirik: batek baiño geiagok eskatu eustan onetaraxe egiteko, bestela anarkia ori kaltegarria dala-ta ikasle barrientzat; ez ditut kezka gitxi izan ori egiteko, baiña, aditzean izan ezik, besteetan batasunera jo dot ortografian; ortik kanpora, ez dot ezer aldatu, ta, bein baiño geiagotan, fonetismuak eurak be ontzat emon ditut (ta ori olan danean, «ezer aldatu barik» jarri dot

zati baktxaren ondoren), gaiak berak olantxe eskatzen dauanean...

Onango Antolojia bat egiteko gizon baten indarrak ez eze, talde aundi batenak bear lirake. Ni neuk garbi ikusten dot au. Zorionez, izan ditut laguntzaille onak eta eta ezin ditut emen ixildu lagunon izenak: Juxto Mari Mokoroa, Lino Akesolo, Aingeru Irigarai (Nafarroako idazleena beroni zor deusat), Anai Berriotxo eta, batez be, Juan San Martin: guztioi neure «eskerrik askorik» biotzekoena!

EUSKALERRIKO IPUIÑAK

Gure literatura idatzia edo landua berandukoa ta urria da; erri-literatura, ostera, ugaria ta aberatsa (cfr. L. Michelena, HLV, 11)... Antolojia onetan alde batera izten doguz erri-literatura onen alderdi batzuk: bertsolaritza, kanta zahar-rak, teatroa..., ta ipuin batzuk baiño ez doguz emongo: izan be, «erri-ipuiñak dira literaturaren aurrenengo kimuak, noski. Erri-ipuiñak izan diralako kulturadun izkuntzen literatura-oiñarri. Sarri ipuiñak aski dira erri baten sikolojiaren bereizkuntza egiteko. Beren aberastasunetik neurtu ditzake erri-gogoa. Arrigarria da, benetan, gure erriak aozko literatura orren aberatsa izanik, idazkiz txiroa izan bearra. Era guztietako ipuiñen jabe gara, ta bertan ditugu lenengo sinismen, kondaira ta oituren etorkizunak...» (Juan San Martin). Azkue bera be eretri bardiñekoa zan: «Ba dira,

geiegi ezarren, edozein erriren ipuin ta irakurgaien ondoan, aintzat artuak izateko eran, agertze-koak ere...» (R. M. de Azkue, «Euskalerrriaren Yakintza», II, 8).

Ez dira gitxi izan gure artean ipuiñok batu ta bildumetan argitaratu dituenak: or doguz Azkue, Joxe Migel Barandiaran, Barbier, Mogeldarrak, Bustintzatarrak («Kirikiñon» ta «Mañarikon»), F. Bilbao, N. Alzola «Bitañon», Julene Azpeitia, «Jautarkol», N. Etxaniz, Ugalde, «Abeletxe» ta beste asko ta asko, itzulpenak alde batera itxita be...

Antologia onetan era askotako ipuiñak sartuko ditut, eta ainbat modutara batutakoak: batzuk, zeatz-zeatz, erriak berak esandako modu-moduan (orrelakoxeak dozuz Barandiaran'enak); beste batzuk, zerbait txukundu ta zuzenduta, Azkue batek egin eban lez...

AZKENEKO MAIRUK:

«Mairuk zolûtan bizitzen emen-tzîn. Ordûn lañoik etzen ikusko noski, ta bein batîn laño poli-pat agertu men-tzen zerûn ta denak arrittuta geldittu mentzîn... Attona zar-tzar bat bai-mên-tzuten, aspalditan itsu zôna, ta laiñûk zer esan nai zun artxek jakingo zula-ta, zoloko txoko batîn zôn tokitik artu ta atarira argitâ atea men-tzuten. Itsua nola baitzen, basora jon ta pago-urkullûkin beiyak ereki mentzizkaten.

Attona xarrak laiñua kusi-ta, «gaztiak —esan emen-tzun— gaztiak, gure denbora jon duk: Jesus mundura jayo duk eta gu galdûk gattuk...» Ori san-ta denak kuzkur-kuzkur zolûn sartu ta, akabô, ez men-tzîn geyo sekulan atea. Orretik esaten ziun askotan attonak zerbaiten trabatu-ta eroitzen giñanîn: «¡Mairuai bezela pago-urkulluakin beiyak zâldu berko te-izkitzuteu?». (1920-garrenean Oiartzungo Juan Mari Portu'k Lekuona jaunari esandakoa: J. M. de Barandiarán, «El Mundo en la Mente Popular Vasca», Col. Auñamendi, n. 12, 46-47).

AZERIAREN EGIAK:

«Azerije gosetu zanien, urten eban lezatic, da jaten topetako, errijoa pasau biâr eban. Ez euken dirurik pasajerueri pasajen pagetako... Pasajerueri esa'eutzen iru egi esango eutzezala pasajen pasetiarren.

Lenengo mogidu zaniän, esa'eutzan pasajerueri lenengo egije: «Pasajerue, entzusu lenengo egije: Idetargije argije da, baia egune baizen argi ez.» Pasajeruek esa'eutzen: «Ondo dau».

Eldu ziren errijuen erdirä. Orduän esa'eutzen bigarren egije: «Inoen ama ona da, baia noberelangorik ez.» — «Ondo dau», esa'eutzen bestiäk.

Eldu ziren bazterrera. Orduän esa'eutzen irugarren egije:

«Pasajerue, pasajerue, /
prakatxu zarrak deukosuz,
ni lako asko pasetan bosuz /
ostera bere eukosuz.»

—«Ondo dau», erantzu'eutzen pasajeruek. (J. M. de Barandiarán, «El mundo en la mente popular vasca», II, 132-133: 1923-garrenean Kortezubiko Matias Aranaz'ek esandakoa).

KATU BELTXA:

Beñi ba zen gizon bat baserri batean. Gabero utzitzen zuen esnia oztutzera leyon basterrean. Zenbeit gauz sumatu zuen esnia gutxitzen zitzaiola.

Zelatan gelditu zen. Utzi zuben esnia leyoan ta bera barreneko aldetikan gelditu.

Ala pixka bat egon ondoan agertu zen katu beltz bat; salto batez leyoa igan eta asi zen esnia edaten trankilki.

Gizonak koleraturik idiki zuen leyoa eta katua eskapo zoayelarikan, makil kolpe bat yo zion aitzineko anka bation. Katuak miñ artzian, persona batena bezalako izkiritua egiñ ta eskapatu zen.

Biaramonian ondoko baserri bateko atso bat agertu zen beso bat lotuta. Berak zion eskillerak beiti erori zela, baiñon gizonak yakin zuen ongi, zein zen esnia ebasten zion katua. («EUSKALERRIKO IPUINAK», A. Irigaraik aukeratu, argitu ta egokituak, Itxaropena Argit., 1957, 70-71).

LUKIAREN ZORITXARRA:

Bein baten seguru, lukie, goiti bera zerutik etozan edur matasari begira ei egoan. Saie jatzi ei iakon ondora ta esan ei eutzen:

—Zer eiten dok, Lukito?

—Emen ñagok, goiti bera datozen zer oneik zer ete doasen begira.

—Eztakik zer doasen? Oillo lumek, gizona! Geur zeruen itzelezko bodea iagok; onek danok oillo lumek dozak.

—Neu be antxe zeruen bañegok gura neukek, oilloak asko gustetan iatazak eta.

—Bada, ori baiño ezpadok, neuk eroango aut beingo baten. Para adi neure bustenetik dindiliske.

Eta lukiek agoagaz bustenetik oratu ei eutzen, eta saie luki ta guzti egaz asi ei zan. Laiñoak baiño bere gorago igon euanean, saiek lukieri esan ei eutzen:

—«Ondo ator, Lukito?»— Baiña lukie ixillik, seguru.

—«Ondo atorren diñoat»—, esan ei eutzen barriro saiek. Baiña lukie ixillik oster a be.

—Erantzuik gure badok; ezpabere botako aut.

—Bai—, erantzun ei eutzen lukiek.

Baiña «bai» esateko agoa zabaldu eban, eta goiti bera deabrue baiño ariñago asi ei zan. Bidean etorrela, bere parean egozan arrieri zarata egiten ei eutzien: «aparta, peñas! derribus! aparta!».

Arrieri paretik kentzeko esaten eutzen, ezpabere austu egingo eutsela ta.

Baiña arriek parean itxon ei eutzen, eta lukie tortille egin ei zen. («EUSKALERRIKO IPUINAK», Itxaropena Argit., 113-114).

EZKONTZA BATEN AUSTEA:

Bi Oroz-Betelutar, zenbait urtetan ezkonduik zaude-nak, elkarrekin ezin biziz, artsalde apal batez, ilun nabarrean, beren apez jaunarengana fan zire, gau erranez:

—Jauna, zuk elizaz ezkondu gindituzun bezala, gure ezkontza laxatu ta autsi daukezula xakin dugu. Gau egia balin bada, elkarrengadik lekutu ta berez bizi nai ginduke.

—Ez al duzie bakerik elkarren artean?

—Bakea? Infernuan bezalatsukoa dugu.

Apezak irria ezpainetan zuela: «Bai, ene maiteak — erran zakote —; orain infernua bezala bizitzeko ta zauren samurtasun ta asarrekin infernua geroko irabazteko, obe duzue ezkontza len baino len autsi. Etorri zitezte biar mezara, ezkontza-goizean bezala, ta eliza-atarian egon. Nik bear direnak einen ditut.»

Biramun-goizean, meza-ekzilak xo zuenean, ezkondu gaiek beren alde-aixkidekin eliza-atarira bildu zire. Apeza, tresna ederrak xantzirik, eliz-mutila gurutzarekin altzinean zuela, agertu zen: baita, bi ezkonduak bere ondoan belaukarazirik, asi ere egin zen marmarozka liburutik latinez leitzen zuelakoan, ta berealaxe gizonari buruan eman zako isipuaz kaska... geroxeago emazteari bertze bat. Kaskak azkar ta usutzen asi zirenean, nigarez senar-emazteak galde egin zute:

—Gure ezkontzaren laxatzeko otoitz goiek anitz irauen al dute?

—Nik au baizik eztaikit bertzerik: bietatik bat il artio ezkontzak irauen duela.

—Goazen, bada, etxera ta ezkondu ginenean itz eman bezala, bakean ta luzaro bizi giten — erran zako emazteari senarrak.

—Gori einez kenduko duzue orai ta geroko infernua.

Au erran ta apeza eleizara mezaren erratera sartu zen. (R. M. de AZKUE, «Euskalerraren Yakintza», II, 401-3: Aezkoako Iriberrin, Maximino Iziz'eri artutakoa). AMEN

Iluntzea zala, aker bat elizan sartu zan. Sakristau mutilak, atear itxi-orduko, beti bezala, batean euskeraz bestean erderaz ots egin zuen:

—¿Ñor badago? ¿Ya hay alguno?

Akerrak etzion ezer erantzun eta grisk-grask atear

itxita etxera joan zan mutil ori. Gaututa gero, bigiraren batetik zetozen-emakume batzuk ots andiak, elizatik zetozen-otsak, entzun zituen ta atera urbilduz, adi adi zeuden barnekoa nor ote zen jakin nairik: ala lapurren bat, ala Purgatorioko norbait... ala zena zelakoa.

Barneko akerrak atear adarka zabaltzeko, ba zerabilen dranbaladarik! Bigirazoleak izu gorritan lasterka ta asnaska apaiztegitra joan ziran! Eta apaizari:

—Don José Migel, don José Migel: esan zioten. Inperuko etsaia dabil elizan. Betor konjuruak egitera, betor len bai len.

Apaizak, bi emakumeak lagun zituela, sakristauarenean ots egin zuen eta betik gora ta goitik bera, ataritik apaizak eta leiotik sakristauak, izka-mizka luzea izan zuten. Sakristauak bein ta bi ta iru aldiz esan zion, berak etzuela bein ere konjurtzen ikasi eta berak egitekoea bi emakume aiek ere egin zezaketela.

—Bainan adi zak, mutil. Ik eztek beste egin bearrik izango, urrutitxo agoela, nik esango dedanari «AMEN» erantzun: besterik ez. Ator, Luziano.

—Jauna: neri etsaiak ezta ezertariko bildurrik. Bi emakume oiek berriz, beti otoitzean ari dira-ta, jesus ta bat ala ere!

—Arren, atoz! — esan zion emakume bat orrek.

—Tori, Joxepa, giltzea ta or konpon.

Apaizak, zemairen bat eginez edo ezta kigu nola, zuritu zuen beintzat sakristaua ta an zihoan beste iruren atzetxotik... Bitartean akerra ate-ondoan isil isilik zegoen, andik irten nai zuela. Laurak elizarira elduta, bi emakumeak otoitzean eta sakristaua atze-atzeka ari zirala, apaizak, «Aitaren, Semearen...» eginda, nekez bazan ere, sarraila-suloan giltzea sartuta, grisk-grask egin zueneko,

akerrak bere adarretan artuz, aidean zeraman parroku gaixoa.

Sakristaua antxintxika, emakumeak garrasiz zijoazten, apaizak itz auek entzunarazi zituen artean:

—Luziano, el akit: inpernuko etsaiak nazeramak.

—Amen — erantzunez, bere etxera igesi joan zan Sakristaua.

(María Marca, de Ernani — R. M. DE AZKUE, «EUSKALERRIAREN YAKINTZA», II, 43-44).

MUSKIA-ko JENTILLA:

Muskia-ko koban bizi zan jentil batek, kristau bat arrapatu omen zuan bein... Eta kobatik alde-egin atzean, arrigarrizko eraztun bat sartu omen zion eskuko beatz batean «emen nago, emen nago» deadarka beti egoten zana.

Beingo batean kristau ori izkutu omen zan, jentillak pillatuta zeuzkan ardi-narru-arte... Eraztunaren otsa urruti-xamar iruditzen nünbait jentillari, eta kanpotik ote zan berean jarri omen zan. Zabaldu atea ta irten da kobatik.

Baita kristauak orduan, astindu gaiñeko narru pilla, ta sekulako lasterrari emanta, jesu batean alde-egin omen zuan andik.

Aditzen du jentillak eraztunaren otsa, eta ba dijoa lasterka gaindik beera, bere atzetik. Kristauak berela bere buruari etsi omen zion orduan. Baiño alako batean bururatzen zaio arri batekin moztu beatza, eta bere eraztunakin Mikolaldeko ibaira bota bear duala. Ta baita egin ere gizonak.

Gero jentilla atzetik Mikolalderaiño iritxi zanean, osi-

ñeko eraztun-otsa aditu ta batera, kristaua «an zegola-koan», jauzi ta an itota geratu omen zan.

(«EUSKALERRIKO IPUÏÑAK», Kulixka Sorta, nn. 17-18, 17-18: liburu eder ontako ipuiñok — itzulpen, iztegi ta guzti — A. Irigarai mediku ta euskaltzain jaunak batu ta atondu ditu; Barandiaran'en Eusko-folklore liburuxketatik eta Azkue'renetik artutakoak dira geienak...).

PERU TA MARIXE:

Peru, Marixe ta kriaau bizi zirian alkarregaz, baiña Marixe noznai egoten zan gaixorik. Sarritan eukiten eban min; batian, lepoko miña; bestian, alboko miña, ta bestian ankako edo nungo edo angoa sarri. Baiña joaten zan Peru Londresera sillun-bedarrak ekarten, ze Marixeri arek mesede andia egiten eutsen... Ta egun batian esan eutsan kriaauak Peruri ze:

—Ai, Peru; zu andik zarian arte, eztakizu asko emen zelako erromeriak egiten dirian. Marixek janketa andiak emoten ditu emen, auzoko lagun guztiak ekarrita. Arek erabilten ditue pozak eta kantak!

—Zer diñostazu, kriaau?

—Bai, bai, bai; egia da gero ori!

—Onako, onako konturik! Ba, egun baten egingo deutasat Marixeri agur, ta, joan baniz lez, alde biar dot bistatik. Baiña or egongo naz atostetxuan, ia amen zer jazoten dan.

Da esan da izan. Egin eutsan Marixeri agur, ta an geratu zan. Da Marixek beti lantxerik ekarri zitun auzokuok, ta baita janketok eta erromeriok be ba zirian an. Zer zan ango ijuixa ta zaratia! Bai, ondo zaparradak ataraten zituen:

«Peru guria Londresen, /
sillun-bedarrak ekarten;
Peru guria andik dan artian /
guztiak olgau gaitazan.»

Ta orixe kantiori amaituta batera, urten eban Peruk.
Ta baita berak be kantau:

«Neure kriaue txorixe /
zeuk esan zeunstan egixe:
arratsian ikusiko nebala /
dantzan neure emazte Marixe.
Ai, oi, ai, egixe /
Zeuretzat kortan dauen zaldi zurixe...»

(Teri Ibarrolari zuzen-zuzenean artuta, ta «Aránzazu»
aldizkarian argitaratua. Gero, ipuiñok «Columbia» etxeak
diskoetan agertu ditu. «Peru ta Marixen» ipuiñok dira
Bizkaian ospetsuenak...).

IZTEGITXOA.—AZKENEKO MAIRUK: *mairu*: moro — *emen-
tzin*: omen (ei) ziran — *zóna*: zegona — *zón*: zegon — *argitá*:
argitara — *beiyak*: begiak — *kusi*: ikusi. AZERIAREN EGIAK:
bozuz: badozuz (badituzu) — *eukozuz*: eukiko dituzu. KATU
BELTXA: *leyon*: leioan — *izkiritu*: txillio. LUKIAREN ZORI-
TXARRA: *luki*: azeri — *itxon*: *itxoín*, *itxaron*. EZKONTZA BA-
TEN AUSTEA: *jan*: joan — *gan*: an — *lekutu*: separarse —
berez: aparte — *einen*: egingo — *usutu*: hacerse más frecuen-
te — *goiek*: oiek, orreek. AMEN: *bigira*: tertulia — *izka-mizka*:
discusión — *sarrailla*: cerraia — *antxintxika*: arifeketan, gala-
pan — *el akit*: eldu adi nigana. PERU TA MARIXE: *lantxerik*:
bezela.

EUSKAL ERREFRAU EDO ATSOTITZAK

(XVI-garren gizaldikoak)

Gure izkuntza, ain zaarra izan arren, ez da liburuen «plazara» sar-
tu berandu arte: ain zuzen be, 1545-
garren urtean argitaratu zan lee-
nengo euskal liburua, bikaiña be-
netan: *Etxepare*'ren «Linguae Vas-
conum Primitiae». Orren aurretik,
gauza gitxi dogu euskeraz idatzita:
aipagarrienak, *erri-kanta batzuk*
(Irakurri L. Michelena-ren «Textos
Arcaicos Vascos», Ed. Minotauro,
Madrid, 1964)... Ganera, Bidasoaz
emendikaldekoak gure anaiak bai-
ño eun bat urte beranduago ibili
gara: olan, XVI-XVII-garren gizal-
dietan, ainbat euskal idazle andi
agertzen dira an: *Etxepare*, *Leiza-
rraga*, *Axular*, *Gazteluzar*, *Pou-
vreau*, *Oihenart*, *Tartas*... Emen,
ostera, *gizaldi orreetan*, ez dogu
besterik, *Errefrau-bilduma ta Do-
triña-liburutxu batzuk baiño*...

Atsotitz-bilduma bi *daukaguz*, *ordukoak*: 1) «Refranes y Sentencias comunes en Bascuence, declaradas en Romance...»: *Iruñean ikusi eben argia, 1596-garren urtean* (orregaitik, beste izen au be emoten jake: «1596-garreneko Atsotitzak»); gero, *Julio de Urquijo jaunak bere R. I. E. V. — en argitaratu zituzan barrero, ainbat oar ja-kingarrirekin; ta oraintsu agertu dira irugarrenez: «Julio de Urquijo: Refranero Vasco — Los Refranes y Sentencias de 1596» (Col. Auñamendi, Donostia, 1964)...* 2) «Los Refranes de Garibay», *Donostia, 1919: urte onetan argitaratu zituan J. de Urquijok, liburu baten, Garibay-ren atsotiz-bilduma biak (Garibay Mondragoeko semea zan, XVI-garren gizaldikoa: ainbat lan egin eban erderaz, historia saillean).*

Errefrau guztiok Bizkaiko euskeraz egiñak dagoz, naiz eta batzuetan Gipuzkera-usaiña eroan; asko ta asko, inguruko izkuntzetatik euskeratuak izan dirala dirudi... Euron balioa: «...más interés lingüístico que literario» (L. Michelen): euskera zaarra ezagutzeko oso egokiak dira...

(1956-Gneko. Bildumatik):

- (2): «Aberats izaitea baiño ospe ona obeago».
- (4): «Abenduko laiñoa, euria edo egoa».
- (9): «Atzerrian lurra garratz, oiña ibini egik barratz.»
- (15): «Balizko oleak, burdiarik ez.»
- (22): «Zaarrago, ikaskurago.»
- (27): «Azeriak buztana jaso ezin, ta bai gabia; andi danarren indarra, nagusi jakiteria.»
- (38): «Zelatan dagoana, bere gatxen entzula.»
- (43): «Maiatz iluna ta bagil argia, urte guztiko ogia.»
- (45): «Laarrik ez onik.»
- (48): «Farata asko kalean audiaka ebiltan dira, ta ogiari leioe jira.»
- (81): «Inurria-gino lagun-gura.»
- (133): «Atean uso, etxean otso: ala bizikidea gaiso.»
- (137): «Adiskide bako bizitzea, auzo bako eriotzea.»
- (142): «Oñak oz eleizarakoz, bero ezkontzarakoz.»

(Garibay-ren Errefrauetatik):

- (2): «Jagi zidin nagia, erra zizan uria.»
- (3): «Goiz saltsa-otsa, berandu bazkaria.»
- (6): «Jaun Santi Laurenti, esku batean euri, besteetan ilinti.»
- (7): «Ginda, gozo dala, min da.»
- (24): «Usteak, alde erdia ustel.»
- (25): «Milla urte igaro eta ura bere bidean.»
- (32): «Bilbao, an bere dongeak birao.»
- (35): «Ez eukia, gorde uts.»
- (37): «Mendiak mendia bear ez, baia gizonak gizona bai.»
- (39): «Onak on direala, obiak obe.»
- (53): «Aginean min dabenak, miia ara.»
- (63): «Bearrak bearra eragiten du.»

(R. M. de Azkuek be atsotitzen arlo au ondo jorratu eban, eta or itxi deuskuz bere frutu eder ugariak «Euskalerraren Yakintza»-n (Irugarren Liburuan), Espasa Calpe, S. A., Madrid.). OIHENARTEk be sartu zituan emengo atsotitz batzuk — 38 —: ona emen eurotariko batzuk:

- «Oial ona hutxan saldu doa.» (541)
- «Urrinerik ospea, errikoa ohea.» (542)
- «Ekandu gaxtoari bernea ausi.» (547)
- «Emazte doillorren jaubea, jopu.» (551)
- «Maiatz otzak dakaz pozak.» (552)
- «Bere burua ezautea da jakitea.» (554) (L. Michelena, «Textos Arcaicos Vascos», Ed. Minotauro, Madrid, 1964, 174-175).

IZTEGITXOA.—*Ego*: solano, viento sur — *ibini*: ipini — *baratz*: espaciosamente — *burdía*: burdin, burni — *gabi*: mazo — *jakiteria*: jakituria — *Bagil*: junio — *laar*: gelegi — *farata*: vanaglorioso — *jira letoe*: harían regocijo — *zidin*: zan — *zizan*: zuan, eban — *ilinti*: tizón — *berna*: pierna — *jopu*: siervo.

KRISTAU - DOTRIÑA LIBURU ZAARRAK

Gure Euskalerra osoa noiz kristiñautu ete zan? Ez dago ain argi, baiña, dirudianez, berandu izan zan... Dana dala, euskerea, eleiz-liburuetan beintzat, oso berandurarte ez da agertzen: «...el vascuence (tuvo) que soportar en la catequesis la competencia del latín y del romance, por extraño que esto parezca, hasta bien entrada la Contrarreforma.» (L. Michelena). Trentoko Kontzilioaren ondoren, ostera, eleiz-Artzain batzuk arduratu ziran erriari erriko izkuntzan kristau-dotriña irakasten, eta gerora ainbat eleiz-liburutxo agiri da euskeraz.

Lorategi onetan olango iru baiño ez ditugu aitaturko, bakotxa probintzia batekoa.

1. Euskerazko leenengo Katezismua Santxo de Elso-rena ei da (Iruña, 1561), baiña, zoritzarrez, gaur ez dogu ezagutzen; urrengoa

be naparra dogu: Juan de BERRIAIN, *Uterga-ko Abadearen «Doctrina christiana» (Iruña 1626): gaztelaniaz eta euskeraz. Autore onek beste liburutxu bat be itxi deusku: «Tratado de cómo se ha de oír Misa, escrito en romance y bascuence, lenguajes de este Obispado de Pamplona» (Iruña, 1621): Beriain-en euskerea, Nafarroa Garai-koa da...*

2. Martin Ochoa de CAPANAGA, *Mañariko parrokuak, euskeraz eta gaztelaniaz liburu jakin-garri au argitaratu eban: «Exposición breve de la doctrina cristiana...» (Bilbao, 1956; gero, Dogson-ek barriro argitaratu eban: Vizeu, 1893). Azkuek eta Eguzkitzak sakon aztertu eben Kapamagaren euskera zaarra.*

3. José de OCHOA DE ARIN: «Doctrina Christianaren Explicación, Villa Franca Guipuzcoaco onetan euskaraz itz eguiten dan moduan» (Donostia, 1713).

BERRIAIN:

A) «Gauza ziertoa da eze gauza bat eginen badu persona batek, ongi bear duela jakin zer gauza den, eta nola bear duen egin, berzela eztuela eginen, edo eginen duela gaizki; ala, bada, Meza ongi enzuteko, zeñetan baitirade misterioak ain andiak, bear du jakin zer den, eta nola bear duen enzun, berzela eztu enzunen ongi...» («Tratado de cómo se ha de oír Misa...», Iruña, 1621:

J. Vinson, «Essai d'un Bibliographie de la Langue Basque, Paris, 1851, 540).

B) (KRISTO, GURE PEKATUEN ZORRA PAGATZEKO IL ZAN): «...Alaz eta Kristo gure launa ill izandu zenean guri geure bekatuak barkatzeagaitik, eta aiengatik zor ginduen zorra pagatzeagaitik, eta gu guziok iffertutik libratzeagaitik, nondik dator kondentzen baitirade anbat gende? Egia da eze laun onek bere trabajuez eta heriotzeaz pagatu duela guzien bekatuengatik; baia nai du bapedra (bat bedera) aprobetxa dezin (?) aren heriotze sanduaz, bere partetik egiten duela penitentzia bere bekatuez, eta onetako ordenaturik dauzkien sakramentuak errezibi ditzan; argatik, baldin baliotuko bazaigu aren Passio sandua, bear dugu geuren partetik aprobetxatu arzaz, egiten dugula penitentzia eta obra onak, eta gaiztoetatik apartatu.

—Nai nuke orai erran duzun ori nola den zindidan aditzera zeinbat semejanaz.

—Plazer baitut. Egin dezagun kontu gizon batek bere izerdiaz eta trabajuaz erabazi duela diru asko, dena ziu-dade batean diraden zorrak pagatzeko; eta diru hau guzi hau ezartzen duela merkatari baten etxean, eman dakioten aren eskutik dramatenei zedula eta klaredadea zer zor duten: gizon onek, dudarik batere bage, bere partetik den bezanbatez eman du zor duten guzien pagatzeko; guzi arekin ere zor duten hoetatik batek, edo bidak, edo geiagok, ezpalute joan nai, baterek soberbiaz, bertzek arloteriaz, edo bertze kausaz, arengana zedularen eske, ez naiez bere zorduena deskubritu; orlakoek bere faltaz ez lituzkete bere zorrak pagatuko. Ala bada, Kristo gure launak bere passio passatu zuenaz eta heriotzeaz pagatu zuen guk geuren bekatuengatik zor ginduen guzia, kumplitukiro, eta geiago bai nai du laun onek guk geuren partetik dugun damu bekatu eginez, eta aurrera bekatue-

tatik aparta gaitzen, eta errezibi ditzagun sakramentu sanduak ongi eta bidero konbeni den bezaala, egiten dugula geure bekatuez penitentzia, eta aietatik apartaturik obra onetan enplega gaitzen, eta nola gauza hoek ezpaituzte aunitzek egiten, argatik aunitz dirade kondenatzen diradenak bere faltaz...» («DOCTRINA CHRISTIANA»-tik).

KAPANAGA:

A) «PATERNOSTERRA»: «Pater Noster, Aita gurea zeruetan zagozana, santifikadu dila (sic) zure izena, be-tor gugana zure erreñua, egin bidi zure borondatea, ze-lan zeruan, alan lurrean; geure ogi egunean eguneangoa, egun iguzu; parkatu egiguzuz geure zorrak, zelan geuk parkaetan (sic) deustegun (sic) geure zordunai. Etxi (sic) ez egiguzu iantzen (sic) tentaziñoan, baea (sic) ga-gizuz, Iauna, gatzxerean (sic) libradu. Amen Jesus.» (Dog-son-en ediziñotik, Vizeu, 1893, 4-5).

B) («ERIOZAKO ORDURAKO»): «Errazoaren ba-tzuk esateko gexoari eriozako orduan dagoanean:

Iesu Kristo gure Iaunak ez solament (sic) etxi euskun exenplua eta modu bizi izaiteko, baea onezaz ostean, ze-lan ilgo ginean, eta geure erioztea igaroko genduan, eta alan bear bada eriozako orduan dagoanak begiratu da-giala, zelan Kristok erioztea artu egian (sic), alan iarrai-tu bekio bide oneri, eta ioango da seguru.

Leelengo Iesu Kristo gure Iaunak oraziño egin utsan Aita Eternoari, esaten utsala: «Klarifikadu nagizu, Aita, ordu onetan»; alan, kristiñauak esan begio Aita Eternoa-ri: «Aita Eternoa, argia indazu ordu onetan.» (...)

Finean burua eresi (sic), eta arimea gorputzerean (sic) bidaldu eban. Alan egin begi kristiñauak burua eresiagaz, eta Iaungoikoen borondateen bean bere borondatea ifi-niagaz...» (O. c., 150-152).


OCHOA DE ARIN:

(«KRUTZE SANTUA»): «Artu egizu, bada, krutze santuarekin debozio andia: Krutzea da Genero humanoaren redenziorako gere Jesu Kristok artu zeban instrumentorik prinzipalena: krutzean benzutu zituan eren Magestadeak geure etsai guziak, eta oen kontra eutsi zigon (sic) Krutzeari birtute andia geure defensarako eta am-parorako: Krutze Santuarekin eta bearen birtutean ben-ziduko ditugu demonioa, mundua, eta geuren apetitu gaiztoak, baita geure gorputzeko osasunean gaitza egin nai digun edozeiñereko kriatura ere.

Krutze Santua adoratzen dezunean, esan eikezu: «Ado-ratzen eta bedeinkatzen zaitugu, Kristo; zuk zeure kru-tzearen medioz redimitu zenduan mundua.» (...)

Bekokitikan bularraren azpira, edo aurra ingendra-tzen (sic) dan lekura eskua jautxitzeaz, konfesatzen degu, Aita Eternoaren Semea gizon egin zala Maria Birjiñaren entraña garbietan; eskua alde ezkerretik alde eskuiera pasatzean, konfesatzen degu, Espiritu Santuaren obraz egin izandu zala gizon Trinitade Santuko bigarren Per-sona, Aita Eternoaren Semea, zeñari deritzon Jesu Kris-to...» («DOCTRINA CHRISTIANAREN EXPLICACIOA», Donostian, 1713, 14-15, 16-17). (Ikusi zeinkeanez, dotriña-liburuok, geintsuenetan, erdereari lotuegiak agertzen ja-kuz, batez be iztegian; baiña, ori ta guzti be, eurok dira gure izkuntzaren agiririk zaarrenetarikoak, eta amaika-txo aberastasun be aurkitu geinke eurotan, izkuntzearen aldetik...).

IZTEGITXOA.—BERIAIN: *eginen*: egingo — *berzela*: bestela — *dramatenai*: daramatenai, daroenai — *bida*: bi. KAPANAGA: *baea*: baia, baiña — *indazu*: emoidazu — *eresi*: inclinar. O. ARIN: *jautxi*: jetxi, bajar.



Pedro de AXULAR

(Urdazubi, 1556 - Sara, 1644)

Naparroan jaio zan, Urdazubiko «Axular» baserri-etxean, gure «euskal idazlerik bikainenak» (Orixe). Abade egin ondoren, Saran bizi izan zan, bertako Erretore, il arteraño.

Kritiku guztiak, ao batez, autor-tzen dabe Axularren nausitasuna: «Axular domina perfectamente la lengua vasca. Esta es en sus manos un instrumento dócil que se presta a la expresión de toda clase de ideas. El las maneja con una soltura, gracia y expresividad que hacen de su prosa una delicia y de su lectura un placer incomparable». (L. Villasante). «Sabe decir las cosas con perspectiva típicamente vasca. En esto es maestro incomparable.» (I. Omaechevarría). Ta beste olango «loran asko ta asko esan geinkez...

Liburu auxe baiño ez euskun itzi: «GERO» (1643), euskal libururik ospetsuena: «...una de las pocas obras maestras, originales, que ha producido la literatura vasca.» (L. Villasante).

Axularrek Lapurdiko izkerea darabil, geienbat, baiña oso argia, gaur be euskaldunik geienak ulertzeko modukoa (euskeraren batasunaz be asko arduratu zan bera). «Axularren idaztankera bizia da, arraia, gurbia ta zainduna». (Orixe). Ganera, Axularren inguruan ibili da aurrerantzean gure literaturarik geiena, batez be beste aldekoa.

Gutziz 5 bidar argitaratua izan da «Gero» (2-garren ediziñoa «Geroko Gero» tituluarekin, eta zerbait moztua ta zuzendua: auxe da gure Añibarrok bizkaieratu ebana...); gaur egunean, ediziño bi dagoz salgei: bata, Zarautzen egindakoa, 1954, Euskaltzaindiaren babesean eta M. Lekuonaren ardura-pean; bestea, Barcelonan, 1964, Aita Villasanteren erderazko itzulpen, oar eta argibide eder askorekin...

IRAKURTAILLEARI:

Egun batez, konpañia on batean, euskaldunik baizen etzen lekuan nengoela, ekarri zuen solasak, izan zen per-

pausa: etzuela deusek ere anbat kalte egiten arimako eta gorputzeko ere, nola egitekoen geroko uzteak, egunetik egunera, biharretik biharrera luzatzeak. Eta on zatekeiela, gauza hunetzaz liburu baten, euskaraz, guztiz ere euskararik baizen etziakitenentzat, egitea, eta hartan, «gero» dioenak «bego» dioela erakustea.

Konpainia berean galdegin zen berehala, ea nori emanen zeikan liburuaren egiteko kargua. Eta bertze guztien artetik, hasi zeizkidan niri neroni aditzeira emaiten, lehenbizian keinuz eta aieruz, eta gero azkenean klarki eta agerriz, nik behar nituela, egiteko hartan eskuak sartu. Ordea, nola ezpainintzen neure buruaz fida, desenkusatu nintzen ahal bezanbat. Baiña alferrik, zeren, hain zinez eta batetan lotu zeizkidan, non ezetz erraiteko bide guztiak hertsu baitzerauskidaten...

Ba dakit, halaber, ezin eda naitekeiela euskarako mintzatze-molde guztietara. Zeren, anhitz moldez eta diferentki mintzatzen baitira Euskal-errian. Nafarroa garaian, Nafarroa behean, Zuberoan, Laphurdin, Bizkaian, Gipuzkoan, Alaba-herrian, eta bertze anhitz lekuten. Batak erraiten du «behatzea», eta bertzeak «so egitea». Batak «aserretzea», eta bertzeak «samurtzea». Batak «ilkitzea», bertzeak «ialgitea». Batak «atea», bertzeak «borta». Batak «erraitzea», bertzeak «esatea». Batak «irakurtzea», bertzeak «leitzea». Batak «diskartzea», bertzeak «ahakartzea». Batak «hauzoa», bertzeak «barridea». Batak «aitonen semea», bertzeak «zalduna». Finean, bat bederak bere gisara, anzura eta moldera. Eztituzte euskaldun guztiek legeak eta azturak bat, eta ez euskarazko mintzatzea ere, eren erresumak baitituzte diferent...

Baiña zeren komunzki, hala eskiribatzea, nola mintzatzea, nori berea iduritzen baitzaika hoberenik eta ederrenik: eta ene haur ezpaita zurea bezala, ez, otoi, hargatik arbuia eta ez gaitz erran. Hunetzaz kontent ezpazara, egi-

zu zuk zeure moldera, eta zure herrian usatzen eta segitzen den bezala. Zeren ez naiz ni hargatik bekaiztuko, eta ez mutturturik gaitzez iarriko. Aitzitik, haur da nik nahi nukeien gauzetarik bat, ene enseiu apur hunek kilika zintzan eta gutizia, bertze enseiu hobeago baten egitera eta ene hemengo falten ere erremediatzera. Zeren halatan, ez lizateke euskara hain labur, eskas eta ez hertsu, nola munduak uste baitu, eta baitaduka, dela.

Orai ba dirudi euskarak ahalke dela, arrotz dela, ez-tela iendartean ausart, entregu, bitore eta ez trebe. Zeren, are bere herrikoen artean ere, ezpaitakite batzuek, nola eskiriba, eta ez nola irakur.

Baldin egin baliz eukaraz hanbat liburu, nola egin baita latinez, frantsesez, edo bertze erdaraz eta hitzkuntzaz, hek bezain aberats eta konplitu izanen zen euskara ere, eta baldin hala ezpada, euskaldunek berek dute falta eta ez euskarak.

Eztut liburutto haur handientzat egiten. Eta ez xoil, deus eztakitenentzat ere.

Ez eta, eztitut betiere, eskritura saindua eta doktoren erranak ere, hitzez hitz euskarara bihurtzen. Zeren, euskara eta bertze hitzkuntzak diferent baitira. Ordea, ezta ez handik segitzen gaixtoa dela euskara. Aitzitik ba dirudi ezen bertze hitzkuntza eta lengoia komun guztiak bata bertzearekin nahasiak direla. Baiña euskara bere lehenbiziko hastean eta garbitasunean dagoela...

ALFERKERIA:

Munduko gauza guztiek kondenatzen dute alferra. Zeren, hartaz bertze guztiek enplegatzen baitute bere denbora, zertako eginak baitira, hartan. *Iguzkiak* arrazoiñekin erran ahal diazaio beranduraino ohean datzanari:

«Zer aratza hor, alfer nagia? Nik atzo, hik baiño bide ge-
hiago iragan nian, inguratu bainuen mundu guztia, eta
orai ere, hi baiño goizago iaiki nauk.»

Zuhaitzek ere erran ahal dezakete: «Eztakusazue nola
gu ezkauden behin ere geldirik eta ez alferrik? Nola haz-
ten, handitzen, loratzen eta geure denboretan eta sasoi-
ñetan fruituz betatzen garen?» (...)

Erleak, hain gauza ttipiak, eta flakoak, betatzen du
mundua eztiz ezitzeko, eta ezkoz argitzeko. Eta gaitz li-
zateke kontatzea nola gobernatzen diren erleak elkarren
artean; nola duten bere erregea, eta obeditzen duten;
nola zaharrak kofauean barrena, etxeko lanen egiten,
egoiten diren; eta gazteak, bere mantenuaren eta bizi-
kaien garraion, kanpotik ari diren; nola duten bere atal-
zaiña, eta behar ere bai. Zeren, eztiari, nola baita gozo,
eta izena duen bezala, ezti, anhitz baitarraika, eta baitzai-
ka aiber. Nola traillaitzen direnek, traillaitzen ez tiren
alferrak eta nagiak, ezten kolpez, egotzten dituzten bere
konpañiatik: «Expellunt ab alvearibus pigras» (Plin.).
Eta nola bertzerik ere anhitz gauza egiten duten, eta guz-
tiak hain ordenatza handiarekin, non baitirudi ezen ez tela
erregerik, bere erresuma hain ongi gobernatzen duenik,
nola erleek bere erregearekin batean traillaituz, gober-
natzen baitute berea.

Bada, *xinhaurriaren* gobernuaz, zuhurtziaz, traillailluz,
etorkizuneko egiten duen probisioneaz, hornizoiñaz, eta
biltzen duen mantenuaz, nork zer erranen du? Nork eztu
miretsiko, eta gogoeta eginen? Spiritu Sainduak berak
igortzen gaitu animalia ttipitto hunengana, zer egin be-
har dugun ikastera, erraiten duela: «Zoaz, nagia, xinhau-
rriagana, eta konsidera itzatzu haren bideak eta bidex-
kak, ioan-etorriak eta itzul-inguruak, nekeak eta trabai-
lluak, eta ikasiko duzu zuk ere nola behar duzun aitzii-

nerat eta betiere bizi, ibili eta gobernatu. Hark erakus-
lerik eta kidaririk gabe, berak bere buruz biltzen du
udan, neguaren iragaiteko behar duen mantenua, bazka
eta bihia. Eta bihi hura gordetzen du lurrean barrena, be-
rak eginikako ganbaretan, eta bihitegietan. Eta hain da
zuhur eta goitatu, ezen, kanpoan deus ezin izanez, bere
bilduetara bildu behar duenean, lehenik hozitu behar
duen burutik hasten baitzaika bihiari: zeren, bertzela, sor
liteke bihi hura, buztan liteke, belar bihur liteke; eta
gero, handik harat, alfer-lan gerta lekidikaio bere lehe-
neko zuhurtzia guztia.

Are gehiago, hozidurak ianez gero ere, lurraren hu-
midurak, eta hezetasunak, gainerakoa ustel eztiason, ate-
ratzen du noizik behin kanporat, airatzera eta iguzkizta-
tzera: eta orduan denbora onaren seiñalea dateke. Eta
halatan eta hala iragaiten du xinhaurriak bere negua; eta
erakusten dio bat bederari nola eta zer moldez behar
duen mantenatu, gobernatu eta alferkeria guztiak utzi-
rik, bere denboran traillaillatu. (GERO, Lehen Partea,
I-go Kapituluua, § 3) (*Ikusi, Antolojia onetan, zelan biz-
kaieratu eban zati au Aita AÑIBARROK*).

HASERREA:

Haserretu behar denean ez haserretzea, sentikortu be-
har denean ez sentikortzea, beti bat, beti uli, lolo, malba
eta bare izaitea, ezteustasuna da, eta ez gizontasuna...
(XX, § 1).

ZENBAT KALTE EGITEN DUEN HARAGIAREN BEKATUAK...:

1. Handiak dira haragiak, eta haragiaren amorio de-
sordenatuak egiten dituen kalteak. Eta kalte prinzipale-
netarik bat, prinzipalena ezpada ere, da adimenduaren

goibeltzea, ilhuntzea, eta itsutzea. Presuna amurusak ez-takusa, eztaki zer hari den: bere gogo guztia haragian daduka... (...)

Usoa bezala da halakoa. Usoak eztu, bertze hagaztinek bezala, edatean burua goiti ailtxatzen. Edan gogo duena, abreak bezala, hatsik hartu gabe, burua goratu gabe, kolpe batez edaten du. Bertze hegaztinek edateko kurka guztietan, ahatarak bakotxean, burua goiti ailtxatzen dute. Eta ba dirudi, ezen, naturalezak berak erakutsirik egiten dutela hala. Zeren, nola orduan baitute perilik gehiena; zeren orduan baitaude geldienik urera beha: eta orduan baitira ihiztariez ere zelatatuak, barrendatuak, eta guardiatuak, halatan daude hek ere iratzarriak orduan; eta edaten duten ur-xorta guztietan ingurunera behatzen dute, eta burua goiti, guardia egiteko bezala, ailtxatzen dute. Baiña usoak eztu halakorik egiten, ahoz-pezu dago, ase arteño, eztu bitartean bururik ailtxatzen, eta ez ingurunera behatzen. Eta hartan da ageri usoaren inozentzia eta ergelkeria, perilik gehien duenean baita eroenik eta antsikabenik.

Hala da, bada, bere gogo guztia emaztetan ibenia dadukana ere. Etsaia zelatan dagokanean, da galduenik eta eroenik. Zeren, bere edate hartaz, eta plazeraz baizen, ezpaitu deusez ere bertzez konturik egiten.

Zyro enperadore handi hura, hain itsutu eta ergeldu zuen Apama bere amoranteak, non hartaz nahi zuen guztia egiten baitzuen... Alde batetik eta bertzetik beharondoka hari zeikan, batean bizarra, bertzean beharriak tiratzen zerautzan: haur batekin bezala, harekin dostatzen zen. Eta guztietan enperadore eroa, hortzak hirriturik, irri, beha zegokan; miraillean bezala hartan miratzen zen, haren alegaritzeaz alegeratzen zen, eta tristetzeaz tristetzen. Eta emazte gaixtoak batzutan bere burua, berariaz haserre iduri egiten zuen; eta orduan enpe-

radore zoroak, ahal ziren asmuak eta enseiurak balakartzeko eta baketzeko egiten zituen. Amorantea zen nabusi; «no» zen «to»; emaztea gizon; oilloa oillar. Erran behar da esku handia hartzen duela emazteak amurus itsutuaren gaiflean, halako enperadore bat, ama-etzteus batek hala errendatzen duenean. (XXXI-gn. Kap.)

IZTEGIXOA.—IRAKURTZAILLEARI: *solas*: conversación — *perpaua*: conversación (?) — *aieru*: seña — *hertsu*: itxi — *elki*: urten, atera — *liskartu*: burrukan egin — *aztura*: oitura, ekan-du — *erresuma*: estado — *haur*: au — *arbuatu*: rechazar — *be-kaiztu*: aserretu — *gutizia*: deseo — *ahalke*: ahalge, lotsa — *konplitu*: perfecto. ALFERKERIA: *aratz*: yaces — *eztakusue*: ez dozue ikusten — *ezko*: argizagi, cera — *kofau*: erlauts, colmena — *garraio*: acarreo — *baitarraika*: jarraitzen deutso — *aiher izan*: zale izan — *zuhurtzia*: zuurtasuna, sabiduria — *bihi*: garau(n) — *goitatu*: cauto — *hozitu*: germinar — *bat bederari*: bakotxari. HASERREA: *sentikortu*: afectarse — *uli*: euli, elbi — *lolo*: memo — *malba*: débil — *ezteustasun*: incapacidad. ZEN-BAT KALTE...: *goibeldu*: illundu — *amurus*: enamorado — *abre*: abere — *kurka*: trago — *ahatara*: bocado — *peril*: arrisku — *beha*: begira — *ihiztari*: eiztari, cazador — *barrendatu*: espigar — *antsikabe*: ajolagabe, ardurabako — *ibeni*: ipiñi — *amorante*: maitale — *beharrondo*: belarriondo — *miraila*: ispillu — *berariaz*: a propósito — *balakatu*: halagar — «no» zen «to»: «ellan era «él».

Rafael de MICOLETA

(Bilbao, 1611 - ??)

1653-garren urtean «Modo breve de aprender la lengua bizcaina» eritxon liburutxu bat idatzi eban, baiña liburu jakingarri onek ez eban argirik ikusi... 1880 (!)-garren urterarte (1897-garrenean, barriro argitaratu eban Dogson-ek)... Alan ta guzti be, XVII-garren gizaldiko Bizkai-euskerea ezagutzeko ez daukagu berau baiño agiri obeagorik. Liburutxu onen gaia: gramatika apur bat (balio gitxikoa), iztegi luze-samarra, eta, azkenean, alkarizketa atsegin batzuk, euskeraz eta erderaz. Erdetatiko berbak aurrez sartzen ditu ta jostkerea bera be erderaren morroi darabil sarritan, baiña amaitkatxu esakera jator be eskeintzen deusku Mikoleta abadearen liburu zaar onek.

PLATIKA LELENGOA:

Oerean xaigiteko goxean, ta ari dagokazan gauzena essatari, Peru Xauna deretxan bategaz ta bere adiskide deretxala Joane Xauna, ta atso bategaz:

D. P.—: Banzuk, mutil?

A.—: Xauna.

D. P.—: Ze ordu da?

A.—: Bostak jo daude.

D. P.—: Saikora, irikazu arako bentanea, ta eguna den ekutzu.

A.—: Arangiño eztau ondo argitu?

D. P.—: Bada, astoa, nolan esan dou bostak xo dau-dela?

A.—: Xauna, nik bostak konta nintzean, baya goxa ta herloxua eztabiltzaz batera.

D. P.—: Edo zuk diñozu guzurra, edo bai herloxuak, zeren eguzkiak ezin esan lei guzurrik.

A.—: Obe da, nik diñodan guzurra, ze ez urteak.

D. P.—: Ze egun dakar?

A.—: Iluna, Xauna.

D. P.—: Zeuk edo daukaz begietan odehyak, zerren nik dakust argirik zerua.

A.—: Bada ez nago itsurik.

D. P.—: Lenago ustiok bete zagozala loo.

A.—: Ez naz, bada, ni elefantea, oiñen ganean loo eteko.

D. P.—: Otzik bakar?

A.—: Axetxu oz bat sarzaiten da bentanatik, eba-gitan dauela surrak.

D. P.—: Indazu xasten, zerren gura dot xaigi.

- A.—: Norako aen goxetik?
 D. P.—: Negozetan, zerren daukat gaur asko zeregin.
 A.—: Arangiño eztago iñor xaigirik.
 D. P.—: Zeuk zeure probetxua ustiozu.
 A.—: Zein soiñeko atsegin dau imini zeure mesede orrek?

(Bigarren ediziñotik, Sevilla, 1897, 22-23).

IZTEGITXOA.—*banzuk*: ba dantzuk, entzuten dok — *daude*: dabe, dute — *Saikora*: jaiki gora, levántate — *ekutzu*: ikusi eizu — *arangiño*: oraindiño — *lei*: lezake — *ustiot*: uste dot — *bete* (sic) beti? — *eteko*: egiteko — *indazu*: emoidazu — *ustiozu*: adivinas — *zeure mesede*: Vuesa merced.

Manuel LARRAMENDI

(Andoain, 1690 - Loyola, 1766)

Jesus'en Lagundikoa. Filosofia ta Teologia Irakasle Salamanca'ko Unibersidadean; Erregiñearen autor-entzule Madrill'en... Edozein alderditik begiratuta, bai gizon andi agertzen dala A. Larramendi! Ara alderdi batzuk:

a) Euskalzaletasunaren esnaizaille ta eragille: «*Arengandik etorri da Gipuzkoa'ra literatura, ez urria ere. Larramendi'k eman zion biotz eta kemen Oyartzuar Mendiburu ospetsuari, baita beste bere anai Kardaberaz'i ere. Lar-dizabal, Arrue, ta abar ta abar, zer edo zeren zordun zaizkio A. Manuel'i. ¿Ta nor ez Gipuzkoa'n naiz Bizkaia'n oraintsu arte?*» (ORIXE). Zor ori ao batez autortuko dabe gero bere ikasle guztiak...

b) Euskalerrria ta Euskeraren

aldezko Apologista edo burrukalari sutsu ta umoretsua (zorrotza ta gordiña be bai!): ba egoan orren premiña, baiña bera urrutiegi joan zan: ortan erre eban bere bizitzarik geiena...

c) Euskal idazlea: lanik geienak erderaz egin zituan Larramendi'k, eta erdera ederrenean egin be, gero! Baiña itxi deuskun euskera apurrak garbi erakusten deusku gure izkuntzan be maixu zala. «Mingarria da Larramendi euskeraz geiago ez idatzi izaitea... Erderaz iarduki zuena euskeraz iardukitzen alegin balu J. Etzeberri bezala, euskerak indar aundiago artuko zuen bear ba da...» (ORIXE).

Liburuak: 1) «De la antigüedad y universalidad del Bascuence en España...», 1728; 2) «El Imposible vencido. Arte de la Lengua Bascongada», 1729: euskal gramatika, benetan ona. 3) «Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latin», 2 v., 1745: Iztegi andi au, euskeraren edertasunak agertzearren egin eban, batez be, eta itz asko berberak asmatu-rikoak dira; orregatik, mesede ta kalte biak batera egin ditu gerora badaezpada-ko Iztegi onek... 4) «Corografía o descripción general de la M. N. y

M. L. Provincia de Guipúzcoa» (lenengoz, A. Fita'k argitaratu eban 1882 g'ean.; gero, 1950'gn., Buenos Aires'ko Edit. EKIN'ek): liburu atsegin zoragarria.

Euskerazko lanak: 1) Aita Mendiburu'ren «Jesusen Bihotzaren Devoziolari» egindako Itzaurre luze ederra; 2) San Agustiñen Itzaldia bat.; 3) Iztegian eta Corografía'n sartzen dituan euskerazko zatitxo batzuk...

GIPUZKOA'ko ANDIKI TA JAUNTXOEN AURKA:

«Déjenme ahora zumbarme algo con nuestros "andiquis" y "jaunchos" de Gipúzcoa, si no con todos, con algunos de ellos; pero no nos entenderán otros: «Emen ere Zuek Gaztelaen erara hitzezin bear. Egoki, alafede; noiz andikitu, noiz jauntxotu zerate? Atzodanik noski, oraiñagotik, ez txit antxiñatik. Galde besteri, edo, nai badezue, niri. Kantatu dida onelako bat, Indietan det senarra, dirua franko duena. Kanta ezazue Zuek bestela. Indietan det osaba. Joan zitzatan antziña, ta andik ona egin nago Jauntxo guziak adiña.

On dekizuela, eztago hor kalterik ez juzku gaiztorik. Ezkonduko dezue alaba bakar hori tratalari aberats batekin? — «Bai guk, eta pozik». — «Ondo da, ez nagotzue Zuei.» — «Ez, ordea, guk», diote beste andiki ergel txoraiska batzuek; «ez gure etxean tratalaririk; ez, Indietako kutsurik.»

Adiskideak! Gipuztarra dezute tratalaria, ez erbestekoa. Bai nai badik. Zuek bezain odola garbia duena, eta

are, bear bada, garbiagoa? Bai nai badu. Bere agiria Zuek baiño lenago egin zuena. Bai nai badu.

Zer ditzute, kropotzak, buru ariñak, zer darauskiozute? Artzen badet aitzurra, ta hori geiegi da; artzen badet jorrai txiki bat, bigarren zotalean agertuko dezutet ez tratalari ere, ez nekazari ere, baita argin, arotz, olagizon, dendari, okin, sagardo saltzalle, ikazkin, zuen etxeetan jaiok, aziak, eta biziak.

Gipuzkoan hizkunde horiek? eta, alegia, Gaztelan aditzen zaiotela, ta emen ez dakigula odol onaren berri. Ler eztagizutela, merezi badezute ere. Utzi, utzi, Gaztelako hitzera txoralda horri: Mairu kutsu, judu kirats, beltz eta billau usai geiegi dabil erri horietan. Oar zaitetze, etxean, Gipuzkoan dezutela, inora joan bage, erbestean arkituko ez dezuten garbitasuna. Eta, hau onela dala, obe dezute alaba txukun hori ezkondu emengo tratalari aberats batekin ezen, ez Gaztelako eta erbesteko aise zagi galbar-dun askorekin. Ez ni salatu, ta orain agur.»

(COROGRAFIA..., Edit. Vasca «Ekin», B. Aires, 1950, 164-5).

EUSKALDUN ASKOK, EUSKALZALETASUN GITXI:

«Eztakit zer esain dizutedan. Aspaldi nabil nola Euskal Erriak edertu ta jasoko ditudan. Bost gau illun, eta bost egun argi igaroak ditut egiteko onetan; baita gure euskera, izkuntza guzien zarrena, aien garai nola ezarriko dedan.

Baiña ezta sinistekoa zer gertatzen zatan. Batzuek diote, bestelako lan txarretan nabillela. Ezta ezer, oiek jakiñezak dirade, zer darauskioten ere eztakitenak.

Besteak, obeto nukeala itxeki beargai goragoren ta

ederragoren bati. Ezta auzi: oiek alperpotzak dira berok, ez gorago, ez berago dan lanik ukitu ere nai eztutenak. El akio, itzontzia, beargai txar diokan orri, ta are ni itxatxiko natxeok prestuaguari. Ainbeste urtean nabill ezagutu naiez gure izkuntza miragarriaren txitezkoak, ta etzeatiek oraindikan osoro ezagutu; ain dek beargai au andi larria. Eta lotsatzen ez aiz eta i ta ire lagun oroitaz oriek lan txarra deitzea lanik gaitzen ta latzen ari?

I ta ire ballerakoak besterik ezpaliz mendarte oietan, euskeraren saietsetik euskaldunak galduak, baita ondatuak ere, gindukek, erdaldunen bekaitzez, ezin ekusiaz ta juzku gaitoz. Baldin elkar artzen bagendu guziok, nor bere saillari ditzekala, Frantzian ikaratuko gintuke frantziar guziak, eta Españian españiar guziak. Non da, ordea, elkarte ori? Nagoan isillik. Nere min garratzena da, are eztakuzkula onetatik darraizkun kalteak eta gaitzak, eta dirudienez, ezagutuko ere eztitugula, ditugun on piskak galdu ditzagun artean.»

(COROGRAFIA..., 320-1).

(MAYANS'en AURKA, EUSKERAREN ALDE):

«Euskaldunai osasuna. Uste deu gure urliak (aditzen nazue, nori nagokan; begira, ez ni salatu) ba dakiela dana, ta datakean guzia, onako Latifnezko zerrenda batzuek irabiatu dituelako. Añ arro dabill, añ da bere-buru, añ berez, ta bere buruz betea, ta üanditua (sic) dago, non dirudien, iñor ere eztaukala ezertan, naiz dala aundi, naiz txiki.

Euskara da, gaitzik egin balio bezala, aren erabea, eta saietsetik Euskaldunak ere bai. Itsuen gisa jo ezak emen, jo ezak or, bere ustez zeatzen, zatitzen, banatzen deu gure Hizkuntza eder, guri, gozoa.

Iñarrusi bear genduke guziok hizjario erausle motel au, ta onen lagun irurazaiak. Ondo balegokit, nik astinduko nuke, nik beeratuko nioke bere andiustea, ta bere galdor kiskur luzea. Niri eztagokidanean, beste Euskaldunen batek itxeki bear lioke saill oni, iñon diraden etsai hitz-ontziak isiltzeko. Baiña ez bide dau Euskera gaisoak, are bere etxapean, ez seme, ez adiskide, biotz onez nai dionik: ta argatikan daude guziak aĩn geldi, aĩn isill, eskuak tolesturik, naiz beztu ta itxuzkitu dezatela, naiz darabiltela oiñen azpian.

Ba darauskio, bada, gure sandiari, ezen eguzkiaren jaiet-aldean diraden hizkerak dakitzan batek, erraz adituko duela Euskeraz; ta gezurtxo batekin hori sinisterazo nai izandu digu.

Uztâk arren onela nagokiân. Len amakia egin diguk gure hizkuntza, ta orain alabakia; bein txuri, ta gero beltz: noiz utziko dek buru-koloka farragarri hori? Edo bata esan bear dek, edo bestea: eta esanari el akio, zabuan ibilli bage.

Ona non dituan Euskerazko hitzak naroro: nai badek, oa, ta eguzkia sortzen dan aldetik erakare nai deana. Esaio, begira ditzala hirekin batean, naiz aurkez, naiz atzez, goitik, betik, zearka, edo zuzenka: eztik berdin idoroko berè erriko hitzen antza deuanik, ta are gitxiago igerriko, itsuka bada ere, zer esan nai deuan.

Eztanda badagik ere, gure Euskera ederra lenbiziko hizkuntzetatik dek, arako Jainkoak maneatu eta isuri zituén aietatik, ez beste hizkunderen naspillatik sortua. Euskera dek Españian lenengo sartu zana, eta aren bazter guztietan era batean, ta luzaro txit, hitzegin zana. Zartu dek, atsotu dek (eztek hitz au Erderaz esango); ainbeste

urteren epean atsotu bear; baiña itxok, oraindikan bizkorra zeagok, gaztetzera zeak, ba zeakik bere burua txukunkiro edertzen, galantzen, apaintzen.

Eztezâala beraz uste, hire esan mesanazkin, hire lotsa-geriakin ikaratuta txokoratuko deala Euskera.

Utzi diozagun Mayans'i, jakiundeko mayan janari onik ifinten eztigunari, ezpada lapiko ustel bat, arbiz, azaz, txongoz, birikakiz, hitz batean, zadura baduraz betea.»

(DICCIONARIO TRILINGÜE..., t. I, Prólogo, CCIV).

SAN AGUSTIN'en DOANDITZA'tik zatitxu bat: «...Beraz egia ez da San Agustin dala geientzat eta guzien argi. Ba da, ordea. Nik azalduko det nola; eta korapillo au zein-ere dirudien estu, nik epaki-gabe askatu det; eta erraz ala-ere. Beti iduritu zait gure Aita San Agustiñ dala, argi-itxaxo zabal andi bat bezelakoa, eta izen onetxek emango digu bear deguna. Gauza jakiña da zer suertatzen zaioten itxaso zabalean dabiltzanai. Ontzi bat dijoa alde batetik, eta bestea bestetik; au dabill egoaren kontra, ori iparraren kontra dabill; orain igotzen dira eguzkiaren jaiotzarontz, gero eguzkiaren illtzerontz; jais-ten dira batean eskuin, bestean ezker. Bide oriek kontratzen dirade; ez dira ausi ;ongi dijoaz; zuzen dabilltza; zergatik itxasoak bere barrutian, geiago badira ere, badu guziak artzeko beardiña ur, bear-diña bide, bear dan, ta are bear dan baiño geiago.

Auxe bera, bada, gertatzen zaie, San Agustiñ-en argiari darraizkan eskolai. San Agustiñ da argi-itxaso zabala, zein-ean sartzen diran eskola guziak, ta aixa ta lasai kabitzen dira; kontratzen dirala noizean bein beren bideetan badirurite ere; baiña argi-itxasotik kanporatu gabe! Tomistak eskui altetik, ezkerretik Eskotistak, Jesuitak erditik bideratzen dira; guziok jakinduriaren billa;

guziok egiaren eske. Bijoaz zuzen argi-itxaso onetan dabilztan artean, lema zuzen badaramate, ez dira galduko, ezda ondatuko-ere...» (PANEGIRICO DEL GRAN DOCTOR DE LA IGLESIA SAN AGUSTIN..., 1885, p. 10).

IZTEGITXOA.—ITZAURRE: *aiurri*: carácter — *buruzki*: frente a — *medar*: estu. GIPUZKOAKO...: *Gaztela*: Castilla — *txoraiska*: loquillo — *okin*: panadero — *txoralda*: sinsorgo — *galbar*: kalpar, pelo arremolinado. EUSKALDUN ASKOK...: *esain*: esango — *itxeki*: oratu — *el akio*: eldu eiok — *txitezko*: extraordinario — *etxeatiek*: ez dituk — *eztakuskula*: ikusten ez dogula — *darraizkun*: jarraitzen deuskuen, MAYANS'en AURKA: *üanditu*: hincharse — *erabe*: repugnancia — *ñarrusi*: zarandear — *hizjario*: charlatán — *galdor*: cresta — *erausle*: parlanchín — *irurazai*: guarda de campos — *beztu*: infamar — *itxuzkitu*: moztu, afeaz — *jaiet-alde*: sortalde, oriente — *uztdk*: itzi eidak — *naroro*: ugari — *naspil*: naaste — *txongo*: urdaiazpikoaren azurra — *zadura-badura*: mezclanza. SAN AGUSTIN'en...: *doanditz*: panegirico — *darraizkan*: jarraitzen deutsoen.

A. Agustín CARDABERAZ, S. I.

(Hernani, 1703 — Castelo de S. Juan, Italia, 1770)

A. Larramendi'ri zor deutso Kardaberaz'ek bere euskalzaletasuna. Euskalerra guztian ibillia dogu, mihiolari: orrela beregandu aal izan eban euskalki geienen ezaguera... Liburu ta idaztiño asko idatzi zituzan, erlejiño-gaiak erabiliaz (bat bizkaieraz be bai); ezagutzen ebanak santutzat euken gure A. Kardaberaz. Jaungoikoa ez ezen, Euskalerra ta Euskerea be maite maite izan zituzan: irakurri, bestela, «Euskeraren Berri Onak» bere liburu ospetsua (Auspoa Liburutegia, n. 37). Beste liburuetan ari men osasuna billatzen eban, ez izkuntzaren edertasuna: «Euskera ez du garbia, erderakeri asko, ta idaztankera ez euskalduna geienaz...» (Orixe); baiña amaikatxo esaera jator ta aberats be aurkitu zeinke A. Kardaberaz'en lanetan.

I

BESTE IZKUNDEEN ALDEAN EUSKARA

Noiz eta nondik edo nola gure euskera onontz etorri zan, nork daki? Zerutik, edo Jaungoikoagandik, gizonen asmazio gabe, orien gaiñeko gauza bezela etorri zala, Euskarak berak bere era eder ta armonia paregabean ondo seguru esaten edo adierazotzen du. Beste izkunde edo lengoaieak, nork daki nastu ta batera ta bestera nola ibilli diran: Euskera, Jainkoak nai-ta, menditarte oietan beti nasgabe, beti garbi, beti seguru beregan gorde izan du da.

Txantxetan esan oi da, edo Euskaldunak esan oi dute, Jaungoikoak Paradisuan Adan gure Aitari euskeraz «Adan, non zera?» esan ziola. Euskera Jainkoaren gauza bezala, arako ta edozein lekutarako diña bazan, Jainkoak ala nai izan balu. Baña gauza ziertoa da, Jaungoikoaren izketa, Paradisuan ta gero ere, hebreoz izandu zala (...).

Gure euskerak bazter oietan orrelako gizaseme andien patu onik izan eztu. Baña latin ta griegoak asko-jakiñen ditxa ta gloria ori izan badute, bere modura marabilla txikiago ezta, baizik miragarritzko prodijio andiago, euskera, soill-soill, bakarrik edo nik eztakit nola, bizirik ainbeste sekuletan egon dan ta dagoen: aín berez ta beregan, aín argi ta garbi, bere erio ta arerio guzien damu gorri gaixtoan badere. Alere asko, egieki, euskera galdu da. Baña ori ezta euskeraren, ezpada euskaldunen desonra: bada oiek polikitu, apaiñdu ta edertu bearrean, lotsarik gabe berak beren nagitasunez itxustu, larrutu ta desegin izan dute.

Baña gure pobretxo on askoren animak salbatzeko, **EUSKERAK BURUA JASOTZEA JAINKOAK NAI DU:** gure baserrietan jende prestuak dirauten artean, euskarak iraungo du. Esan oi da: «oiei lepoa ebaki edo bizia

kendu gabe, euskara ezin utzi edo kendu diteke.» Jaungoikoaren borondate jakiña da, aren fede ta legeko misterio ezkutatu ta doctrina zabaltzeko bear dana, sazerdote jaunen ministerio sagraduetan, euskeraz baizik emen egin ta esan bear ez dala. Ta lengo aitzakiarik orain edolarik ez dute askok: bada Aita Manuel Larramendik, neke gogor ta estudio esan al baiño andiagorekin, ezin izango ta ezin egingo zana bere Artean egiñik, eziñak ta nekeak lazki garaitu zituen, ta ori ta bere iztegi edo dictionarioa, maisuak bezala, eman dizkigu (pp. 60-1; 64-65).

II

EUSKERAREN IZKERAK EDO DIALEKTOAK

Itsu-itsuan askok esan oi du, euskera asko dirala, edo erri bakoitzean bere euskara dala; baiña zer dioten ez dakite. Ezta ori egia: euskera bat da. Euskera bat onetan, egia da, dialekto edo izkera asko dirala. Autore gra-beetan askotan irakurten det griegoan bost dialekto ziradela: Atikoa, Aelikoa, Dorikoa, Jonikoa ta Komuna edo guziena. Onela bada, Frantzian, Nafarroan, Bizkaian, Araban ta Gipuzkoan, beren izkerak, bakoitza bere erara dira: ta ori gauza berria ezta.

Dialekto edo itzera oien gaiñean soseguz pentsatzen duenak gauza miragarri ta ezin ukatuko dan bat arkituko du, eta da, euskaldun bakoitzak izkera zein era ta armonia ederrean gordetzen duen, edo dezakean. **NA-FARROAN** len ta oraiñ, bertako ta are geiago Frantziako libruen sokorruaz, nolerebait errazago beren izkera gorde izan da; baiña, orrelako lagun gabe, alde oietan eta **BIZKAIAN** beren izkeran zein ederki iraun duten ikusteak, txit arritzen nau, ta edozein admira dezake: eta marabilla au ondo ikusi, entzun ta aditu gabe, ezin, ala fede, sinistu liteke.

Ainbeste milla anima edo gizon ta andrekin igaroko ogei ta ainbeste urteetan Probinzia oietan Mixioetan jardun bear izan det: eta egunero ta geiago admiratu izan nau guzietako ta, ez gutxiago, Bizkaiko itz-egiteko era ta armoniak. Besteak bezein ondo, ta gauzaren batzuetan bearbada obeto, izkeraren legeak an gordetzen dituzte. Guziok Señorioko, Nafarroako ta emengoa ondo bagenek-i, aiiñ ederki batean, nola bestean ta iruretan, boz, itz edo berbaz usatu ta jokatuکو genduke.

Gauza bi alere onen gaiñean ziertoak dira. Bata, Bizkaitarrak berak, askok beiiñtzat, gure dialektoan bere-nean baiño predikatzea naiago dutela: eta Bizkaiko predikadore asko gurean predikatzer a oitu edo egin dirala. Bestea da, an ta emen ere, nik ez dakit nola, baiña gizon geienak moldekaiz ta gogorkiago, eta andreak berenez poliki ta emekiago itzegiten dutela. Baiña orregatik, ia dakus edozeiñek, ala gizaseme nola emakumeetan, euskera beti bat eta berbera dala. Gisa onetan edo bestean itzegitea, ferian edo dendan erosten dan gauza ezta: ba-koitzak bere dialekto edo izkerari jarraitu ondo: oitura, usu ta kostumbrea ala da, ta aurrera ere ala izango da (*Ibid.*, pp. 66-69).

ANDRE DONOSTIARRAREN ERRETORIKA

(Arte gabeko edo berezko erretorika naturala nola dan, obeto erakutsiko dizute estudio ta eskola gabeko emakume bik: bat Gipuzkoarra, bestea Bizkaitarra...):

Beste errekdari asko oi dabilzan bezala, au batetik bestera bere gauzak saltzen edo tratuan zebillen. Erri batean, ala bearrez, galai gazte batekin topatu zan: eta ikusi ta ezagutu zuaneko, abegor txit gozo ta agasajo txit andiak egiten asi zitzaion: «Ai au enkontrua! Ziña ta be-deika! Au galai! Au joia preziatua! Auxe bai gure Do-

nostiako semea degula!» Onela beste milla edertasun gazte orri esan ziozkan.

Arako beren tratu-gauzetara etorri ziranean, orra non gure galaiak eskeñi txarren bat egin, ta bear etzan moduren bat errekdariari erakutsi, ta biak aserratu ziran: ta tortilla goitik bera irauli, ta andrearen beletak jirabuelta ariñ eman, ta gaztearen kontra biurtu, besoak gerrian ifiñi ta desaire guziak esaten asi zitzaion:

«Nere jende onak, zer ikusi bear ote degu? Zer eskeiñi degu au, edo nork egin digu? Oni begira: au nongoa ote degu? Onen patxadari begira! Ea: ken orpoetatik, koartoon bosteko estampa: ken gure begietatik: ez guri beiiñtzat aorrelakorik. Au nor degu? Gu español puru-puruak. Au nongoa dan ez dakigu. Gure aita ta ama frantsezak ziran: baiña gu español garbiak, San Bizenteko Pontean bateatuak. Jende onak: au zer degu? Ken ortik! Ai au kontua! Deabruak ikusi du golillarekin astoa.»

Eta onela beste gauza asko, edo aora zetozkionak au-sardia andiarekin esan, eta galai ori lotsaturik utzi zuen: eta estudiantea bazan ere, bere legeak eta erretorika andrearenak ondatu ziozkan, ta bereak eta geiago aditu, ta geiagoren bildurrak ixillik iges egin-erazo zion (*Ibid.*, pp. 102-103).

ANDRE ELORRIOARRAREN ERRETORIKA

Au, ontzi bela betean bezala, bere ibikiakin zebillen errespeto andiko bat zan. Eta zeren kontuak, nere gus-toko, ta berezko ango euskeraren grazia andia duen, Bizkaitarra banintz bezala aien gisa kontatuko det.

Bizkaiko abade jakitun batek bere lloba bat erriko etxandera baten seme bakarragaz ezkondu gura eban. Baia andreak ikusirik abadeak eskintzen eutsan dotea,

bere etxaguniteari eta onek zituban obligaziñoai erantzuteko adiña etzala, al egian modurik onenean eskusau jakan. Orregatik bere sazerdote jaun onek beti dote laburra opa eutsan, gero geituteko ustez; eta adietan emon gura izan eban bere llobeak zituban aide aberatsak, eta aetatik uste zituban urrezko mendiak edo ondasunak, eta etorkizun onen errezkada luze bat txito ederto kontadu eutsan.

Etxandera zindoak epe galantagaz guztia entzun, eta azkenean sazerdoteari modu onetan esan eutsan:

—Eta, Jauna, zure mesedeak etorkizuna bazau?

—Ez, andrea.

—Bakizu etorkizuna zelangoa dan? Zuria ala baltza dan?

—Ez, andrea.

—Etorkizunagaz jan edo edan bozu, edo beragaz bizi izan bazara?

—Ez, andrea.

—Bada, Jauna, etorkizunen barri obagorik eta segurubagorik ezpozu, zu geldit zaite zeureagaz, eta ni bere ba noa neureagaz.»

Eta orrenbestegaz abade jakitun ori ill otza legez gogortu ta mututurik andreak itxi eban (*Ibid.*, 104-105).

IZTEGITXOA.—*Txantxetan*: olgetan — *egieki*: benetan — *itxustu*: moztu, afean — *larrutu*: desollar — *lazki*: duramente — *no-larebait*: zelan edo alan — *moldekaitz*: torpe — *errekardari*: revendedor — *galai*: galán — *irtezin*: laberinto — *ibiki*: ornato del pelo — *etxandera*: señora propietaria — *etxagunite*: copropietario — *adietan emon*: adierazi.

Sebastián de MENDIBURU

(Oyarzun, 1708 - Bolonia, 1782)

«Euskal-idazlerik oberena au uste dute zenbaitek, eta Cicero euskalduna izena ipini diote. Axular'en ondo-ondoan beintzat tokia merezi du. Euskera garbiagoa du Oartzuarrak Urdazubiarrak baino; ez orde ugariagoa... Euskeraren garbitzen orainotsu ez da Mendiburu'k adina alegin duenik...» (ORIXE). Euskera sakon ikasi eban, eta sermolari ospetsua be izan zan, batez be Naparroako errietan: Mendiburu'n euskera Naparroagaruikoa da, batez be (semez, be, oartzuarra zan-eta...).

Bere libururik nagusienak: 1) «Jesusen Bihotzaren Debozioa» (Donostian, 1747); 2) «Jesusen Amore-Nekeei dagozten zenbait Otoitz-gai» (Pamplona, 1759-1760). Jesuitea zan.

I. ADITZERA EMATEN DA ZER GAUZA DEN DEBOZIOA

Jakin-gabez zer den debozioa asko arkitzen dira, birtutez beterik zeruan sartzeko daudela uste dutenean, bekatuaren loian sartuak. Ezta debozioa, debozioa dela askok uste dutena. Zenbaitek uste dute, debozioa dela noizean beñi barutzea. Askoren ustea da, bere otorduetan ezpada ezer ez artzea, ta orduetan ere jan-edanean labur gelditzea, debozio andia dela. Maiz konfesatzen diranak, egunean Meza bat entzuten dutenak, zenbait itzezko-otoitz edo orazio esan oi dituztenak, edo egunoroko Errosarioa uzten ez dutenak, debozioz urtzen daudela uste dute. Orobat uste du, marabedi zenbait, bizi-deño, edo ill-ondoan, bearrean dagoenari ematen diozkanak.

2.—Onelako gauzak egiten dituztenak, arki ditezke debozioz beterik, eta bizitza on baten sartuak; baita bizitza gaiztoan ere, ta deboziorik gabe: bada debozioaren estalki ta azalak dira askotan, onak diruditen gauzak; eta azal ta estalki utsak badira, zerurako ez dira onak, edo ez dira zeruan sartuko diran gauzetatik.

3.—Barren beroa edo aserrea dadukanaren baruak, birtutearen estalki edo azalak dira; baiña azal edo estalki utsak. Lagunaren bizitza ta lanak itzez ta murmurazioz zikintzen ari danaren jan-edan laburrak, iduri oneko gauzak dira, baiña debozio garbiarekin ekustekorik ez duten gauzak... Nai adiña gauz-on zuk egifiagatik, oarturik bizi ezpazera, oroitzapen lizunen, begiratze arin, bear ez tiran sartu-ateratze, danza, jostatze ta onelako gauzen artean, bekatuaren katez lotua dadukazu biotza, edo kate orien billa zabilta. Zer-nai emanagatik bearrean dagoanari, ematen eypadiozu berea bakoitzari, ta Jainkoari zor diozun amoreta, bizi bearko dezu beti, dezun debozioagatik, erre ta urturik enfernuaren erdian.

4.—Ezta bada ez, bear den debozioa, itsura edo arpegi

onoko edozeñi gauza egitea. Arpegiko larru edo prinzederra erakusten duten askok, barren ustel edo galdua iduki oi dute: ta debotoak diruditen, edo iduri oneko gauzak egiten dituzten zenbait, deboziorik ez duen biotzarekin dira; ta Ebanjelioko Fariseoa bezañi utsak.

5.—Sartu zen beñi ausardi andiarekin Elizan Fariseoa; ta asi zen Jainkoari esaten: «Eskerrak zuri, nere Jaun ta Jabe andia; bada ez naiz ni beste asko ta baster artan dagoen gizon-ura bezelakoa: ez det nik seigarren mandamentua urratzen; ez diot niori berea kentzen; eta ez dut, zuzen ez dabillen gauzarik egiten: egiten ditut, bear bezala, nere amarrenak, eta bitan barutzen naiz asteoro.» Debototzat zedukan bere burua, baiña deboziorik gabeko gizatar arro bat zen Fariseoa. Aski zela uste zuen, deboto ta Jainkoaren adiskide izateko, seigarren mandamentuaren kontrako loietik urrun ibiltzea, nori berea uztea, amarrenak egitea, ta barutzea; baiña bere baruamarren, bere garbiro ta niori gaitzik egingabe bizitzeak, etzuten bere antuste ta soberbiatik atera. Bere debozio guziarekin galdu zen azkenean; zeren aren debozio guzia debozio-azala zen...

(«*Jesusen Biotz Maitearen Debozioa*», Tolosan, 1882, pp. 1-4).

Zere buruari egiten badiozkatzu zuk, zure buruak edo aragi galgarriak naiko dituen atsegin loiak; baldin bazabiltza zu, datozen denboretan, zere nai makurren bidez, ta zure pasione galgarriak eskatzen duten eran, egiten dituzu zuk, zure etsaiak nai dituzten anitz gauza ta uts; atsegin andiak emain dieztezu zuk zere etsaiei; ta galduko zaituzte zu etsai gaistagin berak. Siñes dezakezu, bai, orain zuk aditzen didazun hau; bada guzia da, Espiritu Santuak guri Eskrituraz aspaldi adirazia.

Aragiaren naikundez-naikunde bazabiltza zu, laburtu-ko dituzu zuk zerorrek zere bizitzako egunak, galduko dezu zuk zere osasuna, ustelduko zara zu, ta ortzitu-ko zaituzte, zuk uste baiño len, suzko ta sufrezko obi arri-garrían.

Gauza guzien gaiñeraiño igan oi den olioa egosten da zartanean, eltzean edo era orretako ontziren batean, erre-tzen ezpada kriselluan, elizako lanparan, edo argi-egiteko den beste gauzaren batean: ta emen garaitzen ezpadezu zuk zere antustea ta arrotasun aríña, zere hondrak-naia, ta zere beti-ta-beti igan-nai galdu-galgarria, orrek berak ondatuko zaitu zu sulezeko putzu izugarrian; ta erretzen ta egosten idukiko zaitu an eternidade ta sekula guzian.

Diruzalea zara zu, ta ondasunen ondoren zabiltzan gizon estekatua; ta, orien ondoren zabiltzanean, nondik zabiltzan zu orrenbat begiratzen ez dezuna? Zere saldu-erosietan zeri begiratzen diozu zuk? Zere irabaziari, bai; baiña ez, dakartzun tratuaeren berdintasunari? Ala bada, zere ondasunak, zu ta zere irabaziak itsutua zaduzka, nora zoazen zu, edo zein toki izugarritz zoazen, ez ekusteko; gortua zaduzka (ta agitz alere) adi ez dezazun zuk zere Jaunak erraten dizun gauz onik bature; ta orregatik erio gaistoaren atzaparretan zaduzka zu.

Sutu galduren bat ote zara zu? Naigabe bat zere Jaunagatik emeki artzen ez dakizun gizona ote zara zu? Iraz ta bendekuz beterik ote zabiltzazu, sangaka dagoen txakur txar ero bat bezala? Illeen zaituzte, bada, zu azke-banean zere bekatuak; eta eramain zaituzte, kez ta garrez beterik dagoen obira; ta an egon beharko dezu zuk beti-ta-beti zere eskuz zuk zerorren zere mihia ta zere errai guziak urratzen dituzula.

Orra nora zoazen zu, zere pasione gaistoan ta zere

naikunde galduen soñean zabiltzan anima! Bekatuz illa zaude zu zere Jaunaren begietan; ta, sulezeko obi galduan gelditu nai ezpadezu zuk, geldi zaitetz emen bertan gaur, ta beti, zere Jesusen deiak aditzeko. Egizu zuk ziñez negar, oraindaiño zere erakeriez. Eskura izkitzu zere pasione asaldatu galgarriak. Jaiki zaitetz lenbaitlen zere bekatuaren oatzetik; eta zoaz, zere Ama on Eliza billa-garrira; an negar damuzko, ta Konfesion zuzeneko ur ederrez zere burua, behar den eran, garbitzera, gero zuzen egiteko, gure Jaungoiko maitagarriak manatzen dituen gauza guziak, gurutze-pean, ta nekez beterik ibilliko bazara ere, emen biziko zaran zere denboran. Jesus orretan zuri laguntzeko dago; ta lagunduko dizu, bai, zuk ala nai dezula, zere azken-horduraino. Ala gerta dedilla, bada; bai arren, bai!

(«Jesusen Amore-Nekeei dagozten zenbaít *Otoitzgai*», Iruñe, 1760, II, 204-205).

IZTEGITXOA.—*Barutu*: barau egin — *prinz*: rayo — *niori*: ifiori — *antuste*: arrokeri — *egiñen*: egingo — *emain dieztezu*: emongo deutsezu — *naikunde*: gurari — *ortzitu*: lurperatu — *estekatu*: lotu — *bendeku*: venganza — *sangaka*: ausika (txakur andiak) — *illen*: ilgo — *eramain*: eroango, eramango.



Juan Antonio UBILLOS

(Amasa, 1707 - Arantzazu, 1789)

Frantziskotarra. Teologia ta Filosofia-Maixu (ba ditu iru liburu andi, latinez egiñak, Scoto'ren Filosofiari buruz...). Euskeraz liburu txu bat baiño ez eban egin: «KRIS-TAU DOKTRIN BERRI-EKARLEA...», Tolosa, 1785 (gerora, beste bi aldiz argitaldua izan da): *Fleury frantsezaren liburu baten itzulpena da, edo obeto esateko, euskerara aldatze bat... «Nolako euskerara?... Ubilos ezta idazle garai oietakoa. Ezta Axular baten edo Et-*

cheberry baten diña. Baiño alare idazle ona da... Ubillosen euskera erri-izkeran sendo tinkatua dago. Erri-izkera du zimendu ta oiñarri antzo. Baiña ba daki emendik eta andik bear dana edo bear duna artzen. Eta alaxe, nola-alako «Gipuzkera osotuan» idatzi zula esan genezake. Bai bait-daki bizkaieratik, baita naparrera ta lapurdiera ta beste Bidasoaz arunzko euskalkietatik zerbait artzen ere...» (K. Iturria, «Aita Juan Antonio Ubillos, euskal-idazlea», EUZKO GOGOIA, 1956, Ep.-Jor., 89-90). Esaera jatorretan eta aditz sintetikoan be aberastasan andia agertzen dau...

AZKEN-JUIZIOA

Jesukristo zeruan atsedeten badago ere, ezta orratik bein ere guzaz aztutzen, beti gauzka bere gogoan, beti ari da gure aldera, eta ark egin zituan irabaziakgatik artzen ditugu, Jainkoak egiten dizkigun graziak, fabreak, mesedeak ta ontarte guziak.

Bera da, bere Aita gugatik erregutzen duan Apaiz nausia, arekin gure bitartekoa, eta bein ere gelditu gabe, bein gurutzearen gainean egin zion Sakrifizio edo doai eskaiña, beti agertzen diona. Begira dagoku zerutik eta zaitzen ta gobernatzen du bere Eleiza, Arzai Erakusle eta beste Eleizgizonen bitartez, oei bere graziarekin laguntzen diela.

«Andik etorriko da biziak eta illak juzgatzer». Noizbait bukatu bearra da, agerrian dagoan mundu au; eta orduan suak erreko du agiri dan «guzia». Eguzkiak eta

illargiak galduko due eren argia, izarrak eroriko dira zerutik, emengo gauz guziak irabiatuko dira ta ibiliko dire, batzuek gora, besteak bera, batek alde batera, besteak bestera, joko due aingeruak tronpetaren soifua, alde guzietatik baturaziko ditue ilak, biztuko dira oek, ta irtengo dira obietatik.

Orduan jetsiko da zerutik Jesukristo odeien gaiñean, aal podore (sic) ta Soberandiz beterik. Onak ifiniraziko ditu bere eskuiko aldean, ta gaiztoak ezkerrekoan. Nori berea emateko guziai artuko dizte eren bizitzako kontuak. Onak eramango ditu zerura, ta gaiztoak ondatuko ditu infernuko su-leizean. Eztaki ifiork, Juizio edo kontu artze au noiz izango dan; baiña gauza jakiña da, izaten danean, ikara-ikara utziko duala mundua guzia.
Galdeak eta eranzuak

G.—¿Jesukristok zeruan dagoala, kontu egiten dio bere Eleizari?

E.—Bai, andik ere zaitzen ta gobernatzan du bere Arzai, mezemaille edo Sazerdoteen bitartez.

G.—¿Ta Jesukristo bera Sazerdotea da?

E.—Bai: da gugatik beti bere Aitari eske ta eske dagan Apaiz edo Sazerdote nausia.

G.—¿Ta orretarako zer Sakrifizio eskeintzen dio bere Aitari, edo zer present egiten dio?

E.—Gurutzearen gaiñean egin zion ura bera...

(«KRISTAU DOKTRIN BERRI-EKARLEA...», Bilbon, 1897, 120-121 orr.).

IZTEGITXOA.—Eren: euren, beren — dizte: deutsez.

Bartolomé OLAETXEA

Bilboko Ospitale Santuko Erretore zala, 1775-garren urtean, liburu bat argitaratu eban: «Cristinauben Dotrinia. Don Bartolome Olaetxea, Bilboko Ospitale Santuko Erretoriac, Laucarizco Cura zanian, Jay Domequetan espliketan evan leguez»; gero, ainbeste bidar egin dira liburu onen ediziño barriak. Oso errikoia dau izkerea, ta ba daki gauzak argi ta garbi esaten, erderazko berbak ugariegi erabilten baditu be («parece que a los ojos de los vascos de entonces sonaban como más selectos y distinguidos»: L. Villasante)... Bizkaera zaarra ezagutzeko, batez be, bear-bearrezkoa dogu liburu au.

EXAMINA KONZIENZIAKOA EGITEKO MODU ERRAZA ARA EMEN:

Laugarren Mandamentua: Bere Guraso, Ugazaba, Maisu, Sazerdote, Juez, eta Nagusiai lotsea, obedentzia, eta

errespetua galdu deutesenez, edo berba deungarik esan, edo biraorik ezarri deutesenez.

Bere Gurasoak nezesidadean egonta, sokorru baga itxi dituzanez. Gexorik egonta, bisitau baga itxi dituzanez. Eta Sakramentuak artu baga bere erruz ill direanez.

Bere Gurasoai leenago esan baga, ñori ezkontzako berbea emon deutesanez. Gabean, lizentzia baga etxerik urteten dabenez.

Bere umeai eta ogitukoai doktrinea irakatsi deutesenez, edo exenplu deungarik emon deutesenez. Eta euren aurrean, eta dakusela, gauza deungarik egin dabenez.

Jakinik, edo sospetxea edo susmoa eukirik, bere umeak, edo etxekoak kanpoan edo etxean deungaro bizi direala, edo lagun deungakaz batzeen direala, erremedioa imini dabenez.

Bere ume eta etxekoen aurrean juramentu edo biraorik (biotzerik izan ezarren bere) egiteko izkunerik daukanez.

Zazpi urte ezkeroko umeak (edo gazteago izanarren bere), malizia badauke, eurakaz oe baten eratzo dituzanez.

Ofizio, edo jagoken bizi modua onraz biziteko, denporaz emon deutesenez.

Bere emazte eta umeai bizitza gestoa emoten deutesenez. Jatekoa, soñekoa eta osterantzean bear dabena emoten deutesenez.

Emazteak Senarrari, esanagaz edo eginagaz, atsakabarik emon deutesanez.

Sazerdote, Religioso, zar edo pobreaki burla eta barre egin deutesenez.

Tabernan, jokoan, tratu, eta bizio deungatan, bere emazteak eta umeak bear leukeena galdu dabenez.

Bere Gurasoak edo besten batek testamentario itxita, aen enterru, onra, meza, zor, eta agintzariak kunplidu baga daukazanez (...: *5-garren argit.*, Bilbaon, 1814, 130-132).

GRAZIA:

—Geu geurez, beste baga salba geñtekez?

—Ezta posible, Grazia baga.

—Grazia zer da?

—Jangoikoaen doe edo izate Jangoikozko bat, egiten dabena gizona Jangoikoaen seme, eta Zeruko erederu.

—Zegaz alkanzauko dogu Grazia?

—Orazinoiaz, obra onakaz, kontriziñoiagaz, eta Sakramentuagaz.

—Grazia emoten deuskunean, ze Birtute Jangoikoak emoten deusku?

—Iru birtute teologalak: Fedea, Esperanza, eta Karidadea: Bai, lau Kardinalak bere: Prudenzia, Justizia, Fortalezeta, eta Tenplanzea: Bai ta Humildadea ta Kastidadea bere.

—*Bienabenturanzak* zeinbat dira?

—Zortzi. Lelengoa, zorionekoak espirituz pobre direanak, zegaiti aena dan Zeruko Erreñua.

Bigarrena, zorionekoak mansoak, zegaiti izango direan lurraen jabeak.

Irugarrena, zorionekoak negar egiten dabena, zegaiti eurak izango direan poztuak.

Laugarrena, zorionekoak gose eta egarri direanak, zegaiti izango direan aseak.

Bostgarrena, zorionekoak errukiarrak, zegaiti aurkituko dabena miserikordia.

Seigarrena, zorionekoak biotz garbikoak, zegaiti onek Jangoikoa ikusiko daben.

Zazpigarrena, zorionekoak baketsuak, zegaiti onek Jangoikoaen seme izentauko direan.

Zortzigarrena, zorionekoak Justizia gaiti persekuziñoia daroanak, segaiti euren izango dan Zeruko erreñoia (30-32 orr.).

Bederatzigarren Estaziñoia:

Irugarrenez Jesu-Kristo jausi zan lekua:

O pekatuaen gauza astuna!
irugarrenean jo dau emen lurra.

Pensau egizu, Kristinaua, zelan aldatsaen igoeran indarrak itxita, Jesus maitea irugarren aldiz jausi zan, eta bere arpegi ederra autsez bete eban: jagi gura, baia ezin jagi zan, eta arerio gogorak, ostikoka, tiraka ta deadarrez esaten eutsen: «Ea jagi laster: Krutzean ill bear dozu, an illik ekusi gura zaitugu»... (164-165 orr.).

IZTEGIFXOA.—*Ogituko*: otsein, morroi — *dakusela*: ikusten dabela — *izkune*: oitura — *eratzo*: hacer acostar — *gesto*: gaizto — *aldats*: aldapa.

José Ignacio GERRIKO

(Segura, 1740 - Mutiloa, 1824)

Abadea. Gazterik, Madrillen egin zituzan Filosofia ta Teologiako ikasketak; gero, abade egin ondoren, Mutiloan egon zan beti: argia, jakintsua, izlari bikaiña, euskalzale sutsua. Astete'ren dotriña erriari azalduteko, bere «Kristau Doktriña Guztiaren Espelikazioaren Saya-ker» liburua (4 tomotan) egin eban; baiña ezin argitaratu izan eban, bera bizi zala: ainbeste eragozpen jarri eutsoezan alde guztietatik. Izkuntzaren maixu bat dogu: bai aditza erabiltzen, bai itz jatorretan, bai esaera ederretan... Bear bada, «mordilloegia» iruditzen jaku gaur... Bere liburuak «itaunerantzun»-etan zatitzen ditu.

(JAUNGOIKOA ZER DAN)

G.—(Galdera): «Baiña ori zeago eta klaruago aditzera ematen ezpadigu, zer esan nai duen ezin ezagutuko

degü», diozuela deritzot. «¿Zer esan nai du berez danak?», galdetuko didazue.

—Esan nai du, eztala beste gauzarik batere, eta ezta-
la izan iñoiz ere berez danik, Jaungoikoa bakarrik bai-
zik. Eta ala Jaungoikoa bakarrik dala betikoa: berez beti
bizi izan dana: iñori ezer ere iñoiz ere zor izan eztona:
eta kontrara, kreatura guziak, ala andiak, nola txikiak,
nola bizikorak, nola bizirik eztuenak: Zerua bera, Ain-
geru guziak: Eguzkia, Illargia, Izarrak: eta Lurra, eta
Itxasoa: gizonak, emakumeak, abere, eta egazti mota gu-
ziak: arbolak, eta landara mota guziak; hitz batean, mun-
du guzia, eta goien eta bean ikusten diran gauza guziak,
eztirala berez, eztuela berezko izaterik: diran guzia, eta
duen guzia, besteri (au da, ezerezetik sortu edo egin di-
tuanari) zor diobela: denbora batean ezertxo ere etzirala,
eta sortu dituanak konserbatuko, edo iraupena emango
ezpalie, ezer ezera biurtuko liratekeala: eta orra zein di-
ferentzia miragarria dagoan Jaungoikoaren eta kreaturen
artean.

G.—«Eta Kreadorearen eta kreaturaen artean dagoan
diferentzia orretatik, ¿zer ateratzen da?».

1.º) Jaungoikoak duela berezko betiko izate bat neu-
rririk, kaburik, mugarik, eta bazterrik eztuena; eta krea-
tura guziak duela, orainago eman zaien izate guztiz berri
eta labor bat, Jaungoikoaren betiko eta kabu bageko
izatearen aldean.

2.º) Ateratzen da, Jaungoikoa dala neurri bageko,
perfekzio, goratasun, eta aunditasun guziak beregan
dauzkana: eta orien aldean kreatura guziak dituen per-
feksioak, doaiak, birtuteak, eta bentaja guziak utsa be-
zela dirala, eta orietan sartzen dirala: Jesu-Kristoren gi-
zatasun edo Humanidade guztiz Santuarenak, Mari Bir-
jiña Santisimarenak, Aingeru ta Santu guzienak ere ezer

ez bezela dirala: bada oriek ba due bere muga: eta Jaun-
goikoarenak mugarik batere eztue.

3.º) Ateratzen da, kreatura guziak duen izate guzia,
eta dituen prenda guziak, ala naturalak, nola naturalezaz
gaiñekoak edo graziazkoak, Jaungoikoak emanak dituen
ezkero, orien perfekzio guziak (nola indarra, jakinduria,
Santutasuna, edertasuna, gozotasuna), eta beste doai gu-
ziak, Jaungoikoagan arkitzen dirala, guzien iturburu eta
jabeagan bezela: baiña ez kreaturaetan dauden neurria-
rekin eta faltarekin, baizik batere neurri bage eta kabu
bage: eta ala Jaungoikoak du kaburik eztuen ontasuna,
guzialtasuna, edertasuna, Santutasuna, Miserikordia, Jus-
tizia, betikotasuna, Zoriontasuna, eta ezin kontatu ditez-
ken anditasun guziak, batere falta bage, eta neurri bage.

4.º) Eta orregatik eziñ iñola ere Aingeru guzien eta
gizonik jakintsuen guzien adimentuak iritsi ditezke Jaun-
goikoaren izate edo anditasun soberanoa osoro ezagutze-
ra. Bada kreatura guzien adimentuak, izan al ditezkean
argituenak ere, ba due bere neurria, eta bere kabua: eta
Jaungoikoaren izateak, eta aren perfekzioak eta andita-
sunak, eztue kaburik: eta ala Jaungoikoak berak baka-
rrik osoro, edo bera dan bezela, bere izatea ezagutzen du.

Ara nola itxaso zabala gizonak ikusi arren, aren on-
darra eta aren baster guziak ezin ikusi eta ezagutu ditu:
orobat, ez bakarrik Lurrean, baita Zeruan ere Jaungoi-
koa aurpegiz aurpegi ikusi arren, Zerutarrak erak ere,
Jaungoikoaren ondo bageko eta baster bageko izate gu-
zia, edo Jaungoikoaren esenzia edo naturaleza eziñ osoro,
edo dan añerañño, ezagutu lezake.

Eta argatik dio Eskritura Santuak Jaungoikoa dagola
Kerubiñen gaiñean, ara ze Zeruko Aingerurik jakintsue-
nak ere eziñ iritsi diralako Jaungoikoa osoro, berez dan
bezela, ezagutzera.

Eta orobat dio, Moisesek berrogei egunean Jaungoi-

koarekin hitz egin, eta beragandik legea eskribiturik artu zuela, baiña lañapean, odeipean zegoala, zerren ezin osoro eta argiro iritsi zitekean, Jaungoikoaren izatea berez dan bezela osoro ezagutzera: eta ori bera esan nai du San Pablo Apostoluak, dionean, Jaungoikoa dagoala ezin osoro ikusi diteken argitasun batean.

Eta orren antz gutxi bat Eguzkiagan daukagu: Zer gauza argiagorik Eguzkia baiño? Eta ala ere gure begiak eziñ ondo begiratu diove, eta eziñ osoro ikusi due, argitasun andiegia daukalako.

Humillatu gaitezen bada, N. K., gure adimentuaren laburtasunaz, eta gure Jaungoikoaren izatearen kabugabetasunaz, adimentu guziak ezagutu al-baiño kabu bagekoa dala kargu egiñik: eta orixe da, gure Jaungoikoa mundu onetan ondoena ezagutzeko modua.

Eta ala, ez bakarrik da Jaungoikoa esan eta pensatu alditekean gauzarik exzelenteana, edo gorena, eta miragarriena; baita ere, esan eta pensatu al-baiño fin bage edo kabu bage exzelenteagoa, goragoa, eta miragarriagoa. Eta argatik du kabu bageko amorioa, errespetoa eta erreberenzia, bera danagatik merezi duena: eta gure arima, bera Zeruan ikustearekin, gaiñez egiteraiño asetzeko edo osoro kontentatzeko bakarrik gai dana: bada gure biotzeko deseo guziak eziñ ase eta kontentatu litezke, Jaungoikoagan bakarrik arkitzen dan betiko eta kabu bageko zoriona edo Gloria gozatuaz baizik: ala baiña Jaungoikoaren Magestadeak, gure bearrik ezertako ezpazuen ere, beretako egin nai izan gaitu: au, da, bera emen ezagutzeko, biotz guztitik amatzeko, eta serbitzeko; eta gero Zeruko Erreinuan beti beti bera argiro ikusteko, bera alabatzeko, bera amatzeko, eta kaburik izango eztuen zori onaz edo bere Gloriaz guk ere gozatzeko.

(*Lenengo Liburua edo Tomoa*, Tolosa 1858, pp. 47-49).

Juan Bautista AGIRRE

(Asteasu, 1742 - 1823)

«Asteasu'ko Erretore Juan B. Agirre'k anima gauzetan ederki ari izan zuen euskera. Moral-gaia oso osorik latiñetik euskerara zuen, ta Eliz-gauzetan beretan ere euskeraren landa zabaldu zigun. Idaztankera argia, izkera erraza, garbia, irakurriago ta maitagarriago dena. Euskeraz ere ikasia zen eta laphurtarren jario apurra duela emaiten du: argitasunean beintzat bai...» (ORIXE).

Liburuak: 1) «Confesioco eta Comunioco Sacramentuen gañean Eracusaldiac...», Tolosa, 1803: doctriñearen azalpen luze bat (400 orrialde); 2) «...Eracusaldiac»: Meza nagusietan egindako sermoiak, 3 liburutan:

a) Sakramentuen gañean; b) Jaungoikoaren Legeko Amar Aginteen gañean;

c) *Jesukristo ta Birjiña txit Santaren Misterioen, eta beste zenbait gauzen gañean...: Agirre bera il eta gero argitaratu eben, Tolosan, 1850.*

Gipuzkerekak izan dauan maixurik onenatarikoa: «...sin duda, uno de los grandes maestros de la lengua. Bajo este aspecto, sus obras son de un valor inapreciable... Es tal vez el mejor escritor guipuzcoano de la época antigua, o sea, anterior a 1880. Su lenguaje es castizo, natural, siempre maestro en expresar toda clase de ideas y conceptos de una manera auténticamente vasca...» (L. Villasante). Orduko oiturak eta pentsakerea ezagutzeko be egoki-egokiak dira Agirren liburu ederrok.

(AZTIAK ETA SORGIÑAK):

«...Aztien izena ematen zate, lurpean ezkutaturik dauden gauzak ekusten dituela esan oi dan aek. Ez da onelako gauzak etsaiaren laguntza gabe ekusi ditzakeanik. Ala ere, ibilli oi dira zenbait, aztien edo sorgiñen ostpeña duen atso gezurtien billa, lurpeko ondasunak, edo bestela ezkutatu zaizten gauzak arkitzeko. Au da zorakeri andia, eta Obispo jaunari, edo Inkisizioari aditzera eman bear zaiona; baiña nola gauz oek gertatu oi diran ez jakíñean, ez dira gaztigatzen íñora. Kristauna, utzi izatzu zorakeri oek.» (ERAKUSALDIAK», II, 21-gn. orr.)

(SIÑISKERIAK):

«Begira, zakurren adia, edo ezkillaren ots illuna adituta, esan dezun: «laster ilko da norbait». Nork sinistu dezake, onelako zentzugabekeriak aditzen dirala erri askotan? Zakurrak eta ezkillak ez due ezaguerarik, eta ezin adirazi dezakee orrelako gauzarik. Gaiñera Jainkoak beregan gorderik daukan gauza da noiz ilko dan bakoitza.» (Ibid., 21-22 gn. orr.)

(BESTE SIÑISKERI BATZUK):

«Begira, gaitzen batetik zere burua gordetzeko, edo ona iristeko, baliatu ote zeran artarako egokiak ez diran moduaz, ez berenez, ez Jainkoagandik, ez Elizagandik. Au da gauza debekatua, eta Obispo jaunari, edo Inkisizioari aditzera eman bear zaiona. Onelako gauza asko ez jakíñean egiten omen dira.

Ara oetatik batzuek:

—Urliak norbaiti gaitza kentzeko, edo arintzeko, aritzen du ur bedeinkatua iru ontzitik, eta edanarazten dio.

—Sandiak ezkondu nai luke: aditu du, amorio-belarraren autsakin beretuko duala nai duana, eta ematen diozka bati: zentzugaberiak dira gauz oek. Suerte ona iristeko, bizitz onaren belarra baizik ez da arkitzen.

—Urliak uste du, etxetik urtetan atsorik arkitzen baddu, ez duala egun artan gauz onik izango, eta biurtzen da etxera. Ala egiten omen zuen Tyco Braek, gizon txit jakintsua bazan ere.

—Sandiak dio, Meza bukatzean liburua geratzen bada idikia, Elizan dauden sorgin guziak geratuko dira dauden tokian, igitu ezin ditezkeala.

—Urliak ez diozka ollakolkari ipifi nai arraultzak bat

goiti baizik, zeren uste duan txita gutxi jaioko dirala, parez ipintzen bazaizka.

—Sandiak ardura andiarekin gordetzen du, Ostiral Santuz jaio zaion arraultza, urte artan suagandik gordetzeko etxea; beste batzuek ez omen due maiean jarri nai, amairu lagun badaude an.

Uzten ditut beste onelako farragarrikeri asko. Eztakit, onelako zorakeriarik usatzen dan emen, baiña balitz, izango litzake sorginkeria eta pekatu. Asko da.» (Ibid. 22-gn. orr.)

(GIZONAK ZER EGIN BEAR DAUAN):

«...Gizonak, laugarren lekuan, egin bear duan gauza da, ordu onean etxeratzea, al badu. Ez du beti eltzeen artean egon bear marisa egiñik; gogaizio andia da, alabaiña, emakumeentzat onelako gizonakin beti bizitzea; eta askoz naiago due, gizonak dagoten denboran lagun artera joatea, ezen ez emakumeen zelatan egotea.

Baiña sarritan berandu etxeratzen bada gizona, eta, bear bada, zagi egiña; etxeratzen danean sortzen badu iskanbilla, edo jartzen bada sukaldean lerdea dariola, zer gustorekin biziko da onelako gizonaren emaztea?...» (Ibid., 99-gn. orr.)

ADARBAKOITZAREN IPUIA:

«Gure Jaun Jaungoikoak egin zituan gauza guztiak, gizona ez besteak, beren sortzetik asi ta beñere nekatu gabe ari dira bakoitza bere fiñari dagokan egitekoan. Eguzkia, illargia, izarrak, lurra, sua, uura, aizea, ta beste gauza guziak gau ta egun egiten due, ta munduak dirauen artean egingo due beren Egille Andiak eman zien lana.

Ta gauz arritzekoa! Zentzurik ez duen gauzak aiñ le-

yalki ta zuzen beren fiñari jarraitzen dioe: ta izanik gizona, bere Jaun Jaungoikoak adimentuaren argitasunuez edertu ta apaindu zuan gauza; gizona alaere da bere Egille Andiaz aztu, ta zertarako egiña dan ongi begiratu-gabe, egunak, asteak, urteak ezer-ezaren, edo munduko aukeria, ta atsegin zirtzilla ta lausoen ondoren igarotzen dituana: txit gutxi dira, alabaiña, gizonen artean, beren fin goi ta andiari kontuz jarraitzen dioenak. Gizonaren eskergabekeria itsusi au aditzera ematen du gizon birtutetsu batek ipui onekin:

Usatu zion bein, gizon bidez zijoan bati, Unicornio edo Adarbakoitza deritzan animalia aserre batek. Ekin zion bidezkoak lasterrari, baiña alaere Adarbakoitzak denbora gutxiren barrunbean atxitzeko zorian jarraituko zion. Es-tu ta larri zan bidezko gajoa, ta bere estutasunarekin sal-to egin zuan bide ondoan ekusi zuan leize izugarri ba-tera, ta an beera zijoala eldu zion leizearen alde batetik zegoan lertxun baten adarrari, ta geratu zan aidean itxi-kirik.

Begiratzen du goora, ta an zegoan Adarbakoitz ase-rra, noiz igoko dan zai. Begiratzen du beera, ta ekusten du dragoitzar izugarri bat aoa zabaldurik, beera erortzen dan puntuan irintsitzeko txintxillik dagoan gizon tristea. Begiratzen du lertxunaren sustraiera, ta ekusten ditu bi sagu, txuria bata, beltza bestea, sustraia gutxika janaz ari dirala.

Zer pena, zer kezka ta naigabeak etzuan gizon au inguratuko, bere burua era onetan ekustean? Ala gertatuko zala uste izan zitekean, baiña engañatzen gera. Gure bi-dezkoa perill ain andian zegoalarik, arkitzen zan, alaere, kezka ta ardurarik bateregabe, lertxunaren orrietatik erortzen ziran ezetasun goiso baten tantoai aoa zabal-durik.

Ez da zentzungabekeria eskargea? Gizon bat, alde gu-

zietatik perillen artean inguratua: goien Adarbakoitza aren zai; bean dragoitzarra, eztarria zabaldurik, gizon onen begira; lertxun medar baten adar txarretik itxikirik leizean ondatzeko zori zorian; ta lertxunaren sustraiari gau ta egun janaz ari zaizkala bi saguak! Ta tranzte onen estuan gure gizona arkitzen da lertxun-ostoaetik erortzen zaizkan tanto goisoai aoa zabaldurik, eta txoraturik! O itsumen izugarria!

Ongi, Kristaua: ¿ta ipui onek zer aditzera ematen digu, ezpada gurekin egunoro gertatzen dana? Bidez dijoan gizona da jaiio dan gizon ta emakumea. Adarbakoitza edo unicornioa da, gure sortzetik asi ta beti orpoz orpo darrakigun eriotza. Leize da mundu galdu au, ta leize onetan sarturik gizona itxikirik arkitzen da, edo txintxilik lertxun baten, edo bizitzaren adar mee batetik. Gure bizitzari beti ari zaizka puska kenduaz bi sagu, txuria bata, beltza bestea, au da, gaua ta eguna, ta beera begirutzen badegu ekusten degu dragoi bat, edo infernua, bere ezarrizar izugarria zabaldurik, gu irintsi nairik. Ta alaere gu bizi gera lertxunaren orrietatik, edo gure bizitzaren ostoaetik, erortzen diran zembat tanto goisori aoa zabaldurik, txoraturik, ta arkitzen geran perill andiari begiratzan ez diogula, ta zertarako gure Egille on maitagarriak emen ipiñi gaituen aztuak. Ez ote gera, nere Kristauak, noizbait noizbait zentzatuko?...

(ERAKUSALDIAK, III, 248-250).

EDANAREN ONDOREN GAISTO EDO KALTEAK:

«Edanerako makurtasunetik jaiotzen dan 5-garren ondoren gaisto edo kaltea da, guzien farragarri, edo obeto esateko, guzien lotsagarri egitea; edanak eragiten ditu, alabaiña, ta erasaten gauza lotsagarriak. Argatik Konzilio batean esaten da: orditzea Kristabarentzat gauz itsu-

si ta lotsagarria dala. «Ebrietas deducus est cuique Chtiano» (Conc. Aquisg.).

Noe, Eskritura Santak esaten digunaz batean, zan Jau-naren adiskide andia, bere adiñagatik, bere bizitza ta oitura onagatik gizon guziz beneragarri: seieun urte urarekin igaro ondoan ipiñi zuan mastia, egin zuan ardoa, ta uura bezala zalako ustean, edan zuan bear baiño geiago, ta galdu zuan bere ezaguera. Edanaren kontua: seieun urtean ain beneragarria izan zan gizona jartzen da guzia erauntzirik, agerturik, ta lotsatzeko eran, ta bere umeetatik batzuek iseka egiten dioela. Emendik etorri zan gero Noeren aserrea bere ume lotsagabe oen kontra; emendik ume oek, ta oen jatorria madarikatua izatea. Noe gizon ain beneragarriarekin au edanak egin zuanean, zer egingo ez du berenez ariñak, zentzu gutxikoak, edo Jau-naren beldur gutxikoak diranakin.

Agrigento deritzan leku batean jarri ziran egun baten edaten mariñel batzuek: edaten due galanki, ta edaten due arrapatzeraiño. Edanak eman oi dituan iduripenakin iduritzen zate itsasoan daudela, ta ontzia galtzeko perillean dabillega: etxea zebillen alabaiña aen buruan azpiko-ko goora irauliaz: iduripen onekin asitzen dira ontziari karga gutxitzen: artzen ditue oiak, botatzen ditue leiostatik bera: artzen ditue koltxak, botatzen ditue: artzen ditue kutxak, an dijoaz oek-ere.

Etzan, alaere, ontzia geratzen bere iraultzeko mugimentuan; guzia zegoan, alabaiña, mariñelen buruko zorabian. Zer egiten due? Etsirik ontziaren galtzeaz, erauntzitzen dira guziak, ta larrugorrian jarririk ateratzen dira egunaren erdian, edo beintzat argitan, igari itsasoan bazeuden bezala.

Begira, nere Kristabak, zer ekuskaria gisa onetan, legorrean ta egunaz, gizonak ekustea igari! Farra egiten dezu, Kristaua, ipui au aditzean, baiña atozea: etzatzu

zuri onenbeste gertatu? Atozea: etzera inoiz bide orietan erauntzi, oera zoazelako ustean? Etzera aritz edo gaztaiñakin borroka asi, gizonen batzuk diralako ustean? Etzera deadarka ta ujuz ibilli, lorretan bazenbiltza bezala? Ai! nere Kristau onak! Oek, ta beste leku onetatik adierazi nitzakean gauz asko ekusi dituzue zerok, edo gutxienean aditu... («ERASUSALDIAC», III, 376-377).

IZTEGITXOA.—Otspen: fama, ospe — usatu: oler — lertxun: álamo temblón — itxiki: oratu — tanto: tanta, gota — darraiiki-gun: jarraitzen deuskun — zentzatu: volverse juicioso — makurtasun: inclinación — erasan: eraso.

Joaquín LIZARRAGA

(Elkano, 1745-1835)

Nafarroako bere sorterritzuan izan zan parroko idazle ugari au. «Bere bizitza luzean, euskeraz idatzi zuen bederik Nafarroako beste guziek baiño aunitz geiago; ez dut esaten obeki, ezen bere yoskerak erderatiko kutsu bat badu; baina oso aberatsa da bestalde verboaren itzulietan, itzetan eta esakeretan ere: beraz, linguistaendako preziatsua eta ikasgarria.» (A. Irigaray, «Euskeran»-n, 1959, 120). Gainera, beiñola ain zabaldua izanarren gaur guztiz galduta daukagun euskal dialektu bat — «Altonavarro meridional» deritzona — ezagutzeko, ez dogu Lizarraga baiño testigu oberik.

Liburu asko ta luzeak idatzi zitan, baiña lau baiño ez dira argitaratuak:

1) «Urteco Igande guztietaraco

Platicac edo Itzaldiac...» (*Donostian, 1846*);

2) «Jesus. Copla guisa batzuc molde gutitecoac...» (*Londresen, 1868*).

3) «Jesus - Cristoren Evangelio sandua Juanec dacarren guisara...» (*Londresen, 1868*); 4) *Xabierreko San Frantziskoren Bizitza labur bat (Iruñean, 1922)*.

Sei tomo aundiak, eskuz idatzirik, Nafarroako Artxiboan eta Iruñeko Apezgaitegiko liburutegian daude, inprimatu gabe oraindik, eta zati auek oietatik artuak daude.

Egúngo Ebanjelioan aipatzen tigu Jesus Cristok señaile izanen dirénak iruzkian, ilargian, izarretán, itsásoan ta lurrean azken juizioko egunaren alzinean. (Señale gaiétaz, zerbait errán ze azkén Ebanjelioan). Egún errágun juizio egin bear dénaz gure bizimodu, obra, itz, afekto, pensamtu, ta omisioneez. Bi aldiz in bear da juizio gau edí bi juizio dire: bat da juizio partikulára persóna bakótxaz iltzen dénean; bérzea dá juizio unibersála mundu guziaz azkén egúnean. Lenbizikoa dio S. Pablok (Hebr. 9) statutum est homus. & Dago erranik sententzia ilzeko gizónak ta onen atzétik juizioa. Bigarrenaz dio Kredoa, inde venturus est iudicare. & Nondik etorko baita azken juizioko egunean onen eta gaixtoen juzgátzera; edo esplikatzén duen bezála mezako kredoa, et iterum venturus est iud. & eta berriz etorri bear du Jesus Cristok glorioso juzgátzera biziak ta ilak. Egun gura izanen da azken eguna, egun guzien eguna, zeintara erreduzituko

dirén gizon guzien egunak, lengoak, presenteak ta urren-goak. Jangoikoaren eguna propioki, iraren eguna, kalamidade, miseria, iluntasuna, tenpestate, tronpeta, soñu ta arroituaren eguna, egun andia ta amargoa lazki.

S. Lukasen 14-kapitan kontatzen dú parabola bát, nola gizon bátek prestatu zuen, otrontze bát ándia ta deitu zituen ánitx. Garái zélaik ez agéri konbidatuak eta biali zué mutila deitzerá. Aiek atra zúte atxekia ez joategátik; bátak erosi zuela heredaje bát ta ikusi bear zuéla; berzeak erosi zituela idiak, ta progatu bear zituéla; berzeak ezkontzen zéla, ta orgátik etzeikela joán. Asarréturik Jaun ark manatu zió mutilari: zoáz bérta erriko plazak ta karrikak bárna, eta póbreak, itsuak, malderrak ta ezinduak ekarzkizu onát... Egin zue erran bezála, ta oraño ba zé léku máiean... Zoáz, errán zio, bideak ta estiak bárna, ta obligazkizu etorzerá bete daien nere étxea; ezi diot sínés (zinez) konbidatu gaiétatik niórki ére eztú xastátuko nere otróntzea.

S. Mateoren 22 kapitan. kontatzen dú parabola bát errege báten semearén bódez, gisa berékoa, ta zenbaiten ústez berbéra: solame. ezi an dió iágo, bazkaltzerákoan sartu zéla errége ikusterá máien jarririk zeudénak, ta ikusi zuéla an bát, bodetáko tresenaik gábe ta erran zióla: Adiskidea, nola sartu zára emén bodetako trésena gábe? Ura gelditu zé ixil; ta errégek manatu zué botátzeko ándik ura oin eskuetan lóturik, ilunbe batera.



Juan Antonio MOGEL eta URKIZA

(Eibar, 1745 - Markiña, 1804)

Abadea. Markiña Xemeingo Cura jauna. Mediku baten semea. Jakituna bera, ta orduko jakitun askorekin artu-emon estuak izan zituana (Humboldt, Añibarro, Vargas Ponce, Astarloa...). Euskera-zale sutua: loba bi be —Juan Jose ta Bizenta— beronek eskolatu zituana eta euskal-arloro bultzatu... Egille ta eragille... Euskera garbi, txairo ta joria darabil beti Mogelek, naiz eta, noizipeñean, latin-kutsu geiegi izan joskeran: «Euskal idazle klasikoetariko bat

dugu. Euskeraren batasunakin ta edertasunakin asko arduratu zan, eta euskalkirik geienak ezagutzen zituana, naiz eta ongien ezagutzen zuana eta geien landu zuana bizkaiera izan... Arritzen gaituana da bere gipuzkoerazko euskalki zoliak. Nunbait asko irakurri zuan kiputzez...» (Juan San Martin, «MOGEL» — Bere bizitza ta lanak» Zarautz, 1959).

Idazlanak: 1) «Confesio ta Comunioco Sacramentuen gañean Eracasteac», Pamplona, 1800: gipuzkeraz; 2) «Confesino Ona...», Vitoria, 1803: leengoaren zati bat, bizkaieraz; 3) «Cristinauren jaquinvidea»: Asteteren Dotriñea euskeraz; 4) «El doctor PERU ABARCA, catedrático de la lengua bascongada en la Universidad de Basarte o Diálogos entre un rústico solitario bascongado y un barbero callejero llamado Maisu Juan», Durango, 1881: auxe da Mogelen libururik ospetsuena: «Bizkaian ez ezik, Euskalerrian argitara den libururik ederrenetarikoa da... Euskal biziera gai artu zuen, eta orregatik zaigu zalegarriago... Esaera, oikuntza, neurritz, atsotitz eta olakoak edertzen dute liburu au» (ORIXE). «Liburu zoragarria..., euskal literaturan iñoiz agertu dan lanik goienetako bat»

(A. Arrue). «Una de las cumbres de la literatura vasca. Libro aménisimo que se lee con indecible gusto...» (L. Villasante). *Mogel eta Aita Añibarro doguz bizkaiera literarioaren sortzaille nagusiak. (Ba ditu beste idazlan txikiago batzuk be...).*

(BASERRITARRAK, EUSKERA ONAREN MAISUAK):

Maisu Juan.—(Peru Abarkari): «Gauza batek ikaraturen nau zugar: zein ederto euskera berba egiten dozun, eskolarik euki baga. Nik ezin dot, irakurlante andia izanda bere. Bati baiño geiagori entzun deusat, baserritarretan dagoala euskera garbia; Gaztelan izan gareanok ta uri barruetakoak erdera askogaz nastetan dogula euskerrea... Gure erriko kureari entzun deusat, burua ausita bere, ezin dabela sermoe bat euskera ondo imini. Nik erakutsiko deusadaz, zuri ikasten deusadazanak.

Peru.—*Maisu Juan*, nik eztakit beste euskerarik, neure guraso ta auzokoei entzunda ikasi deuseedana baiño, ta egizu ondoen deritxazuna...» («PERU ABARKA», 4-garren arg., Zarautz, 1956, 68 orr.).

(OLA-GIZONAK):

—*Peru*: «...eldu gara olara, ta euko dogu zer ikusi ta zeri berba egin.

—*M. Juan*: Jesus, ze jente modu da ura? Inpreinua dirudi. Ze sua ta gaarrak! Ze erremienta ta toki tristeak! Gizonen itxurarik eztaukee emen dakustazanok. Ezteuskue agur bat bere egiten. Eztaukee arpegian baltzitu bagako gauzarik.

Peru: *Maisu Juan*: zer uste zenduan emen ediro? Gizon ederto apainduak? Begiratu egiezu ondo buruti beatzetara: eztabe agiri ez begi, ez betulerik baltzaren baltzaz: ederrak dira mauruak oneen aldean. Kapela igartu ta erdikin bat buruan, zapi kedartu bat bekoki erdiraiño, izerdia artu ta suaren berotasuna arinduteko. Oberra uts, idunean lotua; ezta zer eskatu jakerik, ez kaltzerdi, ez abarka, ez ta prakarik bere. Ooera etzuteko ta jagiteko eztaukee nekerik zer artu.

—*M. J.*: Ori da, bada; eta, nungoak dira gizon oneek?

—*Peru*: Bizkaitar garbiak, odolean zuri ezer zor ezteusuenak.

—*M. J.*: Zeinbat opiziale dira, ta zer aloger emoten jakee?

—*Peru*: Dira lau beargiñ: *Ijelea*, *Urtzaila* bi ta *Gatzamaillea*. Alogera ainbestekoa da; baiña bai ondo irabazia. Ijeleak daroa bearsari edo aloger geiago, ta onek izan daroaz egunekoaz ostean, eskupeko edo atseginsariak.

Burdiña asko egin bada, ondo irabazten da; bestelan, gitxi. *Gatzamaille* gaisoak daroa nekerik gogor ta gogaitgarriena ta irabazterik laburrena.

M. J.: Zelan ori kristau-errian?

—*Peru*: Eztozu entzun inoz prailé-etxeetan jazotan dana? Praile gatzetxu edo sartu-barriak daroe nekerik gogorrena. Ezta oneetzat bigungarririk: sendo sendo, osoz oso daroaz agindu guztiak. Alan bear da, jakin dagien zetara joan direan. Lenengo urtean bigunegi balerabillez ta euren buruetan ikusi baga pisu guztia, gerora esango leuke guzurtauak geratu zireala, ogi biguna erakutsi, ta emonaz birzaiz eginiko baltz ta jangatxa.

Alan, bada, *gatzamailleak* bere, izanik sartu-barriak,

ikasten dabee neke andien eta irabazi laburraren bidez, zer itxaraten deutseen, ta geroko obeagoaren penzudaan egonaz, igaro-erraza egiten jakee, daroen bear gogor ta nekatsua. «Zelan alan, dinoe euren artean, igaroko ditut iru urte, ikasiko dot bear egiten; gero sartuko naz urtzaillea; egingo naz gizon, ogia irabazteko duin, ta alan geroko nekeai emongo deutseet arpegi, irabazte obeaz, ta gogorrangoak ikusita nagoalako. Lur argaleko muntegian azi direan landara gaztiak, iragoten badira lur koipatsuko basora, ezta esatekoa zeinbat irabazi daroen; ta zein mardoak gero azi; ez alan lur gozatsuti badaroez lur agorrera.

—*M. J.*: Zer esan gura dabee izen oneek: *Ijelea, Urtzaillea ta Gatzamaillea*?

—*Peru*: *Ijeleak* esan gura dau ijeztu edo irunduten dabela burdiñea. Ikusi dituzu sarri gorulak, zelan amulu edo kirru goruan biribildua ijezten edo iruten dabeen, moltsoti ari mea egiteko? Bada Ola-ijeleak burdiña biribildu ta moltsatuta dagoana, dakar meatuaz; ta esan gifañ iruten dabela. Beraz ondo ipinia dauka *Ijelearen* izena. Esaten da, barriz, *Urtzaillea*, zerren urtu eragiten daben mea sutegian. Izentetan da *Gatzamaillea*, onek jaon edo zaindu bear dabelako lapikoa ta oni gatza ezarri edo emon. Au da beste iruren morroe edo otseña legez, aginduten jakon guztia egiteko, ta *Ijelea* guztien jaola, irakasla ta burua... («PERU ABARKA», 110-112 orr.).

(ANDRAKUME EUSKALDUNAK):

—*M. Juan*: Eztakit topauko dan inun andrakume euskaldunak baiño sendoagorik.

Peru: Nik bere ez dakit, Maisu Juan. Dira sona, dublabre ta askotakoak. Nok sinistu lei, gizonen premiña

baga artu daikeezala linoak dakazan ta entzun dituzun arazo ta lor guztiak? Soloetan dakuskuz atxurretan, laietan, saraketan, jorraan ta edozein bear egiten. Ba dakie idiak buztartuten, itzaintzea egiten, itaurreko dabiltzala noznai. Lau neskatilla baserrian aziak, zuzenduko leukee etxaguntza andi bat, gizonen premiña бага ezertarako... («PERU ABARKA», 135 orr.).

(EUSKALERRIAN MODA BARRIAK):

—*Peru*: Bai, alan jazoten da aspaldiko urteetan; nekezale guztiak bere ba daukez euren zapatak zutoetxuetan, ta kalzerdiak kakoan esegita. Sartu dira kapela kerizgarriak ta egal biribil ta luzedunak. Nik entzun neutsan aita asaba bati, antxina andikiak bere ebiltzala abarakaz, txapel batuaz, zeintzuk obago direan burua ta belarriak berotuteko, kerizgarri zuk sonbrelluaren izena emoten deutseezunak baiño. Jagiko balira lurpetik antxinako asabak, ez leukee sinistuko bizkaitar ta euren ondorengoak direala gaurko jaun, andiki ta andigurak.

Mutillak beti erabillen burua mutildurik, ta emendi etorkeen euren izena. Gizonak azten eben ulea lepoti beera ezarteko, ta agertuko bazirean gizon artean. Neskatillak erabillezan uleak, agirian, euren garbitasunaren igargarritzat. Neska zantar jausi ta garbitasuna galduak, zapiakaz estalduta buruak, lotsaturik, atzeratu ditezan besteak dongaro egitetik. Andra ezkonduak estaldu eroezan buruak, batzuk orain legez, ta etxanderak jira askogaz. Aztu dira asko gaurko egunerako, antxinako gure mutil, neskatilla, gizon ta andreen jaantzi iraunkorrak. Nor nor dan, nok ezagutu? (...) Galdu gaitue arrotz ta erdaldunak, ta tximino eginik jarraitu gura deutsegu aen asmoei... («PERU ABARKA», 81-82 orr.).

(«Peru Abarka»-ren aberastasunak askotarikoak dira; esate baterako, ipuiñak: ona emen bat: AZERIA TA TXARRIA):

—M. Juan: Orra lauoiñeko bati emon jakon pagua, urte betean erregaluan eukita.

—Peru: Ondo dinozu, ta orain jatort gogora gaztetan ikasi neban asko esan gura daben ipuin au: «Eldu zan korta batera azeri bat, ta topau eban an belarluze edo txarri gizen ta mardoa. Esa-etsan onek: «Zer darabilk emen, lapur zital orrek? Iri guztiak deue gorroto. Eizaan dabiltzanak, eroaten dituazalako eurak ill gura jituen eperrak. Gurago juek i lako bat, sei eper baiño, egiten dituazan kalteak gaiti. Etxeetan ezin ikusi abe, olloak atrapetan dituazalako. Txakurrak urrinetik igarten jeutseek, botaten doan atsaz, urrean abillela. Asko ostu ta beti argal, beste lapurrak legez. Ase ollakiz, bildotskiz ta eperkiz, ta beti aragi txaarra egiten doala. Illten baabe bere, ez abe ezertarako gura. Ez dakusk, barriz, nire bizitza ona? Jan ta lo, ta nozbait urten ibiltera. Jatort neskatillea zukuaz, arta garauaz ta kastañakaz. Sabelpean ta lepo ganean niri igorzten oi dabill, ta bere poza da, nik ondo jaatea, gizen egitea; ta egun baten jan gura ezpadot, illunduten jako biotza, ta dino negarrez legez: «Jan-gartzutu da gure lauoiñekoa», ta jabilt eragau ta pala-getan, jan eragiteko.»

Esa-etsan azeriak: «Ah, tontotzarra! Lo egik; gizen-du adi. Maite jituek ire odoloste, lukainka, gibel, bare, solomo, ta doan guztia. Ire urdai gozatuak urte guztian egon bearko jok egozten, kuntzurrun ta solomoak sutan erreten. Jatorranean epaillea, ta iru edo lau gizonek oratuta, sartuten deuanean ganibeta samati erraietaraiño, irrintzaka agoanean oiñei ezin eraginda, esango dok: «O azeri zorionekoa, ta zenbat dontsuagoa azan ni baiño!»

Orra zetara jo debeen nire jan, lo ta bizitza onak». (76 orr.)

(*Atsotitz edo errefrau asko be batu deuskuz liburu orretan*): Ona emen batzuk:

—Errementeriaren etxean, zotza burduntzi.

—Azeri zaarrak, aillea luze; bere legezkoak besteak uste.

—Goiz jagia, goiz gose; belu jagia, loz ase.

—Zulo bakotxari, laakoa.

—Ardao gozoak lau begi ta oiñik ez.

—Zu beti ero; otz eztana bero.

—Maria gurea goruetan, bear ez dan orduetan.

—Azeri zaarrari ulea joan, baiña antza (atsa) ez.

—Otsoak otsoari gatzik ez, ta lapurrari lapurrak lantzan.

(EUSKERAZKO LIBURUAK, ZERTARAKO?):

«...baña idukirik Sazedote edo Eliz gizon erakaslak libru asko ta ugari erdaraz, *zertako dute euskerazko au?* Berak biurtuko dituzte erderatik euskerara.»

—Ala dirudi; ordea, *ez da alperra nere nekea*. Ba dira Eliz gizon asko, Apaiz egin berrian txit atzeraak daudenak euskaraz itzegiten, ta guziz Elizan. Apurzen dituzte beren buruak Sermoi bat euskeratu ezinik. Nola erdal-errietatik etortzen diran, urteren batzuek igarorik Eliz gauzak ikasten, ta aztu zaien asko len zekiten itzkera Amaren bularretik zekartena, ez da esatekoa zenbat gaiztasun ta atzerapen arkitzen duten euskera itz egiten Eliz gauzetan. Ez da berdin oen gainean bear bezela itzegitea agirian, ta bestolako gauzeetan.

Gure gizon ta andra baserritakoak txit eduki, ta bear bada iñork ez bezela, itzegiten dute berai dagozkien gauza askotan. Ordea, ez lukee jakingo nola zuzendu itzak, gauza goratu ta bere gaiñetikoetan.

Au onela izanik, *libru euskarazkoak ez dira alperrak, ta bai mesede andikoak, Eliz-gizon askorentzat ere. Era-kurriaz ikasiko dute nola esaten dan euskaraz berak eze-kitena. Oituko ere dira erraz erakurtera, zeren gauza lotsagarria da ekustea asko, errazago erakurten Franzes ta Ingles libruak oen itzkerak aitu edo jakin gabe, jatorriz dakarten euskera ondo dakitena baiño. Zerk egiten dau au? Ekandu edo oitu ez diralako euskarazko libruak erakurtera.*

(IBID., VII-IX).

(EUSKERA MORDOILLOA):

«Beste batzuek dituzu, premia gabe ta animen kalte andiarekin, euskara guzia galtzen duteenak, bein euskera, bein latíñera, guzia baraustu ta zikindua. *Gutxik daki bere jaieterriko euskeraren erdia*, ta alperten, nagitzen, ta lotsatzen ere dira ikasten ta galdetzen; ta gero gaitzki esaka dabilta, garbiro euskera egiten duteenak gatik. Begitantzen zaie nekazari euskera baiño ezdakitenak, aditu bear dituzteela *erdera euskeratuak*. Euskerak dauzkanean itz ederrak, guzien aoetan dabilzananak, *zertako da erdera mordoillo jardutea* Erakastegi santuan? Euskaldun garbiak, zer aituko du, esaten bazaio Seme «Unigenitua», «Aita Omnipotentea», Espiritu Santu «Vivificadorea», gauza «necesarioak», ta ezin esan beste itz onelako?

Ala bada, *ebilli bear da bide erditik*, geiegiaz edo gutxiegiaz utsik egin ez dezagun...» (IBID. XII-XIII).

(CARDABERAZ ETA MENDIBURUREN IZKERAK):

«Uste det, berriz, libru onetako euskera izango dala aditua Giputz guzian, Bizkaiko erri askotan, ta Naparroa geienean. *Cardaberazen libruak* aditzen errazagoak dira

Euskal errietan Mendibururenak baiño. *Onek* itz asko artu ditu Napar euskeratik, ta nola urruti dauden bata besteagandik Naparroa ta Bizkaia, ez ala Giputzak (bada oek erdian daude), *errazago egiten zaie Bizkaitarrai* aditzea *Cardaberazen itzkera* giputz utsezkoa, Mendibururen giputz-naparra baiño. Au ez da esatea, Mendibururen euskera ederra ez dala; da egiaz, ta itzak garbiago ta euskeratsuagoak Cardaberazen libruetakoak baiño; ala ere, onenak leku zabalagoan aditzen dira, esan dedan arrazoa gatik. Nik ere oni jarraitu diot, alegiñez, arrazoi beragatik.

(ZEIN OBEA: BIZKAI'ko EUSKERA ALA GIPUTZENA?):

«Ba da atsekabe ematen didan beste *gauza bat*, au da enzutea Euskaldunak gaitzki esaten, ta auzitan bezela batzuek besteakin.

Giputzak enzuten dutenean Bizkaitarren itzkera, be-rala abiatzen dira esaten: «au dek euskera zatar, astun, ta gogaitkarria. Nork enzun, belarriak estaldu gabe?»

Bizkaitar askok (ez erri guzietakoak) esango dizute giputzak dirala «labaiñak beren itzkeran, emakumen min-gain zorrotzentzat ona dala, Bizkaikoa gizontsuagoa». Asitzen dira kiñu ta siñuka; oek arpegian ematen die aiei «nion, zion, diot», ta ala beste epai moldeakin. Aiek, berriz, Bizkaitarrai, «deutsat, neutsan, zeuntsan, esan juan, ez dok, bai dok» ta onela beste itz askotan.

Euskaldun maiteak, *zertako dira itz-auzi oek?* Zer esango digute erdaldunak, errietan ta siñuka bagabiltza alkarren artean?

Gure euskera gauza ez dala. Aita Larramendi ta Cardaverasek, giputzak izanik, aitortzen zuten, etzekitela zein zan obeagoa: bakoitzak jarrai beza bere jaieterriko euskera; ordea, ez gaizkirik esan. Ez degu errikoiak, edo erriko amorean itxutuak izan bear. Nik guziak dauzkat edertzat. Zati bat naiz giputza, ta beste zati bat bizkaitarra, ta bietara zerbait egin banaiz ere, geiago Bizkaiko euskerara, nere bizitzarik geiena emen igaro dedalako jendeai erakasten animako gauzaak. Libru berau ipintzea uste det Bizkaiko euskeran ere. Ez dakitenak uste dute Bizkai guzian esaten dala: «Ené, ara toroa plazaan manzania jaaten». Bilbotarren erdi erdera erdi euskera daukate Bizkai guziko euskeratzat. Ez da, ordea, ala.

Eztitsuagoak dira giputzen itzak, baiña itzen euskeratasun, garbitasun, ta euskera legeen aldetik, ez dio ezer zor Bizkaikoak; ta Cardaverasen iritzian, obeto gordetzen dira euskeraren regla edo zuzen bideak Bizkaian, Giputzean baiño.

Dan bezela dala, O Euskaldun onak!, ar zazute nere borondatea libru onetan...»

(IBID., XIII-XV).

IZTEGITXOA.—ITZAURREA: oikuntza: oitura, ekandu. BASERRITARRAK: irakurlante: irakurle. OLA-GIZONAK: dakustazanok: ikusten dituanok — ediro: idoro, arkitu — obrera: camisión — idun: cuello — eskupeko: propina — birzai: salvado — mantegi: vivero — daroen: oi duten — ijeztu: laminar — gorula: hilandera — lapiko: olla — jaola: zaindari. ANDRAKUME: sona, dulabra ta askotakoak: apuestas, activas y hábiles — itzaintza: oficio de boyero — itaurreko: boyero — etraguntza: propiedad. MODA BARRIAK: zutoe: tronco de árbol — keriza: itzala — mutildu: rapar — eroezan: oi zituzten — etxandera: señora propietaria — tximino: tximu. AZERIA: jatort: datorkit — jangar-tzutu: hacerse parco en la comida — eregau: mimar — palagau: palakatu, halagar — kuntzurrun: rifaón — epailla: cortador — ganibeta: cuchillo. ATSOTITZ: aille: buztan — laako: clavija. EUSKERA: baraustu: embrollar — erakastegi: cátedra.

Fr. Pedro Antonio AÑIBARRO

(Villaro, 1748 - Zarautz, 1830)

Frantziskotar au Zarautz-ko komentuan bizi izan zan, eta, mixiolaria zanez, Euskalerririk geiena ezagutu aal izan eban: olan, euskal dialektokoak be ondo ikasi zituan... Berau dogu, Juan Antonio Mogelgaz batera, bizkaiera literarioaren sortzailleetarikoa. Bere euskerrea, izan be, ain da argia, erri-errikoa, ugaria (bear bada, ugariegia be bai: oso da sinonimo zalea!).

Lan ugari ta baliotsuak itxi deuskuz; ona emen ederrenetariokoak: 1) «Esku liburua...» (Tolosa, 1802): ediziño asko izan ditu Debozionario onek. «Este libro... pertenece, sin duda alguna, a los libros clásicos del vascuence vizcaíno» (L. Villasante). «Otxoluak be asko maite eban liburutxu au. «Euskera ere garbia, landua, uga-

ria. Euskal eliz-liburuetan bai politentsuna.» (Orixe)... 2) «Lora-Sorta Espirituala» (Tolosa, 1803): Aita Palaciosen erdal liburu biren itzulpena: «...ez dirudi batena; erdalkeriz josirik dago» (Orixe); 3) «Kurutze Santearen, Aita Gure ta Ave Marien ganeko Erakusaldiak» (Durango, 1879); 4) «Geroko Gerro»: Axularren liburu ederra Bizkaiko euskeraz (XLII kapitulu baiño ez ziran argitaratu R.I.E.V-en)... Ganera, ba ditu beste euskal lan batzuk be, argitaratu barik: gramatika bat, sermoiak, 4) Ebanjelioak... Oraintsu argitaratu eban A. Villasantek Añibarroren Iztegi jakingarri bat...

GORPUTZ ILLAREN GANEAN GOGARTEA:

Uste izan, dakutzula zure gorputza ill-oean.

1.—Zelan dago? Guztiz ikaragarria, bellegiturik, ezaindurik eta zul bat legez datz. Eztakus, eztabil, eztau txitik egiten. Bakarrik; iñok jaramon ta ikusi gura ezinik.

2.—Zegaz meztitu ta jazten dabe? Ill-janzi zatar eten bateaz, edo habitu zar bateaz: ain dago ikaragarria, ze guztiak doaz iges; iñor egon ezin da bere alboan: ozta idoroten da nok lurpetu daien.

3.—Nora daroe? Elexara, Sazerdoten laguntzan, zeintzuek esanik erregute gitxi batzuk, sartuten dabe sepuluran; sakatu ta ostikopetuten dabe ardura бага, bertan lurtu, autstu, usteldu ta arrak jan daien: eta itxirik an

bakarrik, doa bakotxa bere etxera. Eta gorputz au, nabil ni, edertu ezinik, olgura, guztu zitel ta naigurak emon ezinik? O itsutasuna! O erakeria! («ESKU LIBURUA», 1891, 32-33).

KURUTZE SANTUA:

Kurutzean josirik gure Jesus maitea iltzan, ta kristiñau biotz guztietan josirik egon bear leuke kurutze santeak. Beragaz Jesukristok erosi ginduzan, diño San Paulok. Beragaz idigi euskuzan zeruko ate itxi zarratuak. Beragaz baketu, bitartetu, bildu, alkartu ta adiskidetu ginduzan bere Aita Jaungoiko aserratuaz. Beragaz adore бага deabrua itxi eban; bere arrotasuna azpiratu, umildu, beeratu, ta goiartu eban; bere eskubide, agintaritza, al ta jabetasuna katigatu, lotu ta estu eban. Beragaz zoriondu, aberastu ta doatsutu zituan Adanen seme zotinalgidu errukigarriak. Beragaz pekatuaren illunpe, kate ta oxin ondagarritik atera ginduzan; ta len bere arerioak giñianok semetu, laztandu ta maitetu ginduzan...

Ziñatutean, lenengo kurutzea bekokian egiten dogu, Jaungoikoak librau gaizan pentsamentu deungetarik, gogoraziño txarretarik, begitaune izugarrietarik, gomute, uste, asmo ta asmu gaizto ziteletarik. Eta alan, aldi txarrrak dozuz? Gogoratu ta burutatuten jatzuz pentsamentu loiak, gogoraziño gaiztoak, besteai gatx egiteko ustea, ondamaa, ikusieziña, gorrotoa, arrotasuna, baneria, ondo eretxi-naia, ta andigurak? Ziñatu zaite bekokian, ta burutaldi ta gogarte zital guztiok zeuganik alde egin, bota ta igeska urrinduko dozuz erraz ta eraz, diño San Agustin erakusle andi argiak.

Bigarren kurutzea egiten dogu aoan, Jaungoikoak librau gaizan berba loi, esate zorrotz aztun, esaka iraindu

sentigarrietarik, aozko utsegite, birao, aŕen, juramentu, madarikaziño, berba egikune gaizto, barriketa, esamesa, errierta, ta izkuntza suminduetarik. Zeure berbak ezeze, besteenak bere kendu ziñeiz kurutze santeaz, diño San Juan Krisostomok.

Irugarren kurutzea egiten bularrean, zeifñetan daukan jarlekua biotzak, ta Jesukristok dirauskun legez, biotzean gurari okerrak ernetan dira, non gura txarrak sortuten ta biotzetik egite gaizto oker guztiak jaio ta urteten dabe. Gura dozuz zuzendu zeure lan, bear, egite ta zeregiñak guztiak? Bada ziñatu zaite bularrean deboziño bizi bene-takoaz; ondo jakinik, kurutzea baiño zuzengille oberik topauko eztozula, diño San Jeronimo jakitun andiak... (*«Curutze Santearen, Aita Gure ta Ave Marien ganeko Eracusaldiac»* liburutik).

«GEROKO GERO, edo Geroko luzamenduetan ibilteak, eta Arimaren egitekoak geroko itxiteak zenbat kalte dakartzan»: Eskritura Santutik, Elexako Dotore-etarik, eta libru deboziñozkoetatik D. Pedro Axular Sarako Erre-toreak bildua, eta argitara emona.—Aldatu dau Bizkaiko euskerara, garbiturik lenago zituan uts, eta errakuntze-tatik, A. Fr. Pedro Antonio Añibarrok Zarauzko Colegio Aita Sn. Franziskoren Ordeako Misionariak.

«Bekataria, biurtu zaite zenbat lasterren Jangoikoaga-na, ta ez luzetu penitencia gerotik gerora» (Eccli., cap. 3 v. 8).

IRAKURLEARI:

Irakurle Bizkaitarra, Oná emen zeure eskuetan, ta zeure euskeran AXULARREN libru famaduna. Euskaldu-nen Ciceronen izenaz izentaurik eta aitaturik ibilli da beti AXULAR; bada Aita Larramendi euskaldun guztien

Maixuak diñolez «bere euskerea da ederra, nastubagea, uts-garbia, ta ugaria: baieztu, ta erakusten ditu egiak Es-kritura, Elexako Aita Santu, gertaldi, antz-irudintza adi-garri argiakaz; agertuten ditu bekatuak bizirot ta argirot euren ezaintasun itsutsi baltz guztiaz. Beragaitik, diño, euskaldun guztien eskuetan ibilli bear leukela libru onek».

Au onela izan arren, euki ditu libru onek non edo an lengo denporétan bere ekatxak, bere zérak: onetarako bidea emon eban, bear etzirian Persona errespeta-garriak aotan artzeak, euren utsak agertzeak, eta beste makiña bat gauza, ixillik igaro, estaldu, ta gorde bear zirianak, zabaltzeak. Dirianak albaitenez garbitu dira oraingo one-tan; batezberere, ogeta-amaka-garren Kapitulutik berrogeta laugarrena giño, laburtu dira gauza batzuk, beste batzuk kendu, eta beste asko erausi ta geiagotu, uste izanik kon-beniko ez jakela era guztizko personai; ta bere irakutze-tik on baño kalte geiago etorriko lekikielako gazte askori, len legez geldituko balira.

Liburu onetan aitatzen dirian Eskritura Santa, ta Dok-toreen esanak, eztira betibere berbatik berbara euskerara biurtu, ixuli ta aldatu; zerren euskereak eta beste ber-bakuntzak euren esaera ta berba egikune baanak, baka-rrak, ta berezkoak dituez...

Euskeran egin dot alegiña, Bizkaikoari jarraitzeko; baiña zelan Colegio onetakoak ain laster gabiltzan Biz-kaian, zein Gipuzkoan, Araban, ta Nafarroko berba egi-kune ta itzkuntzetan, utsen batzuk idoroko dozuz, ta or-duan ito egizuz ixillik; ta irunsi epetasunaz zeure artean, oñon bagea.

Beinik bein irakurri egizu gogo onaz; ta beronegan arkituko dozuz zia eragin-gilleak, argi argitsuak, akullu zorrotzak, ta egia indartsuak, biztu, mugitu, atera, ta ira-zartuteko zure Arimea, baldin zeure adu ta zorigatxez

bazatza lozorroak arturik, ta gogorturik bekatuzko egotaldi arrigarrian. Onetarako eskatu egiozu Jangoiko gauza on guztien iturri ta emolleari bere argia, bere eskua, ta bere grazia; ta bide batez, eskatu ta erregutu egiozu arren biokaitik: ta onenbestegaz: AGUR.

Librutxo au atera zan, ez bakarrik Arimén onerako, baita apaindu, azi, gorde-eragin, edertu, ta zabalteko euskerea; ta laguntzeko Euskaldun Ikasle barriai (...).

(R. I. E. V., 14, 1923, 297-299).

Lenengo Burua: Zelan besteak beste diriala, alperkeriatik iges egitea gaitik bere, bear egin bear dan...

(...) Munduko gauza guztiak kondenetan dabe alperra; zerren ák ez beste guztiak emoten dabe denporea artan zetarako egiñak zirian. *Eguzkiak* errazoiáz esan leio berandu giño oean datzanari: «Zerk aratza or alper nagi lotia? Nik atzo hik baiño bide geiago igaro ninoazan; jira bira inguratu ñoan mundu guztia; ta orain bere hi baiño lenago ta goizago jagi ñok.» *Aretx-Arbolak* bere esan leioke alperrari: «eztakusk zelan ez gagozan bein-bere geldirik ez alperrik? Zelan azten, anditzen, loratzen, eta geure denporetan frutu elduz betetzen garean? Hik zer egiten dok? Zertan denporea emoten dok? Zeri begira ago alper andi nagi ori?» (...).

Erleak, ain gauza pildin txikiak izanik, betetzen dabe mundua, eztiz gozotzeko, ta argizagiz argitzeko. Eta ezta erraz kontatzea, zelan gobernetan dirian erleak euren artean: zelan dauken euren erregea, ta obedituten daben; zelan zárrak erlautsean barruan, etxeko lanak egiten, egoten dirian; ta gazteak kanpoan euren janari, mantenu ta igaropiden. billa dabiltzen: nola daben eure ate-zaiña, eta bearbere bai; zegaitik ze, eztiari, nola dan zalegarria, ta izena daben legez, ezti-goza, askoen gogokoa, gurari-

koa, ta gustukoa da. Nola bear egiten dabenak, lanik egiten eztabenen erle alperrak eta nagiak esten kolpez, zikadaz, ta izpi zorrotzakaz botatzen dituezan euren laguntzatik. Eta zelan beste gauza asko egiten dituezan: eta guztiak ain ordenanza, zurtasun, ta gobernu andiaz, ze dirudi, ez dala Erregerik bere erreinua ain ondo gobernatzen dabenik, nola erleak, euren erregeaz batera bear egiñaz, gobernatzen daben eurena.

Bada *iñurriaren* gobernuaz, zurtasunaz, lanbearraz, etorkizunerako egiten daben probisiñoaz, bear dituen janariaz, bildu ta billatuten daben mantenuaz, nok zer esango dau? Nork eztau miretsiko, ta gogoeta egingo? Espiritu santuak berak biralduten gaitu animalia txiki onegana, zer egin bear dogun ikastera, diñola: «Zoaz, nagia, iñurria gana, eta gogoratu egizuz aren bideak eta bideskak, joan-etorriak, inguruak, or-emen ibilteak, nekéak, ta bearrak, ta ikasiko dozu nuk bere, zelan bear dozun aurrerakoan ta beti bizi, ibilli, ta gobernatu: onek irakaslerik ta bide-aurrekorik baga, berak bere buruz bilduten dau udan, negua igaroteko bear daben mantenua, janaria, ta garaua». Eta garau au gordeten dau lurraren barruan, berak eginiko toki, gorde-leku, ta garau-tegietan. Eta ain da zuur eta begiratua, eze kanpoan ezer ezin izanez, bere bilduetara bildu bear dabenean, asten da jaten lenik garatu, zildu ta erne bear daben garautik; zerren bestela sortu ta azi liteke a garaua, buztandu liteke, bedar biurtu liteke: eta gero andik ará, lan uts alperra jazo ta gerta lekikio bere lenagoko zurtasun guztia.

Aregeiago, garatuak jan ezkeru, lurraren bustitasun ta ezetasunak ganekoak usteldu eztagiozan, ateretan dituz nozik bein kanpora, axetu ta eguzkitutera: ta orduan eguraldi ta denpora onaren señailea dateke. Eta onela ta alan igaroten dau iñurriak bere negu luzea: eta erakusten deutso bakotxari, zelan ta ze moldez bear daben man-

tendu, gobernatu, ta alperkeria guztiak largarik, bere denporan bear egin.

(R. I. E. V., 14, 1923, 308-310) (Ikusi zati au berau AXU-LARREK dakarren lez).

IZTEGITXOA.—*Bellegi*: amarillento — *zul*: madera — *erregute*: rezo — *olgura*: recreo. *KURUTZE*: *goiartu*: azpiratu — *begitau-ne*: irudipen — *ondamu*: envidia — *esaka*: murmuración. *GEROKO GERO*: *baieztu*: afirmar, comprobar — *gertadi*: gertara — *albatenez*: en lo posible — *baana*: distinto — *oiñon*: porfiar — *zia*: estímulo — *lozorro*: sueño profundo — *jirabira*: vuelta — *pildin*: diminuto — *erlauts*: colmena — *igaropide*: sustento — *zikada*: punzada — *garatu*: zildu, germinar — *aregeiago*: más aún — *largatu*: laga, itxi, utzi.

Fr. Pedro José Patrizio ASTARLOA ITURRI, OFM

(Durango, 1751 - Bilbao, 1821)

Pedro Paulo abade ta euskal-apolojista ospetsuaren anaia dogu frantziskotar au. Durangon jaioa zan, baiña ama Markiñarra eban, eta bera be Markiñan azi eben: au dala-ta, Astarloaren euskerea Markiñakoa da. Ordena barruan, urte naastu areetan, kargu andiak izan zituan: Irakasle, Defnidore Pro-bintziala...

Euskeraz liburu auxxe itzi deusku: «Urteco Domeca gustiyetaraco verbaldi icasbidecuak, zeinzubetan azalduten dan Erromaco Catecismo» (2 tomo); sermolaritzan be lan asko egindakoa zan, Bizkaian zear... Berbaldiok ez dira, jakiña, euskera lantzeko egiñak, kristiñaudotriñea erakusteko baiño. Dana dala, izkera bizkorra ta argia da, geienetan, Astarloarena, naiz eta

*erderatiko berbak ugari erabilli:
Bizkaiko euskera zaarra ezagutze-
ko autore egokia; aditza ondo era-
bilten be ez da maixu txarra!*

SENAR-EMAZTE ASKO ZELAN KONFESETAN DIREAN:

Konfesinoia izan bear da atxakia bagea, au da, etzako besteri ezarri bear bakoitzak eginiko pekatuen errua. Askoren konfesinoiak obeto dirudie pekatu egin dabena ukatutea, pekatuak salatu edo akusetea baiño. Edozeinbere pekaturako dauke atxakia, eta billatuten dabe nori errua ezarri.

—«Jauna: maldizinoe eta birao guztiz asko bota deutzadaz senarrari; baiña zer egingo dot? Ain da galdua, ain alperra, ain ardura gitxikoa, ze ezteust ezetan bere lagundu gura. Ain da ordia, ze zerbait irabazten badau, guztia da ardaorako. Etxera datorrenean, guztia da agirakea, erriртеа, eta benturaz makilea eta golpea. Nik al daidan guztia etzat elduten neure umiai jaten emoteko, eta euren aragiak estalduteko. Onexek geien estututen nau, eta auxe gaitik maldizinoerik geienak ezarten deutzadaz. Nik beste senar modu bat baneuka, eneuke neure bizi guztian maldizinoetxu bat botako.»

Betor onen senarra; etzako oni bere atxakiarik faltako:

—Jauna — dino —, maldizinoe asko bota ditudaz: baiña, zer egingo dot? Daukat emazte bat ain min luzekoa, ain irritua, ain jenio zitalekoa, ze ezteust inoz bere baketan isten; beti beti dago oiñoten. Tragotxu bat edaten badot, guztia da agirakea; puskatxu bat beranduago banao etxera, guztia errebolbietan dau; egun guztian bearrean egon arren, deritza alperrik nagoala, aora dator-kion guztia esaten deust: «alperra, ordia, ardura bagea».

Berba astun onekaz arrabiau erazoten deust, ze bestelan elitzateke inoz bere nire aotik maldizinoe, ez biraorik entzungo.»

Modu onetan, edozeinbere pekatari aurkituten deutze atxakia, eta ez jake falta nori errua ezarri: emazteak senarrari, senarrak emazteari, gurasoak semeai, semeak gurasoai, ugazabak otseinai, eta otseinak ugazabai, eta lagunak lagunai; izan bedi pekatua borondate oso, gurari bete, inok tentadu baga egina; bada orduan bere aurkituko da nori errua egotzi; eta, besterik ezin bada, esaten dabee: «demoninuak engañadu ninduan».

Baiña atxakia guzti oneek utsak dira; pekatu edo gaizki egiten badogu, geuk nai dogulako egiten dogu; eta, geuk gura ezpagendu, ez senar, ez emazte, ez guraso, ez seme, ez lagun, ez ugazaba, ez demonino, ez infernuko guztiak asko izango litzatekez, guri pekatu erasoteko... (I, 209-210 orr.).

EMAZTEAREN PEKATUAK:

Modu askotan pekatu egin leike emazteak, bere senarrari zor deutsan obediencia onen kontra: (...) Irugarren-go: bere senarra gitxitan euki, edo desprezietan dabena, arroturik dote andia ekarri ebalako, edo dauken haziendea berea dalako, edo senarra bera baiño odol, etxe, edo guraso txikiagokoa dalako. Pekatu mortal egiten dau, bere senarrari burla, eta barre egiten deutzan emazteak, zarra dalako, begibakarra, errena, edo besobakotza dalako, arpegian emoten deutzazala utsune edo tatxa oneek, edo besteren batzuk, eta eurak esanagaz lotsatuten dabela.

Laugarren-go: senarrak agindu arren etxean egon deila, etxe ta etxekoen ardurea euki daijala, obeidu gura ezteuztanak; naiago dabela ibili erromeriarik erromeria, fies-

tarik fiesta, etxerik etxe, eta Elexarik Elexa. Senarrak aginduten badau etxean egoteko, etxean egon; aginduten badau, astegunean meza entzutera ez joateko, ez joan; aginduten badau meza entzun eta bertatik etxera etorteko, bertatik etorri. Ez beie uste emazteak, debozinoe ona eta Jaungoikoaren gogo eta borondatekoa dala, goiz guztia Elexan eta mezak entzuten emotea, etxe-zeregiñak azturik. Ez, ez, ezta au Jaungoikoak nai dabena, au demoninoaren asmua da, etxea modu baga, nok begiratu baga egon dedin. Etxekoandra batentzat asko da meza bat entzun eta altarak bisitetea, al badai, eta etxera, barriketetan ibili baga (...).

Seigarrengo: egiten dau pekatu, bere senarragaz temosa, porfiada, barritxu, eta bereagaz urteten zalea bada; beti beti beragaz erriertan dagoala, orregaitik aserratuten dabela, eta birao, madarikazinoe eta aiñenino urtika ifinten dabela. Baita bere, egiten dau pekatu, bere senarrari berba astun eta garratzak esaten deutzazanak, dei egiten deutzala: «ordia, lapurra, txarria, alperra»; eta geiago, eskuak ezarten badeutzaz, edo atzamarka egiten badeutza... (1-go liburutik, 270-271).

IZTEGITXOA.—*Atzakia*: excusa — *aiñenino*: maldición — *urtika*: jartika — *atzamarka egin*: arañar.

Juan Ignacio de IZTUETA

(Zaldibia, 1767 - 1845)

«El primer seglar guipuzcoano que escribe libros en vascuence sobre temas profanos» (L. Michelena). DANTZARI trebea zan bera, ta baita dantzari taldeen irakasle ta eratzaillea be; ez ori bakarrik, liburu bi be idatzi zituan dantzai buruz: «Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira edo historia», 1824, eta «Euskal antziña-antziñako ta are lendabiziko etorkien dantza on iritzi pozkarri gaitzik gabekoen soñu gogoangarriak, beren itz neurtu edo bertsoekin», 1826: «la más preciosa fuente para conocer las antiguas danzas, sones y otras diversiones del país» (L. Villasante).

Olerkari lez, «Kontxesiri» izeneko olerki sentikor ezaguna itxi deusku...

Itz lauz auze idatzi eban: «Gi-

puzkoako Probintziaren Kondaira edo Historia», 1847: «...giputz-erriaren goraipamen edo apoloji bat, aurreneko letratik asi ta azkenearaño. Egilleak giputz-zaletasunari ezin neurririk artu dio...»

(Yon Etxaide, «Amasei seme Euskalerriko», 111); ez billatu liburu ontan historia zeatzik, baiña bai Iztueta'ren aldiko Gipuzkoa zer ta zelangoa zan...

Iztueta'ren euskera: Batzuetan, Aita Larramendi'ren Iztegiari jarraituz (batez be, itzulpenetan), alako euskera illun, naastu, gatzba-koa darabil (Bizkai ta Lapurdi aldeko itzak be sartzen ba daki; baita leenagoko berba zaarrak be...); baiña, iztegiak bazterturik, bere kontura idazten dauanean, orduan izkera jatorra, gozoa ta erri-usaiñezkoa da berak egiten dauana. «Idazle zahar geienak bezala, aditza ederki erabiltzen zun. Aditz bakuna edo sinteticoa, batez ere, oso aberats du... Tarteka-marteka, zan (etorri zan) erabilli bearrean, zatekean edo zakean erabilli oi du...» (Y. Etxaide).

Benetan txalogarria gure Iztueta, jatorri apaleko erri-gizon euskaltzale ta idazle sutsua...

ZEZEN-JOKO ARRIGARRI BAT AMEZKETAKO PLAZAN:

«Baso abereakiko indarleietan ere, gaiñ-gaiñekoak dira Gipuzkoatarrak.

Amezketako plazan S. Bartolome arratsalde batean Erri-zezena jokatzeko zebillela, esan zukean Ataungo etxe-jaun Arzelus deitzen zitzaionak, ezen, beraren Errian ba zala emezortzi urte bete bageko mutila, plazan zebillen zezen ari adarretatik itsatsirik buruaz lurra jo-erazoko ziona.

Erronka andi au zezen-jabearen belarrietara iritsi zanean, eman omen zion arpegi Arzelus jaunari, ta biak gizon prestu gisa egin omen zuten apustua bostna onza urre bigaramon arratsaldean, plaza berean, zezen arekin Arzelus-ek ifinten zeban mutillak jokatzeko.

Ordurako ba zukean Arzelus jaunak entzuer, ba zala beraren Errian mutila, «Amilleta» deitzen zaion etxe batean, basa-beiak ankatik eldu ta ardia bezala gelditurik, esnea edan oi ziena, nai zeban guztian; baita ere, bestek ezin atzeman zituen sasi-bei ta idisko izuak, adarretatik oratu eta menderatu oi zituela.

Uste oso onetan apustua egin izan zeban bezala, bertatik joan zatekean gabaz Amilletara, mutilaren eske; eta beraren gurasoak esan omen zioten, ezik, etzala gabaz etxeratzen, neguko elurte andietan baizik; eta nola etzeban txabolarik eta etzanleku jakiñik ere, alper-alperrik irteeta zala beraren billa, alik eta eguna argitu artean.

Atera omen ziran, bada, goiz-alderontz mutilaren eske, beraren aita, anaia bat, eta Arzelus jauna. Oen ojuetara agertu omen zan, noizbaiten ere, baso illun batetik; baiñan ikusi zebanean Arzelus gizon arrotza, onen ondora ez omen zeban alderatu nai ifiolako moduz ere. Geroeanean ere, aitak eta anaiak ondo esanaren bidez limurtu

omen zuten ekartea berentarontz, zer esan nai zioten aditzera; eta entzun zebanean Errizezen bat bear zebala menderatu Amezketako plazan, pozkidaturik, jarri zatekean gogoz joatera; zeñari, atsegintasun geiagorako, Arzelus'ek eskifii omen zion, mendi artan zebillen beirik oberena erosirik emango ziola beretzako, baldin apustua irabazten bazeban.

Mutil gazte au guztiz omen zan ederra ta galanta, eta orduraino plaza inguruko lagun-artera beñere jatxi bagekoa. Beragatik jantzi modu onekorik ez omen zitzaion arkitzen, toki agiriko batera aurkeztuteko, eta denporarik nola etzegoen berriak egiteko, alabearrez Lazkaun omen zegoen egun aetan Vicario gizon lodi andiren bat; eta onen alkondara ta frakakin abarka mantarrak jantzi, eta beste soiñekorik bage joan omen zan Amezketako plazara, apustua jokatzera.

Arzelus'ek eta zezen-jabeak jokurako bost onza urreak bertako Alkate jaunaren eskuetan ifinirik, izendatu ere omen zituzten itzal andiko gizon eldu biña, despitarik izaten bazan erabakitzele.

Oiturazko argibide oek guziak bear bezala zuzendutakoan, atera omen zituzten zezena ta mutila plazara; hura, okulluan akulluarekin ziritatuaz, arras aserra-erazorik; eta au, jaten ondo eta edaten bere moduan emanik, alaitu ta pizkorturik txit.

Mutil au jaiotzetik omen zan itzegiten tatalea, eta zezenari ots-egiten omen zion plazaren goen-aldetxotik: «Atol, Atol.»

Begira zeudenetako askok esaten omen zuten: «Ai au mutilaren guri mardul eder galanta! Negargarria da txit, zezen likits orren adarretan beraren gorputz lirafña ikusi bearra!»

Zezena omen zebillen plazan bazter batetik bestera

jira ta bira, eta mutila beti ere beragana alderatuaz, deitzen ziolarik bere izkera tatalean guztiz gogoz eta txit sarriro: «Atol onala, Atol.»

Noizbait bear ta alakorik batean, zezena aserraturik arrabia bizian omen zijoakion erasotzera, eta kolpea emateko burua makurtzearekin batean, oratu omen zion adar bietatik irmeki. Lenengo abantadan zezenak altxatu omen zeban gora mutila, baiñan onek, beera jatxitzean oiñak lurrean ifini bezin prest, lepoa biurriturik, joerazo omen zion buruaz lurra, bein alde batera, eta gero bestera; eta lurrera botarik azpiratua zeukala, galdetzen omen zeban bere tatalean: «¿Ein bealiot geio?» Esango bazukean bezala: «¿Egin bear diot geiago?»

Bereala lau Erabakitzeleak plaza guztiarekin batean eman omen zioten apustua irabazitzat legez ta bidez Ataungo Amilletako mutil emezortzi urte bete bagekoari.

Apustu gogoangarria au jokatzan Amezketako plazan ikusi zuten gizon zarretako askori, nere gazte denporan entzun izan nioten gertakari au, emen ezarri dedan modu berperean... Izendatu dedan mutil Ataungo au, geroztik izan omen zan toreatzallerik oberenetakoa; zeñia laurogei ta geiago urterekin ill zatekean ni jaio ezkeroztik. («GIPUZCOACO PROVINCIAREN CONDAIRA EDO HISTORIA», Donostia, 1847(247-250).

IZTEGITXOA.—Indarlei: prueba de fuerzas — alderatu: urreratu — limurtu: zuritu, convencer — pozkidatu: poztu — alabearrez: casualmente — okullu: korta — tatale: tartamudo — irmeki: errime, gogor — abantada: acometida — gertakari: jazoera, suceso.

Fr. Bartolomé SANTA TERESA

(Etxebarria, 1768-1835)

Karmeldarren Ordenan sartu arte Bartolome Madariaga eritxon. Sermolari sutsu onek liburu bi itzi deuskuz, bere Markiña inguruko euskera jator aberatsean: 1) «Euscal Errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba» (Iruñean, 1816): orduko dantza-auzi garratza dau gaitzat liburu zoragarri onek; Aita Prai Bartolome dantza orreen arerio agertzen jaku ta orduko oiturak bizi-bizi emoten deuskuz... 2) «Jangoicuaren Amar Aguindubeetaco... (eta) Eleisaco zazpi Sacramentuben ICASIQUIZUNAC» (Iruñean, 1816. 1817. 1819): Aginduen eta Sakramentuen azalpena.

Bizkaiko euskal idazle zaarren artean, Aita Prai Bartolome garaienetarikoa dogu: izan be, euskera berezkoa, etorri aundikoa, argia,

indartsua, aberatsa darabil beti... «Idaztankera ez du Agirrek bezaen jasoa ta txukuna, baino indartsuagoa ta etorritsuagoa...» (ORIXE). «...fue un magnífico orador, tonante y fulgurante a ratos, expositor transparente siempre. Son suyas algunas de las mejores páginas de prosa vizcaína; su léxico, no muy purista, es de una extraordinaria riqueza y variedad» (L. Micheleña). «Nire idazle zar kutun», deitzen deutso ORIXEK.

AITA PRAI BARTOLOME TA EUSKEREA:

(Berak erabilten dauan euskera berberean — ezer aldatu barik — ona emen bere eretxia):

(...) Berbeetia imini dot neure errikua; dakidana. Euskeerako guztietati apaindubeeena, ederrena, ta ez-tsubeeena izan ez arren...

Esan batzuk imini ditut gogo bagarik, geure euskerazko berbeeta nausi, maite, zaar, gaztetu, gozo, prestu, ugarida geure erruz erbeteti etorrijak. Euskeria berez aberatsa da, bagenki ongo. Geuk Eleisa-gizonok berba askotan naastu ta ezaindu dogu Euskeria. Geuri entzunda, dakijeez baseerrijetakuak «Jaungoiko Omnipotentia... Poderosua... Virginia Clementisimia... Misrikordijosia... Mandamentubak... Absolutzinoia... Doloria... Errestituzinoia...» Ta beste onako berba euskalgaistoko asko.

Erdera ez dakijeen euskaldunak, eureen etxeetan, ta artu emoneetan biar dabeen guztia, esaten dabee euskeera garbijan. Kristinautzako ikasijan dira euskaldun gaisuak. Ez da au euskeeriaren erruba, ez bada geuria. Ta,

ain daukeez ija artubak erdeera edo latin berba batzuk eze, eurakin ez bada, aituten ez dabee ondo dotrinoa, edo kristinautzako erakutsija. Onen bildurra arren, imini ditut erbeste berba batzuk Ikasikizunetan. Bada kristinautzako erakutsijan zuzen aituten emotia, leenago da, berbeetan erakustia baino... («IKASIKIZUNAK», VIII-X).

SERMOIA GURASOEN ETA UMEEN ONERAKO:

Egia esateko, neure kristinauak, zer egon leiteke munduan penagarriagorik edo minberagorik biotz batentzat, iru edo lau seme-alaba edo geiago nekez azi dituan guraso zaar, kansau, ezertako ez bat, areen esker txarrean ta lotsa gaiztoan ikustea baino?

Ia edadean jausita, zaartuta, kansauta, sepultura bidean dagoan guraso; izerdi askogaz ta nekez azi dituan sabeleko prutuak, bere semeak edo alabeak gaizki tratetea da, duda bagarik, pena andietati ez txikiena.

Ume batak kasurik egiten ez deutsal; besteak lotsea ta errespetoa galduten deutsal; besteak begiratute on bat egiten ez deutsal; bestea agur bat egitera, inoz agertuten ez jakola; besteak berba bat esan orduko, erremuskadeagaz atzera sartuten deutsal; besteak, gurasoak jaaten daben kopauari asko deritxola; besteak, ezetan bere obeidu gura ez deutsal; besteak, auziak eta naibagaak etxera ekarten deutsal; beste semea edo alabea Justiziak kartzelaan daukala; diñot, neure kristinauak, menturaz ez dagoala luurraren gainean guraso batentzat pena garratzagorik, atsekaba mingotxagorik, naibage mi-naagorik ta bizi izateko gogaitgarriagorik, bere nekez azi dituan umeak modu onetan zaartzan berari erantzutea baino.

Guraso batek ernegeetako, arimati negar egiteko, biotza erdi bi egiteko, burua amaituteko, ta zeruari eriotzea

eskatuteko penea da au. «Umeak azi ditut — dino alako guraso triste errukarriak —, ta eurak dira neure zaartzako penarik andiena. Umeak azi ditut, neure zaartzako pozgarrizat. Ta nire poza biurtu da neure biotzeko mingotxtasun nausi izatera. Umeak azi ditut, nekez ta penaz, neure despeideengo eguneen arrimugarrizat. Ta eurak dira, egunean egunean ta orduan orduan, bizitzeagaz desesperau eragiten deusteenak. Eurak dira, ni bastartuta, sobrauta naukeenak.»

Ez dauka guraso penauak lurraren gainean nora begiratu, bere umeetati atsekabea ta penea artu bagarik. Ez da gauza barria, guraso sobraak, tertzio atan bere burua ikusita, egunean milla bidao ta maldizinoe umeai ezartea. Bada egunero dauka ume bateganik albista txarra, besteaganik injuria, besteaganik gosea, ta guztietati illgarria ta mingarria.

Ez da gauza barria, guraso askok euren seme-alabeen lotsa gaistoa ta esker txarra ikusita, areek eskura ta errazoera ekarteagaz deseperauta, euren buruai puriaz illtea opa izatea (beste munduan zer ikusirik ez balego legez).

Ez da gauza barria, ta ez da gitxitan jazo oi dana bere, guraso asko, urte geiagotan biziko litzaatekezanak, seme-alaba deungaak direala medio, leenago illtea, ta eurak esan oi dabeen legez, munduko bakea egitea.

Oh, seme-alaba gaistoak ta lotsa galdukoak daukeezan guraso errukarriak! Oh, triste desdixauak! Oh, ze zaartza penagarria ta garratza dan zueena! Nor errukituten ez da, nori biotza austen ez jako berekauten, edadean jausitako Aita bat edo Ama bat oean, edo makal, edo ibili ezin dala, edo bere gorputz zaarra ozta jasoten dabela, ikusita, bere umeak edo naibagez edo errazoe txarrez, edo gosez, sobrauta, ill ezinda, illten daukeela entzun ezker? (...).

Oh, ze egite santua, alako guraso tristen biotzak konsoleetea! Oh, ze karidadea, pozgarri on bat areentzat topeetea! Baina, zelan erremediau legi onako gatx andia? Zer egin legiee, negar ta uste on guztia galdu baino beste gauzarik? Nora begiratu legiee guraso edadekoak, eureen biotz tristeak nasaituteko ta konsoleetako?

Umeak andiago dira ta sendo dagoz; gurasoak zaar, makal ta bigun. Umeen eskuetan dagoz etxeko gauza guztiak. Gurasoak, eurak egiten deuseenaren zain dagoz. Gurasoak ondo esaten badeutsa umeari, umeak egiten deutsa gurasoari atzera, edo emoten deutsa sakatu bat. Zerbait altuago edo gogorrago esaten badeutsa gurasoak, «beti barriketan jardun bagarik, isilik egon dedilla», erantzuten deutsa umeak. Jaungoikoa gaiti Eleizara joan dedilla esaten badeutsa gurasoak, «bai, zeu bere Eleiza zalea izan zara ta!» esanda, burla egiten deutsa umeak. Kura jaunaren aurrera eroanda, lotsea emon gura izan arren umeari, leen bere izanda dago, ta ez deutsa ardura. Txaarrago. Alkate aurrera eroanda, egun batzuetan karzelan eukitea, beste ainbeste. Txaarrago. Gurasoen lotsea galduta daukanak, Kura jauneena ta Justiziarena bere galduta dauka. Zer egingo dau, bada, edo nora begiratu dau alako guraso erukarriak? (...).

Ez dago, kristinauak, nik dakidanez, erremedio bat baino. Zer, bada? ISILIK EGON, TA PADEZIDU. Seme-alabak deungaro azi dituzulako, guztia ta geiago zeuek merezidu dituzula sinistu, ta ISILIK EGON, TA PADEZIDU. Seme edo alaba gaistoak bidao bat egiten badeutsu: Isilik egon, ta padezidu. «Sorgina» edo «barritsua» esaten badeutsu: Isilik egon, ta padezidu. Burla edo sinu egiten badeutsu: Isilik egon, ta padezidu. Zeure gazte-tako paltaak ta lotsaariak arpegian esaten badeutsuz: Isilik egon, ta padezidu. Puriar sakatu bat, edo botakada bat, emoten badeutsu: Isilik egon, ta padezidu. Oean ma-

kal zagozan lekura, arto puska bat nekez gogo bagarik jaurtigiten badeutsu: Isilik egon, ta padezidu. Berba gogorak eta errazoe zitalak ta minberaak, bekoki illunagaz ta asarreagaz esaten badeutsuz orduan orduan, edo be-larri ondoko bat eskintzen badeutsu: Isilik... Eureen moduko lagun gaizki-azitakoz etxea beteta, gau guztian zeure aurrean milla desonestidade ta pekatu egiten badiuee: Zeure semeak, edo alabeak, ezkondu baino leenago, seinak azteko etxera ekarten badeutsuz, edo kanpoan zeure patrikarati azi bear badiuzu: ISILIK EGON, TA IRAGO... («IKASIKIZUNAK», I, 1-... 29).

EUSKALERRIETAKO PIESTA TA DANTZAK:

«...Gogoratu daigun, bada, zelan jentea presteetan dan Eukalerrietan piestarako, ta gero zelan egiten direan.

Onetarako zurtu beelarriak, argitu begiak, ta ezautu zeuen pekaturik geienen ernelekua. Plazako dantzara doazanak, luxuriaren sua garretan eukiteko geirik presteenak batuten dituee eureetara: «Edadea, Edana, Jantzia, Nasaitasuna, ta Estadua.»

1.—*Edadea*.—Plazaan tanbolinagaz dantzan egiten da beenak, bai gizonak, ta bai emakumeak, amazortzi urteti berrogeta amarrekoak dira. Egon leitekez gazteagoak ta zaarragoak bere; baina gitxi. Plazako piestea darabilenak, dira, esan dan edadekoak. Mundu guztiak daki, edade atan ze zeregin ta lan andia dan, ixiokia suari urreratu bagarik bere, luxuriaren tentazinoiak goitutea. Ete dira dantzaari oneek Sanson baino sendoago? David baino santuago? Salomon baino jakitunago? Areek okasinoe txikiagoan jausi zirean.

2.—*Edana*.—Piestara doazanak, piestea erdiz erdi daneko, trago bat edanda dagoz, bai gizonzkoak, ta bai emakumeak. Ez dinot, ordituta dagozala; ez bada ardaoa

edaateko erea guztiak edo geienak euki dabeela. Geienak edo guztiak, gitxi edo asko edan dabeela. Ta areetati askok bear leukeen baino geiago bere bai. Eurak esan oi dabeen legez: «ia puska bat ardaoak alegeretuta.»

Mundu guztiak daki, bada, ardao puska bat edanak, ta endemas zerbait geiago edanak, errazoea illundu, go-goalegeretu, odola berotu, ta luxuriaren sua biztu eragiten dabena. Ta endemas gitxitan edaaten dabena.

3.—*Jantzia*.—Plazako piestara eroaten dan jantzia, da ainbat ederrena, ta edertoen iminia. Ainbat ondoen buruti beatzera apainduta, moduztauta, garbituta, orraztuta; al dagianak larrosea, kabelinea, ispligua, edo beste bedar usain gozoko bat buruan, paparrean, edo eskuan dabeela, joaten dira plaza piestara, bai gizonak, ta bai mutillak, bai andraak ta bai neskaak.

Dinot «neskaak», ez kondubagako emakumeak gaiti, neskatillaak ez esatearren. Bada, neskatillearen izenak, guztiak ondo dakieen legez, beragaz dauka errespetua, modestia, onestidadea, ta lootsorra izatea. Ta modu atan piestarik piesta, ta dantzarik dantza, gizon esku artean likinduta, dabilzan emakume ezkondu bagakoak, ez daukeen legez ez lotsarik, ez modestiarik, ez onestidaderik, ezin emon legioe egiazko errazoean «Neskatillearen» izen ondrua, ez bada neskearen izena. Ez jako beleari usua esaten, ez bada belea (...).

Ez da orain ezer arako edo bularrak berariaz jasota, edo armatuta, edo paparra agirian, edo besoak bilosik, edo bilosik baino ez asko obeto daroezan neska edo andraak gaiti. Direanak direala, koru loiagokoak dira oneek.


4.—*Nasai-tasuna*.—Dantzeari ta piestai jarraituten deutseenak, beste mandamentuak bere ardura gitxigaz austen dituenak. Kontzientzia nasaikoak (...).

5.—*Estadua*.—Joaten direanetati, geienak dira libreak.

Ezin ukatu legi, arrisku geiago daukeena edade atako persona libreak, bai gizezkoak, ta bai emakumeak, ari-mako ta gorputzeko onestidadea galduteko. Egia da, gizon ezkondu batzuk bere bagoz (ba dagoz), zaartuta, burua urdinduta euki arren, gazteak baizen berdeak. Areek bere inundi al badagiee, piestaan izango dira. Ta parean igaroten dan neska bati, geiago ezin badabee, makilearen punteagaz bada bere, zabalduko deutsee luxuriaren atsa, sarritan ikusten dan legez.

Emakume ezkonduak bere bagoz, inoren upako ardao edaaten dabeenak, askoren karinoari biotzean leku emoten deutseenak, ta zaartzan, besterik ezinda, ezkontzaintzeari emoten deutseenak. Areek bere, oina jaso al badagiee, an izango dira piestan begi zoliakin. Berbeeta onetan ezer geituta ez dagoana, piesta-zale guztiak dakiee. Ta egia esateko lekuan, au ta geiago eurak autor dabee... («EUSKAL-ERRIETAKO OLGEETA...» — liburitik, 46 — 55 orr.).

IZTEGITXOA.—*minbera*: sensible — *erremuskada*: refunfuño — *zaartza*: zartzaro — *burua amaitu*: suicidarse — *tertzio*: hora, trance — *puriaz*: de furia — *berekauten*: espontaneamente — *sifiu*: muesa — *jaurtegui*: bota — *pratikara*: bolsillo — *irago*: igaro, aguantar — *gei*: gai — *txiokia*: incentivo, inflamable — *upa*: tonel.



Agustin PASCUAL ITURRIAGA

(Hernani, 1778-1851)

Abadea. Bere sorterrian bizi izan zan, gazteriaren maixu: 1818'g. urte-inguruan ikastetxe bat jarri eban: «Azkarra zan; zintzoa ta jakin-naia ere bai. Atsegin aundia izaten zuan zer-edo-zer ikastea; aundiagoa berak zekiana erakustean. Ikasteko ta erakusteko jaioa zala zirudian, erakusteko batez ere... Erreztasun onek esan-erazi zion bere ikasle argitsuenetako bati: Iturriaga'k, dakian baño ere geiago erakusten du» (G. Muxika).

Euskal-lana: 1) «Fábulas y otras composiciones en verso bascongado, dialecto guipuzcoano, con un diccionario vasco-castellano de las voces que son diferentes en los diversos dialectos», edo IPULAK, 1842: bertsoetan. Oneizek emon deutso famarik andiena. «Ez dirudite itzuliak, euskeran sortuak baino: euskerara ain egokiak dau de gure baserritarrentzat... Bein eta berriz irakurri diteke Iturriaga aspertu gabe. Nere ustez, Adema-Zaldubi'rekin ez da naski euskera bertsoetan ainbeste landu duenik» (ORIXE).

2) «Diálogos basco-castellanos para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa edo «JOLASAK», 1842, 86 orr.: euskeraz eta gaztele-raz, itaun-erantzunetan egiña: lur-rak, abereak, landarak t. a. zelangoak direan azalduaz. Ba daki, bai, gauzak txukun, labur eta jator esaten.

ANTONIO: Zein da abere-motik onena nekazariarentzat?

BASILIO: Tokiaz erara: toki zelaietan abere aundia, eta desberdiñetan txikia. Gaiferakoan, idi onak bear du izan aundia eta luzea. Izan bear ditu saiets-ezurrak zabalak, larrua lodia eta aragiari itsatsi gabea.

Zezenak bear ditu izan bizkarra zabala, lepoa lodia,

giltzak laburrak. Izterrak eta belaunak bear ditu biri-billak, oiñak alderegiñak, illea laburra eta lodia, baiña malgua. Buztana jasoa, luzea eta illez ongi jantzia, adarrak lodiak eta zuriak.

Beiak bear du izan aundia, adar zabala, kopet zabala eta tripa aundia... Adarrak izan bear ditu luzeak eta argiak, errapea zuria, aundia eta mea... Gaiñerakoan, bei onak bear du izan zezenaren antzekoa. Ganadua erosteko denboran bear da ongi ikusi ortzik falta duen, argaldu ez dedin.

Bei beltzak txikiak izan oi dira, eta esne gutxiago ematen dute. Baiña ematen dute beti, eta dira gogorrrak lanerako... *Bei zuriak* aundiagoak dira, eta ematen dute esne geiago, baiña denbora gutxiagoan... *Gorriak* aundiagoak dira oraindik, eta esne geiago ematen dute, baiña denbora gutxiagoan. Argatik dira obeak bei beltzak, esnea denbora geiagoan ematen dutelako. Gaiñera bei beltzak dira umegiñagoak beste kolorekoak baiño.

Iru urteraiño etzaio umerik arrerazo bear beiari... Garagar illarekin Uzta-illaren artean da onetarako denborarik onena, bei bat besterik ez duenarentzat (XIX).

ANTONIO: Ezin sinista zenezake, Basilio, zer atsegin aundia dedan zu aditzen.

BASILIO: Ez det gutxiago artzen, zu orren kontentu ikustean...

(JOLASAK, XIX-XX, Auspoa Liburutegia, n. 25, 81-84 orr.).

IZTEGITXOA.—*naski*: noski — *alderegiña*: separado — *malgu*: suave.

Bizenta Antonia MOGEL eta ELGEZABAL

(Azkoitia, 1782 — Abando, 1854)

Mogeldarrak — *jatorriz erbeste-koak* — *iru idazle emon deutsoe Euskal* — *Literaturari*: *entzutetsuena, Juan Antonio, «Peru Abar-ka»* — *ren egillea*; *gero, beronen loba bi*: *Juan José, Markiña'ko Cu-ra jauna, eta onen arreba Bizenta A.*; *izan be, osaba orren ondoan ikasi eban gure Bizentak*; *berari zor deutsoz kultura eta euskalzaletasuna... Euskal-idazleen artean, Bizenta dogu lenengo emakumea*; *ta ez edozelangoa: jatorra, ulerterreza... Bere joskerak ba dabela erdal kutsu apur bat? Ezin ukatu; baiña kontuan izan bere lana itzulpena dala ta, gaiñera, orduan ez egoala Gramatika lan aundirik. Bere liburuari «IPIUI ONAK» deritxo.*

IPUI XXVI: ZALDIA TA ASTOA:

Zaldi eder bat, guzia apaindua, katea zillarrezkoz, jarleku, ugal ta anka estalkiz urrez bitxitua, jabe aberatsa zedukana zijoala bidean arro arrorik, idoro zuen asto makal, argal, pisuaren pisuz makurtu ta obendua, ta atzetik makillada gogorak ematen ziozkana astazai erruki gabeak.

Ekusirik zaldiak ez ziola beingoan alderik egin bide-tik, ezin zezakealako nekatuaren nekatuz, esan omen zion astoari:

«Arrituta naitziagok, asto zatarra, nola ostikadaz asezten ez audan. Zergatik baztertu ez, ni ikusita? Zergatik egon ez aiz geldi bazter batean, ni igaro artean? Nor naizala uste dek? Nago ni ain apaindua, zillar ta urrez pitxitua. Nere korta edo egontokia garbiago zia-gok askoren etxeetako gela ta lotegiak baiño. Nere etxeko nagusiak egiten diezte agiraka gogorak morroia, egunero garbitzen ez badute nere egonlekua; askaan autsik ez du arkitu bear, ez da garagarrian ere. Garbitzen dizkide oiñak; leundu bear dituzte nere bizkarra ta ankea; nere illeak argi egin bear du. Begira bada zein mardo, gizen ta mamitsua nagoan.

I berriz, zatar ori, burutik oiñetara ago, edo autsez josia edo basatua; agiri dituk bizkar-ezurak; jostorraz edo eztena zirudiek ire berna zanko gabeak; burua jaso ezin dek, belarri makaldu ta zaurituak agiri dituk; bidean nekea ta etxean gosea. Onelakoak izanik, ez didak lotsa geiago gordeko? Lenengoatik barkatzen diat, baiña begira beste bein onelakorik gerta ez dedin.»

Ikaraturik astoa aitu zituenekin zaldi arroaren aotik, zijoan aurrera erneguz ta biraoka madarikatzen zuela sortu zan ordua.

Andikan urte batzuetara izan zuen astoak jabe obe

bat, zeñek ematen zion ondotxo jaten ta ez bear gogoretik eragiten. Mardotu ta ille edertu zan gure astoa.

Baiña bestera gertatu zitzaion zaldi arroari. Urteak igarorik, saldu zion bere jabeak errotari txatar bati, zeñek eragiten zion bearra txit agitz, ta eman jateko gutxi ta makillada asko. Onela bere mardotasuna desegin zan, agertu zitzaizkon bizkar-ezurak, zorroztu anka len gizona, laztu illea, zauritu bizkarra, makaldu burua ta ezin iñork esan zezakean lengoa zala.

Zegola asto uraxe bera ibar batean belarra jaten pizkorturik, dakus ta ezagutzen du lengo zaldi bere agirakari arroa, trallatik zeramala errotari txarrak, guzia argaldua, aginte ta indar gabea, bizkarrean zituala zorro andi bi, buruz bera, basta zatar ta ugal erdi etenekin, gerriraiño lokaitzatua, ta diotsa astoak burla egin bearez:

—«O zaldi jauna! Eta zein aberatsa zeran! Nora ditu berorren antziñako zillar ta urrea zeriozkien apaindu-riak? Nora da arako buru arro ta gallendua? Non da orduko mardotasuna? Nora iges egin dute berorren mami galantak? Etorkizunari begiratu gabe, zu izan ziñan, bai, ta ez besterik, eskatu zinidana baztertzea ta geldi ego-tea, igaro bear zenduan bidea idukitzeko zerezat bakarrik. Zu, nekepean ni ikusita, errukitzen ez ziñana. Goiak beratu dira. Orain nago ni jabe onarekin zaartza on batean, belarra emen jaten, guziau pizkortuta, ondotxo jan ta, bear neurri onekoan bizitza daramadala. Ez zaude zu orretara oiturik.»

Ipui oek erakasten dioe aberats ta andikia, ez abegor txarrik egitea, ez itz gogorrik esatea nekean bizi diranai, beragokoai; ta izan ditezela errukior ta biotz biguiñen jabeak premian daudentzat. Ez dala arrotu bear andilekuetan, goikoak iruli oi diralako bekoetara. Biotz

bera ta arrotasun gabeak iraungo dute beren goratasu-
nean, baña

«Zapaltzen duenak beekua,
Artuko du bere lekua.»

(«*Ipui Onak*», AUSPOA, n. 30-31).

IZTEGITXOA.—*naro*: ugari — *bitxitu*: adornar — *obendu*: in-
clinarse — *basatu*: embarrarse — *txatar*: chabacano — *basta*:
montura — *lokaitzatu*: basatu — *gallendu* — sobresalir.

Juan Jose MOGEL eta ELGEZABAL

(Deba, 1781 — Markiña, 1849)

*Juan Antonio Mogel andiaren
lobea ta Bizentaren nebea. Berau
be, osabea lez, Markiña-Xemeingo
Cura Jauna izan zan; karlistada
aldian Bizkaiko Diputadu be bai...
Abade ona ta jakintsua, euskaltza-
le sutsua.*

Euskal-liburuak: 1) «Baserritar
Jakitunaren Echecho Escolia» (2-ga-
rren argitalpena, Vitorian, 1845);
2) «Mayatz-illeraco Berba-Aldijac»
(Tolosa, 1885); 3) «Eguneroco lan
on ta erregubac...» (Bilbao, 1820).

*Markiña inguruko euskeran idaz-
ten dau beti.*

TONTAKERIA TA ARRISKU BATZUEN GANEAN:

• *Aitak*: Berba egiñik okasinoe batzuen ganean, gura
deutsuet zerbait esan beste tontakeria ta arrisku batzuen
ganean bere. Oi dira errietan mutill arro ta bake txar-
rreko, burruka, makillaka ta okasinoe zaleak. Beroturik

ardao puska bategaz, esan daroe: «Ez naz baten bildur». Billaturik eureen gisako lagunak, ez dabee galduten erarik aterateko aserrerren bat. Emendik oi datoz etxeetako naibageak, auzo ta errietako gorrotoak, beste kalte askogaz batera.

Gizonaren bildur ezpafiña bere, guztiok izan bear dogu Jangoikoaren bildur, gauza txarrik ez egiteko. Jangoikoak emoten daben indarra da neke ta premiñeetarako, baiña ez lagunari gatzik egin, ta bere burua arriskuan ipinteko. Gatzik asko dauka gizonak munduan, alkarri gatz barriak emoten ibilli бага bere.

Indarrari alan jagiten jakozanak lotsatu bear leuke ikusirik asto batek eurak baiño geiago daukala, ta ostikada bategaz botako litukeala lurrera. Gizona jagi bear jako errazoe edo zentzunari, ta onek argitu ta neurtu bear dau Jangoikoaren lege santutik. Burruka ta makillaak erakusten dabee tontokeria ta biotzeko karkabu zitala, baiña ez prestutasun ta balorerik.

Prestutasun ta egiazko balorea ezagutzen dira gerra zuzenetan ta Jangoikoaren gloriak eskatuten daben premiña orduetan. Baiña, geienez ikusiko da, taberna ta plazaeetan arrokeriarik andienak botaten ditueenak dirala billauenak premiñazko okasinoetan; ezagutu dedin biotz zital txatxarrak ez daukeela benetako balorerik... («ETXEKO ESKOLIA» — liburutik, 174-176 orr.).

ENTERRUETAKO JAN-EDAN UGARIAK ETA ORDIKERIA:

Aitak: Enterruko egunetik nago berbatuta ainbat las-terren egiteko. Batzuk luzatu oi dituez, jan-edan ta ospe andiagaz arren, begiratu бага zer igaroten daben arima gaixoak; ta arrokeria utsez gastatu oi dabee sarri, zorrak pagau edo Familiak ondo leukeana.

Honrara batuten diraneen lanak izan bear dau erre-gututeak Jangoikoari difuntuaren arimia gaitik. Baiña, zer ikusi oi da ospe andikoetan? Luze erestea Eleizako erreguei, joateko laster mozkortutera. Ez dot nik ikusi gura emaztearen honrako eguna lotsagarritzko egun izatera biurturik. Neuk aterako deusadaz mezaak. Adiskide benetakoak ez dabe jan-edanera begiratuten erregutu ta mezaak aterateko. Neuk alan egin izan dot.

Jabierrek: Jan-edan ugaririk honreetan emoten ez dabenak gaitik esan daroe ez dirala prestuak.

Aitak: Ez dakit zelan tonto batzuk aitu gura leukeen prestutasuna. Zorrik pagau ez edo geitu; etxeak ondatu, umeak erdi billosik, ta bear bada gosez; ta orregaitik, pitxarragaz badabiltz honra, fiesta ta taberneetan, prestutzat daukeez eureen buruak. Prestutasuna da, baktxari berea zuzen emon, inoren kalte бага bizi, alegiñez lagun projimoei mesede egin, batez pobreal, ta gasteetea premiñeak eskatuten dabenean, au da, norbere edo projimoren mesederako danean. Baiña, ze prestu usain ikusten da alakoetan? Zenbat emon oi deutsee pobreal? Zenbat dugarik iñori bere? Eureen konbitak oi dira beste ainbeste gitxienez artuteko: nik gaur zuri, ta zuk biar niri ibillteko. Alan dira bakarrik prestuak eureen sabele-entzat.

Ordikeria aitatu dodan ezkerro, egingo ditut berba bi bere gañean. «*Ordikeria, gizatasunaren lotsaaria*», diño San Krisostomok. Egiaz; zer gauza lotsagarriagorik Jangoikoak emon euskun adin edo errazoa galdutea baiño? Zer gauza lotsagarriagorik, animaliaak baiño berago geure buruak imintea baiño? Pausua aaztuta, bideak artu ezin dituala, begiak gorriturik, prakaak jaso ezinik, dakuseenak barrez, baiña eureen etxeke ta umeak arpegi-rik emon ezin deutseela. Au da gizonak bere buruari emon leion tajua?... («ETXEKO ESKOLIA», 275-277 orr.).

BASERRIETAKO EKANDU BATZUEN ARRISKUA:

Aitak: Gal-joteak, ira edo garo ebateak, orbel batzee, lino apaintze edo ezpatetaak, arto zuritze, ta beste onelako lan batzuk, egin oi dituee al dabeen gazteeria batuta, geieenez Nekazari alper atzeratu oi dabiltzanak, edo seme-alaba ibiltauak daukeezanak. Etxekoandrea alper lotia, ta alabaak amaren ozpalekoak badira, asmeetan dabe gau-goruetea. Egunezko gaiztakeria askori gitxi eretxirik, etxe batzuetan, batez bere arto zuritze, ezpateeta, gorueta ta neke gitxiko laneen ondoren, egin oi dira gaujolas «Bigiria» esaten jakeenak. Euren bearra nolani amaituta, asten dituee dantzarik naastu ta nasaienak. Oi dira atxakiaz argia amateetan dabeenak. Dantza ostean edo leenago, etxe baten baiño geiagotan, egiten dituee amar amarka, ardiak aparteeta, amoreak egite, alkar jasote, ta aitatuteak lotsatu leian gauzarik ezain, ero, ta nabarmeneenak. Gurasoak begira barrez, edo lotara. Baiña Jangoikoak ez dau lorik egiten. Ez dago beretzat illunik ta guztia dakus. («ETXEKO ESKOLIA» — tik, Vitoria, 1845, 122-123 orr.).

IZTEGITXOA.—*daroa:* oi du — *karkabu:* intención — *berbatu:* comprometerse de palabra — *dugarik:* duan, de balde — *dakuseenak:* ikusten dutenak.

Francisco Ignacio de LARDIZABAL

(Zaldivia, 1806-1855)

Abadea; Zaldibian bertan egon zan Parroko; sasoerik onenean ilzan, izurrite batean kutsutua. Euskera sakon daki: itzun ederra ta ugaria; bere lanak ondo landuak dira, argiak, txukunak (bear bada zertxobait otzak eta motelak).

Lan bi itxi euskuzan: 1) «TESTAMENTU ZARREKO ETA BERRIKO KONDAIRA»: *Biblia'ren laburpen polita, erriarentzako («pocos libros han sido tan leídos como éste por el pueblo euskaldun» Villasante); 2) «Gramática Vascongada».*

JERUSALEN-GO GOSETEA

«Goseteak lenengo egunetik kalte andiak egiten zituen; baiña atzeneko lanbide onekin lenagokoan azkarria sartu zan. Gari eta beste jan-gauzarik aspaldian etzan saltzen: zerbait zeukanak isillik gorde bearra zuen; bestela gorrigo bat etxean sartuta kenduko zion. Bat bazekusten

gizentxoia edo arpegi betekoa, edo kolore onekoa, bereala eraso, eta arrapatu guzia kentzen zioten, iltzen ezbazuten ere. Ate bat itxita ikustea asko zan, zerbait jateko ba zegoala pensatzeko: puskatzen zuten, eta etxeakoak beartzen zituzten, dana agertzeri.

Emakumeak illeetatik arrastaka, eta aurrak ostiko-pean zerabilzkiten, ogizerra bat atera eragiteagatik. Uriko aberatsenak beren lurak gari-bikor batzuekatik saltzen zituzten, gero etxean ezkutuan ogia eginda, edo gal-ale gordiña jateko. Edozein apukogatik etxeetan sartu, personak il, eta zegoana berekin zeramaten. Okellura joanda, zimaurrek likitsenak, ubal-puska zarrak, belar ustelduak jaten zituzten.

Aide maiteenak, adiskide kutunenak elkarri erasotzen zioten, zer-janen bat zuela igerri ezkeri. Ifiori ere bar-katzen etzitzaion, amorratzen zerabilzkien gosea zerbait kentzearren.

Baiña zenbateraiño gosea sartu zan jakiteko, Maria zeritzun emakume batek egiña aditzea asko da:

Emakume au, etxe oneko alaba eta guriro azia zan. Bere zorigaiztoan, beste asko bezala, Pazkoa egitera, Jerusalem— en sartu zan, eta zeraman guzi-guzia bereala kendu zioten. Miñaren miñez askoak esan ziezen, aserrerezota, il zezaten: eta ikusirik, ala-era iltzen etzutela, bularreko bere aurra eskue-tan artuta, esan zion: «Zorigaiztoko aurra, zertako zaitut? ez izan izugarri oietan izateko? goseak iltzeto edo etsairik gogorrenen eskuetan jartzeko?»... Au esanda, lepoa ebaki zion, eta burrunzian erreta, erdia jan zuen, eta giñerakoa berrizko gorde zuen.

Besteak aragi-errearen usaia artu zuten; etxean sartu zitzaiozkan, eta ezpata bularrean ipiñi zioten,

zeukana eman zizaien. «Nik zati bat gorde dizutet»— esan zien, eta aur erdi-jana aurrera ekarri zuen. Au ikusi zutenean, aldegin nai ziotelako, esan zien: «Jan dezakezute, bai; bada, ez emakume bat baiño begiratuagoak, ez ama bat baiño biguñakoak izango zerate». Arri-egifiek iges egin zuten.

Gertaera izugarri ez-aditu au Uri guzian barreatu zan, eta barrungoak ez ezen kanpokoak ere ikaratu ziran. Onela bete ziran, Jesus-ek esandako itz oiek: «Etorriko da eguna, zorionekotzat artuko dana aurrik izan ez duen emakumea, eta esnerik eman gabeko bularra». («Testamentu berriko kondaira edo historia»-tik, pp. 236-238, Bilbao, 1957).

JOSE BERE ANAIEKIN...

Bereala zakuak lurrera jautsi, eta nork berea zabal-durik, mayordomoak aztertu eta ikusi zituen zarrenare-netik asi, eta gazteenarenaño guziak, eta Benjamin gazteenarenean edanontzia arkitu zuen.

Senide guziak lanbide hura ikusi zutenean soñekoak urratu, eta abereetan zakuak arturik, Jose-gana itzuli ziran, eta auzpez barkazio-eske jarri zitzaiozkan. Jose-k bekoki illunarekin artu zituen, esanaz: «Zergatik ori egin dezute? ez dakizute, gauza isillak asmatzen niri eramaten didanik iñor ez dala?».

Jose-ren aurrean guziak auzpezturik, isillik zeuden; eta Judas-ek guzien izenean, eta besteen artean nabarmendurik, esan zuen:

—Zer gure Jaunari erantzun dizaiokegu? Guk obenkulparik ez degu; baiña gauza bat dago, alaktotzat egiten gaituena. Len guk gaizki egin giñion. Jainkoak gisa onetan kastigatzen gaitu. Ara zure mendean non gauzkazun, bai gu, eta bai edanontzia zeukana.

—Ez ori —Jose-k erantzun zion—; Edanontzia zera-
mana emen gelditu bedi; besteok zeron aitari zoazkiote.

Jose-ren esanak Judas ezin geiagoraiño estutu zuen,
eta erantzun zion: «Jauna, itz bat esan nai dizut, eta
ez aserretu. Lendabizian etorri giñanean, galdetu ziguzun:
«Aitarik edo anaiarik ba dezute?» Erantzun giñizun,
aita zarra, eta anaia txiki zarzaroan jaio zitzaiona eta
txit maite zuena genduzkala; eta esan ziguzun: «Onera
ekardazute; ikusi nai det». Erantzun giñizun, gure aita,
semetxo hura bere ondotik kendu ezkerro, illa gelditzen
zala. Zuk esan ziguzun: «Ezbadezute ekarten, ez nere
aurrean geiago jarri». Etxera joan giñan; zuk zer eska-
tzen zenduen, aitari esan giñion, eta berri onekin nai-
gabeturik, luzaro etzizun eman nai izan. Atzanean zer
jana aitua, eta goseak larritu ginduenean, aitak esan zi-
gun: «Egipto-ra zoazte, eta gari piska bat erosi ezazute».
Guk erantzun giñion, ezin onara anaia gazteena gabe
etorri gintezkeala. Aita txit ansiatuak erantzun zigun:
«Zuek dakizute, nere Rakel maiteak etzerala seme bi
baizik eman; bat nere ondotik joan zan, eta esan zen-
duten pizti batek jan zuela, eta egundaiño etzat agertu.
Baldin orain au eramango bazendute, eta bidean ez-bea-
rren bat izan, tristuran lurpetuko nazute». Orain, bada,
Jauna, baldin gu aitagana joan, eta seme au gurekin ez-
balijoa, miñaren miñez ilko litzake, eta gu zure serbi-
tzariok aren ezurak penaz lurpera eramango giñituke.
Ni nerau onen ordez zure menpeko izango naiz, itza
emanik nagoan bezala; ni nerau emen geldituko naiz,
eta Benjamin bere anaiakin dijoala. Ni bera gabe nere
aita gizaxoagana ez noa, nere guraso ona iltzen ez ikus-
teagatik».

Ontaraiño Jose-k, nekez bederik, bere Jauntasunari
eta inguruan zeuzkanai begiratuta, negar gabe iraun
zuen; baiña ezin geiagora zanean, an zeuden guziak irte-
nerazo zituen, eta gizon arrotz ziralako aiekin bera ba-

karrik gelditu zan. Orduan negar artean ots andi bate-
kin itz labur oiek doi-doi esan zituen:

—«José ni naiz! ¿Nere aita oraindik bizi da?» Eta
mututu zan. Anaiak ere izaturik, etzuten ezer esateko
kemenik izan. Egipto-ak José-ren lantu eta negar-otsa
aditu zutenean bereala igerri zioten, zergatik izango zan;
baita laster Faraon-i adierazo ere. José-k berera edo
kontura zanean, esan zien: «Ni naiz zuen anaia zuek sal-
du ninduzutena. Ez ikaratu; zuen onerako zuen aurretik
Jainkoak Egipto-ra bialdu ninduen, eta Faraon-en aita
ordeko eta Egipto guziko Nagusi egin nau. Zoazkiote,
eta nere aitari esaiozute: «Zure seme José bizi da; eta
ara zer gaztigatzen dizun: Jainkoak Egipto guziko Na-
gusi egin nau. Bere-beraala onara atoz...»

(«TESTAMENTU ZARRECO ETA BERRICO CON-
DAIRA...», Tolosa-n, 1855, 58-59 orr.).

IZTEGITXOA.—GOSFTEA: *izurrite*: peste — *azkarria*: lenitivo
bazekusten: ikusten bazute — *zerra*: rebanada — *bikor*: garau-
ale — *barreatu*: zabaldu, propagar.
JOSE: *jautsi*: jatxi — *ansiatu*: apurar — *bere-bereala*: inmediate-
mente.

Gregorio de ARRUE

(Hernani, 1811 — Zarauz, 1890)

Eskola-maixua zan, eta Zarautzen bizi izan zan. Gure Gregorio ARRUE, Itzultzailea dogu, batez be (euskeratzailea): «traductor profesional y experto» (Villasante). Amaikatzu liburu euskeratu eban! Euskeratik euskerara (gipuzkerara) be bai, azkenean! (A. Mendiburu'ren «Jesusen Biotzaren Debozioa» ta Mogeldarren «Peru Abarka» ta «Baserritar jakintsuaren etxeko eskola»...) Jakiña: libururik geienok — ia danak — eleiz liburuak edo erlejiñozkoak dira; ori bai, asko erabilli ta irakurritakoak: Arrue'n izkera, izan be, ain da ugaria, berezkoa ta errikioa...

NOR BERE KONZIENZA BEGIRATZEAZ:

2.—Negar egizu, ta sumiñ zaite, oraindik orren aragi-koi eta mundutar izateaz:

Zere griñetan aiñ gutxi illerazia, eta gutizi eragabeaz aiñ betea:

Gorputzaren sentieretan begiramentu aiñ gutxikoa; aizezko burutazioz askotan aiñ nastua:

Kanpoko gauzetara aiñ emana; barrungoetarako aiñ zabar nagia:

Far egiteko ta jostatzeko aiñ ariña; negar egiteko eta damutzeko aiñ gogorra:

Nasaitasuna ta aragiaren atsegiñ-kontentuetarako aiñ prestua; penitenziarako ta debozio egiazkorako aiñ al-perra:

Eleberriak aditu eta gauz ikuskarriak ikusteko aiñ gogotsua; gauza umill ta txarrak artzeko aiñ uzkurra:

Ondasunak billtzeko aiñ gosea; emateko aiñ begiratu; oriek idukitzeko aiñ eutsia:

Itzketan aiñ begiramentugabea; isill egoten aiñ gaitza:

Oituretan aiñ neurri ta eragabea; gauzen egitean aiñ burugabea:

Janean aiñ neurrigabea; Jainkoaren itza entzuteko aiñ gorra:

Alperkeriara aiñ emana; lanerako aiñ nagia:

Kontuak aditzeko aiñ ernaia; gauean koruko errezotarako aiñ lotia; oek bukatzeko aiñ sosegugabea; arreta ipiñtzen aiñ zabarra:

Errezoak egiten aiñ nagia; mez-ematen aiñ epela; komulgatzen aiñ agorra:

Aiñ laster oartkabetua; aiñ banaketan zeregan bildua:

Aserrera mugitzen aín lasterra; besteak deskustatzeko aín erraza:

Juzkatzeko aín presta; zorrozki ta miñ itzegiteko aín latza:

Gauzak nai erara datozenean aín alaia; ezegokietan aín ixuria:

Asmo onetan aín ugaritsua; lan edo obra onetan aín urria: (...)

(Aita T. Kempis: «Kristoren Imitazio eta Munduaren Desprezioa», Tolosa, 1887, 4-garren liburutik, VII Burua, pp. 463-465). (Ikusi, Antolojia onetan, zati onen itzulpena, Aita OLABIDE-k egiña).

PRESONDEGIAN GENOVEVA AMA EGITEN DA

Genoveva presondegian illabete luzeetan egon zan; eta denbora guzi orretan, Golo gorrotagarria ezpazan, beste iñor ikusi etzuen. Onek bere eskari lotsagarriak egitea uzten etzuen; berak nai zukeana egitearen aldera eta ez bestela, jendearekiko bere ondra eta izen ona Genoveva-ri biurtu eta presondegitik ateratzea agintzen zion. Baiña Genovevak garbitasunean sendo iraunaz, beti esaten zion: —«Naiago det gizonen begietan desondratutzat egon, egiaz ala izan baiño. Bai, naiago det ziega illun onetan agoni luze batez ill, gaiztakeri baten bidez erregin izatera igo baiño».

Bitartean, bere eramankizunak aurrera joan bear zuten.

Bere senarra joan zitzaionetik laster, ama zalako segurantzaz pozzagarria artu zuen. Bera preso zegoen-denbora gogorean, au jaiotzeko denbora eldu, eta presondegi tris-te artan seme bat argitara eman zuen.

—«Ene seme lastana, — aur gaitz-gabea samurtasunik andienaz bere magalean artuaz ama errukarriak zion — ona non emen, ziega illun onetan, orma beltz-gogorren artean zauden, non mundura-bearra zifian! A! atoz nere besoetara, atoz ona, nere biotzaren ondora, emen estali eta epel zaitzadan. Zure ama gajoak zu biltzeko pixioial eta trosik eztauka; kutxare bat-zopa-bero zuri ematera datorkean iñor eztago. Eritasun eta neke-penak erkitua eta aitua daukaten ama batek, nola mantendu alko zaitu, gaixo ori? Bizileku izugarria onetan zu eratzeko, lasto ustel-kirastua edo ta adrillu otz-gogor au besterik eztago. Ura darion bobeda beltz onen azpian, betiko busti eta otzarekiñ ilko zera, gaixo ori. O arriak! zergatik bus-titzen didazute onela nere erraietako semetxoa zeron ur-tantaz? Zuek-ere, gizonak bezela, errukigabeak zerate?... Baiña ez, barka zadazute; zuek, pareta mutuak, zuek gizonak baiño urrikaltsuagoak zerate; nerekin nere semetxoaren onbear, premi eta miseria, penaz eta nai-gabez ezpada ezin eraman dezute, eta nerekin batera goibeldu eta negarrez zaudete».

Onela esanaz, lurpeko zulo illun artatik ezin ikusi zuen-zerurontz begiak goratu, eta bere semetxoa bere beso aulduetan gora jasota negarrez esan zuen:

—«O ene Jaungoikoa! nik semetxo au, zure eskutik datorkidan doai bat bezela artzen det. Zure erregalao dan bezela, zuri dagokizuna da; eta beragatik, oso eta bizi, Zuri eskeiñi bear zatzu. Bai, — jarraitu zuan aurrera, geldika alaituaz — aurreneko nere eginkizuna, au Zuri ofrendatzea da. Nik au Zure eliza santura ezin bial negizuke; baiña emen-ere, Zu gurekin zaude, an zauden bezela; eta non-ere Zu zauden, ene Jaungoikoa, an arkitzen da zure eliza. Gajo-au artu eta bataioko pontearen gaiñean idukiko duen esku ongille bat, emen eztago;

aitari eta aita-pontekoari beren eginkizunak gogoraziko ditzen apaiz bat ere, eztago. Niri, bada, iñoren laguntza-gabeko aur errukarri onen ama tristeari, niri dago-kit, amari, aita eta apaizaren ordeak egitea. Egiten ditzut, o nere Jaungoikoa, baldin nere semeari eta neri bizia gordetzen badiguzu, au fede egiazkoan azitzeko, Zuganako eta bere antzeko gizonak-ganako ongina eta amorioa erakusteko, eta nere kontura eman didazun joya preziatu bat bezela, bere anima gaitzetik gordetzeko, promes agirikoa; egunen batean, garbi eta bekatuaren eta oitura galduen mantxa gabe, zuri biurtu al dagizudan, eta ondasun sagradu onen kontu zuzena eman degizudan».

Ondoren, Genoveva-k bere isillean luzaro orazioa egin, eta urarekin zegoen-txarroa artu, eta aurtxo bat-taiatu zuen, «*Ditxagabea*»-ren izena berari ipiñiaz.

—«Ongien datorkizun izena au da, seme laztana, — ama gajoak zion — naigabe min ta negarren artean mundura zera-ta; «*Ditxagabea*» izango da ponteko zure izena; eta zure amaren negarra, zure bataio-egunean egiten zatzun doai-eskeiñi tristea».

Bataiatu-ondoan, bere-hura bere mantelean bildu, eta bere magalean artu zuen.


—«Nere magala —esan zuen—, orra zer izango dan emen zure seaska».

Gero, aldean zeukan-ogizati beltz-gogorrari begiratu, eta: «Ona emen —jarraitu zuen esanaz— zer izango dan aurrerontzean zure janaria. Txit gogor eta zatarra, eta neretzat ere urri-askoa da; baiña poztu zaitte: zure amaren negarrak bigundu eta Jaungoikoak bedeinkatuta, biontzat askoko da».

Orduan, apur batzuek aon maskatu eta bigundu, eta aur gaixoari apurka eman, eta au amaren belaunetan loak artu zuen... («*Bravante'ko Genoveva*», K. Schmid, Edit. Itxaropena, Kuliska Sorta, n. 37-38, 1960, pp. 22-25).

IZTEGITXOA.—*illerazi*: mortificar — *gutizia*: codicia — *eragabe*: desarreglado — *elaberri*: noticia — *uzkur*: remolón — *oarkabetu*: distraerse — *deskustatu*: disgustar.

PRESONDEGIAN: *presondegi*: espetxe, cárcel — *ziega*: calabozo — *eramankizun*: paciencia — *pixoial*: mantarrak, mantillas — *trosa*: pañal — *erkitu*: extenuar — *eratzan*: acostar — *txarro*: jarro.



Fr. José Antonio de URIARTE

(Arrigorriaga, 1812 — Zarautz, 1869)

*Frantziskotarra. Españan frai-
lleak komentuetatik bota zitue-
zanean, Markiña'ra joan zan bi-
zitzen, eta sermolaritzan ibilli
zan erririk erri: bein baten, Bilbo'
ko San Nikolas-eleizan orrelakoxe
sermoe bat egiten egoala, Luis Lu-
ziano Bonaparte'k entzun eutsan,
eta berealaxe eskatu eutsan la-
guntasuna euskal-dialektoen Ma-*

*pa bat egiteko. Bai lagundu be
Aita Uriarte'k! Lenengo, lan txiki-
ak ziran; baiña gero Biblia osoa
euskeratzeko eskatu eutsan gure
Bonaparte'k. Lan ori aurrera ero-
ateko, Duvoisin (lapurdieraz) eta
A. Uriarte aukeratu ebazan (gi-
puzkeraz). Bera bizkaitarra izan
arren, alegindu zan, bai, A. Uriar-
te gauzak ondo egiten... Auxe do-
gu gure aldean euskeraz egin
izan dan Biblia osoaren lenego
itzulpena; baiña, zoritxarrez, zati-
txu bat baiño ez dago argitaratu-
ta (lenengo 3 liburua); enpa-
raua, or ei dago Gipuzkoa'ko Di-
putaziñoaren Liburutegian, noiz
argia ikusiko zain...*

*Beste liburu batzuk be egin eba-
zan euskeraz (bizkaieraz); euro-
tariko «Marijaren illa edo Maija-
tzeko illa» (1885), asko erabillia
izan da Bizkaian.*

*Uriarte'k Bibliaren itzulpenean
darabillan euskerari buruz, ara
A. Villasante'ren eritzia: «...gei-
enetan euskera jatorra darabil,
argia, erreza. Bearbada, latinezko
testuai lotuegia...»*

GENESIS, cap. III:

*«Baiña sugea zan Jaun Jaungoikoak egin zituen lu-
reko abere guztiak baiño marrajoagoa. Onek esan zion
emakumeari: «¿Zergatik agindu dizute Jaungoikoak ez*

dezazutela jan paradisuako zuaitz guzietatik?». (2) Zeiñi erantzun zion emakumeak: «Paradisuan dauden zuaitzetako frututik, jaten degu; (3) Baiña paradisuaren erdian dagoen zuaitzeko frututik, agindu zigun Jaungoikoak ez jateko, eta ukiturik ere berari ez egiteko, ill ez gaitezen».

(4) Esan zion orduan sugeak emakumeari: «Inola ere etzerate illko. (5) Ba daki ezen Jaungoikoak artatik jaten dezuten edozein egunean, idikiko diradela zuen begiak: eta izango zerate jaungoikoak bezelakoak, dakizutela ona eta gaitza».

(6) Ikusi zuen bada emakumeak zuaitza ona zala jateko, eta begientzat ederra, eta irudiz gozagarria: eta artu zuen bere frututik, eta jan zuen: eta eman zion bere senarrari, zeñiak ere jan zuen. (7) Eta zabaldu ziran bien begiak: eta ezagutu zutenean larrugorrian zeudela, josi zituzten piku ostu batzuek, eta egin zituzten berentzat mantalak.

(8) Eta aditu zutenean Jaun Jaungoikoaren paradisuaren zebillenaren boza airean eguerdi ostean, ezkutatu ziran Adan eta bere emaztea Jaun Jaungoikoaren begietatik paradisuako zuaitzen erdian.

(9) Eta deitu zion Jaun Jaungoikoak Adani, eta esan zion: «¿Non zera?» (10) Berak erantzun zuen: «Aditu det zure boza paradisuaren: eta beldur izan naiz, larrugorrian nengoalako, eta ezkutatu naiz».

(11) Zeñiari esan zion: «¿Nork bada erakutsi dizu larrugorrian zeundela, baizikan jan dezulako ez jateko agindu nizun zuaitzetik?» (12) Erantzun zion Adanek «Laguntzat eman didazun andreak, eman dit zuaitzetik, eta jan det». (13) Eta esan zion Jaun Jaungoikoak emakumeari: «¿Zergatik au egin dezu?» Berak erantzun zion: «Sugeak engañatu nau, eta jan det».

(14) Eta esan zion Jaun Jaungoikoak sugeari: «Au

egin dekalako, madarikatua izango aiz abere eta lurreko pizti guztien artean: ire sabelaren gainean ibilliko aiz, eta lurra jango dek ire biziko egun guzietan. (15) Neronek ipiñiko zetikat etsaitasunak ire ta emakumearen artean, eta irre arrazaren eta aren jatorriaren artean: berak lertuko dik ire burua, eta i ibilliko aiz aren orpoaren zelaten».

(16) Emakumeari ere esan zion: «Ugarituko ditut zure nekeak, eta aurgiteko zauden denborako zure oiñazeak: miñez aurrak egingo dituzu, eta egongo zera gizonaren mendean, eta onek aginduko dizu».

(17) Adani beriz esan zion: «Aditu dezulako zure emaztearen boza, eta jan dezulako ez jateko agindu nizun zuaitzetik, madarikatua izan bedi lurra zu gatik: neke andiak aterako dezu bera gandik janaria zure bizitzako egun guztietan. (18) Arantzak eta sasilarrak emango dizkitzu, eta jango dezu lurreko belarra. (19) Zure arpegiko izerdiarekin jango dezu ogia, itzuli zaitzen bitartean lurrera, nondik izan ziñan artua: zeren autsa zera, eta auts biurtuko zera».

(«BIBLIA edo TESTAMENTU ZAR ETA BERRIA» — Aita Fray José Antonio de Uriartec latinezco Vulgatic lembizico aldiz Guipuzcoaco Euscarara itzulia — Luis Luziano Bonaparte Principeak eta Don José Antonio de Aspiazu Guipuzcoatarrac lagunduric — Londresen, 1859) — Lan oni buruz, ikusi A. *Luis Villasante*'ren artikulua au: «Aita Uriarte eta euskerazko bere Biblia» («Cantabria Franciscana», 19, 1961, 229-234).

EJENPLUA

Zein kaltegarri ete dan Mariaren erregu ta errezuak itxitea, ta bereganako oneraspen ta deboziñoian otzitu edo epeldutea! Ondo argiro darakusku gertaera onek:

Tomas Kempis Beneragarria izan zan txiki txikitatik Mariaren serbitzari ta deboto guztiz andia. Izentau zituzan errezu ta beste gauza on batuk egunero beroni egiteko; baiña eskolan ebillela, zori gaiztoan, epeldu zan Mariaganako deboziñoian; geldika geldika joan zan gixituaz bere eguneroko lan eta errezuak: lelengo itxi zituzan batzuk, gero guztiak. Onelan bizi zala, euki eban bein baten esatera noian begitaziño, ta ames bat, edo obeto esateko, zeruko argitasun ta dei bat, ta berak bere aintzakotzat artu eban.

Begitandu jakon egoala eskolan bere lagunakaz, eta antxe agertu jakela zeruetako Erregina eder au, ezin esan leian besteko anditasunagaz, bere arpegia argitasunez beterik, edura bera baiño jantzi zuriago bategaz. Ikusi eban zelan joian banan banan bere lagun Erligio-soak gana, zelan ziarduan berbetan eurakaz, zelako abegi ona egin, ta amodioa erakusten eutsen, eta batez bere; zelako eskerrak emoten eutsezan, artuten zituen nekeak gaitik, aziera on bat emoteko, Jesusek bere odolagaz erositako gazte areei.

Ikusirik bere lagunakaz igaroten zana, gura eukean Tomasek bera gana bere etorririk Maria, egingo baleutsa begirakune samur bat, eta esan amodiozko berba gozatsu batzuk. Ziñoan bere artean: «Ez al naz ni mesede onen duin? Neuk bere beti maite izan dot Maria: bera, barriz, ain da Ama ona ze...»

Oneek ziran Tomasen uste ta gogoraziñoiak; baiña, ai zein erratuak! Abegi on, amodio ta berba samuren lekuan, izan zituzan arpegi illuna, bekoki astuna, berba garratzak, ta agiraka andiak. Eldu zan Maria Tomas-gana ta aserraturik guztia, esan eutsazan berba oneek: «Alperrik itxaroten dituk nigandik abegi samurra, ta berba bigunak, ik, eure nagitasun ta lagun donga baten esanak gaitik itxi dituan orrek, egin oi eustazan erreguak

ta lan onak. Nun dituk eure errezuak? Nun beste gauza onak? Ez az ia-ia guztiz aztu nigaz? Eta, oraindik itxaroten dok nigandik abegi on, ta amodioa, eukirik nik ainbeste errazoe igaz aserraturik egoteko, itxi ditualako, ain nire gogoko zituala enkian erregu ta lanak?»

Amaiturik berba oneek, iges egin eban zeruetako Erregiñak, eta geratu zan Tomas guztizko estutasun ta larritasun baten. Iratzartu zan, aztertu eban bere konzienzia, ezagutu eban egindako uts ta faltea, artu zituzan onduteko asmo sendoak, egun atan beratan asi zituzan barriro, len egin oi zituzan errezu ta lan onak, eta andik aurrera ez zituzan bein bere itxi, bizitza guztian... («MARIJAREN ILLA, edo MAIJATZEKO ILLA», 1868, 14-15).

IZTEGITXOA.—*marrajo*: maltzur — *zetikat*: deudaz — *aurgin*: parir — *sasilar*: abrojo — *darakusku*: erakusten deusku — *ziarduan*: ari zan — *aziera*: educación.

Bitoriano IRAOLA

(Pasai, 1841 — Donosti, 1919)

Donostia'n bizi izan zan. «Oso donostiarra zan Iraola. Donostiko euskera zan berea; Donostia zarreko ipui ta gertaerak ederki zekizkian; arrantzale, txardin-saltzalle, zeladore ta orrelakoak ondo eza gutzen zituan...» (AUSPOA, n. 9, 11).

Euskal-lanak: 1) Bertsoak: ugarri, orduko aldizkarietan.

2) IPUIAK: geienak, barre eragitekak; «Baserritarra» eritxon aldizkarian agertzen ziran geienak. (Batzuk «AUSPOA Liburute-gias'n argitaratu ditu A. Zavala'k, 9'garren numeroan). «Euskal Esnalea»-n be ipui barregarri asko...

3) Antzerki edo teatro-lanak (komeri, zarzuela, bakar-izkeketa: 15'eraño ei dira, gutziz...).

GAU ERDIYAN:

—Nausi... nausi...! Ori zurrunga! badirudi tronkuak serratzen ari dala... Nausi!

—¿Zer demoñño dezute?

—¡Etxian sua degula, sua!

—¡Jesukristo! Seguru nago etxe jabiak eman diyola.

—¿Zergatik?

—Zergatik, nola goiko errentik kobratu ez duen, sua dariola atera dalako.

—¿Zer egiten du jantzi gabe?

—¿Baña galtzerdiyak non laja ditut nik?

—Bat jantziya dauka, eta bestia orra eskuan. Ibilli bedi azkar, bestela kiskalduko gera sopako ogiya bezela. Badaki ni ez nagola aseguratua «contra incendios».

—Ez ni ere. Ua nere anayagana eta esan akiyok datorrela beriala.

—¿Zer da, arkitetua?

—Ez; kofregillia.

—¿Zer da or bullaka datorren ori, artilleriya? ja! ez, ¡bonberuak! Ixillago ez badabiltza, sarri esnatuko dituzte lo gozuan dauden sereno guziyak.

—¡Gizona, iya sartu zenidan eskallera abotik!

—¡Bide! ¿Jostorrazakin zatoz onera sua itzaltzera? Kampora emendik — diyo bonberuak kaskua «a lo tuno» jarriyaz.

—Ni etxeko nausiya naiz.

—Baita ni berriz gobernadoria... eta eltzen badizut galtzen ipurditik, sartuko zaitut emen (karrua erakutsiyaz), ¡Merke Trefe!

—Zer, Merke Trefe neri? Gu ez bagiñake, ez litzake izango kaballero bat, ¿eta burla? Aurki jakingo dek zer geran. (Bigarren bizitzan ate joka).

—Dan, dan, dan.

—¿Zein da ordu ontan?

—¡Sua!

—¿Zein?

—Ni; bekua: ¡Tira, mugi!

—¿Zer da?

—¡Aguro, baña aguro, kalera: zergatik kiskaltzia, ordu obetan eztu batere grazirik.

—¡Jesus milla bider! ¿Bertan al da?

—Bai; pastelariyan orain sartu da.

—¡Maria Santisima! Zu, Julita, Julita.

—Andria.

—¡Geran aguro, geran! Artu itzazu kutxa, kutxilluak, kutxariak, kutxaroya, eta korrika kalera.

—¿Baña orraztu gabe, ama?

—¡E! Kalera mundu guziya —diyo sastriak, txalekuen botoya lotuaz.

—¿Eta pianua, ama?

—Esan diyot neskatxari eraman dezala Peparen etxera.

—¡Ain nago nastua, eztakit zer egiten detan; tori, eraman nazazu au —diyo sastriari.

—¿Arratera?

—¡Jesus au burua! Loruen kayola zala uste nuen. ¿Zu, bai al dakizu suaren santu debotua zein da?

—Santa Barbara —diyo sastriak.

—Bada ni, gutxi gora bera, San Andresi erreztatzen ari naiz.

—¡Guazen, guazen! ¡A! kofri au balkoitik tiratzera nua —diyo sastriak berriz.

—¿Zertako?

—Ia Merke Trefe deitu ditan bonberuari sartzen diyo-tan burutik.

—¡E socorro!

—¡Ura, ura, onera, onera!

—¡Ura, ura!

—¿Baña nora?

—¡Ara! ura ¡ara!

—¡Ate ori jo ta ausi!

—Pun, pun, tris, tras, kataplun.

—Guazen, guazen, ¡Jesus au kia!

Ateratzen da aurreko leyora Pañiku arrantzalia eta ala diyo:

—¿Itzali al da sua?

—Sua ez, baño bi sereno bai.

—Bueno; orduan esan akiyote or dabilzan su guziyari, egiteko mesere oneraño etortzia.

—¿Zertara?

—Ia tximitx abek akabatzen diran bein edo bein.

—Bonberuak baziaztik sua itzalita.

—Ago; ni ere baniak.

—¿I? ¿Nora?

—Lotara.

(«AUSPOA LIBURUTEGIA», n. 9, 86-89 orr.) (Ezer aldatu barik).

Jose Manuel ETXEITA ETA LUZARRAGA

(Mundaka, 1842-1915)

Itzas-gizon onek urte asko igaro zituan Filipinas'en; Manila'ko alkate izateraino be eldu zan... Zaltetan bi eukazan, batez be, bere biotzean: astronomia nautika eta euskerea. Filipinas'tik etxeratu zanean, euskal idazlanok egin euskuzan gizon argi onek:

1) «JOSECHO» (1909): *auxe da eleberri onen aria: ijito batzuk osutako umetxu baten gora-berak, Mundaka'ko baserri baten, kalean, itxusoan, Ameriketako lurraldeetan... azkenean bere gurasoak aurkitu arte.*

2) «JAYOTERRI MAITIA» (1910): *euskaldun neska-mutil batzuk Ameriketara doaz, Mexiko'ra, ta gero barrero biurtzen dira, biñan-biñan, euren jaioterri maitera, «Ardibaso» zoragarrira... Bukoliku-kutsua dau nobela onek. «Liburu*

*biotan, atzerrietako gauza jakin-garrien albistak emoten ditu... Nobela biok garbi-garbiak, edozein umek irakurteko lakoak... Berbakuntza gozo ta bizia darabil beti, iturri onekoa..., noizean bein erdalkeriaren ikutua izan arren, eta ori itzurrenari buruz soillik...» (E. Erkiaga, «Olerki», 1962, 107-123). *Itz barriak (neologismuak) be, bai berak eta bai bestek sortutakoak —gitxi baiña—, or-emen sartzen ditu.**

3) «AU, ORI TA BESTIA»: *olerki-liburutxua. Artikulu asko aldizkarietan...*

Irakurle asi-barrientzat, autu-autukoak dira Etxeita'ren liburak.

GITANOAK ETXE AURREAN:

«Txomin-Txikik eta emazteak oiñ-ortozik eskintsa-riak egin ebezanik irugarren urtean, illuntseko illunabarean, agertu zirean etxe-aurrean «gitano» batzuk, eta oles egin eben. Txomin ta Martiñ'ek urten eben atera; «gitanoak» eskatu eben aterpe bat gau atan etzateko. Juana Mari be jatsi zan bera, arrituta bildurrez, arek arpegi baltzak ikusi ebazanean; etxeukuok bildur zirean joan eitezala esaten, ta eskeiñi eutsen galtzoa zabaldua egoan korta bat, guztiak antxe etzateko. Pozik egozan gitanoak, korta zabal ederra, bero-berotan egoteko lortu ebenean.

Gitanuok zirean, iru gizon, iru emakuma, lau ume,

lau asto ta txakurtxo bi; ezainak, zazkel, erropazar, tras-kil, ikatza baiño baltzagoak, azurra ta azala baiño ez eukenak. Astaganean etorren umetxo urte bi inguruko, matrailla-gorri, begi-uridin, galant, gaztaiña margoko ule ederdun bat: ez zirudian besteen endakoa; etorren negar baten, «ama» ta «ama» txillioka ziarduala. Juana Marik ez ekian zer gertaten jakan ordu atan, ain erruki gogorra artu eutsan ume zoribako ari: uste eban nunbait ostua izango zala, ta artu eban bere besoan.

Pozik egoan mutikotxoa, Juana Marik besoan artu ebanean: gitanoak urreratuten jakazanean, besartetzen eban sendo Juana Mari deadar gogorraz; ez eban nai joan gitanoakana...

Mutikoak bekian oiñez ibilten, baiña oraindiño ez ekian berbean: esaten ebazan berba bakar batzuk euskerara. Gitanoak ez ekien euskerarik, eta ezagun zan mutikoa etzana euren, ezpabere, nonbait ostuta ekarrena.

Gau atan mutiko onek egin eban lo Txomin eta emazteagaz, poz-pozik, guztizko gogo argiaz; onek biok, ezin loak arturik egon zirean gau guztian, bildurrez, zer jazo-ko ete zan kortan egozan arpegi baltzakaz. Goizean ogetik jagi zireanean, mutikoak ez eban nai urten etxetik aizetegira, bildurrez ostera gitanoak eroan eien.

Juana Marik eta senarrak artu eutsen erruki gogorra ta ganera maitetasun andia: gitano gizaseme bati egin eutsen eskakizuna, a umetxua eurakaz izteko, baiña arpegi illunaz erantzun eban ezetz. Ostera, iru emakumeak nai eben etxe atan iztea, zerbait umearen orde emoten beutsen: itzi nai eben, beti egoten zalako negarrez da deadarrez ixildu baga.

Egun atan, gitanoak joan zirean Mundakara eskean, astoak eta txakurrak kortan itxita, ta illuntzerarte etzirean agertu Ondartzara. Beste egunean, urberen zanean,

joan zirean atxik-atx, arrapetara lapa, lanperna, mango-liño, muxilla ta arripeko karramarroak; zuzendu ebezan iru egunerako naiko ebezan beste.

Biamonean goizetik ebiltzan joateko asmoaz; giza-semeok eurakaz nai eben eroan Juana Marik besoan eukan mutikoa; «gitanak» nai eben itxi umea, zerbait bere orde artuta. Txomin ta emazteak, errukigarritzko eskariak egiten ebezan mutikoa eurakaz izteko, baiña arek gizonak aserre zirean euren emakuma lagun kalte. Auzi onetan egon zirean luzaro, ta atzanean Txomiñi eskatu eutsezan amar ogerleko ta amar egazti mutikoren orde.

Juana Mari joan zan arin Mundakara, mutikoa besoan ebal; zuzendu ebazan amar ogerlekoak; ollatokian arrapau ebazan Martin-Zaldik amar oillo, ta emon jakezan. Artu ebezan euren ume, asto, txakur, karramarro, lapa ta enparauak, eta joan zirean Ondartzarik, mutikoa bertan itxita. Gitanoak esan Pedro eritxola, baiña Pedro deituaz, ez eban erantzuten...

Juana Marik, arratsalde atan, altzoan esne-sopak emoten eukala, itandu eutsan:

—Txotxo, zelan dok ire izena?

Barrero ainbeste bidar itandu eutsanean, gomuta izan eban bere izena, ta poz-pozik erantzun eban. «JOSE-TXO».

—Josetxo dok eure izena? —itandu eutsan barrero Juana Marik; eta buruagaz adierazo eban baietz.

—Josetxo az? —oraindiño be itandu eutsan, eta orduan irribarreka erantzun eban:

—Bai.

Orra, jakin zan mutikoaren izena etxeko guztiaren pozgarri, ta orduan zoratuta pozarren esaten eutsen Juan Marik bere besartean estuturik:

—Neure biotzeko Josetxo! Nundik nora ibilli az orrekaz gitanoakaz? Nundik etorri az orrekaz baltzokaz, neure laztana? Zegaitik egin dozak arrigarriko negarrak eta deadarrak? Zegaitik izan az ain bildur arekaz joateko? Zer egin doe arek? Orain ementxe biziko az geugaz, ezta alan?

—Bai.

—Beti-betiko geugaz?

—Bai.

—Bai, neure biotzeko semetxoa!

Onetan ekin eutsen luzaro Juana Marik, eta emon eutsazan mosu asko.

Josetxok esaten ebazan berba bakarrak zirean: «bai», «ez», «esnea», «ogia», «erdu» ta «Josetxo»; ez ekian beste berbarik. Gitanoakaz ibilli zan artean, aztu bear izan ebazan berba asko, ta orain, euskera entzunaz, gomuta izaten ebazan len ekizanak.

Txomiñek poz-pezik arratsalde atan esan eutsan bere emazteari:

—Juana Mari, gaur ondo apaldu bear dogu, ta ekarritzuz Mundakatik ardaotxoa ta beste gauzak.

—Bai, Txomiñ —erantzun eutsan emazteak—; neu bere gaur poz-pezik nago, ta ondo apaldu bear dogu. Josetxo geugaz geratu dalako.

Esan ta egin. Juan Marik ekarri ebazan bear zirean gauzak, eta Txomiñ apal-aurrean asi zan jantzan ta zorakerietan Josetxogaz, batean sorbaldan ta bestean besoan erabillela. Juana Marik, apalduteko, zuzendu ebazan lukainka, arrautza, egaztiak eta arraiña; ganera, esne-sopa ta ardaoa zenbat-nai... Jesarri zirean maian irribarreka ta guztiz berbalari, Josetxo Juana Mariren altzoan zala: jaterdian, Txomiñek artu eban Josetxo bere

altzoan, ta asi zan koplak abesauten, ta asmoetan. Juan Mari zoratuta egoan bere mutikoagaz; berak sortua izan balitz be, ez eban izango laztanago; kendu eutsan Txomiñi eskuetatik, eta jan bear eban mosuka. Apalostean, guztiak egozan berbalari ta koplari; Martin-Zaldik bere, egiten ebazan biorkadak, ardao-pitxarra eskue-tan ebala. Txomiñ jagi zan maitik, Josetxo besoetan ebala, ta jantzan ziarduan zoli ta lerdin: Josetxo be pozik ebillen, euskera berba bat edo beste esaten ebazala. Martiñek be luzaro euki eban mutikoa bere besoetan, ta bakotzak berbaldi luzeak egiñaz, egon zirean ogeratu baga gaberdirarte... Gau artan guztiak egin eben lo ederto... («JOSECHO», 15-20 orr.).

IZTEGITXOA.—*autu-autuko*: muy adecuado — *eskintsari*: promesa — *oles egin*: ots, dei, egin — *zazkel*: desastrado — *margo*: kolore — *enda*: raza, casta — *besartetu*: abrazar — *urberen*: bazar — *lanperna*: perchebe — *mangoliño*: caracolillo — *muzilla*: almeja — *abesau*: abestu, cantar.

Pedro Miguel URRUZUNO

(Elgoibar, 1844 — Mendaro, 1923)

Abadea; bere erriko parroko izana, ta, gero, zartzaroan Mendaroko Agustiña-mojen kapellaua... Izlari ona ez baña, sermoi-idazle bikaiña ei zan. Idazle lez, Ipuin-asmatzaille joria, ugaria: orduko euskal-aldizkaririk geienetan argitaratu zituzan ipuiñok, «AUS-POA Liburutegiak» batu ta eskeiñi deuskuz barrero (nn. 5, 28, 51)... Erriarentzat egiten eban, eta orregaitik bere euskera ta joskera oso errikoi, bizi, argi ta aberatsak dira. Oso ospetsuak dira bere Ijito-*ipuiak*...

«Umorea» be ez dau edozelan-*goa*: «Euskal umoreari buruz, esan genezake oker aundirik gabe, Euskalerriak idazle gutxi izan dituala, oso gutxi ere, Urruzunok bezala «umore» berezi ori beren lan-eginetan irauli dutenak...» (Antonio Arrue).

PRAILLEA TA DON BURNO (Ipuia)

Don Burno, bere ustez, gizon arrazoizkoa zan, antikle-rikaltxoia bai, baña orretan ere bazituan bere arrazoiak.

Prailleak noizean beñ eskatu oi zion mandoa Don Burnori, eta, gogo onez ezpazan ere, ematen zion ibillal-diren bat egiteko.

«Prailleak itz onak baña...», au zan Don Burnok beti bere aoan zeukan esaera, eta erri guziak ikasi zion. Jaun onek agindu zion egun batean bere morroiari, praille-janzita, eman zegiola manduari astiñaldi on bat maki-llaz, prailleaganako gorrotoa munduari sartzeko; ala egin zuan morroiak.

Egun batean, Prai Manuel, lego gizajoa, juan zan mandoaren eske, beti bezela, eta Don Burnok agindu zion, okullotik artu zezala. Bazijuan artzera, baña man-dua, prallea ikusteaz bat, asi zan ostikoka, urreratzen ere utzi gabe Prailleari, eta mando gabe biurtu zan etxera, esanaz, Don Burnok mandua antikerikaldu zuala.

II

Don Burno bazijoan guziz apaiñ bere mandoaren gañean, eta praille-etxearen aurrean igarotzean, atera zan Praille bat komentutik, eta ura ikustean, mandua oso izutu, eta asi zan laisterka ta saltoka, jo bazter bat eta jo bestea, txapela kaleko parol baten katiatu zitzaion, estalkia edo kapotia urtara, pipa, betaurrekoak (ante-*ojos*), euritakoa (paraguas) or emen banatu, ate-buru bat buruaz jo, eta azkenik lurrera eroririk, korde gabe gel-ditu zan.

III

Jaso zuten komentura eta Prai Manuel an ari zitzaion, Ebanjelioko Samaritarraren antzera, ardo ta

olioaz bere zauriak garbitu ta gozatsen; jendea're bil-
du zan, eta sumatu zuten, Prai Manuel'ek zerbait ere
mur... mur... mur... aopean esaten zuala. ¿Oleazio Santua
ote zan? Baña ¿nola, Prai Manuel Legoa da-ta? Beste
otoitzen bat izango da. Bai; ara zer esaten zuan: «Prai-
lleak itz onak baña... Prailleak itz onak baña... Prailleak
itz onak baña...»

—Obrak ere bai —erantzun zion alabako batian Don
Burnok.

IV

Eraman zuten jaun au bere etxera, eta bigamonean
nolabit ere esku bat jakaren sakelean sartzean, arkitu
zuan papertxo bat; ona zer zion:

«Konsejuren bat eman — baño len iñori;
kontu nola gelditu — zindezken zedori;
etzaitezen kontuan berandu erori,
gaitz egin diozula zere buruari.
Guzion begietan — oraiñ da azaldu,
nola mandua dezun — antiklerikaldu;
berriz bota etzaitzan — eta oso galdu,
obe dezu mandua — alik lenen saldu.

Don Burnok saldu zuan mandoa ta erosi zuan beste
bat. Prai Manuelek bere esku zeukan mando au, eta
biak oso adiskide dira. Ala izan ditezela urte on askoz.
(«AUSPOA Liburutegi-tik», n. 5, pp. 47-50).

Antero APAOLAZA

(Urretxua, 1845 — Antzuola, 1908)

*Botikario liberal au Bergara'n eta
Antzuola'n bizi izan zan. Bere ba-
kardadea zelanbait gozatzeko, eus-
kal-literaturari ekin eutson: bere
lanetatik gaur «Patziko Txerren»
baino ez dogu ezagutzen (enpa-
rauak, antza, bere senideak erre
egin ebezan...). Antonio Trueba'
ren «El Judas de la casa»-ren eus-
keralpen bat dogu «Patziko Txe-
rren»: ez da itzulpen soil bat; Apa-
laza'k «euskeratu» egin ban True-
baren lan ori: tokiak aldatu, ger-
taerak laburtu, izkera arindu...
«Apaolaza, aurreratutako Baroja-
tarra genduan. Eta Barojak beze-
la, ukatu ezindako euskotar go-
goa zeraman bere barrenean txer-
turik. Trueban prosa, beretzat, as-
tunegia izaki. Ta landertu zuan
ainbat ondoen... «El Judas de la
Casa»'k Apaolaza-gandik atera za-
nean asko irabazi zualakotzat gau-*

de. Jatorrizkoa bera baiño ohea da irakurtzeko...» (Juan San Martín). Erri-izkuntzaren maiXu jatorra dogu Apaolaza: ba daki gauzak bizkor, samur eta oso errikoi esaten...

VIII-GARREN ATALETIK

Illun arrats batean sartu zan Patxin dendan, arpegia eta eskuak beltzak zituan gizon bat, eta, ez gabon eta ez berri on, eseri zan zokoan zegoan aulki batean. Ura ikustean, jaiki zan Patxi salto batean eta itxi zuan giltzaz dendako atea; urrena sartu zan barrenera, eta, ikusirik arreba bere lanean zebilela, itxi zuan osteko ate txikia ere, eta, eseri zanean bere lekuan, esan zuan...:

—¿Zerk ekarri au onera, Mitxel?

—Deabruak eraman nazala, ez i ikusteko gogoak, Patxi; baizikan etorri nauk iri esatera, txoria aspertu dala kaiolan egotez, eta esan zidak, ze, egiten ez baditugu bi-deak ura andikan laister ateratzeko, denbora pasa kantuan asiko dala, eta aren kantuan otsera bat edo bat joango zaiola lagun egitera. Ni an egon naizen artean, ainbestean ere egon duk, baiña ni andik atera nintzan ez-kero, eskerrak kapaiñak egin zuten deklarazioari, esanaz ni San Miguel arratsean Istingagorriko pagarian egon nintzala kapaiñari burlaka kantuan, gizajo ura geroago eta asarreago zio, eta esaten dik, agindu ziozuten bezela andikan ateratzen ez badezute, dana zan bezela garbi esango duala.

Patxi, ukabillarekin maia joaz eta birau bat botaz, esan zuan:

—Eta, ¿zergatikan bota bear zaizkit neri txalma guztiak, izanik danak okerra egin genduanak?

—Poliki itz egizu, konpañero, poliki. Nik egin diat nere eskota. Zuek eman zizkidazuten ogei ontzako zikiñagatikan, an egon nauk ogei astean itzalean, eta zuek, urre ta zidarrezko gauzan, gaiñera, berregun bana ontzako gorde zenduztenok, ez dezute oraindik ankarik sartu iguzki gutxiko aposentuan. Besteak ezkutatu ituan deabruak zekik nora, eta orain i bakarrik aiz beldur izan bear duna... badakik, untura oriekin kaiolako atea irikitzen ez badiok txoriari iges egin dezan.

—Sinistu nazak bati ori, Patxi! Patxi! Kontuz ibilli ari! zergatik Anzuelan asi duk zurru murra bat on aundirikan egingo ez dirana.

—Eta ¿zer ajola zaidak neri Anzuelarran berriketangatika?

—¿Ez dakik, Patxi, Pepeten ipuia?

—Ez diat nai ere jakiterik.

—Baiña... ¿nola izan lezakek ik ez jakitea, bularreko aurrak dakitenean zer igaro zitzaion Pepete dontsuari?

—Mitxel, utzi zaiek koplak oieri, ez zeukatez zer ikusirikan nerekin eta...

—¿Ez dutela zer ikusirikan irekin? Aitu zak! aitu zak! eta aurki esango dirak daukaten edo ez. (...: *Pepete'n gertaera*) ...Ala ba, Patxi, begira zak ondo Pepeten ipuiak daukan edo ez zer ikusirikan; begira zak ongi, Anzuelan dabillen zurru-murrua eldu litekean edo ez juezaren belarrietara.

«Ik esan duk ire artean: Anzuelan ezin nezake kanpiatu diru onekin... zergatik bat edo batek galdetuko luke: ¿Nondik ateratzen dirade meza oiek? Eta besten batek erantzungo luke: Apaizan etxetikan. Orregatik esan duk ik: Saldu zadan etxea eta jarri zadan denda, eta jarri zadan ez ezagun artean, iñork nere eltzean

sartu ez dezan sudurrik, eta sinistu dezaten nere ondatsunak salbentaren irabaziak ekarri dituala. ¿Ez duk ori ala?».

—¿Baiña zer esan nai duk ainbeste itz alferrekin, Mitxel?

—Esan nai dirat, mutill abilla izan aizela eta aurrera ala izan nai baduk, eman bear dirakela dozenatxo bat ontzako; aiekin igortziaz eskuak txori zaitzalleari, ateratzen ote degun eguzkitara an kalabozaon usteltzen dagoana.

—Lenago ere esan dirat, Mitxel, ez dedala nik dirurikan. Eta... iduki eta ere, ¿uste duk orain arte eman ditudanak ez diradela naikoa?

—Begira, Patxi, egin zak nai dekana. Ni banijoak, ik zer esan dekan ari esatera... Ikusiko duk nola kantatzen duan. Patxi! Ere larrua maitatzen baduk, atera itzak amabi ontzako esandakoak.

Patxi, agiñak estutuaz ezpaitetikan odola aterazerañño, esan zuan birau izugarri bat, eta maiko kutxatillatikan atera zituan sei ontzako egiñak, eta bota zituan maian gaiñean...

—Adiskire —esan zion Mitxelek—, sei falta dituk emen.

—Ez zidukat geiago.

—Amabi bear dituk.

Patxi bota zuan beste ontzako bat eta beste birau bat.

—¡Patxi! Ez ari denbora pasa ibilli... Beto beste bostak...

Patxi bota zuan beste ontzako bat.

—Animatu ari, gutxi falta dituk.

—Ez detala geiago.

—Txoria kantuan asiko dala.

Patxi bota zuan beste bat.

—Onera beste irurak...

—Iru oiñaztu ereriko al dituk, i ta ni biok kiskaldu gaitezen.

—Patxi..., Txoria amorratzen dagoala kantuan asitzeko.

Patxi bota zuan amargarren ontzako eta beste juramentu bat.

—Aspertu nauk ia, Patxi, atera itzak falta diran biak.

—Ez diat geiago emango, bizirik nagoala larrua kentzen badirade ere!...

—Patxi..., txoriak kantatzen badu, lepo ori estutuko ditek...

Patxi bota zuan beste bat.

—Ia ba azkena...

—Ez da txiki txiki egiten banaute ere, ez diat besterik emango.

—Ay kerten aundia! Ontzako baten gora-beragatikan, nai duk zintzilika dantzan ibiltzea! Zer ikusgarri polita egongo aizen, mingaiña kana-laurden bat kanpora deala!

Au aditu zuanean, Patxi bota zuan azkeneko ontzako, esanaz:

—To, eta erosi zak berakin ni urkatzeko soka.

—Zeregin oiek borraruanak dituk —esan zuan Mitxelek, ontzakoak gerrikoan sartuaz—. Orain eregi zak atea noan Bergarara, artale auek sartzen ote diozkaten ari kaiola-ertzen batetikan, eta bigar egun-sentirako Lakiola

basoan dauketen txendorrean egon nai nitek, zergatikan onezkero eske egongo duk ura. Ain zeken ibilli ziñaten nerekin ontzako partitzean, eze berriro ere aizkorari eldu bear izan zioat, biziko banaiz.

Patxik, giltza artutzen bazuen bezela, artu zuan mai gaiñean erdi ezkutatua zegoan arakin kutxillo bat, eta eman zuan pauso bat Mitxelengana.


—Patxi! —esan zion onek, pistola bat ateriaz gerrikotikan—. Patxi! Baldin giltza ez baduk billatzen atea irikitzeko, onek irikiko dik ire buruan atea edo leioa, kutxillo orrek baiño obeto.

Patxik, lotsaturik, esan zuan zerbait aopean, eta utzi-rik kutxilloa, eregi zuan atea, nundik esmandatu zan Mitxel.

Bakarrik gelditu zanean, Patxi joan zan kutxatillara, eta, ikusi zuanean Mitxelek eramandako ontzakoak utzi zuten utsuna, asi zan birauka, buruko illeak ateriaz eta negarrez, eskola ume bat bezela.

(«PATXIKO TXERREN», Auspoa. Liburutegia, 8, 95-102).

IZTEGITXOA.—*txertu*: injertar — *landertu*: urritu, pobretu — *urrena*: urrengo — *txalma*: enjalma, culpa — *kiskaldu*: abrasar — *artale*: arta-garaun — *txendor*: txondor, pira — *arakin*: carnicero.



Alfonso Maria ZABALA

(Ezkioga, 1847 — Hernani, 1919)

Ezkioga'n jaio zan, baiña gero Zegama'n bizi. Abade egin da gero, Ondarrabi'n, Zegama'n, Donostia'n eta Hernani'n ego zan; erriok ba dauke ze-ikusirik Zabala'ren idaz-lanetan; erriotako izkerak erabilli zitualako bere ipuin ta komerietan... «Lagun-arteko gizona... Oso iztun atsegiña... Sermoi-tarako ere grazi aparta omen zuen... Benetako euskaltzalea...» (Auspoa, Lib., n. 16, 9-22).

Liburuak: 1) «Gabon gau bat eta beste ipui asko» (Auspoa Liburutegia'k argitaratu ditu, ipui guztiok batean, bere 16'g. numeroan).

2) «Periyaren Zalapartak» eta «Melitona'ren bi senarrak», komerriak (Auspoa, n. 26).

ORI EZ DEK IRRINTZIA; ORI DEK ARRANTZA:

«Legazpiarrak, azkarrak eta erneak diralako sona dute, baiñan azkarren artean ere, *kirten* antzeko batzuk sortzen dira, pasadizo onek aditzera emango duan bezela.

Aiztorrondoan jaio, azi ta bizi zan artzai gazte bat joan zan bein batean konpesatzera Legazpiko abade batengana, asi zuten konpesioa, eta ez dakit orain zeren gainean, esan omen zion abadeak ¿ia zerbait zeukan?

—Bai, jauna, badaukat —esan zuan artzaiak.

—¿Zer daukazu ba?

Baiña artzaia omen zegon ixilik, eta noizik bein bu-rua jiratuta, kanpora begiratzen zuala.

—Esazu esazu bildurrik bage dezuna —esaten zion konpensoreak—; pekatu egiteko lotsatu bear da eta ez kompensatzeko.

—Nik ezin esan dezaket ba egin dedan pekatua —erantzun zion azkenean ere artzaiak.

—¿Zergatik ez, ordea?

—Zergatik emen dauden auek adituko duten.

—Esazu ixiltxorik.

—Ezin liteke, ordea.

—¿Beraz, beste lekuren batean esan bearko didazu?

—Bai, nai badu.

—Goazen ba korura eta an esango dezu.

—Goazen ba.

Igo ziran bada korura, eta ara emen artzaiak egin zuan konpesioa: —«¿Ez dakit berorrek jakingo duan, no-
la ezkontzen naizen Kortako alaba gaztenarekin? Bada,
lengo Ostegunean Arri-Urdingo zelaian nere ardiekin

nebillela, ikusi nituan zijoatzela Arantzazura nere andre-
gaia eta bere ama, urruti xamarretik ezagutu nitun, eta
nun nengon aditzera emateagatik olaxe irrintzi egin
nien: Ji... ji... ji... jiiii...

Eta egin zuan irrintzi bat, eliza guztia aidean ipiñi
zuana, esanaz konpesoreari:

—«Aara emen nere pekatua». —«Ago ixillik, ¡kirte-
na!»— esan zion abadeak aoa eskukin estaliz; «ori ez dek
irrintzia, ori dek arrantza, eta i bezelako astoak errotan
obeto zeudek elizan baiño». Eta utzirik koruan artzai iño-
zoa joan zan bere konpesonariora, itxogiten zeudenak
konpesatzera. («AUSPOA LIBURUTEGIA», n. 16, 72-
74 or.).

IZTEGITXOA.—sona: fama — *itzun*: charlista — *iñozo*: kokolo
— *itxogin*: itxoin, itxaron.

BEOBIDE'ko Aita Fr. Krispin

(Azpeitia, 1848 — Tolosa, 1885)

«Gaztetxo zala, Frantzia aldera jo zuen, mugaz beste aldeko Euskalerrira, Donapaleura (Saint Palais). An frantzesak ikasi eta apaiz karrerako beste estudioak egin zituen, eta baita frantziskotar habitua artu eta profesu egin ere ...Oso ondo predikatzen zuen A. Krispiñek, bai frantzesez eta bai euskeraz. Mixioak ere ematen zituen euskal errietan...». 1875'g. urtea ezkeren Tolosan bizi izan zan.

Liburua: «Asis'ko Loria», (1885, Tolosan). Aita San Frantziskoren Bizitza bat da, erderazko liburu batetik euskeratua (ez itzulpen soil bat). «Beronen izkeraz auxe bakarrik esango dizut. Liburu au eskuetan artu dedan bakoitzean, eta edozein zati edo orri, irten ala, irakurri ondoren, beti burutazio auxe

etortzen zitzaidan gogora. Itxasotik irtetzan dana, burutik oiñetaraño bustia irtetzen da. Aita Krispiñen garaian Gipuzkoa osoa zegoen euskaltasunaren itxasoak estalita. Esan nai det: zearo ta arras euskalduna zala gure erria. Eta itxaso orren erdian murgildurik bizi danari, jakiña, euskaltasun mardul gozoa dario alde orotatik, nai ta ez. Eta auxe da gure A. Krispiñi gertatzen zaiona... Orduko erri euskeraren ispillu jatorra... Liburu au aztertzen konturatzen gera noraiño urritu ta bakandu zaigun euskaltasuna: itzetan, esa eretan, ta abar...» (L. Villasante, Itzaurrea, 7-10; AUS-POA LIBURUTEGIA, 57-8).

PREDIKATZEN DIE TXORIEI:

«Adani pekatu egin baiño len kriatura guziak obeditzen zioten; guztien errege baizen.

Moduren batean gure Santuarekin au berau igaro oi zan, gertaldi onetan bezela. Bevaña bidian arkitu zituan txori asko mueta guzietakoak bide inguruan. Poztu zan txit Santuaren biotza Jaunaren kriatura garbi aiek ikusteaz. Badijoakie. Txoriak geldie.

Agur gozo bat egiten die Santuak txoriai. Alderatu zitzaizkan txori taldeak, jartzen zitzaizkala arpegiz-arpegi. Orduan esan zien Franziskok:

«Aditu, aditu, nere arreba txoriai! Askok bear dezute

alabatu zuen Egillea, bada lumaz jantzi zaitzute, airea ematen dizute, bai ta ere jaten».

Au esaten zien denboran, txori batzuek mokotxoak idikirik, besteak egotxoak zabaldu, askok lepoa luzatu, eta denak Santuari begira aditzen bazuten bezela esaten ziena, batak baiño besteak poz aundiagoa agertu nairik egondu ziran, txorien predikatzalle Franziskok azken bendizioa eman zien arteraiño. Orduan denak egatu ziran erabat kantuz Jaungoikua al zuten moduan alabatzen. Franzisko itzuli zan bere lagun arrituetara esanaz: «Damu det txori polit garbiai egundaiño ez predikatua». Ze biotz aingeruzkoa zuan gure Santuak! (p. 100).

LAZTANDUTZEN DU LEGEN-ARTSU BAT:

«Egun batean, Asis inguruko zelai batean zaldiz zi-joala, ikusi zuan gizon lepradun, legenartsu bat, berari zetorkiola. Lendabiziko begiratuan barruna jiratu zitzaion. Baiña gogoraturik bereala, birtuteko bidean beti aurreratzeko asmoa artu zuala, eta Jesukristori jarraitzeko, aurrena nork bere burua bear duela garaitu, saltatu zuan zaldi gaiñetik eta len ainbeste larritzen zuan gizon lepradunari eman zion laztan gozo bat eta gaiñera eskupeko sendo bat. Igo zan berriro zaldi gaiñera eta artu zuen zeraman bidea. Len ezin ikusi zuan gizon legen-arrak kurtsatua, ta oraiñ ezin egon da berriz ikusi bage. Begiratu zuan utzi zuan lekura, ta iñor etzan ageri zelai zabal artan.

Abiatu zan billa, baiña etzuan arkitu. Laster jautsi zan kontuan, edo aingeru bat edo, gizon eriaren antz artan, Jesus izango zala. Pozez beterik ta zoraturik, zaldi gaiñean abiatu zan kantari Jauna alabatzen, berritzen zuala asmoa are gogotiago bideari jarraitzeko. Jesusen amorioz egin oi diran ill-aratzeak, mortifikazioak, grazia aundiagoak erakarten diozkate animari. Au ikusten da

garbiro gure Santuaren bizitzan; zenbat eta geiago egiten dion kontra bere gogoari, ainbat animosoago ikusten da beste garaimen bat irabazteko. Au da Jaungoikoaren graziak ematen duan ta beraren ekarraia. («ASISKO LORRIA», Auspoa Liburutegia, 36-garren orr.).

IZTEGITXOA.—*legenartsu*: leproso.

Marzelino SOROA LASA

(Donostia, 1848-1902)

Donostiarra izan zan, jator-jatorra. Artikulu asko idatzi zituan, bai erderaz, bai euskeraz («Azak eta Naste»; poesi-arloan be bein baiño sarriago sartu zan. Baiña euskalteatroaren kreatzalle izateari zor deutso bere osperik andiena: antzerki errez, atsegin eta ariñak, barre-eragitekoak, euskera errikoi batean (Ikusi «AUSPOA Liburutegia», n. 2).—Itz-lauz «BARATZAN» liburutxu jakingarria itxi euskun: baserritar baten eta kaleko jaun baten arteko jarduna edo alkar-izketa; emen be Donostiako kalean egiten zan euskera darabil; alkar-izketa jator eta bizi-baten bitartez, gure mendi-baratzen goraberen barri emoten deusku, umorerik onenagaz.

LAUGARREN JOLASA

—...¡Gizona! ¡Ori da apaintza! ¡Ze majo!

—¡Majo! majo... ¡Noizik beñ jantzi biar ere ditugun galak!

—Txaketa berriya ta...

—Txaketa... ez da orren berriya, bañan ez da zarra're. Geyenaz ere... ¿zenbat urte izango ote ditu bada? Sei... zazpi... bederatzi... amaika... ori geyenaz.

—Ez da asko. Geiago lirake amabi.

—Galtzak zerbait geixago dituzte bai, zergatik gu ezkondu giñala bada... ogeien bat urte, eta Ana Mari lenbizi ezagutu nuben urtian egiñak ziran, ta ori zan sei urteen batzuben lentxiago...

—Ez da asko. Ogei ta sei urte. Ez dira zartu zu aña. Itxura ona dakate.

—¿Guk noizik beñ besterik ibiltzen al ditugu bada?

—¿Bañan sisak jaten ez dizkizute?

—Sisak aberatsen erropak jaten dituzte, guriak txar-txuak dira ayentzat ere.

—¿Ta kapa?

—Kapak... badu bere denboratxua, jauna. Aitona zarena zan... ta arrek aitarena omen zuben ta...

—Bai. Moisesen denborakua, tira. (...) ¿Entierrotik zatoz beaz?

—Bai, jauna. Luze baño seguru auzoko gizona jun da. ¡Ondo falta aundiya egiten zuben bada! Aza-osto oyeke ere ez lirake orla egongo, bera begira balego. Bañan Jaungoikuak daki zer egiten duben ta...

—Egiya.

—Etxia ta obia munduban guztia.

—Ana Marien kofñataren erriko gizonak bezela eska-
tu biar ziyon Jaungoikoari.

—Nola eskatu ziyon bada?

—Miñez azkenekuetan zeguala, agindu zizkaten Eliza-
kuak. Artu zituben, eta abadeak jarri ziyon eskutan Gu-
rutze Santuba, esanik iltzen zegoanari, eskatzeko Jaun-
goikoari biotz-biotzetik geyena komeni zitzayona, emango
ziyola, eta baita ere sendatu, ala komeni bazan. Abadea
atera zan beziñ aguro, asi zan antsika ta gogotik izketan.
Abadea orduban gelditu zan ate-atzean, ta giltzaren txu-
lotik aitu zuben esaten zubela:

«¡Nere Jesukristo Jauna! Zere eskuetan daukazuna
guztia. ¿Ni ill bear nazu? ¿Zer aurreratzen dezu ni ill-ta?
¿Nola azaldu bear det nik zure aurrean, baldin oraiñ-
daño oroitu ezpanaiz Zutzaz? Emaztea gelditzen da iru
umerekin. ¿Nola bizi bear du? Orain neguen ni Zutzaz
oroitzeko ustean!... Ni ill ta ¿zer aurreratzen dezu? Ezer
ere ez. Ni errukigarri bat naiz. ¿Nai dezu ill gizon on
bat? ¿Bere denbora guztia Zu serbitzen pasa duana?
¿meritu aundiyak agertuko dizkizuna? Orra On Miguel
abadea. Ill ezazu ori. (Ta abadea aitzen zegoan). ¿Nai-
zu ill gizon gaizto bat, erri guztiya nastu ta ixkamillan
ipinten duana? ¿Gizon ori kendu, ta pakea errian egon-
go dan bat? Ill ezazu Matxin eskribaua, eta arren izan
zazu nitzaz miseriordia beste bateraño; nik itza ema-
ten dizut, aurrera oroituko naizela Zutzaz obeto orain-
daño baño». (...)

SEIGARRREN JOLASA

—Batista, ¿er du beyak orrela marruaz?

—Asarre dago, jauna. Atzo umia saldu geniyon ta...

—¿Diru ederrik artuko zenduten beaz?

—Poliki xamar artu degu bai...

—Poliki xamar! Poliki xamar! ¿Noiz aoa betian esan
bear dezute gauza bat?

—Aoa batian, jauna..., ¿erraz al da ezer esaten?

—Zubentzat ez beñepiñ. Ta ¿zeñi saldu diozute?

—¿Zeñi saldu? Oker esanda zunzenena aitzera eman-
go diot. ¿Badaki Loyolako Anton, «Balia» deitzen diotena?

—Bai, ba.

—Arren semeari, jauna.

—¿Ta jakin leike zenbat diru artu dezuten?

—Aguro esango diogu, jauna.

—Ori galdetzen dizut, zergatik beñ, Errenteriko fe-
riyan, arkitu nintzan idi paria saldu zuben batekiñ, ta
galdetu niyon:

—«¿Idiyak saldu omen dituzu?». «Bai, jauna, bai»
erantzun ziran. «Ta nola eman dituzu?» «Merke, jauna,
merke». Ta etziran geiago esan. Gero bidian ikusi nuben
eroslea idiakin, ta galdetu niyon ere: «¿Gaur egin da
tratu ona, e?» «Bai, jauna, bai». «Pare ederra daramazu».
«Ala, bada, ala». «¿Ta nola artu dituzu». «Dirubarekin.
Garixti, jauna, garixti», erantzun ziran ojuka, ta ez ba-
tak eta ez besteak etziraten esan zenbatian sal-erosi
zituzten

—Jolaserako gogua zuekala usteko zuben ta...

(pp. 51-52)

ZAZPIGARREN JOLASA

—¿Nun dabil Batista?

—Aldamenian da, Mikolaxen etxian. Jakingo du nola
ezkondu dan...

—¿Nola? Bestiak bezela ezkonduko zan.

—Bai, jauna, bañan...

—Gure Mikolax ¿ezkondu da beaz? ¿Eta zeñekiñ, eta norekiñ?...

—Ezkondu da, jauna, zeraren... zerarekiñ...

—Beste Zeamako andre ura senarrarekiñ bezela asten al zera?

—¿Nola, bada?

—Onela:

—«Prantxisku, ¿ez dakizu zer pasatzen dan?» «¿zer, bada?». «Zeraingo zera zertzen omen da zereko zerarekiñ, eta ayek zertzen badire, iñolaz ere zereko zerera zertuko dire». «Emakumia, zer esan nai dezun zer orrekiñ ez badezu obeto zertzen, ¿nik nola zertzia naizu? Nik zertekotan zer ori, obeto zertu zazu». «Bai... zu beti nere utsegiteak arrapatzen zabiltz eta far egiten». «Tira, tira...» «Ara bada, lenago buruba beste lekuban nekarren ta...». «¿Nun? ¿Lepo gañean ez?» «Nere lanean, eta esango dizut: Zeraingo Ixabelen alaba ezkontzen omen dala Segurako indiano batekiñ, eta ayek ezkontzera ezkerro, ortikan Zeraña jungo dirala.» «Bañan, ¿nola arrano nik bururatu bear nuen orrenbeste zeren zera zertuekiñ?» (...). (pp. 64-65). (*Ezer aldatu barik...*).

(Beste onelango asko be ba ditu gure Soroak «Baratzan» liburuan (Ikusi, e.b., mozkortiarena —pp. 53-57—; Tolosako zezenak, pp. 72-74; lenengo kafia, pp. 90-91; feriyetako tratuak, pp. 103-106... Or dozu, bizi-bizirik, base-ritarren izkera jatorra).

Domingo AGIRRE

(Ondarroa, 1864 — Zumaya, 1920)

Gure idazleen artean ezagunenatarikoa. Abade on, ixil eta zintzoa: bere bizitarik geiena Zumai'n emon eban, mojen kapellau. Euskaltzaindikoa. Idazle txukuna, garbia. Izlaria be ez ei zan edoze-langoa; olerkari lez be ezta baste-rrean iztekoa... Beste lantxu askoren artean, iru obra andi itxi deuskuz: 1) «AUNEMENDIKO LOREA» (1898), bizkaieraz. Gaia: andikaldeko Euskalerria, VII-garren mendean... Oraintsu argitaratu dau, barrero, «Aunamendi» Liburutegiak.

2) «KRESALA» (1906): bere Ondarrua'ko gatza ta bizitza itxi deuskuz, bizkaieraz, nobela eder onetan.

3) «GAROA» (1912): gure base-ritar-artzainen bizimodua, gipuzkeraz, euskera ugari, gozo, atsegi-

ñean... Txomin Agirre'n gaiak eta idaz-tankera beste aldi batekoak dituzu, bear bada; baiña bere euskerea beti-betikoa. Maixurik onena!

INAXIO MARI-rentzat ANDREGAIA AUKERATZEA:

«...Amaika neska gaztek begiratu zion (Iñaxio Mari'ri) samurkiro, iñoizko aizkora jókoan, enparantzako buru ta agintari txeratua bezela ikusi zutenean! Baiño etzekian mutill orrek ainbesteren artean beretzat nor aukeratu. Zailla da aukera dagoanean aukeratzea. Zein izango zan neskatzarik onena? Onena, onena... Ezta erraz jakiten. Ezkongei daudenean, emakume guztiak onak; ezkondata gero, erdiak balira! Ezkondu artean, neskatxa danak gordeta idukitzen omen dituzte bere gogo, griña, utsune ta oraiñak, bear eztan orduetan agertzeko. Ta orduan ordukoak. Baiña estali gabe idukita ere, giza-seme gazteak eztakite neska ezkongeiaren txaldankeri, seta gaizto ta alderdi txarrik ezagutzen ta, begiak zabalik erabilliarren, itxu itxuan ezkontzen dira geientsuak. Nola ez? Batzuk emakumeen edertasunari begira itsutzen dira; beste batzuk, esan dezagun obeto, beste askok, neskatxen diru-zorroari begiratzen diote; gutxik buru ta biotzari. Ta ille arroen azpian zentzun gabeko txepetxburu asko izan oi da, ta jantzi apaiñaren barruan bada-ezpadako biotz aldakor txakillak ugari.

«Ba, ba! —esan zuan Iñazio Marik orrelako gauzak gogoratzean—. Neuk iñorekin adiskidetasun berorik eztautakan ezkerro, amak neurtuko ditu neskatxa ezagunen menduak, amaren begi biziak ikusiko dute garbiro zein dan bere semearentzat emaztegairik egokiena».

Orretan zebillen Ana Josepa, semeak uste zuan bai-

ño lenagotik, eta berak aukeratu zuan azkenean ere onek bear zuan emakumea.

Jai egun baten Zabaletako etxeakoandrea ta Azkarra-gako Mari Batista jaztetxean bat eginda, onela izketatu ziran andre biak:

—Zure alabarekin etorri naiz bidean... Ondo neska ederra dago bera.

—Gure Mikalla? Bai orixe. Aren garaian gu ere ba-giñan zerbait baiña...

—Zenbat urte dauzka?

—Datorren ilbeltzean ogeta iru.

—Ona dirudi.

—Oso da ona, etxeakoa ta maratzta. Ez neurea dalako, baiña eztago bera bezelako beste bat Uribarrin.

—Zer ezkontsari emango ziñoke?

—Ja jai! Orixo da galdera polita, Ana Josepa.

—Ia ba, nik ere ezkongaiak dauzkat eta...

—Bai, bai, guraso geran aldetik gure umeen onari begiratu bear diogu, ta... Baiña gurean eztago zuenean beste diru. Mutil on baten bearra bai: aurten ere ler egin degu garia jotzen ta iñaurkiñak ekartzen. Bai ba, zartu egin gera ta. Gure Antonek ere, onezkero, irurogeta bostenbat urte izango ditu, senar emazteak eta alabatxo bi baka-riik gaude, ta lanak dira emen.

—Orduan elitzake gaizki etorriko zuentzat gure Iñazio Mari.

—Ez orixe, Ez Ana Josepa; ta biok ulertuko bagiña...

—Uler gaitezen. Tira, zenbat emango diozute zuen alabari?

—Baiña gure etxerako.

—Bai ba, zuenerako. Zenbat?

—Eztakit ba nik ba. Bosteun dukat edo.

—Zer diozu, emakumea? Bosteun dukat Azkarragako alaba zarrenari? Ikatzagakoak ere ba du orrenbeste, maizterrak dirala gero.

—Ia ba, besteak ere, ezkontzen danean, zerbait izan bearko du ta. Zeuek zenbat emango diozute mutillari?

—Guk zortzireun dukat eta bi etxe-bizitza (bi arrio).

—Ezkabiltz ondo, Ana Josepa. Zabaletako mutillak *nai lituke*, gutxienaz, milla dukat eta berak ikazkintzan irabazitakoak, bi etxe-bizitza, bi bei, ogei bat ardi, gurdi bat...

—Ezin ulertu geinkez, Mari Batista.

—Ezaldezu nai?

—Nai izatearekin zer daukagu? Milla dukat eta ezta-
kit zenbat ondasun gaiñera eman bear guk, eta zuek boz-
teuntxo? Izango du Iñazio Marik milla dukatekoa, berak
zortzireun eramanda ere.

—Ezta ba zuentzat gauza aundia milla dukat... Ara, zuek milla ta guk zazpireun. Gero ere, zuen mutil ori Azkarragara badator, etxean geldituko dira gure *puskak*. Eztago geiago zer esanik.

—Zer esanik ez, ostera? Bai, Mari Batista, bai. Au ezta asiera baiño besterik. *Eskribauak* gure paperak egin orduko zer esan andiak emango dizkigu gaur asi degun autuak. Gaiñera gure Joanesek ondo jakin, ondo ikusi ta ondo neurtu nai izaten ditu semealaben goraberako gauzak. Ni naiz Zabaletako etxeAndre, baiña nere senarra beti etxeke jaun, ta berari dagokio Zabaletako gauza guztiak erabakitzea.

—Ba, Joanesek, zenzuneko gizona da ta milla dukat emango dizka semeari.

—Berriz ere? Gogoan artu dezue zeure eskabidea; baiña alperrik zabiltz nereaz aztutzen bazaitzu.

—Guk al degun aiña, al degun guzia emango diogu, orra.

—Eztago gaizki esana. Zer Meza entzungo dezue datoreen igandean?

—Zortziretakoak nik.

—Emin izango naiz ba, ni ere, Jaungoikoak nai badu, ta agur iganderarte.

—Agur.

Andretxo biak gogamen batekin aldendu ziran: egun artan asi zuten Ieloari nola bukaera on bat emango zioten.

«Ezta gaitz izango — esaten zuan beretzat Mari Baptistak —. Ana Josepak nai du, igarri diot, eta orrek nai duana egingo da Zabaletan. Baiño askatu bearko du zizkua, bai, Jaungoikoak laguntzen badit. Urre gorritan ekarri bearko ditu mutiklak ezkontzadiruak, *oiek* urre borobil asko omen dauzke ta. Noizko dituzte ontzako zarrak? Esandako gauzen gaiñera, nai litzake beste zertxobait... Atxur batzuen bearrean gaude, ondo etorriko litzazkigu lai barriak... Ikusiko det etxean zeren premia daukagun... Urbiako zelai zatitxo bat emango baliguteke... Eskatu beintzat lenbizi, ta gero, ezin bada, gogorean badaude, utziko zaio. Jaungoiko maitea! Sitsak jandako abe ustelak geunden Azkarraga jaso eziñik, baiña abe zindo berria datorkigu etxea erori eztedin.

Iñazio Mari, zeruak zakarrez, geurea zera, eztirazu igesik egingo.»

«Urteak ere aurrera dijoazkio ta — zion bere artean Ana Josepak, Zabaletarontz zijoala — nonbaiten sartu bear nuan nere semea. Etxe ona ta andre ohea izango

dituala deritzot. Aspaldietan neukan nik begiz jota Azkarragako neskatxa zarrena; eztet beraganakoa gaur goizeko amesa. Ta nola erantzun dit Mari Batistak! Bigunago zegoan, sasiko masustarik elduena baiño. Ba! Iñazio Mari bezelako mutillik ezta soro bazterrean billatzen. Joko zalea ezpalitz... Arantzazuko Amari *Salbe* bat, jokorako griña kendu daion: «*Jaungoikoak salba zaitzala Erregiña, erruki biziaren Ama, gure bizitza, gozotasun ta itzaropena...*» Damu det zerbait geiago eskatu eza, baiño ezta oraindik berandu... «*Zuri deiez gaude Ebaren ume erbestetuok...*» Eta ondo garbi ipiñi bearko da paperean beste alabari zer agintzen dion, biar edo etzi nasterik izan eztaigun... «*Zuganako zuzpirioz ta negarrez gaude...*»

Bi ama oiek buruauste gogorrean jardun zuten egun aietan. Batak eta besteak, alderdi guztietatko aztarnak ondo artuta, jakin zuten norañokoa zan auzokoen ondatsuna, ta estaldu zuten norberea oso amarruki; biak, gonadun Meternik batzuek bezela, egin zituzten egiñalak gaitasunik andienarekin, alkar zuritzen ta zilibokatzen; biak galanki eskatu ta labur eskeñi zuten, bakoitzak bereari gogor eutsiaz; biak ibilli ziran jatorduan ta lotorduan, egunez ta gabaz, esna ta amesetan, ixiltzake, beti gauza bati eragifiaz: onenbeste «koltsoi», orrenbeste maindira, orko beia, ango moxala, goiko zelaia, beko iñaurkiña; Ezifneike, badezakezu, eztaukagula, badezutela, ez-tanean ezta, nai danean alda; nondik baiña, zenbat bada, geuk zer jango, nola biziko, besteai zer emango; aserre ta adiskide, azkor ta makal, ezetz ta baietz, atzera ta aurrera, gora ta bera; baiño, azkenean ere, bein edo bein, Joanes ta Antonek alkar arturik erabaki ta korapillatu zan Mikalla ta Iñazio Mariren ezkontza. (III-garren kapitulutik, «GAROA»).

ARRAIN SALTZAILLEAK:

«...Astodunak ziran TRAMANA ta BRIX, edo obeto esateko, asto jabeak, bada errietara alogerakoak bialdu oi zituen; langilleak biak eta biotz onekoak, baiña ezagutu ziranetik bata bestearen arerioak edo arerio legez bizi ziranak, eztena baiño miin zoli ta zorrotzagokoak, aora jatorken zatarkeria edozeiñi esan bear eutsienak, alkar ikusi orduko beti errietan ziarduenak, atzamar-karako beti prest egozanak. Eurak ziran emakume agi-kari guztien buru ta nagusi; agiraka egitea zan euren poza; nasan batuten zireanen artean gogorrenak eta gaiz-toenak izatea euren arrotasuna. Orain bat eta gero bestea esan arren, ez eutsien ardura; guzurretan iñok artuagaitik etziran lotsatuten, bada deadar andiena egiten ebanak, edo atzamarrik sendoenak eukazanak, irabazi oi eban auzia. Ta deadar, garraixi txillioak egiten, orretan-txe ziran, ba, eurak mutillak... edo emakumeak! Utsa bear izaten ebien aserratzeko; ta, aserre egozanean, entzutekoak izaten ziran euren destañezko esanak... edo ez entzutekoak; ikusgarria euren gorputz, buru ta eskuen eragin aukerazkoa.

Aitatu dogun egun onetan be, ezerez bategaitik asi ziran, ta Jaungoikoak daki zelan amaitu eben aserraldia, eztarriak itxi ta zer-esanak eta indarrak amaitu jakoezanean...

Otzarakada bat atunegaz etorrela, nasa gaiñean egozan emakumeen artetik igarotean, bultzada bat emon eutsan otzara orregaz Brixek Tramanari, uste bage edo naita, ori eztakigu, bada era bietara gertau zeikean. Tramanak, burua biurturik, ikusi eban bere arerioa ta asi jakon:

—«Nor da berau, ainbeste leku bear dabena? Erregiña dalakoan birau natxako, ta Brix sorgiña baiño ezta.»

Tramanaren esan garratza entzun orduko, itzi eban

Brixek lurrean bere otzarea, ipiñi zituan esku biak gerrian, ta inguruetakoi begira, buruari eragiñaz, esan eban:

—«Ara, ara oin (orain) be zelan asten dan kaskamotz, zikin, ordi ori.» Ta, arerioari ausarditsu arpegia emonda, jarraitu eban:

—«Entzuizu, Traman zabala, atso popandia; zein sorgintsutan ikusi nozu neu? Zeu izango ziñan sorgintsuan zu, baiña orditurik, eta ez zenduzan ezagutuko zeugaz ebiltzanak be zuk.

—Ordituta neu? Zegaz, gero, ordituta? Zeuri atzo amantalpetik kalean jausi jatzun bonbillekoagaz?

—Eee? Zeeer? Neuri bonbilla jausi jatala atzo kalean? Guzurra diñozu, saskil, zantar, txarri, urde, zorritsu, lotsabage orrek.

—Min emoten deutsu egiak, min? Alperrik ukatuko dozu, ba, Marikontzek be ikusi zenduzan eta.

—Marikontze eskallu, txatxala, ezkel, petralari ta zuri, biori, arpegiko narrua kenduk deutsuet nik, neure atzamarrakaz, lodia daukazue baiña.

—Zeeek? Ja-jaiii! Etzaite aztu, gero, buruan zorririk ezpadaukazu, neuk lenago bartzak (legarrak) ausi neutsuzalako dala.

—Zeuk bartzak kendu neuri? Eztago toki txarrean. Nire buruan eztago bartzik. Burua garbi daukat nik, Tramana; zuk, zital zikin orrek, egundo zeure bizian euki eztozun bestean garbi.

—Zegaz garbituta? Txanton Kaiuanetik zeroiazun patarragaz? Obeto egingo zenduan begietako makarrok be garbitu bazenduz.

—Txantonenetik patarra baneroian, ondo neroian: neutetik, ez zuk lez iñoren lepotik.

—Ja-jaiii! Len eztozu, ba, esan ez eroiazula?

—Len ta orain, ta beti, neurea egia, neurea...

—Uuutik, mielga ustel gosekilla! Zoaz nire aurretik, bestela...

—Bestela zer? Neu joango naz, nai dotanean, zu lango emakume baldar, koipetsu, zetakaz beteriko bat neure aurrean ez ikusteagaitik...

Etzan onenbestegaz amaitu Brix ta Tramanaren arteko ekiñaldia: aldendu ziran alkarregandik, jardunean; baiña billatu eben barriro alkar bi, iru ta lau biderre-raiño, ta an izan ziran angoak, azkenerako batak beste-ari oratu eutsiensean...

Askok usteko dau zatarkeri geiegi ipinten ditudala emen: izan leiteke; baiña Brixek eta Tramanak esandakoen laurenik eztot ipiñi; ta alan be, erritar gizonak euren txalopetako arazo ta zeregiñetan, ezeri jaramonik egin baga jarraitu eben. Betikoa zan ta! Beste batzuk izan baziran, baiña Tramana ta Brix... Ba!... («KRESA-LA»-tik, VIII-gn kapituluan).

KITOLIS:

«...Gabon aurrettoa zan. Ba gagoz, ba gagoz illunabarrean potin txiki baten lau laguntxu, berdeletan, Orioko aurrean. Bakarrik gelditu giñanean a, berandu be ba zala-ta, otz be be-goala-ta, arrain pizka bat be ba geukalata... asi giñan etxeruntz. «Terraltxoa» egoan, legorretik datorren aizea. Jaso genduan triketa, ta ba getozan kezka barik, atzekoak eskuak besapean berotuten zituan bitartean, eskota tosta bati lotuta genkarrela... ta, alako baten, brast, joten gaitu aize bunbada batek, eta, dsaust, danok itxasora, txalopa barruko arrain, otzara, soka ta tresna guztiakaz batera ta nastean. Alan be, urten genduan urazpitik, or batak ta emen besteak, danok otzak

ikaraz; inguratu giñan, igarian, popaz-gora egoan txalopara, ta itandu geuntsan alkarri: «Gizonak, zer izan da au?». Baiña iñok erantzun bearrik ez egoan, guztiok genkian- ta. Ardurabagekeritxu bat, ustekida geiegia. Zeiñi, baiña, otuko jakon jakon alangorik, itxasoa bare-bare baegoan?...

Egundo alango negargarririk iñok eztau ikusi. Gure artean etzan iñor, ta antxe egon bearko genduan ur gaiñean, goizerarte! Goizerarte! Ta oraindiño, geienez be, etziran seirak izango!... Otzak eta bildurrak geunkazan, ta amabi, amairu edo amalau orduan egon bear alantxe! Ta, gaiñera, goizean iñor etorriko jakun ez jakin!... «Ea, mutillak, — esan euskun atzekoak, gu pitin bat azkortuteagaitik — eskeñi daiogun Antiguako Amari, danok ortozik eta erramuak lepoan ditugula bere elizatzora joatea, emendik onean urteten badogu, ta asi gaitean orain errosarioa esaten...»

Ipiñi neban neuk Ikomes (Nikomedes), neure amabi urteko seme ederra, killa gaiñean auspez, ta asi giñan arrenetan... Jaungoikoak ba daki guk zenbat arren egin genduan... Errosarioaz ostean, zeruko done guztiai «Aita gurea» ta «Agur Maria» ta milla biotzeko eskari luze ta labor egin geuntsezan, alde batera ta bestera geure gorputz minberatua biratuteko utsunetxu batzuk artuaz...

Onetan gengoza, amarrak aldean, aizeak ekarren indarrean ta txalopearen zabunetan igarri genduan itxasoak irakin bear ebala ta gure urrean ebillela eriotzea. Illun egoan; belarrietara etorkigun aizearen txistuari destaiñezkoa neritxon; Getariako ta Zumaiako itxas-argiak agiri ziran lurrean, ta niri illen argiak irudituta jatazan. Geu gengoza ilten osasun guztiagaz!...

—«Ze ordu ete da?» — itandu euskun Matxin zarrak, eriotzondoko soiñuagaz.

—«Amarretatik amaiketara»—, esan geuntsan. Ta be-

rak, oraindiño belarrietan daukaten esateko erarik illunenagaz: «Zein luzea dan gaba! — jarraitu eban — zein luzea! Nik ezin neike iraun, laster amaitu bear dot, eta zuek ikusten badozue gurekorik...»

Ez eban geiago esateko astirik izan, bada olatuaren bultzada batek kendu euskun albotik. Orratiño ekarri genduan atzera ta esondu geuntsan oratu eiola gogor karelari; baiña ezertarako ez eukan adorerik, eta aotik bitsa eriola, «damu dot, Jauna, damu dot, Jauna» esanaz, an joan zan ondora...

Itxasoa geroago ta andiagora etorren; olatuak, geroago ta indartsuagoak; geroago ta nekatuagoak gengoza gu. Neke gitxiagoko egoera bat billatu naian, ain laster ipinten genduan gorputzaren astuntasuna esku baten gaiñean, ain laster bestearnean, orain igoten genduan killa gaiñera, orain karelera jatsi, gaiñean ezin egonda... Gau luzea zala esan eban Matxinek. Bai, ondo luzea! Ta zer ete da betikotasuna, samietan egon ezkeru?...

Neure semetxua, neure Ikometxu, otzikara andiak ertu eban, ta negar muxinga, inkesaka ta zotiñez, «aita», bai, «aita» asi jatan deiezka ta deiezka. Axe errukigarritasuna! Aitak ezin ezer egin bere seme kutunaren alde, biotzeko negar gorria baiño besterik; aitak ezin goiza ta laguntasuna erakarri, bere bizitzea emonda be...

Etsi genduan, ez giñan luzarorako. Jo genduzan beste bagea batek burutik bera, kendu euskun txalopea esku artetik, eta aldebanatu giñan irurok barrero. Urpetik azalera urten nebanean, asi nintzan igarian semearen billa. Ez neukan orduantxe indar askorik eta arrokeri andirik bez! Idoro neban semea, ta txaloparaiño eroan be bai, eta esan neutsan txalopeari gogotik eutsi eiola; baiña alperrik. «Ezin, aita — ziñoan — ezin!»... Artu neban orduan neure bularraren ondora, potiñaren ta neure gor-

putzaren bitartean ipiñi neban, ta bere soñiari ta potiñiari alegiñakaz elduten gelditu nintzan.

Ixillik gengoan danok, bildurgarrizko ixiltasunean. «Ikomestxu, ondo zagoz? — deitu neutsan andik apur batera —; Ikomestxu, ondo zagoz?»... Ez eustan ezer erantzun. Zelan, ba, ilda egoan-ta!».

Negar malko lodia erion Kitolisi bere arrigarrizko ja-zoerea mailla onetaraiño eldu jakonean, ta entzuten ego-zanak be ez eben urriñean negarra.

«Nik eztakit ze ordu inguru izango zan — jarraitu eban —, beste olatu batek txalopea ta semea besartetik kendu eustazanean; eztakit zelan oratu neutsan ostera be txalopeari; eztakit zelan egon nintzan goizeko zazpi ta erdietan Getariko potin batek artu genduzan arteraiño. Azkenerako, sena ta konorta galdu jakuzan, taket batzuk giñan atzekoa ta ni, zoraturik gengoan, zer egi-ten genduan ez genkiala eutsiten geuntsan txalopeari, lapeak atxari baiño gogorrako, atzamarretatik odola erio-gula...

Gaixorik egon nintzan gero ia illabeteen, ta sendatu nintzanerako... itxasora barrero. Baiña ez geiago Agur edo Salbea esan barik».

Ixilaldi bat egin ondorean, Kitolisi biotzeko naigabea kentzearen, asi ziran aterpeko gazteak eresian, ta etziran geiago ixildu euren lan guztia amaitu arte («KRE-SALA»-tik, XI-gn. kapitulua).

MALENTXOREN AZKEN-AGURRA BERE BASERRIARI:

«Ta nork esan Malentxoren poza?... Egun andia ura gure gaztearentzat, egun estua bere gurasoentzat, itxaropen gabeko ta inkurriozko egun beltza neskatxaren eskua jadtixi etzuten gizonentzat.

Goiz jaiki zan Malentxo. Jaiki ta soro-mendi-zugaztia begira leioan egon, beren itxura irudimenean gorde nairik bezela luzaro egon, ta bat-batean gero, ganbaratik ukullura, bazterrak eta tresna guztiak ikusten abitu, ikusten, aratzen, garbitzen, tajutzen. Bere oea, bere seaska, umetako txintzarri ta jazkera, aitonaren makilla ta zizallua, amonaren liñari ta gorutxapela, aitaren edo amaren atxurra edo aukitxoa... bei zarra, biai gaztea, ollo nabarra, ollanda zuria... Ura gauza! Danakin izketarako gogoa etzetorkion ba? Danak zerbait mintzaten ziotela etzuan ba uste? Etzitzaion ba iruditzen etzituala egundaiño ondo ikusi, etziela beñere bear aifña jaramon egin?... «Purra, purra! Tira, gaixoak, tira, ale batzuk nere eskutik, azkenengo aldiz.» («GAROA», XVII-garren kapitulutik).

IZTEGITXOA.—INAZIO MARI...: enparantza: plaza — txeratu: agasajado, bien recibido — oraiñ: lunar — txaldankeri: memez — txakil: de poco fuste — mendu: carácter — ilbeltz: urtarrill, enero — maratz: diligente — ezkontsari: dote — inaurkin: azpi-garri — maizter: inquilino — gogamen: pensamiento — lelo: estribillo — zizku: bolsa — abe: viga — aztarna: lorratz, rastro — amarruki: maliciosamente — zilibokatu: engañar — maindira: izara — moxal: potro — azkor: brioso.

ARRAIN: atzamarka: arañazo — nasa: muelle — aukerazko: adecuado — kaskamotz: pelado — bonbill: botella — txatxala: charlatana insustancial — ezkel: bizzo — petral: ruín — bartz: liendre — pattarra: aguardiente — makar: legaña — mielga: arrain bat — baldar: torpe — zeta: mancha.

KITOLIS: potin: lancha — triket: vela delantera — eskota: cuerda — tosta: banco — bunbada: golpe — ustekida: confianza — azkortu: animar — arren: plegaria — done: santu — esondu: aconsejar — karel: borde — inkeza: esfuerzo — erakarri: traer — бага: ola profunda — konorta: sentido — eresi: canto.

MALENTXO: inkurrio: rencor.



Resurrección María de AZKUE

(Lekeitio, 1864 — Bilbao, 1951)

Azkue jaunaren bizitza luze ta aberatsa ezin sartu iru-lau lerrotan. Ona emen zertxobait: Euskaltzaindiaren Lendakari (Buru) izan zan bere bizi guztian. Gorputzez andi, biotz zabaleko, abade zintzo beti...

A) Azkue, euskal jakintsua: lan ederrok itxi deuskuz: 1) «Gramática Euskara» (*Euskal Izkindea*), 1891, euskeraz eta erderaz: «gaztaro-roko pekatua» ei da, bere ustez,

baña ba ditu gauza onak be; 2) «IZTEGIA» («Diccionario Vasco-Español-Francés»), 1905-6, t. 2: 15 urteko lan arrigarria, «euskera onaren iturria» (*Orixe*); euskal-iztegirik onena (L. Mitxelena'ren esku onetan dago gaur, Euskaltzaindiaren aginduz, Iztegi orren utsak zuzendu, garbitu ta osotuta); 3) «Morfología Vasca», 1923; 4) «Euskalerraren Yakintza» (*Literatura Popular del País Vasco*), 4 t. (1935, 1942, 1945, 1947); 5) «Cancionero Popular Vasco», 1922, 9 t.

B) Azkue, euskal idazlea: ainbeste aldizkarietan sakabanaturiko artikuluak ez ditugu aitatu. Liburuok argitaratu zituzan: «Txirristadak», «Bein da betiko», «Jesusen Biotzaren Illa»; «Vizcaytik Bizkaira» ta «Eguzkia nora» (zartzuelak, musika ta guzti); «Ortzuri» ta «Urlo» (operak); jakingarria da, batez be, «ARDI GALDUA» eleberri edo novela laburra: euskal literaturaren batasuna lortu gurarik, «gipuzkera osotuan» idatzi eban: au da, gipuzkera oiñarri lez artu, ta beste euskal dialektuen pitxiekin aberastu...

C) Azkue, argitaratzalle: ainbat liburu zaar barriro argitaratu ez eze, aldizkari barri batzuk be sor-

tu ta zuzendu zituzan: «Euskalza-
le», «Ibaizabal», «Euskeraz»...

Ba dituz, gaiñera, teatro-lan eta olerkiak be... «Euskeraz ari gera-
nok Azkue iaunari zor diogu geie-
nik, eta Euskerak ere bai... Ark
atera du gaixoa bere zarpilletatik
eta soñeko apaiñez iantzirik utzi».
(Orixe): Gizon umoretsua zan;
idazle gartsua be bai, baiña ba-
tzuetan, ekian guztia erakutsi bea-
rraren erakutsi bearrez, bere lanak
naturaltasun apur bat galdu egi-
ten dabe...

EUSKALDUNAI EUSKERAZ:

Maiean ginala berealaxe ots egin zuen zure izenak. Gu mauka-mauka ari ginan artean, barruko aldean komentuko nagusi berastegiarrak ta bestetxo bi bazkaltzen ari ziran.

—Iztun arrigarria omen da —, esan zuen zuzaz nagusiak.

—Bai orixe! —, erantzun zion Adrianek. Datorrela lurpetik Fray Luis de Granada, zekien erdera legunez izketara; nik azpeitikoari bere euskera garbi, erraz, mendi usaineko z naiago diot entzun.

—Nik, — gaineratu zuen arako apaiz burujabeak —, Euskalerrian bada, Fray Luis de Granadari baino nere erriko erretoreari ere gogozago; ta Matxinbentako erre-
torearen izena ezta gero Ciceron. Euskaldunai euskeraz.

—Igandero euskeraz ari izaten zaigu Don Andres, gure kapellau jauna.

—Goizean ere euskeraz ekin balio, etzan ezer galduko.

—Apaiz jauna, erdaldunentzat erderaz egin bear da. Ba dira gure artean euskerarik eztakiten lekai-
meak.

—«Madre» (1), esan zion orduan Matxinbentarrak: erdalerrian erderaz, euskalerrian euskeraz. Berrogei lekai-
me euskaldun dauden komentu batean, Burgosko erdal-
dun naiz Bilbo-aldeko euskaldun motzen bat datorrelako,
¿beste guztiak euskera ezpailekiten bizi bear? ¿Bidez-
koa deritzaio oni?... Euskalduna eztanik gure artera bal-
din badator, ikasi dezala gure mintzoa, gure izkera. Guk
ere ori egin bear izan genuen erdalerrian: erderaz ikasi.
¿Erdaldunik battxo etorri ote da egungo jarduna entzu-
tera? Eztet bat ikusi; lo bai, baserritar-mordo ederra.
Aurrean dedan amezketar onek ere, aiek zurrungak! ¿Ez
al da egia, Simon?

—Tolosan len ere entzun izan ditugu erderazko «ka-
lamatrika» oriek eta, egi-egial, ni bezelakoentzat aur-
kantatxoak bezela dira erderazko jardunak: logarriak...

... ..

(1: Autu au ta beste geien geienak erderazkoak izan ziran. Amezketarrai zerbait esatorduan eta alkarren er-
teko autu laburtxo batzuetan baizik etzuen gure izkerak
ots egin. *Komentuak agitz euskeraren obiak (sepucros)*
dira, esatea lotsagarria bada ere.)

(ARDI GALDUA, 78-82 orr.)

«TXIRRIST NOR DAN — TXIRRIST ONDARROAN»:

«Atzo goizaldean, enekian zer egin da (ta) aida ba-
ten (atsoak arrausi egiteko bear daben astia baiño ari-
ñagoan) Anbotoko menditik Ondarroara joan nintzan.
Nora niñoan enekiala, Elizondotik gorako kale baten
neure burua ikusi neban, ta leio bateko irrikuetatik erio-
tzea legez sartuaz, agura baten ondoan jarri nintzan. Zu-

rruka zurruga egoan agurea lo. Bekokian putz egiñaz amesetan ipiñi neban.

—Adiskidea, nor az eu? —, itandu eustan.

—Ni, Txirrist.

—Ezizen polita. Itxasapoa ala leorreko arraiña az eu?

—Ni ez itxasokoa ez legorrekoa. Nire Aita tximizta bat zan; nire Ama, traganarrua. Biak il zirean neu jai nintzanean.

—E?

—Udako eguraldi sargoridun bero bero baten, odai bat joian Bermeo-ganeko Soillubetik beera itxasorantz; egarri zan, ta Izaro deritxon ugarte-atzean ura edaten asi zan; ta edan ta edan ta edan egoala, beste odai baltz itzaltsu ikaragarri batek «danba», trumoia egiñaz, buru buruan jo eban traganarrua: tximizta batek ebagi eutsan traganarruari sabela, ta sabel ebagi atatik jai nintzan ni; eta jaioran «txirrist» egin nebalako, izen auxe ipiñi eusten. Nire Ama traganarrua, neu jai oaz batera, euritu ta il zan. Nire Aita tximiztea itxasora jausi ta betiko itzaldu edo amata jatan.

—Orduan, Txirrist az i? Tximizta-traganarruen semea edo alabea? Ume zurtza? Ez nebarik, ez arrebarik, ez aiztarik, ez anaerik bakoa? Onan da?

—Bai.

—Eta, zetara ator, edo zek akar?

—Ni enakar ezek, neu nator neure indarrez. Zuek, gizon ta emakumeok, jakiaz legez, ni albista edo barriak bizi naz. Nun ze barri nabil erririk erri, basorik baso ta odairik odai. Bilbon gaur jaioriko «EUSKALZALE» deritxon paper bat, adiskide andia dot; eta astean astean bialdu nai neuskeoz or ta emen batu al daidazan albista-barriak.

—Orrek esan nai dau, Ondarroan ze barri dan jakitera atorrela. Ezta?

—Bai. Zelan dau kale onek izena?

—Onek «Iparkale». Kale aizetsuagorik, osasuntsuagorik eta maitagarriagorik eztago Bilbon. Emen aizerik eztagoanean, itxasoan bere eztago.

—Emen dago arto-bero-usaiña!

—Ba dakit zegaitik diñoan ori. Noberak noberen burua goratuten dabenean, egoten da arto-bero-usaiña; baiña noberen erria goratuten danean, ez; bestela elitzake beste usaiñik artuko, gizona bizi dan tokietan, arto-bero-usaiña baiño.

—Zegatik diñok ori?

—Goazan, esate baterako, Berritura. Ogei etxe daukaz ereskadana; beste guztiak atso-aguren agiñak legez, or ta emen banakatuta dagoz. Eta bertako edozeifiegaz berbetan asten bagara, laster esango dau, aize ederragorik Ondarroan bere eztagoala, bide garbiagorik toki gitxitan, ur oberik Oizen bere ezetz. Eliza bat dauke (ezta txarra) Ondarroako Elizan sartuko balitz, «konpesonario» edo autorleku bat irudi izango leukeena; San Pedro bat, izurde-buruduna; ta Berrituar baten aurrean Eliza-konturik aitatu ezker, laster agertuko leukez euren San Pedro, Elizpea, abatetxea, «organua», ta zer ez?

—Ondarroari «erri beruu» (erri beroa) esaten ei dau-tse. Zegaitik?

—Batek ba daki!

—Eta «Ondarrua erri beruu» esan ezker, aserratu egiten ei zaree.

—Aserratu? Lekeitioarren batek esan ezker bai, os-terantzean ez.

—Zegaitik ori?

—Urrengo baten esango dot. Itxi daigun Berritu ta eldu gaizan Markiñara. An bere zure kontuan arto-berousain andia artuko dogu.

—Zer bada?

—Arek ba dauke zer goratu. Zelai bat dauke, Bizkaian erri-barruan eztagon lakoxea; pelota-toki bat, geurearen antzekoa.

—Beste egunen baten aratuko dodaz Markiñako zokondoak; gaur Ondarroako barri jakin nai neuke.

—Esan Markiñako bati zer deritxon bere erriari, ta laster esango dau «Paris txiki» dala. Edozeiñek dau norbereren erria maite.

—Baiña gizona...

—Bai, Txirrist. Pelota-kontuan Markiñari, palanka-jokoan Berrituri ta itxas-arazoetan Ondarroari itxi geldi geldi. Markiñako umea, surrak garbituten ikasi daianeko, eroan pelota-tokira; Berrituko umea, palanka-ondora; Ondarroako umea, txalupara; ta irurori asten itxi; ta asten itxiaz beste barik, ikusiko dozuz beti pelotaria, palankaria ta erramaria.

—Onek egiak izango dira, ta, ezer kendu ta ezer ipiñi barik, biralduko dautsadaz nik «EUSKALZALE»-ri. Nik orain Ondarroa ezautu nai neuke. Sagardao asko izan da aurten? Arrain asko dakazue? Kanta barririk ikasi dozue negu onetan? Zuen maisuak, irakasleak barik, maisuak dira? Ikastetxeen ordezkolak daukazue oraindiño? Erdaldunak ala euskaldunak dira zuen umeen burua argitu bear dabenak?

—Adiskidea, Ondarroa ezautu nai dabena, datorrela Santa Klaretan. Auxe da erria! Au da bizilekua! Eta atorreanean gero, atea jöten bere ez ibilli; aberastasunik ez-

tago gurean; baiña daukaguntxua emoteko biotza, iñok ez lakoxea.

... ..

Au esanaz, itzartutera joian, ta nik alde egin bear.

(«TXIRRISTADAK», Bilbao, 1898: Lenengoa).

AZKUE EUSKAL-ZALE TA GARBI-ZALE:

«Eskaritzu bi egin gura neuskioez liburutxu au erabilli daienai. Bata, bialdu daidezala mesedez emen ezarri bako bape direan aldakuntzak, Iztegi andirako egoki izango dodaz-da. Bestea, premiña barik eztaitezala lerroan lerroan «edoka» ta erderakadaz euskerea atsituden asi. Ona emen zegaitik:

1.º) Errikoak (erderakadaren batzuk esanarren) lautatik irutan guk baiño geiago euskeraz egiten dakielako; bada guri, geure ikaste-urteetan, azaletik euskaldunak dirudien Seminarioetan, irakatsi-bearrean aztu eragin deuskue ain premiñazkoa dogun berbeta eder au.

2.º) Aurreko ta atzeko berbetatik geientsuenetan igarten dalako berba batek zer esan gura daben.

3.º) «Edoka» orrek uretan luzaro dagozan bedarkiak andu ta beraturik eta gailla edo gasa legez, berbaldi bat gazbakoturik motel melgera zingle mergal gogaikarri egiten dabelako. Bestela ikusi daigun: «Berbaldi edo «platika» onetako agerkera edo «manifestaziñoak» kondaira edo «istorietan» argitaratu edo «publikata» ezpalegoz, azarkuntza edo «atrebimentu» andia dala erabagi edo «erresolbiduko» zeunkee, neure eliztar edo «feligres» mai-teak, nik ain begirune edo «kortesia» gitxigaz, ain zee-tasun edo «menudenzia» askogaz, aldi edo «epoka» atako jazoera edo «suzeso» agiri edo «publikoak» zueri gaur azaldu edo «espliketea»... (...).

Zer esango leukee orrek, inoz Bilbora etorrita, entzun baleie onelango gauzarik?: «La aurora o el «egun-senti» mostró su risueña faz o «irribarrezko arpegi», al poco tiempo de haberse metido aquellas alimañas o «pataris» en sus cubiles o «abias».

Nor elitzake purrustadaka asi ta kanpora nairik egongo? Bilboko elizetan batu oi direan lagunik erdiak gixienez eztakie zer direan ez «aurora», ez «risueña faz», ez «cubiles». Eta orregaitik, obeto aditu daien, euskereagaz nastau bear dabez berba orrek? Burubakoa eztanak eztau olangorik egingo. Bada buruduna danak ezpei egin len aitaturiko berbaldi edo «platarik»... («JESUSEN BIOTZAREN ILLA»-tik, Itzaurrean, 8-10 orr.).

IZTEGITXOA.—EUSKALDUNAI: *mauka-mauka*: a dos carrillos. IXIRRIST: *irriku*: hendidura — *traganarru*: manga de agua — *ugarte*: isla — *trumoi*: trueno — *erreskada*: fila — *izurde*: delfin abatetxe: casa cural — *aratu*: arakatu, registrar. AZKUE: *bape*: zeozer — *atsitu*: heder — *bedarki*: vegetal — *andu*: hinchar — *beratu*: ablandar — *gazbakotu*: hacer insipido — *melgera*: comida insipida — *zingle*: molesto.

Karmelo ETXEGARAI

(Azpeitia, 1865 — Gernika, 1925)

Euskalzale aundi au «edesti (historia) maitearen jauregi ederrean bizi izan zan beti; etzan beñere etxe ortatik inorontz aldendu; bertako seme nagusi egin zuen Euskalerra Amak, ta onen gogo ta izate iraunkorraren gutunak, urrea sakeltxo apain batean bezela, zaitu ta gorde zituen...» (Intzagarai).

Histori sailletik kanpora, olerkaritzan nabarmendu zan, batez be.

Itz lauz be artikulu (edo itzaldi) batzuk argitaratu ditu, batez be «Euskal Esnalea»-n. Beti be «...euskera garbi, jator, apaiña erabiltzen zun... ¡Ama zarraren apaingarririk onena altzun txukunena ta maitekor agertu bear!» (P. Ormaetxea).

BERTSOLARIAK EUSKALERRIAN:

(...) Bertsolariak beti izan dira gure artean, gogoz entzunak. Baserritarrentzat ez da jai pozgarririk bertsolariarik ez bada. Etxe batetik edo bestetik bertsolari bi ateratzen diranean, eta aurrez-aurre jarririk, batak ziri bat besteari sartu, eta besteak lengoari ziri zorratzagoa-kin erantzun asten diranean, jura poza, ura atsegiña baserritarren artean! Arpegian, begietan, esku ta besoetan, beren ibilleran ongi erakusten digute, bertsolarien ateraldi ederrakin atsegin aundia artzen duela. Eta orrela, ifñoren kalte gabe, poz ematen duten gizonak, txalo ugariz artu bear ditugu.

Len esan dedana berriz esatera noa, nere itzaldia bukatu baiño len: gure txaloak, gure omenak, ez dute gudarientzat eta agintarientzat eta jakintsuentzat eta aberatsentzat bakarrik izan bear. Artzaia dalata, mendian bizi dalata, dirurik ez duelata, idaztietan bere izena ikusten ez degulata, jerezertzat iduki bear al degu gure erri-
tar askorentzat gogoangarria izan dan bertsolari buruazkarra?

Ez noski. Batzuek idazti edo liburuetan ikasten deguna, beste batzuek Jaungoikoak gure begien aurrean ipiñi dizkigun zelai, baso ta txara, ibai eta erreka txistor, arkaitz eta leizezulo, itsaso zabal, ots-garbi eta lainoetan ikasten dute. Gure jakiteaz ez degu geiegi arrotu bear. Guk, liburuen aurrean urte asko igaro ta gero ere ez dakizkigun gauza asko dakizki goizetik arratsera lur-
rari aberastasuna atera naian dabillen baserritarrak, bere artaldean ondoren dabillen artzaiak. Eta baserritar au, artzai au berez buru-azkarra danean, orduan maiz arrituko gera bere ateraldi zorrotzakin. Fernando Amezketarra oetako bat zan. Eta oetako bat zalako, bere oroit-
tzak gure artean, gizaldiak joan eta gizaldiak etorri, asko

iraungo du. Asko iraun dezan, egin degu gaurko jai eder au.» (Amezketan eta Donostia'n Fernando'ren omenez egindako jaietan irakurritako itzalditik: G. MUXIKA, «PERNANDO AMEZKETARRA», 4-gn. argitaldia, Zaurutz, 25-26).

IZTEGITXOA.—*gutun*: documento — *sakel*: bolsa — *omen*: homenaje — *gudari*: soldado — *txara*: jaral.

BUSTINZA'tar Ebaista — «KIRIKIÑO»

(Mañaria, 1866-1929)

Ikasketak Mañari, Durango, Almansa eta Madrillen egin zituan: fisiku-matematiku Jakintzetan lizentziatua zan. Sigüenzako Institutoan egon zan, Matematika-Iraskale, 1899-garren urtean Bilbora etorri arte, Azkuen deiez: aurrerantzeko urteak Bilbon emon zituzan, ilgo zan aurreko urtean bere Mañarira baztatu arte.

Bilbon lan asko egin eban euskerearen alde: 24 urtean euskera-Irakasle, Azkuen laguntzaille, izlari bikain, «Ibaizabal» aldiskariaren zuzendari ta, batez be, «Euzkadia» egunerokoan euskal atalaren arduradun: egunkari onetan egunero-egunero idatzi eban zerbait, 15 urtean (1913-1928).

Izenordeak: «Mañari», «Blaa», ta, danen ganetik, «KIRIKIÑO»...

Liburuak: 1) «Abarrak» (Bilbao, 1918); 2) «Bigarren Abarrak» (Amorebieta, 1930): or-emen argitaraturiko ipuiñak batuta. — Oraintsu A. Onaindiak liburu biok eta beste lan asko batu ta liburu bakar baten eskeiñi deuskuz: «ABARRAK» (Bilbao, 1966) («Abarrak, Bigarren Abarrak... eta abar»); baiña liburu onetan be ez dira sartu «Kirikiño»-ren lan guztiak.

Gizon ona, ixilla ta apala ei zan Bustintza, maitagarria benetan. Teatru-lantxu bat be itzi deusku («Anton Berakatz») eta olerki ta kanta-letra batzuk be bai; baiña bere ipuin labur, umoretsu ta errikoietan agertzen dau «Krikiño»-k bere maixutasuna: zenbat irakurle ez ete ditu euskalzaletu olango lan arin eta pozgarriekin?... «El sólo atrajo a las letras euskéricas más lectores que todos los autores de la otra dirección (purista) juntos» (S. Altube). La brevedad y la aparente intrascendencia de los cuentos de «Kirikiño», mezcla de historia y de fantasía, no deben hacer olvidar sus excepcionales dotes de narrador que le han permitido dibujar pequeñas obras maestras sobre temas serios o interesantes a damente humorísticos. (Luis Michelena).

«ABARRAK» ZER DIRAN ETA ZERTARAKO:

«...Egurgiñan sartu naz ni gure euskera ederraren oianean. Bertan ain ugari dagozan zugatz enbor-lodidunak eta euren besanga ta adar andiak ebagi ta gertau ta ekartea izango zan nire atsegiñik andiena; baiña ezin, orretarako bearrak dira ba beso sendoa ta azkora andi zorrotza. Nire besoa ta azkorea, barriz, bata makala ta bestea sorbatzik bakoa dira.

Lan ori eziñik, zerbait orraitio egin gura-ta, egur meari, abarrari, ekin dautsot, eta besarkada auxe gertau ta ekarri dot. Al izan dodana. Egur me au be zetarako edo atarako bai-da. Su andia egiteko, egur lodia ixetuteko, lenengo abarrari ezarten jako sua, eta onegaz ari gero.

Irakurgaitxu oneik be gogo askotan sortu leie euskeraz irakurteko zaletasuna. Txikiak, meak, arin-ariñak, errazak, barru gitxidunak, geienak barre batzuk eragitekoak izanik, euskeraz irakurten bape zalea eztanak onakoxeak atsegiñez artu leiz, ta eurok, abarrak lez, bere gogoa sua biztu...

Irakurgaitxu oneik geienak jazorikoak dira; batzuk antxiñakoak, nik neure aitari entzunak, eta berak bere aititari; beste batzuk neuk batu dodaz or-emen neure aldian; beste batzuk neuk asmauta be ba dira, guztitara... («ABARRAK»-en Itzaurretik).

DEUN IZATEKO BIDEAN:

Basetxe baten ei egoan (antxiña) egundo eleizara izan etzan mutil bat. Bere ugazabak bialdu eban bein Meza-entzuten; eta eleizea nun aurkitzen zan ez ekian lez, esan eutson lagun asko sartuko zan etxe batera joateko...

Jatsi zan, ba, kalera gure mutil ori, ta eldu orduko

ikusi eban eztegu andi bat eleizatik etxerantz joiala, gomutatu eban ugazabaren esana, batu zan ezteguaz, ta sartu zan danakaz ezkon-barrien etxean... Iñok be ez eutson ezer esan, senide edo auzokoren batek beregaz ekarri izango ebalakoan; jarri zan maian, eta ederto bete eban sabela ango jan-edari ugariekaz.

Pozik biurtu zan etxera, ta aste guztia joan jakon bere ugazabari itanduka, ea igandea noz etorran. Ugazabak erantzuten eutson:

—Mutil, etorriko dok. Itxuraz ondo ibilli intzan, orrenbeste gurari adirazoten dokan ezkerro barriro be joateko

—Bai ondo ibilli! iño!... estuen nago igandea eldu arte.

—Kristiñau guztiak orrelakoxeak izan bear layeukiek. Asko ta asko jagozak, mutil, Mezatarako beti nagi aurkitzen diranak, beste gauzetarako bizkorrak izaten dozak, baiña.

—Enaz ni, ba, orretarikoa. A zan atsegiña nik euki nebana igandean! Eta, jente nagia dagola ain gauza ederrera diñozu? Siñestu be ezin leiteke.

—Mutil, ori dok, ori, kristiñautasuna; oa, bide orretatik, eta neuk diñokat deun andi bat izatera elduko azala.

Larunbata gabea amesetan egin eban mutillak, oke-la-zati, bixigu-erre, ogi zuri, gaztae, pitxerkada ardao ta beste onelango gauzakaz. Itzartu zaneke urten arin ogetik, arrapataka jantzi ta bizkor kalerantz, abo guztia gozotuta, gora-goraka atsegiñan atsegiñez.

Kalera eldu zanean, entzun zan Mezatarako azkenengo txillin-otsa, ta agaitik ikusi eban jentea arin eleizarantz; berau be arin-arin joan ta sartu zan erdi ingururaino. An gelditu zan begira alde guztietara, ta ikusi

ebanean etorten ziran guztiak ur bedeinkatu-ontzian sar-
tzen ebezala auren eskuak eta gero arpegira edo (be-
rentzat) abora eroan, ariñeketa baten joan zan bera be,
ta beso guztia sartuta ibili zan, ea zatien bat aurkitzen
eban, baiña alperrik, an saldea baiño besterik ez egoala-
ko. «Ederra jokatu yaustiek!», esan eban agin artean...
Geratu zan gero baster baten ixillik eta adi; ta izkaldia
asi zanean, alde-egin eban, gogait eginda.

Etixeratu zanean, bai-diñotso ugazabak: «Ona emen gu-
re kristiñau zintzo au be, zintzorik badago iñun»... Mu-
tillak arpegi illunduagaz: «Gaur ederrak emon dausteez».

—Zer, ba? Jo egin abe, ala? Ta zegaitik? Mezatarra
joateagaitik? Zorionekoa az, gauza deunakaitik nekeak
igaroten asi azalako; esan neuan nik, deun andiren bat
izango intzala, jarraitzen baeutsokan asiriko bideari...
Eta, zelan izan dok?

—Berandutxu eldu naz gaur bai, ta saldea baiño bes-
terik ez dauste itxi. Itxaron dot gero puskatxu baten,
ezer bere ez. An aurrean iru gizon, saku antzeko gauza
baiña batzukaz jantzita, ibili ta ibili, batera ta bestera,
nik eztakit zer egiten; beste bat, ostera, sabai-ganean iru
milla txilibitu joten; alkarrididar bat edo beste egiten
izan dautsie, ulertu ezin leikean eran; geroago igon da
beste bat lexibontzi baten ganera, ta asi da agiraka ta
didarrez guztiz asarre. Auxe ikusi dodanean: «Ezer artu
ez, ta nik zegaitik entzun bear yuadaz, ba, olango demo-
niñokeriak?», esanda alde-egin dot. Urrangoan enaz azke-
nen joango».

—«Bakik (ba dakik) nora joan bear dokan ik?... Kor-
tara!... Antxe daukak lekurik egokiena, astotzar arrai-
o orrek! Eztausku azkenean «deun» txar-txarrak urten mu-
til eder onek. («ABARRAK»-etik).

ATXURI'ko «MILLAGRUA» (Jazorikoa):

Emen edestuko doguna jazo zanetik ona, urte asko
igazi dira. Orduan Bilbao'k ogei milla, biztanle baiño as-
koz geiago ez ebazan... Ez egoan orain dagon beste «guar-
dia municipal», naikoa ziran iru lau txinel erria zain-
tzeko, gabezko «sereno» kantari batzukaz. Onelako erri
baten aituten da erraz egin leitekela emen edestuko do-
gun barrabaskeria, erri guztia barre baten ainbat egu-
nean euki ebana.

Bilbotar barregarri batzuk iragarri eben bertako iz-
parringi baten, eztakit nungo erritan il zala atso aberats
bat, eta milla ogerleko batzuk utzi ebazala Bilbao'ko
erren edo kojoei bananduteko, atsoa be errena izan za-
lako ta Bilbao'n jaioa; diru ori bananduko jakela Atxu-
ri'n, etxe bateko atarian, bertan aurkeztuko ziran erren
bilbotarrai, onen egunetan eta onen ordutan.

Bilbao'ko txiro ta goselken artean ikara andia era-
gin eban iragarki onek, eta egun batzuetan etzan izan
beste izketagairik auxe baiño...

Eldu zan eguna. Atxuri'ko etxe aretan agiri zan ata-
rian mai bat, beronen ganean tintontzia ta ingiak, iru
jesarleku, basterrean zorro batzuk zerez edo arez be-
terik, eta iru edo lau gizon, piperra baiño serioago, al-
karregaz izketa ixiltsuan, atarian batera ta bestera ibi-
lli ebiltzala, eperdi-ganean eskuak alkartuta.

Goiztxo asi ziran kojoak agertzen kalean. Geienak
etozan makulu bigaz edo anka bata dingiliz; ba ziran
etozanak eperdi-ganean erdi-tatarrez; baita burtxoietan
etozanak be, iñok bultzaka eroanda. Danak zurbil eta
arpegi auzalaz, edonor errukituteko lez.

Iragarrita egoan ordurako, kale guztia aurkitzen zan
errenez beterik. Balkoietan eta leioetan jenteak arrituta

esaten eban: «Nok uste izango eban Bilbao'n onenbeste jojo egoanik?».

Atarian egozan gizon serioak adirazo eutsien kalekoai, diruak gertu ipiñi bear ebezala ta orregaitik piskaten atea itxiko ebela, ta asko belutu barik, laster asiko zala diru-banandutea...

Itxi eben atea ba, ta gerotxuago barriro zabaldu zanean, tximistea baiño ariñago urten zan andik... zer uste dozue? Zezentxu bat!!! Nok azaldu an izan zan usubilloa? Asi zan zezentxua topeka, au bota ta ori bota, ta ango añeketea, jojoak izanarren! Egundoko ariñen, miñutu bat baiño lenago, garbitu zan kalea, makillaz ta burtxoez beterik gelditu zala. «Millagrua» izan zan. Zezena agertu zan orduko, jojo guztiak osasunera etorri ziran... Balkoe-leioetako jentea, barrearen barreaz tripa guztia minduta geratu ziran. Deabrukeri au ikusi eben bilbotar zarrak barre-zoroka asten izan jakuz berau aita-tu dogun aldi guztietan.

Amaika gizon gogaldi ederreko jaio ta bizi izan zan lenagoko Bilbao'n! («ABARRAK» — etatik).

ZIÑALDARI ARTEZA:

Udagoieneko arratsalde epel-epela da... Baserri-etxe bateko atarte aurrean, auzoko emakumeak batuta dagoz, bata galtzetagiñan, bestea baba-urkultzen, au bere gizonaren prakai ipingi bat ezarten, ori galtza zarren batzuk «errepasetan», beste bat etxe-ondoko «pozotxuan» tresnak garbitzen... Danak darabille esku-artean zeregiña; iñor eztago alper, baiña iñor be ez ixillik.

Ego-aizea dabil, eta oi dan lez, guztiz urduri dagoz emakumetuok, iñoz baiño barritsuago, beti barritsuak izan-arren... Eztakigu zetatik ez zelan (jakizu!), euren

artean asarrea sortu da, ta alkarri destaiñaka asi dira, guztien aurrera iñun diranak ataraten dabezala:

—A bestelako zera! Ik eure modukoak gareala danok pentzauko don.

—Enagin asko zirikatu; asten banon asi ba, atarako daunadaz ezku^{te, for}an daukozanan trapuzar guztiak eta...

—Ni... ri? Geldi-geldi, gero! Lotsearen izpirik baeukona, ondo ixillik egon bear euken.

—Ik eztakin lotsea zer dan be, ta neu ixillik? Ez orixe!

—Ez az ixilduko, ez; i beti izango az betikoa; ire ondoan ezin bizi leiteken iñor be ta, geizto ori...

—Ni geiztoa? Ea beste bein esain!...

—Geiztoa, bai, barriro be esango yonat, azalako. Gizona be jo egiten don-ta.

—Aitearen! Au da emakumearen lotsabakoa! Gizona joten dodala?

—Bai, bai, joten don, egia don.

—Ezton!; ta laster guzurtauko aut, gonerre peste ori.

Jagiten da bizi-bizi, altzoan daukozan gauzak lurrera bota ta artzeko asti barik, eta inguruan olgetan dabillan mutiko bati deituta: «Purtoso, ator ona, polit ori; errekadu bat egingo dauskat? Neuk saria emonguat. Joadi etxe-osteko solora; antxe jabik gure Praisku bearrean, eta esaiok datorrala arin-arin ona, neuk esan dodala-ta».

Andik lastertxu agertzen da Praisku etxe-alboko orma-ganean, eta ba diño:

—Ze denganiño bear daustazue, barritsuok alakuok?

—Ara, Praisku; esaiuskuzu ementxe argi ta garbi: Nik iñoz jo zaitut?

—Iñoz bakarrik? Bai bein baiño sarriago be, arrayorrek!

Entzuten egozan guztiak barre-santsoka estandak egin bear ebezan...

Gau atan, «seguru be», Praiskuk ez ei eban otzik izan bizkar-aldean. («ABARRAK»-etatik).

Enrike ZUBIRI GORTARI «MANEZAUNDI»

(Luzaide, 1867 — Iruñe, 1943)

Benetan euskalzale gartsua pintore au! Bai erderaz, bai euskeraz, ainbat idatzi eban euskal aldizkarietan. «MANEZAUNDI»-ren izkerrea, Luzaide'koa izanik, baxe-naparroako euskaldikoa da; beti be oso errikoia, bizi bizia, esaeratan jatorra ta aberatsa. Atsegin aundiz irakurtzen dira aren artikululu polit eta umore onez orniduak. «...el encanto del estilo de «Manezaundi» proviene en gran parte de que refleja a las mil maravillas la viveza y pintoresquismo del habla popular.» (L. Villasante).

IZTEGITXOA.—*besanga*: rama principal — *sorbatz*: filo — *izkaldi*: itzaldi — *didar*: deadar — *lexibontzi*: tinaja — *edestu*: referir — *igazi*: igaro — *txinel*: alguacil — *izparringi*: noticiero — *ogerleko*: duro — *iragarki*: anuncio — *ingi*: papel — *burtxoe*: carrito (?) — *gogaldi*: humor — *ziñaldari*: testigo — *urkuldu*: desgranar — *ipingi*: remiendo — *izpi*: rayo — *guzurtatu*: probar la mentira — *estanda egin*: ler egin, reventar.

«KOKOTZ» ARRAINTZARIA:

Ohartu bide zizte, irakurleak, herrixka guzietan ba direla bi gizon bitxi, besteak ez bezelakoak direnak.

Bat, zozoa, buru haundi batekin, kuia alimale baten

heinekoa, erdi mentsa erdi ergela, urratsak herremel eta hurri, lepo gainean duen aztak nekatzen duela ibiltzeko iduri. Eta dohakabeak haurren trufak jasan behar dituela. Bainan, jkasu, egun batez samurtzen balin bada! Zernai itsuskeria egiten ahal du bere furfurian.

Bestea da, lanpide ezagaturik gabeko bat, abila eta ernea, bainan bandila. Ez da laborari, ez da hargina, ez da zurgina, ez du etxerik ere, eta gauak iragaiten ditu barruki edo aterbe batean. Bizkitartean ba daki nunbaitik bere hazkurria kausitzen, han edo hemen bere laguntza galdetzen baitute edozein lanetako, xumeenak izanikan ere.

Holako gizon bat ba zen gure denboran, «Kokotz» izengoitiarekin denek ezagutzen ginuena; eta arraintzan zuen bere bizimolde laketena. Hortan gizonik trebeena zen, eta bipila, eta Arnegiko zubitik Gainekoletaraino errekaoko zoko-moko guziak ezagutzen zituen, eta izterrak buluzirik ba zabiltzan harpe guzietan besoa sarturik, eta eskuz arrain ausarki ateratzen zituen.

Ttotta-eneko zurrunko osinean aspaldidanik ohar-tua zuen arrain gaitz bat, sekula hain haundia ikusia den bat, eta udako ilunabarretan yuaiten zen ikusterat nola yauzi egiten zuen ulitxen ondotik ur gainerat, osin guzia inarrosturik.

Beti aren ondotik zabiltsan, baina debaldetan. Behin, pertola haundi eta azkar bat egin zuen, arta berexiarekin, eta ilunabar batez bota zuen, osin zolarat orozeigaitetik arrain jori hura beretu nahiz. Biharamunian, goizgoizik yuanik, harritua eta loriatua ohartzen du zerbait itzulipurdika eta zalapartan ba dailala urean. Zalu buluzturik sartzan da osinean, eta urpean igerika, esku batez tinki loturik pertola ateratzen du leiorreraino, eta han ikusten indarka eta buztan ukaldika egundaino iku-

si ez duen heineko arraina, hiru zehe luzetasuneko gu-tienik.

«Kokotz» erotua da bozkarioz, eta untsa kalitua sasi batean gorde ondoan, leiakara jarraitzen da berriz arraintzan, eta bulta batean burian yiten da amabi arrain ttipiekin. Hok, zareño batean sarturik eta haundia muturretik dilindan, buztana kasik lurrean herrestan, sartzan da herriko karrikan, urguluz hantua, herritar guzian harriduran, laudorio haundienak entzunik.

Ostatu batean berehala erosten dakote eta haren sari ederrarekin hiru adixkideekin atsalaskari on bat nahi du egin egunaren ohoratzeke. Bainan aitzinetik antolamendu bat eginik. «Kokotzek» emain ditu hamabi arrainak, eta besteek ezar dezatela ardoa eta hogi eta gasna. Guziak adostu ondoan, atsalaskari alegera eta nasai bat egi-ten dute, ardoa ausarki kurriturik.

Buruak berotu ondoan, zer debru! bertze bi pinta jokatuz musean lotzen dira birazka. Erregeak eta battekoak, erdiak eta dobleak ba dabiltsa han oiuka, eta azke-nean ardoak jaidura tzarrak iratzarriz, egundainoko zalapartan inarosten dute ostatua, karrikako zakurrak erausika arrarazi artio.


Aharraren iturburua zen, «Kokotzek» hogoita amekarekin eskutik irabazi zuelakotz jokorat, eta hunen trufak eta ihakintzak galzaleak ezin jasanez, hitz garratz eta larriekin itsuski laidostatzen du arraintzalea.

Bainan «Kokotz» gizon gaitzikorra eta minbera baita ohoreko eta omeneko zeretan, paso batez aurtikitzen du lurrerat mustupilka. Kalapitak sarrarazten du herrizaina ostaturat, eta beste bi gizonen laguntzarekin eremaiten du indarka presundegirat, bizpahiru egun iragan dezan han itzalean arraintzari suharrak.

Horra nola «Kokotzek» bere biziko egun ospatsuenean,

herri guziaren goresmenak goizean entzun ondoan, iragan behar izan zuen gaua presundegi ilinean «debru musulari kopeta-txar haren gatik». («XX-GARREN MENDEKO NAFARROAKO EUSKAL IDAZLARIAK» — Compilación de Angel Irigaray, 21 — 23 orr.).

IZTEGITXOA.—Zizte: zifien — bitxi: original — alimale: aundi — hein: tamaño — urrats: pausu — herremel: desgarrado — azta: peso — dohakabe: infeliz — trufa: burla — samurtu: encolerizarse — furfuria: asarraldia — lanpide: oficio — bandil: arloite — bizkitartean: entre tanto — hazkurria: janaria — kausitu: aurkitu — xume: humilde — laket: agradable — bipil: valiente — aussarki: asko ta asko — zurrunba: cascada — gaitz: aundi — yauzi: saltar — ulitza: eletxo — pertola: botrino — arta: cuidado — zola: fondo — zalhu: ágil — buluztu: desnudarse — tinki: apretado — ukaldi: golpe — zehe: palmo — untsa: ondo — kalitu: matar (reptiles) — leiakara: afanosamente — yin: etorri herrestan: a rastras — karrika: kale — hantu: andu, hinchar — dakote: deutsoe, diote — atsalaskari: merienda — antolamendu: plan — gasna: gaztae — emain: emango — pinta: litro — jaidura: pasión — erausi: ladrar — ahar: rifa — ihakintza: mofa — laidostatu: afrentar — aurtiki: jaurti, bota — mustulpika: de bruces — kalapita: camorra — bizpaitu: bi edo iru — suhar: ardoroso.



Kandido BASABE RETOLAZA

(Lekeitio, 1867 — Loiola, 1928)

Jesuita onek Euskalerrian — Bizkaian, batez be — ekin eutsan Jaungoikoaren itza zabaltzen, berbaz eta idatziz; egotaldirik luzee-na Durangon egin eban... Euskera bizkor, argi ta gozoaren jabe agertzen jaku A. Basabe; uts arin ba-

*tzuk gorabera, maisu egokitizat ar-
tu geinke berau, gauzak euskeraz
asmau ta esaten.*

Iru liburu itxi deuskuz euskeraz:
1) «San Iñazio-ren Ejertziuak. On-
do konfesau ta komulgauteko Ira-
kaskizunak» (1910); 2) «Eleiz-libu-
ruchua» (1912); 3) «San Iñazio-ren
Ejertzioetarako GOGARTEAK» (2-
garren irarkintza, Bilbao, 1926): ez
ete ditu beste norbaitek ikutu?...
J. Kerexetak argitaratu dau barri-
ro, oraintsu, liburu au, gauza ba-
tzuk zuzenduta...

Aita Basaberen bizitza ta lana
E. Erkiagak aztertu ditu (E. Erkia-
ga, «Aita Kandido Basabe, S. J.,
euskal-idazlea» — OLERTI, Amo-
rebieta, ...).

MEZA SANTUA:

Ez gure erlejiñoak dauko, ez Jaungoikoak berak as-
mau lei Meza Santua baiño gauza andiago ta mesede-
garriagorik... Zelan, orduan, batzuk, peseta bi edo iru
abade jaunari luzatuta, esaten deutse: «Zenbat balio dau
Mezeak?» Zer da diñozuna? Ba dago munduan urrerik,
ez zidarrik, Meza bat erosteko? Munduko aberastasun
guztiak utsak dira, arima bat deabruaren menpetik ate-
ra, ta inpernura bearrean, zerura eroateko. Barriz, orre-
tarako Jesu-Kristoren odol tanta batek ainbeste balio
badau, zenbat balioke ete dau bere odol guztiak? Ba,
Meza batek, Jesu-Kristo gure Jaunaren odol guztiak aiña,
balio dau.

Sazerdoteak Meza emoten dabenean, diño Kenpisek,

goratzen dau Jaungoikoa, aingeruak poztuten ditu, Elei-
zea geituten dau; emoten deutse biziak laguntasuna, atse-
dena illai. Mezatan zabalik dagoz zeruak, eta aingeruak
gora ta bera dabiltz geure eskariak eroan eta Jaungoi-
koaren esker edo graziarik ugarienak geuganatzen. Me-
zatan iñoizko ondoen goretsi edo ondreden da Jaungoi-
koa, zor deutsaguzan mesedeakaitik eskerrak emoten
deutsaguz, parkatzen jakuz pekatuak, eta eskuratzen do-
guz laguntasun eta emokairik ederrenak... («ELEIZ-LI-
BURUCHUA»-tik).

ERIoTZEA:

(II-garren atala: Bildurgarria da eriotzea bertan ger-
tatzen direanakaitik):

1.^o) *Gaisoa* agertzen da, eta ze ixillik sarritan! Ez
dirudi gauza andia, buruko min bat, albokoa. Osatzai-
lleari deitzen jako. Ez dau txarrik ikusten. Urrengo egue-
nean arpegi illunagoa erakusten dau; ta diño: «Ekarri
abadea!»... Mendi bat lez jausten dira berba onek, en-
tzuten dabezanen senide ta lagunak biotzen ganera. Ez-
kutaten jako batzuetan gaisoari bere egoerea; baiña, txa-
rragoaren bildurrez, esaten deutse: «Urliak, ez da gauza
andia, baiña osatzailleak...! abadea...!» Au entzundakoa,
gaisoak: «Zer? Ain txarto nago?».

2.^o) *Abadeari* deituta, gaisoaren estutasunak eteten
dabean une batzuetan, egiten dira kontuak, sarritan urte
askotakoak. Egin leikez ondo, egia da: pekatarririk an-
diena azkenengo unean biurtu leike Jaungoikoagana.
Baiña gorputza estu, miñez ezin egonda; burua astun,
biotza illun, azken-naia edo testamentua egin bear, asti
gitxi: au da, biotza aldatzea baizen arazo gatxa egiteko
erarik onena? (...).

3.^{en}) *Eskribaua* be bator, eta dirautso gaisoari: «Ur-

lia! Nori izten deutzazuz zeure ondasunak?» Eta gaisoak edegi bere ezpan orituak, eta berba motelagaz erantzuten deutso: «Izten dodaz etxeak... izten deutzadaz soloak... izten deutzadaz diruak...!» Guztia itxi, itxi...! Eta beretzat zer izten dau? Ezer bez. Zazpi oiñeko kaxatxo, soiñeko zar bat, lur-zulo txiki bat: naikoa dau. Eta errukiz emoten ez badeutse, ain barik geratuko da.

4.^{en}) *Iltamua* (agoliña). Aurrera doa gaisoa; geroago ta estuago dago: izerdi lizunetan, surra zorrozuta, belarri ta ezpan-ertzak ori, begiak erdi-itxita; agoa zabalik, agiñak agirian, bularra jasota, arnasa-oska: eldu da unerik estuena, iltamua! agoliña! Kurutzeko Jesus aurrean, kandela bedeinkatua alboan, senide ta lagunak negarrez inguruan, Abade jauna liburu santua eskuan dabela ondoan. Arek dira uneak! Abade jaunak dirautso: «Proficiscere, anima christiana, de hoc mundo!» «Urten, kristiñau-arimea, mundu onetatik! Jaungoiko ta santu guztien izenean. Bigun ta gozatsu agertu dedilla zutzat Jesusen arpegia.»... Gaisoa, arnasa luze batzuk emonda, geratzen da geldi, ago ta begiak erdi-zabalik; il da! («...GOGARTEAK», 129-131).

IZTEGITXOA.—emokai: don — alboko: pulmonia — osatzaille: médico — lizun: viscoso, sucio.

OLABIDE'tar ERRAIMUN, S. I.

(Vitoria, 1869 — Toulouse, 1942)

Umetan ez ekian euskerarik. Non eta Salamanca'n euskalzaletu jakun Aita Olabide, 27 urtekoa zala: Arturo Campion'en berbok birtu eutsoen euskal sua: «Entonces me avergoncé de llevar sangre euskara en las venas y de ignorar la lengua nativa de los eúskaros»; aurrerrantzean, ekin eta ekin beti, ikasi eban bai euskerea, ta sakon be sakon ikasi, gero!: Azkue'ren Iztegi andia, Azkue berak baiño obeto ta zeatzago ei ekian... Euskeraz itz egiteko, ostera, ez eban izan sekula alako erreztasunik.

Lanak: 1) «Loyola-tar Eneko Deunaren Gogo-Iñarkunak» (1914); 2) «Giza-Soña», 1917 (gizonaren gorputzari jagokozan 6500 itz); 3) «Josu-Kistoren Antzbidea» (1920); 4) «Itun Berria» (1931); 5) «ITUN ZAR ETA BERRIA» (1958), A. F.

*Etxeberría, S. J.,'k eraturako argi-
talpena.*

*Garbizaleentzat, A. Olabide «gure
Irakasle aundia» da, «gure Mai-
xua», «Euskal-literaturari mail be-
rri bat emango diona»... Beste as-
koren ustez, ostera, lan txalogarri
orrek akats asko be ba ditu: eus-
kera otza, ortik-emendik batua,
garbizalekeri itsu batek urritua,
euskal-literatura ta erri biziagan-
dik urrutiegi dabillana...*

JOSU-KISTO'REN ANTZBIDE'TIK:

BAITAREN AZTERRPEN TA OBETZEKO ASMOA:

2.—Negar ta samín zaite, orren aragikoi ta gizakeri-
zale oraindik zeralako; girinetaín ain gorrdin, irritsez ain
okitu;

asmenak zaitzen ain zabarr; irudikeriz ainbestetan
nasi;

atetikoetara orren atzarri, ta barnekoetara orren so-
rayo;

ain barreti ta nabarkoi; ain negarr-gogorr ta
garrbai-gaitz;

nasaikerietara ta aragikerietara ain zoli; ta orren
nagi neketara ta azkura;

eleberriak entzuteko ta ederrak ikusteko ain mukuin;
apal ta zatarrekiko ain uzcurr;

garatzazala biltzeko, ain perkatx; emateko, ain zeken;
eusteko, ain itxikin;

erausketan orren ostoil, ta ixilbearrean orren
ezin ixilli;

ekanduetan ain eragabe, ta egitekotan ain mu-
tiri;

yatean ain saro; ta Yainkoaren itzekiko ain gorr;
atsedenerako orren zallu, ta lanerako orren zañil;

ipuyetara orren ernai, ta arren-gautan ain logale;

bukatzeko orren erpai, ta adi egotego orren
txolin;

otoikalditan ain baldan, meza ematen ain epel, yau-
narrtzean ain legorr;

ain berealaxe gogo-barreyaturik; ta ain gutxitan zure
baitara osoro bildurik;

ain bapetan aserreak arrturik, ta lagunekiko ain
mukerrbera;

orren ebazpera, ta akarretan orren zorrotz;

ain pozik egoalean; ain gelbera atsekabe-aldian;

orren maiz onik asko asmatzen; ta orren gutxi buru-
tzen.»

(Laugarren Idaztia, VII Atala).—(Ikusi atal berau,
G. Arrue'k euskeratuta, Antologia onetan.)

YOB'EN AZTERRPEN AREAGOA: (2'garren atala)

1.—Beste egun batean, Yainkoaren semeak, Yaube'ri
aurrkezteko etorri ziran; eta, ayen artean, Yaube'ri
aurrkezteko, Satan ere etorri zan.

2.—Ta Yaube'k, Satan'i esan zion: «Nondik atorr?».
Satan'ek, Yaube'ri erantzun ta esan zion: «Lurr-inguruak
arakatzen ibilita natorr.»

3.—Yaube'k Satan'i, berriro: «Nere morroi Yob ez al-
duk auteman? Lurrbiran ez bait-zegok ua bezain yatorr,
zuzen, yainkozale eta txarrkeritik aldendutako gizonik,

bere artan zintzo irauten dularik, bidegabez, ua iresteko axatu naukan arren.»

4.—Satan'ek, Yaube'ri yardetsi eta esan zion: «Larru orde larru, bai! Daukan guzia ere biziaren orde ematen edonork ba-daki.

5.—Bañan, eskua edatu eta giarren ikutu ezazu... eta, ezetz onetsi?»

6.—Yaube'k Satan'i esan zion: «Or dikat aukeran; bizia utziok, ordea.»

7.—Ordun, Satan'ek, Yaube'rengandik al denduta, Yob legen zitalez oiñazpitik burugañeraño yo zun.

8.—Yob, bere soin-marruzketarako eltzeki bat artuta, autsgañean eseri zan.

9.—Ta emazteak esan zion: «Oraindik isituta al-zaude zure zintzokerian? Yainkoa utzazu, eta il zaitetz!»

10.—Yob'ek yardetsi zion: «Emakume ergel bezela mintzo zera. Yainkoagandik, ona eta gaitza orobat arrtu bearr dira». Guzi otan, Yob'en ezpañek ez zuten ogenik egin.

YOB'EN AÑENAK: (3'garren Atala)

1.—Ordun Yob, aoa zabaldata, bere sorrtegunaz añenaka asi zan.

2.—Ta mintzo egiñaz esan zun:

3.—«Utikan, nere sorrteguna!! ta «sein arr ernda» zioten gaua.

4.—Egun ua, itzali bedi; goitik, Yainkoak ez beza nabaitu! ezta argiak ere, izpirik aren gañera eman.

5.—Erio-itzal illunak berama; aren gañean, odei bat betza; egun-illuntzeak izua bekarrkio.

6.—Gau artzaz illunbea yabetu bedi; ez bedi urteko egunetan lerrotu, ezta illatartean zenbatu ere.

7.—Lekayorik gabe, soil bego arako gau ua.

8.—Biraokatu bezate, egunak biraokatzen ta Lebiatan deitzen dutenek.

9.—Goiz-izarrik ez bekio agiri; egun-zai eta egunik ez bego, goiz-argi-urratzearen betazalak ikusi gabe...» (*Ezer aldatu barik*).

«Eta Iob'en liburua? Arrigarri da! Ba'ditezke, eskierki, bein, bietan eta geiagotan irakurriko dutenak. Zein euskera bizia, adierazmen aundikoa, xehe-meherik txikiena ere galtzen ez duna.» (ORIXE, «Euzko-Gogoan», 1958, n. 5-6, p. 520).

IZTEGITXOA.—KRISTOREN ANTZBIDEA: *azterpen*: examen — *irrits*: ambición — *okitu*: ok egin, asetu — *atzarri*: desperto — *soraio*: nagi — *garbai*: penitencia — *azkura*: empeño — *eleberri*: noticia — *garatzazala*: negocio — *perkatx*: diligente — *itxikin*: tenaz — *erausketa*: charla — *ostoi*: inconsiderado — *mutri*: impertinente — *saro*: glotón — *zailu*: zoli, vivo — *zaiñil*: apático *logale*: soñoliento — *erpai*: impaciente — *txolin*: charlatán — *baldan*: flojo — *mukerbera*: esquivo — *ebazpera*: propenso a juzgar — *akar*: riña — *egoal*: suerte — *gelbera*: débil. YOB: *auteman*: observar — *axatu*: azuzar — *marruzkatu*: restringar — *eltzeki*: casquillo de olla — *isitu*: obstinarse — *utikan!*: fuera — *zenbatu*: numerar — *lekato*: clamor — *betazal*: párpado — *eskierki*: seguramente — *adierazmen*: significación — *xehe-mehe*: detalle.

Pablo Fermín IRIGARAY — «LARREKO»
(Auritze-Burguete, 1869 — Iruñe, 1949)

Mediku jauna. Gizon ona be ona, edozeini mesede egiteko beti gertu egoana... Euskerearen alde be aibat lan egindakoa: «Gure Herria», «Euskal Esnalea» eta orduko euskal aldizkarietan asko idatzi eban. «Larreko»-ren izkereari buruz, ara zer diñoskun Aingeru Irigaray, bere seme euskaltzaiñak: «La prosa de Larreco... no es exactamente del Baztán, donde vivió, ni de Burguete, su pueblo de origen: más bien es una estilización literaria del Alto navarro septentrional, mezcla de baztanés y labortano; pero esclavo de las formas populares y sin dar paso a formas artificiosas...» Izan be, auxe zan Larrekok euskerearentzat nai eban jatortasuna: ez itzetan, esaeretan baiño, erri-erriak ain ugari ta gozo erabiltzen dituzan esaera aberatsetan...

NAFARROAKO EUSKAL ESAKERAK:

Ordu da euskaldunek erabil zagun euskara, euskaraz mintzatzen eta idazten. Eta ez erderaren moldetara.

Baldin euskaraz ez baldin baditugu erdaraz bezenbat liburu eta jakinduria, ez da euskareran errua. Euskaldun letradunak, zapeldunak, irakasleak, jaun eta andere andiak izandu dira eta gara obendunak.

Letradunek dugu euskara oinperatu; letradunek, jaunek eta anderek, dugu euskara goratu eta gaitu bear.

Aldi untako euskel idazle geienen gaitz makurrena erdalera dugu. Oker untarik zuzentzeko eta gure buruak gaitz ortarik begiratzeko, zerbeit egiten ote dugu? — Geienek ezer ez; gaitz unen kutsurik gabe, garanoik ote dago? Eta ez kutsatzeko arta dutenak oro batera emanik, amar bat ote dira?

Aspaldidanik euskeldun utseri, zaarrerri, asi nintzaio-ten oartzen: Ene arriduraren andia! ustegabeen entzunik ditudan esakera politak!

Leenbizian ez nakien, esakera basak edo ala zitzaizkidan, non ta erderara ez netzakzen biur. Baiño ene baitaratu nintzelarik: Ikusten, entzuten, aditzen nindagola euskelduneri so; geroago eta atseginago zitzaizkidan eken esakera biurriak, non ta orain ek baizik etzaizkit eder eta gozo.

Zalduby andiak diolarik:

«Arpegi pollit ori, amatxo, zertako,
ez duzu amak bezain legun eta goxo?
—Aurra, urak maldari errekez doazko,
nigarrek naute egin ni ere ain atso»,

eta unelako esakerak zaizkit biziki eder eta atsegin; be-
reziki irugarren lerrokoa.

Leenbizi artan euskeraren gozoa dastatu berri nindola, buruz buru bordari gaizo batekin igande goiz batean eta nik ari:

—«Jainkoak egun on dizula; mezara?»

Arek; — «ez, entzunik nago».

Bertze igande goiz batez emazteki xaar bati nik:

—«Elizaldera, mezara?»

Arek; — «ez, entzunik nago».

Nere baitan, ausnarrian bezala, «entzunik nago», «entzuna naiz»; ordutik asi ta beti galdeka ari nintzaioten euskeldun zaareri, ene gozoaren bazkagei biltzen...

(«XX-GARREN MENDEKO NAFARROAKO EUSKAL IDAZLARIAK», Compilación de Angel Irigaray, 155-156).

SENDALARI BATEN ARGIAK:

(...) Laguntzalea, eriaren gelan sartu orduko ohartuko da, eri-handia nola dagon etzana: gaitza bakotxak bere egote berezia ba dauka ta.

«Sukar-usteldunen» ohean egotea ez da «Peritinitis» daukanak bezala; harek ahozgora, hunek, aldiz, gorputza, zango-ixterrak bilduak sabeleko miñen eztitzeko.

«Meningitis» delakoak nahasirik, buru-besoak igitzen, ohetik atera nahiak.

Geroxago, erranen ditugu bertze gaitza batzuen ego-teak.

Laguntzalea ohartuko da, eri handiaren «aurpegiaren itxurari, begitarteari, ahoetzpañeri, sudur sahetseri»: manso edo zaluiegi ats-artzeari, asots egiteari, zurruka

edo ziztu egiteari: orietarik guztietetik ezagupide asko bildu daiteke.

Eri-handi guztiak ez daude ohatzeratuak, ba dire azkenetan daudela iduri dutenak, eta hala egonagatik ba dabilta; azkenetara urbilduak dauden «minbizidunak»: bai ta dema delako garaikerrietan garaituak izanik, «lasterka egitean» edo «trunku ebakitzten»; iduri bai dute azkenetan daudela.

Eri-handien ohatzean egotea geihenetan ahozgora, «coma» delakoan daudenak; «sukar-usteldunak» eta kolpe handitan «shock» delakoakin daudenak berdin.

Naiz gaitz ttipiekin, gizen gizenak ere hala daude. Burutik nahasirik daudenak geldirik ezin egon, zer hari diren ez dakitela.

Eri-handien ohatzean jarririk egoteak adiarazi nahi du, ats-ezinhartuz daudela, dela «biotzetik», dela «edema pulmonar» edo «crup-diftérico» edo zintzurretik beheiti zerbeithek tratatzen duela.

«Aurpegitik» asko ikasi dezakegu. Behatze zorrotz, deusere ohartzen ez direla dirudien *erotu* edo «*tumor cerebral*» delakoen nahasturia adiarazten dutela.

Sabeleko eri-handiek kolore zuri-ilun dute eta mazelak sartuak sudur saetsetako zimurdura batean.

«Apoplegi» aikin daudenak, ilik bezala, baiño lo *zurruka* itsusi batean; aurpegi-alde bateko *parálisis*-ekin okertua.

«Meningitis» duten aurrek kolore zuri, *triste*, burua beti alde berera makurtzen dutela.

«Mozkortuen» begi-sudur eta ezpañak gorri; behatze zozoa eta beherako ezpaña dilindan, eroria bezala...

(*Ibid.*, 190-192. Onetan be txalogarri agertzen jaku «Larreko»: euskeraz idazteko bere ogibidea gaitzat artu ebalako. Euskaldun guztiok bide orri jarraitu izan ba-geuntsa, bestelako aberastasuna izango geunke orain kul-tura-mailla guztietan!).

IZTEGITXOA.—NAPARROAKO: *gaitu*: hacer capaz — *begiratu*: zaindu, jagon — *arta*: cuidado — *basa*: salvaje, rústico — *ene baitaratu*: reflexionar — *eken*: aien, areen — *dastatu*: probar — *bordari*: casero — *ene baitan*: neugan.
SENDALARI: *sendalari*: osagille — *sukar*: fiebre — *ohatze*: ca-ma — *minbizi*: cáncer — *dema*: prueba — *mazela*: matrailla.

EGUZKITZA ta MEABE'tar Jon B.

(Lemona, 1875-1939)

Abadea. Euskaltzaindikoa. Lekei-tio'n bizi izan zan, abade egin ta gero, bizitzarik geienez. «Jaun-goiko-Zale» Alkartasunaren sor-tzaille ta zuzendarietakoa. Lan as-ko egin eban, euskeraz, Dotriña-arloan; ain zuzen be, beronek biz-kaieratu zituan «Kristiñau Ikasbi-dea» ta «Argi Donea»... Aldizka-rietan be ainbat artikulu idatzi zi-tuan, batez be «Ekin» eta «Jaun-goiko-Zale»-n.

Euskal-liburuak: 1) «Garbitokiko Arimaen Illa» (1915); 2) «Andra Mariaren Loretako Illa» (1919); 3) «Gizarte-Auzia» (Ugazaba ta langille arteko goraberak (1935).

Maixu batek lez idazten dau beti Eguzkitzak: argi, otz, zuzen, kon-tuz... Bear bada, astunegitxua egi-ten jaku, luzarora, bere idazkerea, itzen garbitasunari ta gramatika-

ko legeai lotuegia-edo dalako. «Ori-xen»-n eretxiz, Eguzkitza ez dogu edozein: «...nire ustez, orainarte izan dogun euskal-idazlerik bikai-ñena».

ITXAROPENA:

«Txoriak egoak eta arraiñak ura baizen bearrezko dau gizonak zelako-edo-alako itxaropena: ezetariko itxaropenik ez daukan gizon gaizoak, biziteko pozik be ezin euki daike. Bizitz onetan geure asmo ta arazoak sarri oker urtetan dauskue; baiña okerren dabilzanean be, beste bein ondo urtengo dauskuela uste izaten dogu ta itxaropen onek, lanari ekin eta aurrera jarraitzeko indar, adore ta kemena emoten dauskuz.

Au ta guzti be, bizitz labur onetan eskuratu daikegun zorion txikarraren itxaropena baiño besterik ezpageunko, gure bizitz au negargarri asko izango litzake. Giza-seme askorentzat, bizitz onetako zorionak baiño zoritxar-rrak geiago ta luzeagoak izan oi dira, ta, augaitik, geroko itxaropenik ez dauken gizagaizoak, bizitz onegaz asperturik, euren buruak bein baiño sarriago erail daroetz. Betiko zorionaren itxaropena, ori da gizonari bizitzako ezbear eta ekatxetan bear daun besteko adore ta kemena emoten dautsen argi zerutarra; baiña itxaropen maitagarri au, landarea zuztraitik lez, siñismenetik dator, eta, augaitik, siñismenik ez daukanak, itxaropen eder ori be ezin euki daike (...).

Batzuk itxaropen gitxiegi, beste batzuk larregi euki daroe. Jaunagandik bear daun besteko laguntasuna itxaropen ez daunak, bere itxaropen txikiegi orregaz, Jauna irainduten dau: dongaro bizi arren, egite on barik zerura joango dala uste daunak be, bere arrokeri ta uste zoro orregaz, Jaunari irain andia egiten dautso. Gure itxaro-

penak euspen edo orpo bi daukaz: geure zoriona irabazteko Jaunak agindu dauskun laguntasuna, ta geure bizitz on-zuzena. Bere laguntasuna eskiñi ta agindu dauskun Jaunak, utsik ez dauskula emongo ziur dakigu; baiña goiko laguntasun orri geuk uts-emon geinkio ta, augaitik, geure itxaropenaren ari samur eta pozkarri ori, geure aldetik urratu ez dedin, bildur izan eta arduraz bizi bear dogu. Itxaropen sendoa osasungarri da: baiña uste arroa, kaltegarri. «Zutik dagola uste daunak, jausi ez dedin ardura artu begi» (Cor. X, 12) «ta bildur-ikaraz zeuen osasuna egizue» (Philip., II, 12): deun Paulo bialduak diñausku ori, ta itxaropenagaz batera geure argaltasunaren bildur izatea, gauza osasungarria izan ezpalitz, zifiez, olakorik ez euskun esango.

Itxaroten dauna eta bildur ez dana, alper-nagia izan oi da: bildur dana ta itxaroten ez dauna, ostera, auldu ta kikildu egiten da, ta, zeruko bideari jarraitzeko, bear diran adore ta kemena galdu daroaz. Onelan ba, itxaropenean zuzen ibilteko, geure Jaunagan uste oso-osea euki bear dogu: baiña geuk uts-egin geinke-ta, geugan uste larregi ez daigun euki; Jaunagazko uste osoa ta geure argaltasunagazko bildurra, neurritz alkartuko bagenduz, itxaropenean beti zuzen ibilliko giñake.» («ANDRA MARIA'ren LORETAKO ILLA»-tik, 90-93 orr.).

GIZARTEKERIA, BALTSAKERIA TA ABAR:

«Gizaseme asko buru-ariñak gara. Gauzea zer eta zelan dan jakin barik, barriketan ekiteko ekandu txarra daukagu. Kristiñau-Ikasbideko liburutxua be eztakien babalasto askok, erlejiñoko gauzetan euren buruak mai-xu andi egiten dabez; Salomonek baiño be geiago dakiela uste izaten dabe, ta guzur ta abar barriketa utsean diardue. Inon diran tentelkeriak esaten dabez; ori ta guzti

be, gizona okerrerako makur dagoelako-edo, askok sifestu egiten dautse.

Barrena ardaoz berotu ezkerro, sozialismoa zer dan eztakien asko be: «Viva Rusia!» deadarrez ibilten dira. Gure baserritarrak egia egitzat, guzurra guzurtzat eta zorakeria zorakeritzat euki dagien, sozialismoa zer dan eta nora garoazan al bait laburren azalduko dot.

Benetako sozialista ta katoliku batera inor ezin izan daitekela, esan dausku Aita Santuak. Ori zegaitik dan aitu edo ulertu al izateko, sozialismoa zer dan jakin bear dogu.

Eta lenengo ta bein, sozialismo euskeraz zelan esan ete geike? Nire eretziz, sozialismoari euskeraz «gizarterkeria» eretxi gegikeo. Izan be, erderazko «sociedad» euskeraz *gizartea* da. Sozialistak ondasuna ekarteko gai ta bide diran gauza guztien jabe, gizartea egin nai dabe: gizonok geure gauzetan daukagun jabetasuna, baktxari kendu ta gizarteari emon nai dautse: gizon baktxa kapustu ta gizartea aberastu nai ei-dabe: baiña ori egitea — geroago esango dogunez —, gizon baktxentzat ezeze, gizartearentzat be, kaltegarri izango litzake. Beste alde-tik, edozelango egite txar eta kaltegarriak «keri» atzizkiaz adierazten doguz euskaldunok: nagikeri, ordikeri, ustelkeri ta abar: beraz, sozialismoak lurreko ondasun guztien jabe gizartea egin nai dualako, eta ori gizar-tean bizi garean gizonentzat kaltegarri izango litzakelako, sozialismoari euskeraz «gizarterkeria» eretxi gegikeo.

Ogasun ekarkor guztien jabe, lurralde baktxean, bertoko gizabatza egin nai leukie komunistak. Oraingo Estaduok baiña gizabatza txikiagoetan bazkide baktxak guztientzat eta guztiak baktxarentzat lan-egiaz, giza-
seme oro baltsan bizitea, gauzarik zuzen eta bidezkoentzat dauke. Onein eretziz baltsan lan-egitera ta baltsan bizitera jo bear da, gizartera zoriona ekarteko: ori dala-

ta, komunismoa euskeraz «baltsakeri» izenaz adierazo geike.

Gizarterkeri ta baltsakeriak bide bat eta bardina ez-taroo; baiña baltsakeri ta gizarterkeri osoa, euren asmu ta elburuetan alkarren antzekoak dira. Estadu andiak nai leukiez sozialistak; baiña orretan be izanez baiña izen utsez alkargandik urrunago dagozala deritxat, Errusiko komunistak edonongo sozialistak baizen nauskeri ta Estadu andizale agertu dira-ta.

Gizarterkeria gauza on eta txalogarritzat dauken askok, zer dan eta nora garoakezan ba ete dakie? Daukanari kendu ta eztaukanari emotea, gizarterkeri edo sozialismoa orixe dala uste dabe askok; baiña gizarterkeria ori baiña besterik da-ta, eztago olako mastiatxurrik.

Patakon, aldi bateko lapur ospetsuak be, eukanari emoten ba ekiala, bein baiña sarriago entzun dogu: Patakon lapur eta lapurren buru izan zala bai; baiña sozialisten buru izan zanik, egundo eztogu entzun. Eta, izan be, daukanari, ba daukala-ta beste barik, berea kentzea, Patakonen egunetan eta arrezkero be, lapurretea izan da beti. Sozialistak, euren buruak barik, aurrekoak daukez lapurtzat. «Ogasunen jabe orain diran ugazaba ta jaunok, lotsa gitxiko lapurrak ei dira-ta, ogasunok orrei kenduaz, benetako jabeari, gizar-teari, biurtu bear ei yakoz»... Ugazaben artean lapurrik izan eztanik enueke esango; baiña guztiak lapur izan dirala esateko be, zentzun eta lotsa gitxi bear dira.» («GIZARTE-AUZIA» liburutik, 7-9 orr.).

IZTEGITXOA.—*txikar*: txiki — *erail*: il — *ekatz*: ekaitz, tormenta — *eretxi*: llamar — *kapustu*: arruinar — *ogasun ekarkor*: bienes productivos — *gizabatza*: comunidad humana — *bazkide*: socio — *baltsan*: en común.

ARRIANDIAGA'tar Imanol, C. M. F.

(Elantxobe, 1876 — Beire, 1947)

Gizon jakintsua; bere Ordenan gorengo maillako karguak izan zituan. Aurtzaroan ikasitako euske-rea aaztu egin jakon komentuan, eta, bein baten, bere amagaz berbetan asi ta ezin alkarri ulertu: orduan, biotza barren-barreneraiño mindurik, barrero euskera ikasteko erabagi sendoa artu ei eban...

*Aranatar sutsua dogu A. Arriandiaga: maixuaren asmoak aurrera eroanik, euskerearen erreformatzaille guztien buru-edo dogu ber-
rau: gure izkerearen lojikeak lilluratuta, erreforma sakonak egin nai izan zituan euskal-gramatika osoan..., erriaren eta ordurarteko idazleen izkeratik guztiz aldenduta. Izan zituan jarraitzaille ez gixi, ta gaur egunean be ba ditu banakaren batzuk, zoritxarrez.*

Artikulu asko idatzi zituan, batez be «Euzkadi», ta «Euzkerea» aldizkarietan. Liburua: «Goizparraik eta Beldubaik egiña», Zarautz, 1959: au da, Ebanjelioak eta Apostoluen egiñak.

AITA GUREAREN ITZULPENEA:

«Atta: eure ixena donetsi bixa: eure ala bel. Egunian-eguniango ogija emoskuk egunoro; eta geure obenaik azketsi egiskuzak, geuk, be, geure zorrdunai bai'tazketsegu; eta ziltzaldiratu ezkagikezak.» (Luk. XI, 2-4).

«Gure Atta goikuoi, eure ixena donetsi bedi; Eure ala bel; eure gurea egin bedi donokijan letz ludijon be; Eguneroko geure ogija emoskeguk gaurr, be; ta gure zorraik azketsi geuri, geuk, be, geure zorrdunai dazketsegun letz; eta ezkagixak ziltzaldiratu, gatxetik jabon baño» (Mat., VI, 9-13).

SAMARITAR ONAREN PARABOLA:

«Gixona zan — esan leban (Josu'k) — Jerosolin'dik Jeriko'ra jasten zana; eta bide-napurren askubetan jo leban; eta napurroik, billoiztu eta zaurittu-egin- ondoren, iltzer utzi leban... Ain zuzen, be, jaupari ezeinbat jatsi zan bide ataz; eta gixongaxua ikusirik, jun-egin zan. Berbat lebitarr ezeinbat, bide ataz etorririk, eldu, ikusi ta alde-egin leban. Samarittarr ezeinbat, baña, bidez le-torran, eta abañatu egin yakan gixaxo ari, eta sorotzirik, errukittu yakazan arrayaik.

Eta eldu, eta zaurijaik lotu leutsazan, gaimel-ardauaik zaurijetan ixuri, eta astogane jarri lebalarikan, arrozte-xera eruan leban, eta beragaz arduratu zan... Bigara-

monian, txindi bi ziskutik atera eta arroztalliarri ukañi leutsazan, «beronegaz ardura ixan — esanik —; eta ganeke iralgiko leukian edozerbere, nayatorrkianian ordaindu dagiskiat.» («GOIZPARRAIK...»-etatik, *ezer aldatu barik*).

IZTEGITXOA.—*azketsi*: parkatu — *ziltzaldiratu*: tentaziñora eroan — *donoki*: zeru — *ludi*: mundu — *jabon*: jagon, zaitu — *jaupari*: abade — *ezein*: bat (indeterminado) — *abaiñatu*: urrerattu, urbildu — *sorotzi*: contemplar — *arrayaik*: erraiak, entrainas — *gaimel*: orio, olio — *arroztetxe*: mesón — *txindi*: diru — *zisku*: bolsillo — *ukañi*: emon — *iralg*: erañgi, gastar.

Gregorio MUXIKA

(Ormaiztegi, 1882 — Donostia, 1931)

Gazterik il jakun au be; baiña ez lan gitxi eginda: izlari bikain, idazle jator, langille aspertu-eziña... «Euskalerrriaren Alde» aldizkaria sortu ta zuzendu eban ainbeste urtetan. Bai euskeraz, bai erderaz, lan asko egin eban, periodista lez. Euskaltzaindikoa. «Euskal-Esnalean»-ren Sekretarioa.

Liburuak: 1) «Eibar'ko seme ospatsuen berri batzuek» (Donostia, 1908); 2) «Pernando Amezketarra» (lau argitaldi izan ditu liburu txiki errikoi onek; ortik atera ze gogotsu irakurri dauan gure erriak!); 3) «Los titanes de la Cultura Vasca» (Donostia, 1962: Editorial Añamendi'k argitaratu dau, G. Muxika'ren erderazko artikulu batzuk batuta: T. Aranzadi, J. Urkixo, D. Agirre, Pierre Lhande, A. Donosti

ta A. Campion'i egindako itaun-erantzunak dakaz).

«Beti mintzatu ta idatzi eban sakon ta garrantzidun, gozo ta errez. Epel asko be berak eban sugaldatan ixio ta berotu ebazan» (A. Onaindia).—Beste batzuen artean, «JEME» izenordea be erabili eban...

ORTZAK ERAKUTSI!...:

Pernando'k ixkribauarekin itzegin nai zuen. Bere etxera joan zan eta ¡dan! ¡dan! atea jo zuen. Bereala neskamea azaldu zitzaion... Neskameak, nolako itxura atera deitzen dutenak, alako arpegia izan oi dute. Aberats antzekoa bada, arpegi guzia irri-parrez josirik, eta tibiri-biri, tibiri-biro, sortu diran inbusteri guziak esanaz... Erdi-puerdikoa bada, arpegi otza, ta itzak otzagoak oraindik. Eta zarpazar antzekoa danean berriz, tximinia baiño illunagoko kopetarekin eta erratza baño latzagoko itzakin.

Ori, neskame guztiak jakiten dute. Aralar'go muturretik errira datorren neskak, bigarren asterako iñork erakutsi gabe ikasten du.

Ez dago esan bearrik zer itxura eramango zuen Pernando'k, eta zer arpegi jarriko zion neskameak... Pernando'k apal, apal, galdetu zion: «¿Nagusia etxian al dago?»

Eta neskameak, itz bakoitzean bi purrustada egiñaz: «Ez dakit. Jakingo det.» Orrenbesterekin ezkutatu zan.

Pernando'k igarri zuan zer arrera egiten zioten etxe artan, eta ona zer bururatu zitzaion... Berrogei erraldekoko beia erosteko aña diru ez zuen noski berekin izango, baiña txanpon bakar batzuek musuzapian korapillo ba-

tekin bilduak ba zeuzkan. Bere aiek askatu ta zalaparta ikaragarria ateriaz, lurrean bota zituen.

Asarre bizian, neskamea biurtu zan, eta esan zion:

—Gizona, ¿zer darabilzu zarata burrunbatsu oiekin?

—Ba dakizu — erantzun zion Pernando'k —, diru mordoxka bat dakart nagusiarentzat eta banaken batzuek erori zaizkit.

Ori entzun zuenean, neskamea, diruk beretzako izan balira bezela, oso poztu zan, aberatsentzako bezelako arpegi goxo irri-sua jarri zuen, txanponak biltzen lagundu zion, eta «gizontxua, nagusia etxean dago» esanaz, ixkribauaren aurrera eraman zuen.

Ixkribauak esan zion: «—Zer degu?». Eta Pernando'k: «—Jaio giñan-ta, iltzea zor degu.» Gero jarraitu zuen Pernando'k esanaz: «Jauna, zorrak ba dauzkat, artzekoak ere bai; artzeko dauzkatena ez diet estufasunik eman nai, eta nik zor dietenak berriz estu narabilte. Larritasun onetan, zer egin ote nezaken jakitera etorri naiz.»

Ixkribauak erantzun zion:

—Ori gauza errexa dezu. Artzekoak, nola nai dala ere, artu itzatzu, ta zor diezunai, berriz, ortzak erakutsi.

—Beraz, dirua eskatzen didatenai ortzak erakutsi?

—Ori da.

—Ederki iduritzen zait. Eta, orain, beorren nekea zenbat da?

—Bost pexta egin zazu.

—Nola?

—Bost pexta.


Pernandok, orduan, ortzak erakutsirik, uuu! egin zion.

—Zer da ori? — zion karraxika ixkribauak.

—Beorrek erakutsi didana. Ortzak erakutsi.

Eta nagusi ta neskamea parragarri utzirik, Pernandok etxe artatik alde egin zuen. («PERNANDO AMEZKETARRA»-liburutik, 4-garren argitaldia, 2932 orr. — Gure Pernando ospetsuaren gorabera ta bertsoak zeatza-go jakiteko, or dozu Auspoa Liburutegiaren «Pernando Amezketarra-Bertsolaria», n. 54, Aita Zavalaren Itzaurre jakingarriarekin).

IZTEGITXOA.—zarpazar: andrajoso — erratz: brezo.



Paulo ZAMARRIPA TA URANGA

(Laredo, 1877 — Sondika, 1950)

Abadea. Euskaltzale sutsua ta langillea. Euskera jator-jatorra dau, Bizkaiko Txorierrri aldekoaren ispillu garbia; ganera, argia, bizia, edozeinek ulertzekoa...

Euskal-liburuak: 1) «Kili-Kili»; 2) «Firi-Firi»; 3) «Zaparradak eta»: liburuotan gai arriñak darabiz eta barre-eragilleak (naiz eta sarritan gatz gitxiko umorea izan); 4) «Anayak gara» (1929): umeentzako ipuintxu bat; 5) «Gora begira»: olerkiak... Ba ditu, ganera, erderuz, asko zabaldu direan 3 liburu txalogarri: «Gramática Vasca», «Vocabulario Vasco-Castellano» y «Castellano-Vasco» (laburra, baiña zuzena); «Manual del Vascófilo» (euskal esaerak, eta olakoak)...

IKETZAKO ABADE ZARRA:

«Iru berbadun izen onegaz aitatur da sarri, albo-errietan beintzat, Txorierriko erri baten, nire txikerretan, parroko izan zan abade jaun don Iñizio on ona... Alan nai olan, iru berbadun izen ori, bera Iketza ize-neko etxean jaioa ta abadea ta zarra izatetik etorri jakola esan lei.

Zarra zan neuk ezautu nebaneko be. Baiña, orraitioño, ez zan joan beste mundura neuk Meza batzuk erason barik. Ain zuzen be, berak irakatsi eustan, urrean, meza-erasoten. Ta, ze ondo artuten ginduzan berari mezea erasoten geuntsan mutilko guztiok! Emon be egiten euskun txakur txiker bat edo beste... Ta emoten euskun txakur txiker orreri asko eritxiten geuntsan..., eskekorik geure aurrean beragana etorten ez zan artean. Eskekorik geure aurrean beragana elduten zanean, eskekoari txakur andia edo txakur txiker bi emoten ikusten genduan, ta orduan... jakiña!..., geu be eskeko izan-gurean iminten ginduzan. Ta barriz... eskean urtetan lotsa izan ta... ixillean berari eskatuten eutsien eliztarrai zeinbat emoten eutsien..., jakin ez.

Zur ibilten zan bera olangoai, eurok baiño bestek jakin barik, limosnea emoteko zerean; osterantzeko gauza batzuetan, ain zur ibilgo ezpazan be... Tira! Zur ibilteko alegiñak gauza guztietan egingo zituzan, baiña ona beste-ko aitzukorra zan ta, sarritan non egoan be aitzuta egoten zan. Ta olango aitzuteakaz, berari zor jakon lotsa ona galdu eragin barik baiña, barre andiak eragiten zitutan berak.

... ..

Albo-erri batera berbaldi bat egiten joan zan baten jazo jakon aitzute guztien aitzugarria... Euria zan ta, bere kalterako, aterki-pean (guardasol-pean) joan-bearra gertau

jakon. Ta zorionean, albo-erri bereko eliz-aurrera eldu zanean, ikusi eban kanpantorreko erlojuan ordua ia ganean egoala; ta batetik berbaldiaren ardureak, eta bestetik orduarenak, aitzu-eragin eutsoen elizan sartuteko aterkia itxi bear ebala...

Ta or doa gure don Iñizio elizearen erdi-erditik be, trapatrapa, aterkia zabalzabalik buru-ganean daula. Elizan dagozan lagun batzuk barreka asten dira... Baiña berak eztau oindiño barrerik entzun; ta aurrera doa alantxe bere bidean, ta alantxe jarten da (paretan da) belauniko altara nausiaren aurrean... Orduan, barre-estuak larregian geiago eginda, koruko batzuk barre-santzo bat edo beste egiten dabe. Ta barre-santzook entzunda korura begira, ta koruok obeto entzun dagioen, zabalik daukon aterkia gorago jasoten daula, ba diño garratz-garratzik: «Zeri eiten dotsezue barre? Eztozue gaur-artean ikusi abaderik guardasolpean, ala?»

.....

Eldu jakon, atan-orretan, pulpitura igoteko ordua. Ta igon eban, ta ederto asi be bere berbaldia. Baiña orra or..., bera bere berbaldiaren erdi-inguruan ederto be ederto dabilela..., asten da aterkiaren ipuiña burura etorri jakon bat..., barrea lotu eziñik, iji iji iji..., ta onen ijikadak biztuten da barriro beste askoren arteko barre-estua. Ta ixilduten da bera bat-batera. Ta ona emen..., ordu berean ijikadak bere ixilduten dira. Eta entzule guztiak dagoz barre-estuari geiago egin eza damutata.

Alango baten, joten dau burua esku eskoiagaz, berbaldiaren gomutamena biztu gura baleu lez... Ta ezer esan barik beste apurtxu baten egon ta gero, korura begira jarri (pareu), ta korurantz esku eskoiari eragiten deusala, berba onek esan zituzan: «Ikusten dozue? Zeuon

barreokaz... galdu jat sermoyan arie. Ta orain... sain erea!».

.....

Barre onik eragin eban don Iñizio on onak bere bera-
rizko aitzuteakaz, bizi zan artean. Ta baita be... negar
onik egin eutsoen bere eliztarrak, il zanean. Batez be,
berak emoniko limosnakaz euron negar-malkoak bein
bañio geiagotan legortu zituezanak! («KILI-KILI», Ber-
meo, 1930, 111-114).

IZTEGITXOA.—santso: relincho humano — gomutamen: recuer-
do — legortu: txukatu.

IRAZUSTA'tar Jon Andoni

(Tolosa, 1884 — Lima, Perú, 1952)

*Lege-gizona. Gerra aurretik po-
litikan sartuta ibilli zan, eta Ma-
drigo «Cortes»-etan abertzaleen al-
deko Diputado izan zan. Gero,
Ameriketara joan zan, eta abade
egin: Meza emon eta 6 illabetera
il egin zan. «El Día», Donostiako
egunkarian, ainbat idatzi eban...
«Losintxa», Mz. Sierra'ren Madri-
galaren itzulpena, ta beste nobela
bi itxi deuskuz: 1) «Joañixio»
(Buenos Aires, 1946): «uno de los
libros más amenos, naturales y au-
ténticos que se han escrito en vas-
cuence...»; 2) «Bizia garratza da...»
(Buenos Aires, 1950). «Su vascuen-
ce tiene el defecto... de estar pla-
gado de contracciones de uso local
reducido y sin tradición literaria»
(L. Villasante, HLV, n. 450, p. 398).*

BIXENTA AMERIKETATIK ETXERA BIURTZEN DA:

«Apika Bixenta'k esango lukian gauzan bat ixilltzen zuan, baita anaiak ere, baiñan berrikerarako amaika gai ba zituzten eta gogoz egin ere bai.

Ama, ama betikoa!... Alaba ikusi zuanean geiago ateratzen ez ustea lenengo burutik pasa zitzaion. Alaba beti bere onduan bear zuala. Lenengo egunean guztikin itz egin bear eta tarte egoki bat ez zuten izan biek bakarrik itz egiteko. Bigarreanean etorri zitzairen biotzak zabaltzeko garaia.

—Ume, sartu ziñanerako antz eman nizun biotza bi puska eginda zatozela; zer dezu?

Bixenta gaixoa lurrera belauniko erori, bere amaren belaunak besarkatu, kokotza gaiñean jarri ta negarra gogoz egin zuan. Alaba ala ikusirik ama ere negar bizian asi zan. Aldi batean itzik gabe egon ziran; esan leike bien malkoak aitu arte egon zirala. Azkenean amak autsi zuan:

—Umea, dana dala esan zazu. Edozein gauza izanda ere ni beñepein zure aldera nago, ta okerreanean ere aita jarriko det, baita anaiarrebak ere. Zer da?...

—Andoni'k ez nau maite. Oso ondo artu giñuan, nerekin zoratu bearrean eta alaba berea zuala esanez; baiñan laixter itxura eman nion damutua zegola. Zergatik? Neonek ez dakit. Egia lan asko daukala bere ola berri orrekin. Egia ez jokalari, ez moskor eta ez gonazale dala. Zintzoa. Baiñan nere ondoan beti itun eta itzik gabe. Kapitana buruan ote daukan edo. Ura ez zan bizitzea. Al egiña loxintxak egiten nizkan, eta arantzaz betea egon banintz bezela bulzatzen zidan. Zure illoba gaixo orrek bein asmatu zuan «aita» esaten, eta zakarripurdi bat egiñik iges egin zion. Ura ez zan bizitzea. Asieran arratsal-

de bat edo beste eraman niñuan sendi lagunetara; geroxeago ori ere ez; kalera ateratzeko lotsaz negon, ezagun aiek zer esan bear zuten pentsatuta. Oso bakarrik bizi nitzan. Bakarregi. Galtzazalea nitzala xinixteko bidea emana negon, baiñan Bogota'n ondo erakutsi det nere izen garbiaren jabe naizela; eta Andoni'k asko jakin gabe. Nork burutu ezer esan ba nion! Ainbeste illabete itunen ondorean gertatu zan berak United States'era joan bear zuala illabetarako, makina sortu berri bat erostera, eta orduantxe ausardia izan nuan bitartean ni etxera etorriko ote nitzan galdetzeko; illabete birako esan nion; eta bai al dakizu zer erantzun zidan?: «Zoazte nai aiña deborarako».

—Neska, ori al dezu dena? Au zure etxea da; etxean ez zera kaltegarri; emen, lasai, nai dezun denbora guttin egongo zera; naigo nuke ni bizi naizen artean eramango ez ba ziñuzke.

Bixenta'k berriro negarrari eman zion. Eta gero:

—Maite det orde... Ori da ba gauza... Bera gabe eziñ biziko naizela... Gaiñera exur-berrik aurrera xamartuk dauzkadala iruditzen zait...

—Obe, zu ta zure alaba, ta datorrena, denak nereak.

Gezurra dirurin gauza, andik aurrera ama osasunaz irabazten asi zan... («BIZIA GARRATZA DA...», 110-112).

AMEZKETAKO KOTXE EDO ZALGURDIA:

«Illunabar batean aitak esan zion: «—Joañixio: Biar goizean beiek jetzi ondorean, belar lepaka bat ekarri zak, eta gero apain jantzi adi, nagusiangana ta perira joan bear diagu. Kaxkoa moxtu bearra badaukak, bizarretegi batera sartuko gaituk». —«Bai, jauna».

Ta ala, urrengo goizean, aita semeak Amezketara jetxi

ziran. An zegon bere etxeko atarin Domingo, kotxero edo zalgurdizalea, bere zalgurdi ta abereak zaintzen. Baño, bi zaldi aul aiek abereak ote ziran gero? Bata zurizka, bestea garo ondua bezelakoa. Beñiere estropozorik ez; ori bai. Aien eran ibilita, nola estropozo egin?; edozein mutil gazte iritxiko zan aiek baño lenago Tolosara, izardi aundirik gabe. Aurreko anak, eskumuturretatik bakarrik tolostutzen zituen, belaunik ez ba lue bezela. Amezketeta elbi izeneko erria da. Ba, Amezketako elbi guzik Domingon zaldi oien gañean billerak egin oi zituen. Zalgurdia, berriz, ura alakoa! Lau kurpilla, aurreruntz bezela aldamenetera etzutzen ziranak: aik alderoak! Gañean xextoa esaten ziotena, lau ertzetan lau burni goruntz zihoazela. Goian beste lau burni, lenengo lauk lotzeko, eta an oial beltz bat, estalpe ordeko bezela. Ura ez zan zalgurdia; ura gezur bat besterik ez zan. Ba, gezur artan, bein baño geiagotan amar lagun ikusi zituen. Iñork ez zekin ez zalgurdiak nolatan irauten zun, ez nola abere argal aiek eramaten zuen. Eta ez zan Domingon maki-llak eta ubelak indarra zuelako. Iñoiz, zaldiri esaten zioten aserre antzean: «Karanba geo!», baño geiago ez. Iñork ez zun ikusi beñere zaldik jotzen. Bai zera. («JOAÑIXIO, Buenos Aires, 1946, 36-38). (Ezer aldatu barik).

NIKOLAS ORMAETXEA «ORIXE»

(Oreja, 1888 — Añorga, 1959)

«Orixe» zanaren bizitza ta lanaren barri liburu onetan aurkitu zeinke, batez be: «ORIXE. Omenaldi». (Donostia, 1965). Itzaurre onetan. L. Mitxelenaren eretxia emongo deusut:

«Orixe-rekiko zorra...: euskaldun guztiok duguna» da. «Goresmenik bear balu, aski litzake esatea, eta ez genduke egia soilla baidarik esango, Euskal-erriari eta euskerari eskeiñi dizkiola bere bizitza luze eta lanpetuaren fruiturik geienak eta onenak, etengabeko ahalegiñen gaiña eta bikaiña. Ori naikoa ez balitz, gaiñera, esan diteke bere obra dugula bear bada asmoz eta neurritz, erabat arturik eta iñorena gutxietsi gabe, euskal-idazle batek, noiznaikoa den, sortu duen larriena... Izkun-

tzari dagokion aldetik, berriz, ez zen berrizale —orduko zenbaitek nai zutekean adiña ez, beñi-pein—, zaharzale baizik: aoz eta izkribuz jaso zuen ondarearen zaintzaille leial, zaintzaille leial izate orrek garai artako errepide-tik baztertuko bazuen ere...»

«Gure ondorengoek, orain pixkaren bat ahazturik badaukate ere, aurkituko dute berriz egunen batean «Orixe», arrimenez eta espantuz. Gurasorik gabe mirariz jaioa balitz bezala, or baitago gure aurrean ez oraingo, ez egungo eguneko, iñoizko aldi urrun bateko seme dirudiela... Berak landu eta eraberritu dizkigu euskal-prosa eta neurtitzak, izkuntza ere zahar-berrituaz... Berak erakutsi digu —egitez, itzez baiño geiago— gai dela gure izkuntza edonongo edozer itzultzeko eta bereganatzeko. Berak, gauza dela euskera biotzaren sentierarik izkutuenak adierazteko. Axalez bakarrik baitzen leorra, otza ta xekena, ez barrenez...» (ORIXE, Omenaldi, Atari-koa, pp. 5-9).

Lanik bikaiñenak: 1) «Jesusen Biotzaren Deya»-aldizkarian idatzi zituan artikulua; 2) «Santa Cruz apaiza» (1929); 3) «Mireio»

(1930); 4) «Tormes'ko Itsu-mutilla» (1929); 5) «Barne-muinetan»; 6) «Euskaldunak»; 7) «Urte guziko Meza-Bezperak»; 8) «Quito'n arrebarekin»; 9) «Aitorkizunak»... eta amaika olerki sakon-eder!

TXORI GALDUA:

Lagunei.

Ez dakit nondik, ez dakit nora, ez nola otsegin, ezta nere txorik entzungo ote dezuen ere, neretxo oyek! Bi sende itxasoz arontza, anai bat an, arreba emen, gurasoak gazterik il. Au nekea! Txori galduak ezin bildu alkarrengana.

Alare nik alegingo det bada, nere negarrik entzuten ote dezuen. Bear bada, zuek ere negarrez erantzungo dezute, baiñon elkarren berri jakitea obe da beintzat, il ala bizi geran ez jakitea baiño. Ba dakit bizi zeratela, ta neregana etzatozketela. Ni ere ez noake zuengana. Ni enago sasitartean; esitartean bai baiño, toki atsegiñean nago. Zuek ostea, gizagaxo oyek, or zabiltzate nekerik aski dezutela, bata bestengandik aldegiñik. Nonbait ez al gera bilduko?

Bai bada, betiko zoriona laister ikusiko degu, Jainkoa lagun: an daude aite ta ama gure zai. Bai emen ere, negarrezko ibar onetan, ba degu bildutoki bat, ederra alare: kristau guzien Ama da ori, ta batez ere gure etxeko Ama.

Ni zuek baiño lenagokoa naizelako, obeki dakit Atsekabezko Amari Errosarioa esandakoan egiten genion eskari: Ama maite aren zazpi atsekabeak gogoan artzen genituen aldioro, onean da gaitzean.

Aren biotzean sartu zaitezte bada, ta alkar ikusiko degu.

I

Aiton-amonak bizi ziran oraindio. Egun batean zan: negu gogorrean belar igar gutxi, beyek erdi gosean; otzarekin esne gutxi, ta sukaldea bete lagun.

Aiton-illobak untzetara joan giñen mendira, lastoa-rekin nastuta txikitu ta beyei emateko. Aitona gizagajoa 70 bat urtekoa: alare ariñ zan zugaz gañera. Untzerik eta gorostirik mardulena non zegoan, ederki zekin mendizulo gizagajo arrek. Baño neretzat nai baño urrutiago, gaztetxoa bainintzan. Beyen zai egon bear, ark untza egin bitartean. Otzak egiñik, eskuak non beroturik ez, ta beyen aurrean egon bear, akulloa artuta. Aurrenean egongo ziran geldi, baño aspertuta etxera nayeana asiko, ayengandik ezertxo ere aldegiten banu.

Gurdiaren karraxi-otsa entzunean, aitonak laister esaten zidan: «Mutil, zintzo egon aurrean!... Ni beyen ankar-tzean bederik eskuak sartuko nitukenean nengoan, baño ayek egonarririk ez. Adar-kondotik eldutzen nien gero; ta bero gutxi ematen baziaten ere, auznarrean ari ziraneko ortz-ikarak atsegin ematen zidan, muñetan barrera zijoala.

Aitona ari zan, ari zan gizagajo ua, untze-mordoa zarrataka. Zugaz batetik jetxi zanean, naikoa izango zula-ta, poztutzen nintzan; baño gurdia betetzako etzula aski: bestera ta bestera igor bear. Bitartean beyek egonarririk ez, nik ere ez; neguko egun motza luze zan. Noizbait etxera egin gendun da, an su ondoan ederki jarriko ni, amonaren esanak eta ipuyak entzuten.

Zer gertatu zan, ordea? —Beste errape baten zai

geundela esnerik aski emateko, ta ernari zegoanak umea bota zula zazpigarren illabeteen. Olako naigaberen bat izan bear gendun noizean bein. Bost ikusirik nago! Ez dakit nolako gaitzarekin beste bei bat il zala. An errian oitura au zan: beyen bat aizetuta edo, amilduta edo, beste gaitze gaizto ta kutsu-dunik etzunean, larrua kendu, ta erriko guziak etortzen ziran bakoitzek aragi-okel bat eroatera, jabearen ainbeste kalte ez izateko. Ori oitura ederra zan, baño beste bei baten diñeko nola ornitu? Ta beye non zan? Jaungoikoa! Non da gure sukaldeko poza? Non dira eguneroko ipuyak? Non dira gure kantuak? Amona bakarrik ari da zokondoan seaskari eraginean, amar eginduak edo Jesusen nekebidea kantari:

«Kristau zintzoa, gogoan artu
Jesusen nekebidea...»

Bestetan ez-bezela erdi ixillean ari zan: gaixoa min zan, izanez ere; bai etxeko guziak ere. Alare zuzen biotza Jainkoarengana. Apal-ondoan, Errosarioa esan ondoren, ez gendun utziko kantatu gaberik, Ama maite orren zazpi atsekabeena. Bein baño geiagotan gogora zait, Ama atsekabetuaren oneraspena gendulako, guri ere ezpata bat bederik eman nai zigula. Etzendun gure etxean besterik entzungo, Jainkoaren alabearra zala besterik. Alako naigabez baño obeki agertu al leikiok egiatzko maite-tasuna? Ori da, noski, egiaz Jainkoa maite izatea. Negarezko bizitze ontan, Zure Amaren lagun izan nai degu, Jaungoiko aundia!

II

Uda zan: belarra itzultzen ari giñan igartzeko. Zortzi egun ba ziran Iruñera aita eramana zutela, sabeltxumea kentzera. Sendagitekoan ondo aterako ote zan ez ote zan geunden, asko illik gelditzen baitziran, bada. —«Ondo

atera omen da!»—, esan zuten; «oraintxe etorri da berrilaria, ta ark esan omen du». Pozik jarri giñen etxeko guziok egun artan, laister etxean ikusiko genduta-ta.

Beste egun batean ardietan nebillela, ango mendiko labakian belarrean ari ziranak galde egin zidaten:

—Aitaren berria bai al dezue?

—Bai, ondo dagola uste degu.

—Gaur ere berrilaria etorri omen dek, zer ekarri ote du?

Langille ayek zerbait ba zekiten, baño ezer etzidaten esan. Ni ba ni Joan basoan barrena, nere barrenean idurika ta idurika. Atzetik, alako batean, beste artzailagunak arrapatu nindun: —«Aizak, motell; zuen aita il dakoa aditu diat».

Au lana, au lana! Negarrez etxeratu nintzan; etxeko gaxoak ere ni bezela... Ama, ama! Aiton-amonak zarturik, umeak ezertako ez, zer alderdi on gendun?...

Apal-ondoan, beste askotan bezela, asi giñen Errosarioa esaten; oraindi bi urterik etzun txikiena, amaren aurrean jarri zan: erne zegoan gaxoa gure ixtilluekin. Ama negarrez, umea begiak zabal zabal, arriturik bezela ari begira. Izketan ba zekin, da aita non zan galdetzen zun egun ayetan, etxean etzala ageri ta. Arreba aziagoak esan zion egunez: «zerura joan da aita». Errosariokoa, bada, besterik ez ta au esan zion amari: «aita zeruan da». Ordun guziok negarrari eman, da eziñ aurrera egin. Amak magalean artuta, bayetz esango balio bezela, musu eman zion. Beste azkenengoa sabelean zeukan. Bost ikusi gendun bai, ta ikusi bearko ere!

III

Beste egun batean zan: zarrenak esan zion amari: «Ama, nik praille joan nai det». —«Bai, gizagaxo ori,

nik ez diat erautziko. Mutikoa azixe dek etxeko lanetarako, ta arekin al degun bezela igaro bearo diagu».

Zarren ori etzan semea, bai seme-ordekoa edo azitakoa; au esan bearra naiz, egia esateko. Baño berak beti «seme» esaten zion, da arek «ama». Beste izenik ez diot emango nik ere, ta eziñ eman ere, asarretuko litzakit bada ta, ama ere bizi balitz ez lioke atsegingo gaxoari, ainbeste maitetako mutikoari «seme» ez esateak.

Aitona ezertarako etzegoan zarturik; amona gutxigorako berriz, umeak ez geyorako, gaxo ayek; amak irabazpide gutxi. Gero il zitzayen aitona, andik laister amona ere bai ta, etxeko zorrondoa ustutzen asi zan. Amaren begira zeuden umeak, eta gaxoak al zun bezela akitzen zitun Jainkoaren bildurrarekin. Bigarren mutikoa ba zan etxeko bearretarako; neskato zarrena neskametakoa adifean zegoan, da atera zan izobaren ondoan, amaren aldeko izobaren ondoan, bizitzen ikastera. Olaxe bada, aurrera ateratzeko ustean ziran bada ta, Jainkoaren nayarekin pozik zeuden.

Urrengo egun batean zan: alaba zarrenak gaztiratu zion praille zegoanari, «ama larri zegoala, gaitz artatik aterako ote zan bildur zerala». Andik zortzialdian berriz, «ama il zala». Amarengatik, etxeko ume errukarri ayengatik, negar egin zun; al zun bezalako pake-itzaikin pozutzen alegin zun. Senide gaxoak, barratzen asi ziranean, batak eta besteak esaten zioten, kartak egiñez: «emen bakarrik gaude, mundu gaizto ontan».

Oraindi ere ori esaten diote, ta anayordekoa ez da aztuko beñere ayen ama on onak semerik maiteena bezala azi zulako.

Andik urrena, bi mutiko azienak Ameriketara joan

nai zutela, etxean bizibiderik ez ta, beste senideen bearra nolabait arinduko ote zuen... Gizagajoak! An ere gerria makurtu ta eskua luzatu besterik ez balego!

Alaxen aldegin dute senide guziak elkarren gandik, eta or dabiltza, txori galdua arantz artean bezala!

IV

Besterik ari nintzelakoa egin det, baño zuek entzun dezute nere negarra, nere txio miña. Zuek gogora-alديو-ro, negar egiten besterik ez det asmatzen. Nik ezin eman urrerik, ezin zillarrik, baño bai erakutsi, oyek baño bearrago dana: zoazte ezpataz biotza josirik daukan Amarengana; an billa nazazue ta arkituko nazue bai, etxeko zorrondoan baño obeki.

Zuetan batek edo bestek aurki negar egingo du au irakurtzean, baño gogoan iduki negarrezko ibarrean gaudela, ta Jainkoaren Amak atsekaberik aski izan zula. Essayozute nerekin batean:

«Ia, Ama, maite —iturria,
Zurekin samin bizia
artu zadan egizu.
Zurekin Gurutz-ofiean,
Zure lagun negarrean
bear det urtzeraño».

(GIBELALDE) *(Ezer aldatu barik)*

ARAMAYOTIK ERE IGESI

Aramayon erriko etxean itxi zuten. Santa Cruz an zegoalakoa barratu zan belaxe, ta an bildu ziran zeuden etsai guziak, mordoskakan ibiltzeko. Ain zuzen ere, no-

ren mendean egon Santa Cruz, eta Erniaalden musu-uts utzi zun batalloairen beraren mendean. Oraingoan obe-to kontu artuko zioten, eta igesegin bear ba zun, len baño ernego ibili bearko zun.

Bi egunez egon zan Aramayon aien mendean, Agoztuaren amargarrenetik amabigarrenera, gabetik illunabarrera. Bitarte ontan etzioten pakean uzten alditxo bat ere, etxetik plazaren erdira eramanez. Tiratzalleak jomugatzat artu zuten, eta esan da esan ari ziran, bere mutil mordoxka non zan aitortzen ezpazun, bost, lau, iru minutoko bizia zedukala. Atxitu zutenetik Santa Cruzek artu zun seta, ixilik eta ixilik eta ixilik egotea. Ainbeste joan etorriren ondoren, esan zien garbi, egundaño etzula aitortuko: nai zutena egin zezatela.

Joan-etorri aietan begiak irauliko zitun noski, bidebazarren bat arkitzen otezun, igesegiteko. Gibela bear du! Baño etzegoan igesegiterik. Ala ere etzun etsitzen, eta igesegin ote zezaken, eta nola, ari zan bere burua-rekin. Zer erbia! Goiko bizitza batean zedukaten itxita; begiratzaillea an zedukan gau ta egun; inorekin ezin itze-gin zezaken; ala ere adiskide batzuk keñuka ari zitzaizkion nola igesegin. Zer egingo ta, gaixo zegoalakoa egin zun bigarren gabean. Ozpiñetan bustitako zatar batzuketan lotu zioten bekokia, ta inork esan, aien bitartez igesegingo zula? Baño sapaillora edo balkoera joan ere egin bear zun, eta andik, lokarri aiek eta txamarra lotu, zintzilika igesegiteko.

Soldadu begiratzaillea an zegoan gelaren erdi erdian, eta etzedukan inora mugitzerik. Alako batean, ittokarrean zegoala, ta aize preskoa artu bear zula esan zion, ia balkoe ondoan etziten utziko zion, eta baietz. Urbildu zan sapaillora edo balkoera, ta an ezarri zan. Antxe, itzalka, itzalka, begiratzaillea oartzan etzan moduan, mu-

gimenturik atera gabe bezela, lotu zion txamarra bur-
niari zatar-lokarri aien bidez, eta gero oera, len zegoan
tokira itzuli zan.

Gaberdian edo esan zion bere buruari: «ñioiz ba da,
oraintxe», ta bearra egitera zijoalakoan, oiñetakoak jan-
tzi zitun, eta bere artan goraka-antzean asi zan, aboko-
rroka zeriola. Goragalea kentzeko bezela, zabaldu zun
sapailloa, ta oraindik ere goraka ari zan, eskuak sabe-
lean zitula. Begiratzailleari eskatu zion baimena, andik
bera txixa egiteko. Etzion eman nai, bildur baitzan, noi-
zean bein ikustera zetorren kapitanak ala arrapatuko ote
zun, eta Coronela ere begiz-begi baitzan. Santa Cruzek
ordun bere begiratzailleari esan zion: «Kapitana etortzen
ba da, eskupetaren ipurdiz jo nazazu; bitartean begira
zazu ate-aldera». Ala egin ere zun, kapitana albogelan
lagunekin dantzan zebillen bitartean. Baiño, ¿nora alde-
gin? ezpaitzekin Aramayoko berri. Araba-aldetik len ibi-
llia zan bide-erakustun batekin, baiño au gaitzak artu
izan zion da, bakarrik ibilli-bearra. Bein sartu zan erri
artara, ta zegoan etxe artara. Andik lenengoz aldegin
zunean, kale luze batean barrena joana gogoan zedukan.
¿Baliatuko ote zion?

Alako batean, rau! sapailloan bera. Begiratzaillea oartu
zan eta burua atera zun, apaiza oraindio zintzilika ze-
goala. Baiño, berandu! apaiza atarian zegoan eta zutik
gelditu, lokarriai ta txamarrari esker. Asten da laister-
ka, ez adiskideai ez etsaiei kasorik egin gabe, ta erritik
atera arte etzan gelditu. Atzetik zetorkiola sumatu zua-
nean, ango ibaiara sartu zan, eta an luze luze etzin eta
arrastaka juan zan, zume batzuk zeuden tokira. Baiño,
au lana!, urak etzun estaltzen gerriraño baizik, eta bil-
dur zan, alkondara zuria ikusiko ote zuten. Erantzi egin
zun bada, ta sasitartean sartu. Billa zebiltzenak ara ur-

biltzen ziranean, leporaiño uretan sartzen zan, eta aur-
pegiz sasira begira jartzen. Gau artan guzian eta urren-
go eguerdira arte an ibilli ziran inguru aietan, eta etzu-
ten arrapatu... (SANTA CRUZ APAIZA, 45-48 orr.).

IZTEGITXOA.—Itzaurre: *gutxietsi*: menospreciar — *errepide*: ca-
mino real — *arrimen*: extrañeza.

TXORI GALDUA: *untz*: hiedra — *egonarri*: paciencia — *zarra-
taka*: rasgando — *ernari*: preñado — *amildu*: despeñarse — *one-
raspen*: devoción — *sabeltzume*: hernia — *sendagite*: operación
— *labaki*: barbecho — *idurika*: cavilando — *erautzi*: forzar —
zorrondo: rincón — *izoba*: izeba, izeko.

ARAMAYOTIK...: *ozpiñ*: vinagre — *zatar*: trapo viejo — *itzalka*:
a hurtadillas — *abokorroka*: regüeldo — *goragale*: ganas de vomitar
— *zume*: mimiña.

Bernardo Maria GARRO BASTERRETXE «OTXOLUA»

(Mundaka, 1891 — Bilbao, 1960)

Gizon ona, alai, baketsua, mendi ta musika zalea... Bizkaiko euskereak ez eukan ezkuturik «Otxoluarentzat»: «Tanto en el empleo de la conjugación como del vocabulario y de los modismos, giros y construcciones peculiares, «Otxolua» es un verdadero maestro» (L. Villasante). Argentinan be zazpi urte igaro zituan, eta ango euskaldunekin jarduteak asko lagundu eutsan beste euskal-dialektuak be ikasteko.

Argitaratu, liburu auxe baiño ez eban egin: «Bertolda ta Bertoldin», 1932: Italiako liburu ospetsu baten itzulpena da au, baiña ez jako inñundik itzulpen-usaiñik artzen; or ikusten da «Otxolua»-ren maixutasuna! Zoritxarrez, bere aldiko «purismoak» (bai iztegian eta bai

fonetismoetan) argitasun eta bizitasun asko kendu deutsoe liburu bikain oni...

Ba ditu, ganera, periodikuetan argitaratutako beste euskal-lan batzuk be: «Bijar Donianera»; «Barbier'en ipu iñak bizkaieratuta»; «Euskal Erriko Abere ta Piztiak»...

Ona emen, ain kutun eban «Orixe»-ren eretxia: «Lagun eta irakaste... Euskalerrri guztiko idazleen artean txukunenetarikoa...»

BAKALDUNA TA EMAKUMAK:

—(Emakumak) Gortuta zagoz, ala; gortuta? Eztago gorrik gorrakorik, entzun gura eztauana langorik! Barriren-barri diñotsugu, ba, ta aditu ondo: astakeri andi bat egin dozula, gizon bakotxak zazpi andra artu bear dituzala aginduteaz! Oba zenduke bakalderriko arazoai jaramon geiago egin, zuri ardurarik eztautsuen gauzetan sartu barik!

—A, eskertzarreko andra nabarmenok! — egin eban oi u bakaldunak —. Noiz agindu dot nik olakorik? Alde, alde nire ondolik ointxe berton, eta zoaze inpernuko ondarretara, madari-madari, alamenekuok, alakuok! Aontxe ikusi dot argi «andrea» diñonak «balbea» esan gura daua-la, balbeak berak baiño zoritxar geiago ekarri daroazue-ta. «Emakumea?» «Satorkumea» obeto jagotzue zuei, satorren antzera solo ta baster itxulastu ta azpikoz-ganera iminten dozuelako. Etxe baketsuren batetik alde eragiten dautsuenean, basterretan aurkitu daikezuezan zatarkeri ta naste guztiak eskubereaz batu ta etxe atara bertara jaurti oi dozuezanok; edozein etxetan sartzean, zeuen griña ta lera txarren sua ta garra aldean daroazuenok;

zer zarie zuek onik, txarra baiño? Iruzurkeri ta saldukerizko sastegiok; inpernuko lezea baiño txarraguok, zeuen senar gixagaxuai inpernuan bertan baiño negar eta alarao geiago eragiten dautsezue-ta; ut ortik, atsitu-atsituok! Aitaren galgarria, amaren negargarria, anaien lazkeria, aideen lotsagarria, etxeko ondamendia, eta itz baten esateko, gizaseme guztien naigabea ta lorra baiño etzarienok; zoakidaze emetik milla arranogaz zeuen galdumendirako, ta etzakidaze nire begien aurrean eguno agertu! Au izan da zaratazkoa! Ako zarraparrea atera dabena andra zoro ergelok, eta ezeri eztala, atan bel! Baiña, nik jakingo baneu jakin zitalkeri au asmau izan dauana nor izan dan, bere-bereak artuko leukez, irabazi be egin ditu-eta.»

Emakumeak joan ziranean, bare samar gelditu zan bakalduna, ta orduan Bertolda, zalaparta guztiak nasai ikusteko ezkutauta egon zan zokondotik urtenik, ba doa bakaldun aurrera ta ba diñotso irribarrez:

—Zer diñostazu, ene bakaldun enea? Eneutsun nik bart esan, zuk atzo andren goralbenez irakurri zenduan liburua, gaur lotara orduko iruntzietara irakurriko zenduala? Aor, ba; andrak eurak etsi erazo dautsue.

—Orrein buruaren barrabana! — erantzun eutsan bakaldunak —. Zazpi andra gizon baktzak artu bear dituzala egin dodala nik agindu; asmau be egitea! Amesetan be etxatan eguno olako dreabrukeririk bururatuko. Bedar txarra dira orreik; piztirik okerrenak!

—Ba dakizu, oiez, zu ta bion artean dogun egiunea.

—Bai; gomutaten naz atzokoaz, eta artez ziraustan, ba dautort. Baiña, zatoz ona; jesarri zakidaz neugaz emen-txe bakaulki onetan, irabazi be egin dozu-ta.

—Maitasun eta jaubetzak, oba lagunik ezak. Oba dozu

zeuk bakarrik agindu, jaun ta jaube bakarra zeu zara izan be ta.

—Zeu izan ete zara, gero, zirriparra onen asmatzaillea?

—Ondo igarri dozu zuk ori lenengotarik; baiña, alan be, ezin ziñeist ezetariko zigorrik ezarri, asmakeri au neuk emon neutsun berbea betetako baiño ezta izan-da.

—Gogo orregaz baiño izan ezpada, parkatu egiten deutsut. Baina esan egidazu, ea zelan gertu dozun deabrukeri au.

—Ezin errezago: zuk burubegitailua emon zeuntsan andreagana joan eta arexeri esan dautsat gizon baktzak zazpi andra artzeko egin dozula zuk agindu. Beste barik, erleen antzera batu dira beingo baten erriko andra guztiak, zurrumurruka ta usobilloka, ta, ona etorririk, zeuk entzun dozuzan orroe ta uluak atara erazo dautsedaz.

—Asmatzaille ona zara orraitño — esan eutsan bakaldunak —; baiña okerra be bai; eta gaur zuk egin erazo dozun biurrikeriak ba leukean amai onik ez iza-tea. Andra gaxoak, zio bat ezeze, milla be euki dituez nire aurka asarre eragoteko. Neuk ikusi ezpaneu, enuekean siñistuko andrak orren buru gitxikoak diranik, zio andiren bat euki ezik olako abarrotsak aterateko. Bai otu be zeuri akiakulu ezin ohea androi neure ala amurratu erazoteko! Eta arei ezeze, neuri be erazo egin deustazu emakumeen aurka ifon diranak esaten. Ludian diran urre guztiakaitik be enuekean, ba, olakorik esan gura izan, eta esan izanak min eragiten daust, eta damu be ba jat. Atzera diñotsut, beraz, andrea onbidezko iturria dala, maitasunezko ibaia, ekandu onezko baratza, samurtasunezko mendia, txairotasunezko zelaia, adeitasunezko landea, ontasunezko torrea, eta iraunkorra ta zintzoa izaten, barriz, itxasoko ugifiak, gau ta egun, jo ta jo da-

ragoioen atxak eurak baiño sendo ta zindoagoa. Eta nire adiskide izan gura dagianak, ezpegike iñoiz emakumeen aurka murtik atera, eztautselako areik iñori gatzik egi-ten, ez ezetariko iskillorik iñoiz erabilten, ez-ta iñoren irribarrerik ez ederrik billatzen. Orrez ganera, ene gizona, emakume guztiak dozuz mazal, samur, biotz-bera, ez-titsu, otzan, maitagarri, eta izan eta asmau leikezan mendu onenakaz orniduak. Ba dakizu, beraz: ez niri andren ala barriro asarratu erazo, ebagi egingo zendukedazalako, osterantzean.

—Egon ardura barik, — erantzun eutsan Bertoldak —; ni neuk eztautsat kitarra orreri soifñu geiagorik aterako. Urrengorarte itxaron egin bearko, ta arteatan adiskide izango.

—Bai; ba dakizu arako esakereak diñona: «dabilen urari ta tximiñoari, agiñik badagirio, urrun akio».

—Orraitiño be, ur lotuari ta ao itxiari, ago beti adi. («BERTOLDA ETA BERTOLDIN»-etik, 25-30 orr.).

IZTEGITXOA.—bakaldun: monarca — bakalderri: reino — alameneko: latoso, «dichoso» — balba: mala suerte — daroazuez: oi dituzue — jagotzue: dagokizute — eskubera: rastrillo — lera: pasión — iruzurkeri: engaño — sastegi: estercolero — alarao: alarido — lazkeri: discordia — gorralben: alabanza — iruntzie-tara: al revés — egiune: contrato — bakaulki: trono — zirriparra: alboroto — burubegitailu: espejo — usobilloka: runruneando — biurrikeri: travesura — zio: motivo — abarrots: estrépito — akiakulu: excusa — adeitasun: cortesía — ugiñ: olatu, bago — murt: mú, «jota» — iskillu: arma — mazal: afable — otzan: manso.

Fr. Gabriel JAUREGUI URIBARREN, O.C.D.

(Aramaio, 1895 — Zornotza, 1945)

Karmeldar onek, bizitzarik geiena Vitoriako komentuan emon eban, bertako Irakasle. Sarritan idazten eban «Karmengo Argian» aldizkarian. Euskera ederraren ja-be agertzen jaku beti arabatar au, eta gai gatzak euskeraz erabilli zitu-tuan: onetan be txalogarri da; zorritzarrez, bere aldiko seme izanik, orduko «purismo» kaltegarriari geiegi jarraituz, erderatiko jakintza-itzen orde euskerazko berba barriak asmetan alperreko lan asko egin eban; eta orrek asko illundu ta astundu dau Jauregi'ren liburu- en euskera ederra: «tiene un vascuence muy puro, pero no deja de ser claro y didáctico... Su purismo lexical parece pasar todas las rayas...» (L. Villasante).

Euskal-liburuak: 1) «Pisia» (Física, 1935); 2) «Kimia» (Química, 1936): ederto argitaratuta dagoz biok, irudi askogaz...

AURRITZA: PISIA EUSKELDUNEN ARTEAN:

—Eup! Ni emen naiatork.

—Nor az, ba, i?

—Ni? PISIA.

—PISIA...? Ez aut ezagun. Egundo, olako izenik etxoat entzun.

—Ni nor nazan jakin gura badok, entzun, arren:

1-go.—Orain urte batzuk dirala, lenengo aldiz Mar-kiñara joan intzanean, eta, an, asto txikia idi andiagaz buztartuta burdiñeari, biak bardiñean, bultz egiten eutse-la ikusi eueanean, astotxoak eta iditzarrak indar bardiñak eukezela, ik esaten euan. Ire esana ezeztu, ta atariko beste gauzak zelan jazoten diran, esaten dauan iztia nok ni.

2-gn.—Baserritxo baten errotea egiteko ur gutxi eukeela-ta, euren gari-zorroak eioteko, ordubeteko bidean eroaten joezan. Auzuna ortan ur gitxigaz, baiña goiera aundiagaz jauken errekea; ta, errotea, baita tximistolea be, egin jakezanean, arrituta gelditu zoazan. Lenago, eioteko, urrutira joan bear izaten joen; eta orain, eio ta argia, bertan.

Uraren indarrak zelan erabilli leitekezan neuk azalduko joat.

3-gn.—Orma zabalak, atx-arroak, mendi-aldapak... norberak zarataka ta uluka esaten dauana, erantzuten dauskuela jakina joagu. Ba, erantzun onen zergaitia be emen yakart. Baita ots eta durunduaren gora-berak be... («PISIA»-tik, 7-8 orr.).

129. OIARTZUNA, ERANTZUNA.—Jazokune onek euskeraz ainbat izen dauz, eta toki baten Oiartzuna baderitxo, beste batzuetan Oianotsa, Adapotsa, Jatorria ta Arribizia deritxo. Arratian Erantzune deritxo.

Oio, ots, zarata, irrintzi, lekaio, urruma, txilio, arrantz, negar, gedar, orroe, ulu nai beste edozein ots bein bakarrik egin arren, gitxienez birritan entzun daiteke.


Zelan? Ara, 119-garren irudian S tokian sortutako otsa, E-E' ormarantza doa, ta ormara eldutakoan, ormea jota atzera-bidea artzen dau, an okertu egiten da-ta; atzeraka datorrenean, barrero lengoxe otsa entzuten da.

Orregaitik, Oiartzuna azal zabalaren erantzuna baiño ezta.

Èta azal zabal bi, iru, lau... alkarren atzean urren-gorik urrengora badagoz, urren-gorik urrengo banan-banan erantzungo dauskue, ta orrezkero oiartzun askarra izango dogu, ez bakarra.

Baldintza: Azal zabalak erantzuteko, otsak azaleraño joan eta gero atzeruntz lengoxe tokiraño etorri bear dau. Itz bat segundoaren 1/10-tan (amarren baten) esan daiteke; otsak segundoko 340 neurkiñeko bidea egiten dau; eta segundoaren 1/10-tan 34 neurkiñeko bidea egiten dau. Ta $17 + 17 = 34$ direalako, 17 neurkin joaten eta 17 etorten, 34 neurkin dira; ta itz bat esaten dogunean, otsak joan-etorria itza esan eta geroago amaitu bear dau, ez itza erdi-esanik dogula. Orregaitik, okerketa-azalak gitxienez gugandik 17 neurkin urrinduta egon bear dau. Azaletik urrintzen garean neurriz, oiartzuna beluago entzungo dogu. Okerketa-azala 17 neurkiñen barruan badago, oiartzuna barik Durundua sortuko da. («PISIA», 144-7).

IZTEGITXOA.—*Izti:* tratado — *auzuna:* vecindad, barrio — *goiera:* desnivel — *tximistolea:* central eléctrica — *oiartzun:* eco — *lekaio:* clamor — *askar:* múltiple — *baldintza:* condición — *neurkiñ:* metro — *durundu:* resonancia.



Jose Maria AGIRRE «LIZARDI»

(Zarautz, 1896 — Tolosa, 1933)

Lege-ikasketak egiña zan. Tolosan bizi izan zan, ezkondu ezkeru, lantegi bateko ardura-dun... Euskaltzale sutsua: euskera sakon ikasten, erabilten, zabaltzen, ainbeste lan egiñiko gizona!

OLERKARI dogu, batez be: «...ezpairik barik, euskal-olerkian bikain eta gorengoena, liriku saillean beintzat» (A. Onaindia, M.E. O., p. 883): «Izadiaren kantatzallea» izan genduan. «Euskera zar eza-gungabeak dun muña atereaz, liri-

karako aukerakoena dala garbi adierazi digu...; euskera erpiñeraiño landu digu. Gurean orainarte ez du kiderik, nekez duke garaitzailerik», autortzen dau «Orixen»k, Lizardi'ren adiskide kuttun biotze-koak...

Ez olerkari bakarrik: teatroari be eskeiñi eutson obra bat: «Ezkondu ezin ziteken mutilla»...; eta itz-lauz be agertu eban bere bikaintasuna: begirazer autortzen daben gure kritikurik onenak:

«Su prosa es también original, casi tan original como sus versos. Agil, descriptor tan certero como rápido del mundo exterior y del mundo interior, de humor intencionado y amable, está siempre lleno de sorpresas, tanto de fondo como de forma. Sólo la brevedad de su obra... le impide alcanzar el puesto eminente que consiguió en la poesía.» (L. Michelena, HLV, p. 147).

«Si Lizardi ha alcanzado merecida fama de poeta, como prosista no está a menor altura. En ambos géneros aparece como verdadero artista de la palabra, que domina la lengua y sabe crear expresiones felices, densas de contenido, airosas y ori-

ginales (L. Villasante, HLV, n. 381, p. 338).

Lizardi'ren lanak: 1) «BIOTZ-BEGIETAN», 1932: olerkiak; 2) «Ezkondu ezin ziteken mutilla» (EGAN, VI, 1953, 29-55); 3) «ITZ-LAUZ», 1934: prosa-lanen bilduma txiki, baiña aberatsa; 4) «UME-ZURTZ-OLERKIAK», 1934.

DONAPALEU'ra YOAN-ETORRIA:

«Goizeko nagi goxoak ogean nindukala — jeikiko al, ez al?... — telefono-otsa.

Zuti, belarriok... Neskameak: «¿Quiéeeen?...» Neska-kamerik ezta Euskalerrian, telefonoz euskeraz dakinik. Arian barrena ibiltzeko ere, lakatza ta baldarra degu, noski, mintzoa!... Baiña orraatik, euskerari eldu bear izan dio, «quién»'aren urrengo. Agi danez, deitzallea ezta nornai...

«Aizak!» — nere artean —, Mendiola ote?... Egin ote-dit beribilean tokirik?... Bart, etzula baitzion... Ta nik iru eguneko bizarra; sasiak jana arpegia. Zortziretan abitzekoak zirala, ta zortzirak oraintxe... Auxe dek lanal

Mendiola da, bai. Joateko ta joateko, itxongo dida-tela; bizarrak zer-ikusirik eztula gure eginbearraz... Ez bizarra moztu, ez gosaldu — jantzi ere ozta-ozta — ba noa. ¿Zer egin bear zenduan?... Egun eder bat nola-nai galtzekoa ezta.

Beribil bi daude gerturik. Mendiola'renean, jabeaz gain, Etxeguren deritzan zaldun bat, Jausoro olerkaria

ta neretzako utsunea. Arregi guriarenean, «Uitzi», Larraín — Ibarluze'ko Udal-otseiña — ta gizaseme aundi sendo igar bizar-beltz bat (Rekalde, izenez), aitarengandik Karlos'en gudateko oroitzez, ta are suz ere, betea.

Eguna urdin garbia. Berotu bear du poliki eguerdirako, Agorra illurren izanagatik... Noizbait ere, Arregi'ren «gurdia» asi da oska, ta ba dijoaz. «Uitzi» muskurioka ibillia dute, ain bide luzea egiteko berandu omen-dala-ta. Goiztarra izan gizagaxoa, ta besteak oge-zulo uts...

¿Zer zatozkit, «Uitzi» adiskide miña; zer, Homero, Anakreonte, Virgilio ta Ciceron buruan edukiagatik, bete-beteko euskaldun zaitugun ori?... ¿Zer zatozkit, bai, oiñak narras, izkutu-mizkutuka, bekokian beera ginbail-egala eratzirik, betaurreko-erantziak begiak lausotu ta izu-antz?...

—¿Zer irizten nazu? — galdegin dit —. ¿Zure anaiaren antzik ba det?... ¿Aterako ote degu gauz onik?

Nik, baietz; egoteko lasa... Beobia'n ditugu alkar-izketok. Mugan gaude ez-arian ez-arian, bidetxoa egin baitegu... Orain, beribileen ta gu geronen nora-agiriak erakutsi-bearra. «Uitzi» ba dijoakit, Jainkoarren «ñori ez esateko» aginduz...

Nik eztizuet oraindaiño esan, baiña «Uitzi» zintzo orrek nere anaiaren nora-agiria darama, alkarren antzik bai-baitute, ur-tantoak ardoarenaren ainbat... Ikusi degu, ordea, zenbait bidexka arturik dala arranoa, mugazaiak gezurpean atzeman eztezen.

Erne!... «Uitzi» ta lagunak sartu dira berriro beribi-

lean. Mugazaia badatorkie. Ni begi-uts... Orraatik ere!... Jare dituk! Ba ziaztek...

Oraín, gurekikoa... Auxe dek ederra!... Nork esan bear zigun?... Olerkari xoxokumeok... Egutegi-zortzi-illabeteen saria, agur!

Esku ikaraz luzatu dek agiria... Ta mugazaiak — begirakun bakar bat aski — ezetz, eztekela aurrera egiterik: igazkoa dala... Egin dek arrituarena, baiña ez taiuz: gezurra oi-eztekena ezagun... Bekañei eragin, bekokia zimurtu... Alperrik; beribilletik jexteko... Zorigabea!... Uzteko, beingoa gora-bera; Prantzi'ra bear gorrian aize-la... Aita ditzak apaiz-jazkiak, ginbail jatorra beatzaz erakutsi... Bost axola; etxegok errukirik!... Atera zak anka bat, eta... arren!; atera bestea, ta... otoi!... Begi gaixoak! Ezer eztet ikusi unki garriagorik... Bustigabekorik ere ez, ain dirditsu...

Guk, etsitzeko; ikusi baitegu otseña eztala esanetik gibelatuko... Berak, ordea, ezin etsi... Beribil berriak datoz. Mugazaia albora begira dan batean, apaizak esku dardartia atexkari egotzi: ginbail bulardetsuak, erabaki gorrien garaia eldu dalakoan, zutitu aurrea lerdenki bekoki-gaiñean, ta egal-atzea lepezamarreruntz etzin... Euskal-Erria'tik Eskual-Herria'rako zubian gera, onuzko burutik... Ta Jausoro etsituak, oiña berriro beribilean sartu-eske: «¡Lagunak! — otsegin digu — ekingo ba'genio laisterka!...»

Gizagaxoa!... Geronek bai, ekin bear izan genion ibillari, ura gabe, iñola etsiko ba-zun... Larrain gaziak gero, arratsean, zionez, arena oman-zan abagunea, Espronceda'ren «Etsigaizto» itzala euskel-neurtitz bikaiñetan iraultzeko! (...).

Illun-aski dala sartu gera Elizondo'n: artean etxetik urruti... Leen ere adierazirik nagonez ezpai-gaituzu gogo-utsezko, aparia degu amets, eta, ao batez, bertan artzea erabaki degu. Ibarluze'ra urrutizkiñez (telefonoz) ots-egin-bearra, gaberdirate ez gure usterik izateko; emaztearen — dutenak — ziri gordintxo batzuk ere entzun apalki, ta orra arloa antola!...

Otordu atsegiña egin gendun orraatik ura!... Bikaiña aparia, polita ardoa... Bazan an esan ta jolas-bearra!... Ordun azaldu ziran gure arteko saarpil guziak. «Uitzi»-k artu, leenbizikoz, astindu eder-samarra. Nik, aren berri nekian onek, galdegin nion, biurriki: «—Ta?... «Uitzi»... goizekoa esango al-degu, ba?...»

Larri zan gizagaxoa! Ukabilla estu-estu egiñaz: «—Jainkoak barka!... Ez gero!...»

Gure mai-muturreko lagunak — Larrain eta Rekalde'k —: «—Zer, zer?... Jakin bear diagu ori...» Ta zirika nik, berriro: ta berriro — jateari zearo uzteka, noski — «Uitzik»: «—Jainkoa'k barka!! Ez dezazula esan!!!!...»

Gezurra dirudi, latiñez ta griegoz jakin gizonak eta «trampa» txiki bat aitortzeko ainbestetaraiño lotsa. Baiña alperrik ibilli zan. Bein artara-ezkero ni ere enengoan ixiltzeko, ta aren urduriak gero ta axkureagotzen ginduzen guziok. Ta, astiro-astiro, itzez-itzez... orra jalki guzia... Ura jolasa atera zuten artatik beste biak! Polita zala jokoa, alegia!... Ea ura al-zan bere burua agiriz, idazbidez, zintzo ta zuzentzat erakuska diarduan kristauaren egitekoa?... Bazetorkela urrena ere zuertasuna, gizabidea ta olakoak aipatu ta goستن: esango zutela berok, nor-naik ikasteko eraz ta tokian, gizaseme makur ura nolako zan larrugorrian ikusi-ezkero!...

Entzutekoa zan, ta parrez lerregin-bearrekoa, ango

aria. Larrain sudurruts betaurreko-aundi burusoilla ta Rekalde betozko-illun bizar-beltza, patata errea baiño legorrago biak, «Uitzi»-ri berebizikoak botatzen... Ta «Uitzi» gizagaxoa, berrogei urtetik gorako gizaseme tinkoa, Homero ta Virgilio kolkoan sartuta darabiltzian gizona, estu ta larri, esku batean ogi-puska ta bestean ollasko-izterra (ta agoan bietarik aski), bere burua gerizatu-eziñik, neri erru guziak egotzi-naiean, neronek alako egin bideetan sartu bai-omen-nun (egia zanez...).

Eskarrak gerekin genduan apaizari. Oben artarik, eta aren antzeko guzietarik, bertan jaretzen ginduala esan baitzun; orduntxe «Uitzi»-ren gogape bildurbera asi zan baretzen, ta ekin zion jateari biziagoki, leen galdu-astia-
ren ordaiñak nondik jasoko... Beste gairik asko maxiatu zan. Aitatu zun norbaitek erderaz ta euskaldunen itsusiz ta kaltez idazten duan eusko gazte bat... Baita ere orretzaz «Uitzi»-k iñoiz argitaratu-iritzia. Izan ere, ba dirudi gure errian arrogarritzat artzekoa ote-dan beste iñon lotsagarri litzakena... Berotu zan «Uitzi» bere aburu-alde, ta igerri zion alegia pattarraren ontzixkak: ipurditik autsi baitzun mai-gaiñean ukaldika...

Berdinguxe giñalarik, eta naikoa jardunik, etxerako asmoa, damuz bederik, artu genizun ta antxe azkendu zan gure eguna.

Gaiñerakoa, ezer gutxi. Ibilli, ibilli, ibilli; joan, joan, joan... Utzi degu nunbait apaiza; beste nunbait utzi gaitu «Uitzi»-k eta illunak irentsi du... Ozkiro gazia, gau beltza, izar-mordo aundia... Nekea..., asperra, ogemiña...

Egun bat geiago... ¿Egin al-degu zerbait Euskale-

rria'ren ederragatik?... Ez asko, benetan. Baiña, bada zerbait anai erdi-ezagunenganako elkarbidea, urrats bakar batez bederik, laburtua... 1929'gko. XII-22 g.

(«ITZ-LAUZ», Donostia, 1934, 39-50) (Oarra: «Uitzi» ori, ORIXE dozu...).

IZTEGITXOA.—Ezpai: duda — izadi: naturaleza — lakatz: áspero — beribil: auto — zaldun: caballero — muskurio: horiqueo — at(e): kanpo — olde: carácter, voluntad — azpildu gabea: sin doblez — zearka: de lado — zizka-mizka: entremés — izkirimiri: chiste — abagune: oportunidad — nora-agiri: pasaporte — jare: libre — mugazai: aduanero — taiuz: de modo apto — unkgarri: emocionante — otsein: funcionario — gibelatu: atzeratu — zaarpil: trapo sucio — gizabide: educación — burusoil: calvo — jarein: absolver — gogape: conciencia — aburu: opinión — ukaldi: golpe — ozkiro: fresco.

Iñazio Maria MANZISIDOR

(Azkoitia, 1907 — Loyola, 1961)

Jesulaguna. Langille andia ta euskal-idazle trebea. Barojaren antza ei dauko Manzisidorrek idaztankeran: izan be, bere euskerea ain da giartsua, bizia, erraza ta errikoa, itz gitxitan asko esatekoa!

Asko idatzi dau, batez be «Jesusen Biotzaren Deyan-n. Gaiñera, liburuok argitaratu ditu: 1) «Deusto'ko Atezai Garate Jesulaguna»; 2) «Otoitz Bidea»; 3) «Jesukristoren Bizitza»; 4) «Gure Patroi Aundia»; 5) «Santu Bizitzak» (4 t.).

JAUNA'rengana:

«Egunetan egon zan gaixoa esan ditugunak egiten. Alako batean obetu zan, baiña oraindik ere luzaroan etzanda egon bear. Denbora luze zijoakion, eta aspertu egiten zan geldi artan (gure Iñigo).

Aurreko artetan, esan gendunez, irakur zalea zan. Aren irakurgaiak munduko aizez beteak ziran; aietantxe

egoten zan luzaroan aspertu gabe atsegiñez. Orain ba, geldik egon bear zun ezkeru, baiña burua ernai zegola, zer izango zitzaion egokiago liburu zar aiek astintzea baiño?

Orregatik bada bere atsegin liburu aiek ekartzeko agindu zien etxekoai... Baiña, nola? etxe artan ez baizan orrelako libururik. Etxe jaun Martin ez zan irakur zalea. Aren andrea ta alaba, bai; baiña, auen liburuak beste era batekoak ziran: Kristo'ren Bizitza, ta santuen bizitzako gora-berak.

Gure Iñigo etzan pozik izango... zer egingo zun ordea? Besterik ezean, liburu aiek ekartzeko bada. Alaxe ekarri ere; bi ziran. Bata Kristoren bizitzakoa. Sajonia'ko Lodolf'ena; bestea «Flos Sanctorum» edo berdin dana, Santuen bizitza laburrak. Biak erderaz zeuden.

Asi zan bada irakurtzen, asieran gogo aundi gabe izango zan; gerora atsegiñez, an esaten ziranak barren barrenaraiño biotza ikutzen ziotela. Izan ere ordu arteko ametsak, munduko izen ona eta fama irabazteko asmoak izan zitun. Ta ara, berak uste etzuean beste izan ona eta betirako, santu aiek irabazi: Ta nola gero? Aren begien aurrean aundiak baziran munduko zaldunak egin zituztenak, ez ote ziran gero areago santuak egin zituzten egitekoak Jaunagatik eta Elizagatik?

Eta onetan berotzen zitzaion biotza, eta bere baitan esaten zuen: «San Prantzisko'k au ta au egin zuala? Nik ere egingo det bada! Santo Domingo'k au ta au egin zuala? nik ere egin bear det ba!» Onelaxe uste gabe orduak joaten zitzaizkion.

Baiña munduak indar aundia zeukan aren biotzean... Eta, liburuak alde batera utzita, asten zan, esan-ametsetan, ordu arteko amets zoroetan. Berak egingo zituanak eta esango zituanak, emen beko aunditasunak bereganatzeko.

Amets oien artean ba zan gauza bat onetik atera erazten ziona. Ba zuen maite bat, bere ametsetako maite bat, eta bera ez gero edozein: ez bai zan markesa edo dukesa, ez! askoz geiago zana baizik. Askotan emakume orretan egoten zan ordu luzetan pentsatzen, ura bizi zan aldetara nola joango zan; eta andre orregatik berak armetan egin bear zituanak eta, garaia zanean, esango zizkion legunkeri ta itz gozoak eta abar. Onelaxe gau t'egun. Bateko Santuei begiratu; besteko lurreko aundikeri eta maitakeriei. Ura zan jokoa ura!

Burruka auetan gauza bat nabaitu zun ordea.

Lurreko amets txoroetan zegonean, pozik egoten zala, irauten zuten bitartean; baiña, aiek junda, naigabez ta utsik gertatzen zala. Alderantziz berriz: zeruko eta santutasuneko gauzetan egonda gero, olako poz batek jarraitzen ziola, aiek utzi ta gero ere. Munduko gauzak, ondoren mikatza; zerukoiaak ostera, ondoren gozoa.

Ontan joan ziran egunik asko.

Baiño gero ta geiago aren biotza Jaunarengana ta Jaunarengana zijoan.

Eun urte askoz lenago onelaxe ibilli zan beste bat ere, pekataria izana, Agustin, Jainkoarengana bide egiten asi zanean: munduan eutsi egiten zion, ta emen beko atsegiñak zitun gogoan ta lotuta zeukaten. Ezin eten! Animako egoakin egan egin naita, ezin, likistuta bai zeukan egak...

Baiña noiz baten ikasi zun bere burua etzala beteko ta aseko inoiz ere emengo gauzakin, biotza Jainkoak bakarrik betetzeko egiña bai zeukan... «Fecisti nos Domine ad te...» Zuretzako egin gaituzu, Jauna, eta nere biotzak atsedetik ez, Zugan baizik, «inquietum est cor nostrum donec requiescat in te», esan oi zuan. Ta au ikasi zuanean, indarrean egiñalean, zalapartan, inoren ajola-

rik gabe, asi zan Jaunagana, ta ekin zion zeru bidean, inoiz ere atzeraka egin gabe.

Orixe gertatu zitzaion Inigo'ri ere.

Atzera ta aurrera zebillela: asiko ote naiz ez ote naiz, bai ote ez ote. Gau baten, esna zegola, garbi garbi ikusi zun, aurrez aurre, Ama Birjiña Jesus Aurtxoakin. Ikus-taldi ontan gozotasun aundi bat barren barrenean nabaitu zun, ta ordu arteko bere bizitzaz nazkatu zan, batez ere bere lizunkerietzaz. Esan bear une artan bere animatik, sustraitik kendu zitzaizkiola, ordu arte itxatsita bezela zeuzkan grina txarrak.

(GURE PATROI AUNDIA, Zaragoza, 1956, 38-41 orr.).

IZTEGITXOA.—Zaldun: caballero — alderantziz: al contrario — mikatz: amargo.

IBIÑAGABEITIA ta IDOYAGA'tar ANDIMA

(Elantxobe, 1907 — Caracas, 1967)

Bizkaitar jakitun onek — jesuitarako ikasketarik geienak egiña zan — euskereari eskeiñi eutsan bere bizi osoa, urteokaz Ameriketako erbeste latzean. Idazlanik geienak gipuzkeraz egin ditu, izkera landu, txukun, aberats eta, bear bada, otzegian... Aldizkari askotan argitaratu zituan bere artikuluak — batez, be «Euzko Gogoan»-n —, eta il-aurretxuan berak sortu ta zuzendu eban «Eman» aldizkaria Caracas-en. Kritikalari zorrotza (zuzena ta biguna, batera) ta itzultzaille aspertu-eziña: ainbeste itzulpenen artean, aitatu daiguzan «Unai-kantak» (*Bucólicas*) eta «Alor-kantak» (*Geórgicas*), Virgiliorenak (gero, A. Onaindiak «Berjili-ren Idazlanak osorik» liburuan, Bilbao, 1966, sartu ditu)... Euskera irakasteko metodo bi be emon

deuskuz: «Aprenda el vasco en 60 horas» (Zarauz) eta «Euskera irudi bidez» (Paris, 1953)... «Elentxu», «NORBAIT» eta «Idoyaga» izenordeak be sarri erabili zituan. Zaitegi, «Orixe», Ametzaga, T. Etxebarria ta beste asko ta asko: gure artetik urruti bizi bear izanarren, ez dabe euskera alde batera itxi; urrutiago ta laztanago... Euron artekoa dogu gure Andima txalagarria be!

ZALDIA:

«...Bereala zaldi gazte iatorra alorretan barrena sartzan da, belaun biguiñak bildurik. Aurrena bidez ibiltzeko, ugaldea igarotzeko, baita itsaso ez-ezagunean sartzeko ere; ezta zalapartak izutzen. Lepoa zutik, burua zorrotz, sabel-me, lepo gizen eta bular arnasatsu mardula. Ederrenak gorri ta urdintsuak, itsusienak, berriz, ori ta zuriak. Gaiñera, gudu-adarrak urrunean ots-egin du-neneko, ezta egonarririk; belarri-ikara eta zain-ikara dabil eta irrintzika, sudurretan bildu sua sudupilletatik dariola. Illepil artoa astintzen duenean, eskuiko lepalde-ra erortzen zaio; apatxakin lurra urratzen du, azkazal gogorra baitu, ots gogorra ere egiten du...» («ALOR-KANTAK», III-garren Lib., 96).

ITZULKETA-LANAK:

«Itzulketa idazlearentzat denik lan gogor eta garratzena da eta ez dit auxe ukatuko lan ortan saiatu den iñork ere. Nekez arkituko du abegi onik irakurletan; zitzada, eztenkada eta kritika gaiztorik ordea, bai; trumilka eta

parrastaka. Antxiñakoa da arako esakuna: «traduttore, traduttore», sobera eta geiegi aipatua; eta itzulari guztiei «saltzaille» izenondoa errex aski ezarri oi-diegu... Prantzitarrek, berriz, dagokien ispiritu irrilari eta bizkorrari datxikiela, au ere esan oi dute: «Itzulpena, — emakumeak bezela —, «zintzoa» balin bada «itsusia», «ederra» balin bada «Lotsagabea».

Ala ere ba dira esames orien gainetik gailen iarri diran itzultzaille ez gutxi, zintzotasuna eta edertasuna egoki aski elkartu ditutenak. Aien artean ezarri genezake lotsarik gabe, «Orixe» ere.

Bai, zintzoa bear du itzulpenak, idazle arrotzaren asmo ta gogoetarik saldu gabe egiña. Ederra bear du bestalde, itzulketan darabilen izkuntzaren sen eta ispirituari azpi-ioko ta biurrikeri gabe iarraituz. Ortarako, berriz, sakonki ezagutu bear ditu itzultzailleak izkera biak, itzulgaia eta itzulia, alegia... («ORIXE» EUSKERATZAILLE, «ORIXE-OMENALDI» liburuan, Donostia, 1965, 92-93).

IZTEGITXOA.—Ugalde: río — gudu: combate — egonarri: paciencia — itzulketa: traducción — trumilka ta parrastaka: atropelladamente — sobera: de sobra.

Salvatore MITXELENA

(Zarautz, 1919 — La Chaud-de-Fons,
Suiza, 1965)

Frantziskotarra. «INURRITZA» izenordea be sarri erabilten eban.

LIBURUAK: 1) «Arantzazu euskal poema», Zarautz 1949; 2) «Ama-Semeak Arantzazuko kondairan», Zarautz 1951; 3) «Ogei kanta Arantzazuko», Arantzazu 1952; 4) «Bizi-nai» (poema), «Euzko Gogo», Guatemala, 1955; 5) «Arraun ta Amets» («Kuliska Sorta, n. 7-8), Zarautz 1955; 6) «Unamuno ta Abendats (saiakera), Bayona 1958... Ganera, «Arantzazu» ta «Euzko Gogo» al-dizkarietan be ainbat artikulku idatziz zituan.

Olerkarien artean, zenbat S. Mitxelena baiño bikaiñagoak, lirika-saillean beintzat?... Itz lau be, ba daki, bai, euskera sakon, txairo ta bizi-bizi erabilten: urteokaz izan

*dogun prosistarik onena berau dogula be ba diño batzuk. Idaztan-
kera bere-berea dau beti... Sermo-
laria be apartekoa ei zan — dana
su ta gar —, bai euskeraz, bai er-
deraz... Zoritzarrez, «Lizardi»,
«Lauaxeta», «Loramendi» ta beste
olerkari ta idazle asko lez, au be
gazte-gazterik eroan euskun erio-
tzak...*

(A. Salvatore Mitxelenaren nortasuna, A. Karmelo Iturriari egindako karta onek erakusten deusku):

«Lagun txintxo: Aspalditik lei nuen ura, azkenera ta bearrago jotzen nuen ura, egun gutxi barru iritxiko diat, Jainkoa lagun: il onen 28'an ba nijoak Ameriketara (...).

Irudimenari atsegin zaizkiok kide ontako naasbillo ta beste paradoxak. Ez ordea sentipenari. Sentipenak fantasi-txuriketaoi itzala urri ta fedea urriago oi ziek, baez-padan. Sentipenak ez dik besterik jotzen auxe baiño: sorlekua utzi bearra. Ta onek, beste gabe, urduritxo natxedukak azken-egunotan, eta naiko itun, eta batez ere biotz-bera.

Biozpera batez ere, motel. Ta etzak parre egin. Gogoratzen al duk «Garoa» ko Malentxo'ren azken agurra? Ez aipa ezetzik, ik bezelako oroimen argia dun batek. Etxez kanpo bizi geranontzat orrialde ori gogoangarria duk eta, orobat, unkigarrietarikoa. Niri beintzat ezin burutik ken zaidak egunotan. Malentxo goiz artan Zabaleta'tik Bidaurreta'ra aldatzekoa uan, moja zijoanez bein-betiko aldatzekoa, gaiñera. Ta utzi bear zun base-
rriko tresna-abarrak, seaska ta oe, golde ta goru, bei ta oillo, azkenekoz ikusmiratzean, «ura gauza! — ziñok ezin ederkiago gure Txomin Agirre dotoreak —. Danakin iz-

ketarako gogo etzetorkion ba? Danak zerbait esaten zio-tela etzuan ba uste? Etzitzaion ba iruditzen etzituala egundaño ondo ikusi, etziela beñere bear aiña jaramon egin?»

Berebat zeritzaidak eni ere asteen, uztera noan jaiolur onekin eta bertako biztanle, eskualde, oitura, erti ta osteruntzeko bizigailu, oroigailu ta maitagailuekin: ez nitula ezagutu, ez ondo ikusi, ez bear anbat jaramon egin. Zer uste bear zikan batek, bein 35 urtetaraiño bizartu ezkeru, onen tirtiri, onen txitxareki ximurxamurtu zin-dekenik azkenagur baten gorabera dala-ta? Azkenagurra azkena balitz, gaiñera!

Ikusten aut ixeka-irriari ezin eutsiz, listor xaxiatzalle, arrane ori! antzeman ere diat azaldu nai ez dukan miztoa: orra nondik beste Malentxo!... Kontu gero, adixkide. Eldu zaikikek euri ere txanda, ta ordun, ni onera-koan eta i arakoan, ordun arranoak ezpadu ikusiko giñekek nor dagon txitxare ta nork dagin parre. Ez aztu gero: danok gerala norgere amaren ume.

Benaz dasaiat. Uste gutxieneko zenbait uskerik ere, galtzeko edo uzteko ordu larrian, garrantzi artzen zigutek, itsatsi egiten zaizkiguk barru-toles biguñenetan, itsasi, mamitu, azi ta azkenik nagusitu. Bakoitzak bere gisara, buru-besoak luuuxatzen zizkigutek zotinka ta arren-ga emekiro, kupigarrikiro, tai gabeko eskean: ez gurekin aztu!

(«ARRAUN TA AMETS», Kulixka Sorta, nn. 7-8, 85-88).

EUSKERARI ILTEN ITXI?

ARRAZOIZ JOKATU ONTAN?...:

UNAMUNOK:

—«Euskera! Bein bear-da, oraindik ere Euskera! Ondo gizaldietako kasketa, arranepola!, zuen auxe. Noiz arte,

ordea? Noiz zentzatu bear duzute? Noiz adore ta gizatasun izango, beingoz euskera pakean iltzen uzteko? (I, 374). Orrek eztu erremeiorik: ba doakigu, ta kito. «Gertari» ori atzeratu daiken giza-indarrrik ez da. Bizitzaren legez bait-doakigu. Alabearren patuz (I, 373)... Oso aguro doakigu, gaiñera. Orra, dagoneko, bi eratarazkenak ematen: zabaleraz eta sakoneraz (I, 375)... Arrazoiz pentsa dezagula, Arrazoiz.»

ABENDATS'ek:

—«Arrazoiz! arrazoiz pentsa eta joka! Zuri entzun bear ori. Ederra kontua, Erretore jaun. Arlo ontan arrazoiz utsez joka bear guk; gaiñerontzean, biotzez eta griñez eta kirioz, arrazoiz utsa mozkeritzat utziki.

Amaikatxotan eta beste ainbatetan zerorrek idatzia diguzu: nazka, asalda, arbuia, ernegua, argaiztoa ta nik al dakit zer geiago diozula arrazolari: «arrazoipideak ezaiñak dirala» (II, 753). Euskera gaixoarentzakoxe bakarki eskatzen duzu arrazoilegea, zentzun praktikua; osterantzeko auzi-mauzi guzietarako iguin badiozu ere. Sarritxotan atsegin zaizu ba gogoratzea Paskal'en ura: biotzak ere ba ditula bere arrazoiak eta burak ez aiñakoak... Ez, Ero Aundi; ez, jaun martinkontra. Ontantxe eztizugu amor emango. Ez eutanisirik Ama xarrari. Don Migel euskaldun-berri pot-egin orrek Ama Euskera zapuzten diguzun arren, zeure filosofiak ezin sutsuagoki babesten baitigu. Ta aski dugu!...

Probetxu geiago lekarkela, euskera-soiñekoa beingoz utzi ta erderaz jazteak? Egi ta arrazoiz. Probetxu aldetik, ondo dakigu baietz. Lurbira zabalean ezagunago ta maiteago giñezkela artara? Egi ta arrazoiz. Lizardi, Orixe, Zaitegi... tarrek, euskeragintzan bizitza eman bearrez, beste onura geiagoko zerbaitean eman izan balute, atzeritarrek esker eta garrantzi geiago ukango liekela? Egi

ta arrazoiz... Probetxu aldetik, euskerak traba ta galera besterik ez omen du, ta agiz izan ere ez du. Eztiguzu esango egi ta arrazoiz aitortzen zabal ez geranik. Tori, artu, nai aiña egi ta arrazoiz.

Egi «ori» eztugu nai! Eztugu, nai izaterik ere nai! Gure gardiz eta zure filosofiarenez, ez da ezer egiagorik edertasuna baiño, eta ez ezer ederragorik geure nortasuna baiño. Ta guk nortasun onixe eutsi nai diogu, il edo bizi. Geure izate-muiñari uko egin bear izate ezkerro, ez gera sekula ezkonduko arrazoikeri oiekin.

Betor erokeria! Kijotekeria edo kijotetasuna, dana dala. Erokeria edo erotasuna. Gerau, beintzat! Bakoitza bere zoroak bizi dau, ta gu geureak. Ez, Unamuno, ez! ezta ezergatik ere gu makurtu arrazoiz tentagarri oietera! «Eztugu biotza makurtu nai burua'renera. Fedea nai dugu. Fededunarentzat ezpaitago ezifnik» (II, 758).

Or-konpon, buru utsez jokatzeari gizatasun deritzatenak. Guk, Don Migel, oraiñarte bezela gerora ere, beste zernaitan bezela ontan ere, «gorputz oroz eta anima oroz pentsa ta joka nai dugu, odol-tanta eta ezur-muiñ bakoitzez, biotz guziz, baita bular-auspoz ere, baita erraiez ere, bizitz-indar guzi-guziz» (II, 725). Ots: Unamunoki, euskotarki, nai dugu pentsa ta irrika ta joka! Zer arrazoipide istatsuagorik nai duzu Kierkegaard'en uraxe baiño?: «norbera ez izatea oro galtzea da». Edo Michelet'en beste ura: «nire ni'a, biur dezaidatela nire ni'a!»

(«UNAMUNO TA ABENDATS», pp. 77.78.79-81).

III.—NOLA AGERTU ZAN:

«Gertaera Nagusi orren aundi-maundiak urrango kapituluetarako utzita, esan zagun, bada, onezkero, nola agertu zan. Apaingarriz edo osagarriz ornitu-asmotan, ez

natzaizu batere okertuko. Zuzen eta labur kontatuko di-
zut Agertuera. Bere sotiltasun gardenean kontatuko di-
zut, zuk dakizun bezelaxe, aiton-amonai edo sermoilariari
entzun eta zeure txikiari irakatsi oi diezun bezelaxe. So-
tillan eta ederrago izaten bait-dira Jaungoikoaren egin-
tzak.

1469'ko urtea zan. Eta udara, asieratan orduntxe. Eta
larunbata-arratsalde bat.

Errodrigo Balzategi, amazazpin bat urteko artzai gaz-
tea, Oñatin ondo ezaguna, Uribarriko semea bera, egun
artan ere, beste askotan bezela, Aloñan-gora joana zan;
mendiz beste aldeko bizkarretik zebillen, illundu baiño
len ardiak billatu ta etxeratzeko asmotan.

Ardiak, esan det. Ardiak edo auntzak, derizkiozun
bezela. Abelzuri ondo ibiltariak eta igeskorrak, beintzat...
Ibilli ederrak egin bear izaten zitun arratsaldero artzai
gizajoak, aien atzetik, malkarrik-malkar, arrapatu ta bor-
dara bilduko bazitun. Batez ere, zenbait egunetan. Sa-
sitian kakoturik gelditu zala ardi zarren bat, edo arako
antxume txoro ua, erpiñik-erpin zebillelarik, arkaitz-
puntako koxka-koxkan berandutu zala illuna baiño len
jeixterik gabe, otso ta basapiztien janari izateko... ta
bestegabe, an joan bear izaten zuan Errodrigo gizajoak
etsi-etsian, aietxen billa.

Arratsalde artan ere, ardi batzuk falta bere artaldean.
Zein aldetara aldenduko ziran, aguro antzeman zun Erro-
drigok. Garaikaldetik etzan entzuten ezkillik. Be-aldetik
izango al ziran balinbait'e.

IV.—KANPAIA:

Arrapaladan gainbera zijoala, ezkilli-edo, kanpaia-edo,
entzun-iruditu zitzaion. Iruditu ta izan. Argi ta garbi en-

tzuten zan arran-otsa, galanta ordea, beññere aditu ez
bezelakoa, ozen-zolia oso. Baiño nolako urruti...»

(«AMA-SEMEAK ARANTZAZUKO KONDAIRAN»,
21-23).

IZTEGITXOA.—NORTASUNA: *nortasun*; personalidad — *naas-
billo*: confusión — *biozpera*: sentimental — *ikusmiratu*: exami-
nar — *erti*: arte — *txitxare*: lombriz — *listor*: zángano — *mizto*:
agujón — *dasaiat*: diñoat — *toles*: pliegue — *taí gabe*: sin cesar.
UNAMUNO: *kirio*: nervio — *auzi-mauzi*: cuestión — *pot egin*:
fracasar — *zapuztu*: aborrecer — *ukan*: izan — *gardi*: opinión —
ista: burla. NOLA AGERTU ZAN: *aundi-maundi*: detalle(?) —
sotiltasun: discreción — *abelzuri*: ganado lanar — *igeskor*: hui-
dizo — *malkar*: terreno escabroso — *kakotu*: encorvar — *antxu-
me*: aume, cabrito — *koxka*: saliente, resalte — *ozen*: sonoro.

IZTEGITXOA

(Antolojia onetan sarri agertzen diran berba batzuen esangurea, batez be bizkaitarrak, ki-putzak eta nafarrak alkarregaz ondo ulertu-teko...)

abegi(abegor): txera, acogida
A(h)antzi: aaztu
abiatsu: abiau, ponerse a
adi: atento
adierazi(-zo): aitzten emon
adimen(-tu): entendimiento
adiñ: edad/entendimiento
adiña: aiña, tanto como...
aditz: verbo
agian: acaso, al parecer
agiri: ser patente/documento
agit: asko (anitz, aunitz)
agor(tu): seco (secarse)
aide: senide
aiñen(-iño): maldición
aipa(tu): aita(tu), mencionar
aita(tu): aipa (tu), mencionar
aitor(tu): autor(tu), confesar
aitu: agotarse/entender, tender
aitzin: aurre
aitzitik: al contrario
ajola: ardura/jaramon
alafede: a fe mía, en verdad
alegia: a saber

aloger(a): jornal
alor: sembradio
amai(tu): bukaera (bukatu)
amatau: itzali, iraungi
amor(e) eman: ceder
anitz (aunitz): asko, agitz
antolatu: eratu, disponer
antzeman: adivinar
antzo: antzera
apez(apaiz): abade
apuko: atxakia, pretexto
arabera: conforme a...
arakatu: aratu, registrar, investigar
arau: lege, norma
arazo: ocupación, problema (?)
arbaso: asaba, antepasado
ardura: ajola/sarri
are(-ago): más (aún)
arerio: etsai
ari(-tu) izan: jardun, estar haciendo algo
ariñeketa: aintxintxiketa
arrai: risueño, brillante

arras: guztiz, osoro
arreta: atención
arrotz: extraño
arta (artha): cuidado, diligencia
artega: urduri, nervioso, impaciente
arunt: común, ordinario
asaldatu: sublevarse, alborotar
aski: naiko
aspertu: gogait egin
atari: atarte, portal
atera: urten
atsegin: placer
atsotitz: refrán
atxi(-tu): coger
atzerrri: erbeste, país extraño
atzizki: sufijo
aukera(-tu): auta(-tu), elegir
aul: makal
aur: umetxu
aurren: leenengo
aurkeztu: presentar
aurki: laster/sin duda
ausardia: atrevimiento
auta(-tu): aukera(-tu)
auteman: observar
autu: aukera/conversación
auzi: cuestión, juicio
azalpen: explicación
azaldu: agertu, explicar
azkar: arin, bizkor
-AZO: -erazi, -erazo
azoka: mercado

babes: amparo
baga(bage): gabe, barik
baíta: también/barren, interior
baizen: bezain, bezin/lez, baiño
baizik(-an): baiño
bakan(-du): raro (enrarecer)
-BAKO: bagako, gabeko
baldar: torpe
bare: calmado/limaco

barre: parre
barreiatu: dispersar
barne: barren
batipat: principalmente
bazka: pasto
bear: lan/necesidad
beargai: zeregin, arazo
bederen: al menos
bederik: al menos
begitandu: iruditu
beha(-tu): mirando/mirar
bekaitz: envidia, ondamu
bela: bereala, inmediatamente
-BERA: propenso a
berariaz: a posta
berba: itz
berezi(-ki): berarizko/especialmente
bertze: beste
bezain: baizen, bezin, lez
bezala (bezela): lez
bikain: excelente
bildu: batu
bilduma: colección
billau: villano
bira: vuelta
bidao(birao): blasfemia
biurtu: itzuli
biztanle: habitante
borda: caserío, chabola
bukatu: amaitu
burutu: realizar, llevar a cabo
debekatu: galazo, prohibir
deus: ezer
destaiña: burla
diardu(-e): ari da (dira)
diñ(a): digno/tanto como... (= aiña)
doi-doi: ozta-ozta, a duras penas
doillar: ruín
donga(deunga): txar, gaizto
dongaro: txarto, gaizki

dontsu: zorioneko
duin: digno, capaz

ebatsi: ostu, robar
edatu: zabaldu
egotzi: bota, inculpar
EI: omen

eiza: caza
ekandu: oitura
elburu: jomuga, xede, meta
eltze: lapiko
emeki: bigun
enbor: tronco
enparau: lo demás
epe: plazo/paciencia
eperdi: ipurdi
erabat: osorik, de una vez
eragabe: descompuesto
eraman: eroan
erantsi: adherir
eraso: acometida, acometer
-ERAZO: -erazi (-azo)

eregau: mimar
eredu: modelo
eresi: canto
eretxi: iritxi
ergel: fatuo
eri: gaixo
ernai: erne, zuir
ero: zoro
eroan: eraman
erori: jausi
erpin: gaillur, vértice
erran: esan

errierta: reyerta
erro: sustrai
erruz: ugari
eseri: jesarri, jarri
esnatu: itzartu, iratzartu
estali: estaldu, cubrir
estalki: velo, cubierta
etsai: arerio
etsi: desesperar
euskalki: euskal dialektu

ezain: itxusi, motz
eze: húmedo
ezpai: duda
etzai: eztegu, boda
etzanda (egin): ler (egin), re-
ventar

gabe: бага, gabe
gai: gei, tema/apto...
gaizki: txarto
galde(-tu): itaun(-du)
galde(-ra): itaun
galtza: praka
garden: puro, transparente
garai: época, hora, ocasión/alto
garaitu: superar
garesti: karu
gastigatu: avisar
gertaera: jazoera, suceso
gertatu: jazo, gertau, suceder
gertu: prest, prestatu
giro: aro

gisa(-n,-ra): modu, era
gogait egin: aspertu
gogarte: meditación
goibel: illun, triste
gomuta: oroipen, oroitzapen, re-
cuerdo
gomutatatu: oroitu

ibar: vega
idetargi: iretargi, illargi
idaztankera: estilo literario
idoro: arkitu
iduki: euki
iduri: irudi
igan: igon
igari: uger
igitu: moverse
igorri: bialdu
iguin: asco
inarrosi: zarandear
irabiatu: irabial, revolver
iragan: igaro

iragarri: anunciar
iraindu: ofender
iratzartu: itzartu, esnatu
irauli: biurtu
iraun: durar
iritxi: jaritxi, lortu/eldu
iritzi: eritxi
irrika: anhelo
iskanbilla: alboroto
iseka: burla
istillu: lío
itaun(-du): galdera (galdetu)
itsatsi: adherirse
itun: triste
itz-lau: prosa
itzal: kerizpe/respeto
itzali: amatau
itzuli: biurtu/volvar, traducir
iztun: izlari
izetu (ixiotu): biztu
izu(-tu): espanto (espantar)

jabe: dueño
jagon: zaitu, zaindu
jalki: esan/desgranar/acceder
jaramon: caso
jarjetsi: replicar
 jardun: ocupación, charla
jaritxi: jadetxi, iritxi, lortu
jasan: soportar
jator: castizo
jauzi: salto, saltar
jazo: gertatu
jesarri: eseri
jomuga: elburu, xede, meta
jori: aberats, ugari
juzku: juicio

kemen: vigor
kezka(-tu): preocupación (pre-
ocuparse)
kide(-ko): coetáneo, colega
kimu: brote
kirats: ats, hedor / hediondo

kopet(a): bekoki
kondaira: historia
korta: o(u)kullu
kupida: erruki
kupitu: errukitu
kutsu: contagio / dejo

lako (lango):: bezelako
larri: estu / aundi
leen(da)bizi: leenengo
leia(-tu): afán (-arse)
lema: timón
lepo: sama
ler(-tu)egin: eztanda egin, re-
ventar
lerde: baba
lerro: línea
leze: abismo
likits: zikin
lillura: fascinación
lizun: sucio, lascivo
lor: tribulación
lortu: iritxi, jaritxi
lukainka: chorizo

mairu: moro
maitemindu: enamorarse
maiz: sarri(tan)
malda: cuesta
maltzur: astuto
maneatu: disponer
mardo: rollizo
madul: robusto
medar: estu, angosto
mendu: carácter
mii(mihí): miin, mingaiñ
mintzatu: itz (berba) egin
miretsi: admirar
moko: pico
moldatu: eratu
molde: era, modu
mota (mueta): clase
muin: tuétano
muker: esquivo

nabari(-tu): notorio (notar)
nabarmen(-du): distinguido
(distinguirse)
nahasi: naastatu
naigabe: pena
narru: larru
nazka(-tu): repugnancia (re-
pugnar)
noski (naski): sin duda/acaso/
probablemente
nunbait: sin duda/en alguna
parte
neurtitz: verso
nekezale: nekazari, labrador

oar(-tu): advertencia (advertir)
oben (ogen): culpa, pekatu
obi: sepultura
ogibide: oficio
oial: tela
oian: bosque
oiartzun: eco
oiñon: porfiar
oiu (oju): grito, llamada
okullu (ukullu): korta
ola: ferrería
olerkari: poeta
olerki: poesía
OMEN: ei / fama, honra
ondoren: gero / consecuencia
ongi: ondo
ontsa (untsa): ondo
onura: provecho
oiñaze: dolor
opa izan: ofrecer, desear
oparo: abundante(-mente)
oratu: agarrar
ordea: osteria
orma: pareda
oro: guzti
orobat: bardin
oroi(-tu): gomuta(-tu)
oroimen: recuerdo
ospe: fama, honor

osto (ostro): orri
ots: sonido / au da...
ots egin: dei egin
otu: ocurrirse
ozen: sonoro
ozta: nekez, doi, a duras penas

pareta: orma
patu: hado, suerte
pitin: apur
praka: galtza
premiña: premia, necesidad
prest: gertu
prestu: honrado, noble
puska: zati, apur

saiatu: alegindu
sail: talde / arlo
sakabanatu: esparcir
salatu: denunciar, acusar
sandia: mengano
sats: zimauro
sein: aurtxo (bularrekoa)
sendatu: osatu
sendi: familia
seta: terquedad
so: mirada / atento
soil: puro, simple
somatu: susmau, barruntar
sumin(-du) cólera (encoleri-
zarse)

taiu (taju): traza, estado
tentel: lelo, tonto
tori!: artu!
trakets: torpe
trebe: hábil
trinko: denso, maciso
txikar: txiki
txiro: pobre
txit: txito, muy

ukaldi: golpe
ule: ille

ulertu: comprender
unkigarri: impresionante
(h)ura (ua, uraxe, uaxe): a
(axe)
urbil(-du): urr(-eratu)
urde: txarri
urdu: artega, nervioso
uri: iri, población
urria: fulano
urri: escaso, pbbre
urrikal: erruki
uzkur: remolón
-XKA: -txu, -txo
xede: jomuga, elburu, objetivo

zaartzza: zaartzaroa
zabar: flojo, remolón
zabu(n): balanceo
zaindu: zaitu, jagon
zalaparta: zarata

zalhu (zailu): bizkor
zango (zanko): anka
zearo: zeatz, osoro
zelatan egon: espiar, estar al
acecho
zema: amenaza
zematu: amenazar
zentzatu: entrar en juicio
zeren (zerren): ze
zerrenda: franja, fila
zillar: zidar
zimauro: sats
zindo: sano
zintzillik: dingilizka
ziñez: benetan
zori: suerte, fortuna
...*zorian*: en trance de...
zozo: lelo, kokolo
zurrunga: ronquido
zu(h)ur: atento, prudente

AUTORE BAKOTXA NUN?

Agirre (Asteasu)	73	Jauregi, G.	267
Agirre, Domingo	179	“Kirikiño”	204
Añibarro	95	Lardizabal	131
Apaolaza	161	Larramendi	43
Arin (Ochoa)	31	“Larreko”	226
Arriandiaga	236	Lizarraga	81
Arrue, Gregorio	136	“Lizardi”	270
Astarloa	103	“Manezaundi”	213
“Axular”	32	Manzísidor	278
Azkue, R. M.	192	Mendiburu	57
Bartolome, Fray	112	Mikoleta	40
Basabe, Kandido	217	Mitxelena, S.	285
Beobide, K.	170	Mogel, Bizenta	123
Beriaín	28	Mogel, Juan Antonio ...	84
Bustintza, E.	204	Mogel, Juan Jose	127
Capanaga	30	Muxika, G.	239
Cardaberaz	51	Olabide	221
Eguzkitza	231	Olaetxea	65
Etxegarai, K.	201	“Orixe”	251
Etxeita	152	“Otxolua”	262
Garro	262	Soroa	174
Gerriko	69	Ubillos	62
Ibiñagabeitia	282	Uriarte	142
Iraola	148	Urruzuno	158
Irazusta	247	Zabala, A. M.	167
Irigarai	226	Zamarripa	243
Iturriaga	120		
Iztueta	107		